

E U S K E R A

Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



XVI
1971
BILBAO



8 D MAYO 1973

E U S K E R A



Euskaltzaindia'ren lan eta argiak
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: A. Luis Villasante

XVI
1971
BILBAO

Depósito Legal: BI - 1244 - 1972

Gráficas ELLACURIA. - Avda. del Generalísimo, 19 - ERANDIO-BILBAO - 14

Urre eztaiak - Bodas de oro

URRE EZTAIETAKO ZITUAK

Hori da EUSKERA-k zenbaki berezi hontan eskaini nahi diguna.

Euskaltzaindiak ezin utz zezaken muga hura zerbait gogoangarri egin gabe. Bere sorrera gogoratu, eta sorrera eman zioten gizon handiak goraiatu gabe, alegia.

Baina hori zerbait zelarik, ez zen aski.

Ez. Lehengo ereinotz kimuak aldarrikatzea ez da aski. Hortaz gainera, Euskaltzaindiak zerbait iraunkor, hizkuntzarentzat ondoriotsu eta onuratsu gerta diteken zerbait, egin nahi izan zuen.

Gainera, zorretan zen Euskaltzaindia gure herriarekin. Sortze egunean eskatu zitzaiona bete gabe zuen oraindik. Euskera idatziaren batasunerako bidea erakus zezala: hori eskatu zitzaion orduan. Eta berrogeitamar urtetako atzerapenaz bada ere, Euskaltzaindiak eskatu zitzaiona egin du, bere zorra kitatu du.

Hain zuzen, hortarakoxe antolatu zituen Arantzazun hiru egunetako jardunak, 1968.eko urriaren hasieran, euskeraren batasuna gai bakartzat harturik.

Euskera idatziaren batasuna ez da, noski, gure hizkuntzak dituen gaitz guztientzat panazea edo erremedio miraritsua, baina bai, besteak beste, bizi izateko behar dituen gauzetatik bat. Eta Arantzazuko jardunen ondorioz, Euskaltzaindiak agiri bat eman zuen batasun hortarako bidea erakutsiz eta arau batzuk emanez. Eta agiri honi buruz geroago dudak eta eztabaidak sortu zirelako, Euskal-

tzaindiak berriro, 1970.eko uztailaren bileran, baieztu eta finkatu egin zuen.

Berandu, sekula baino hobe. Euskaltzaindiak, sorrera egunean eskatu zitzaiona, noizbait bete du: bere urre eztaiak ospatzekoan.

Egia. Ez da oraindik erantzun osoa. Arantzazuko arauak besteaz, ez dugu oraindik euskera erabat batua izango, baina bai batu antzekoa, edo batasunera bidean abiatua.

Euskaltzaindiak bazekian puntu larria zela hau. Sesio bide eta liskar bide gerta zitekena, gainera. Baina ezin luza zezaken hauzia beti gerorako, bere eginbideari traizio egin gabe. Eta hauta ziteken formularik zentzuzkoena hautatu du. Ez du euskalki bat oinarri bezala hartu. Euskalki literario guztien nortasuna neurri batean errespetatu du. Zer egin du, orduan? Euskerak badu muin bat euskalki guztietan bizi dena eta denetan berdin dena. Guztiona den muin hori haintzat har, horretan oina finka: hori da egin duena. Arantzazuko arauak betetzen baldin badira, bada, gure euskalki literarioak ez dira (orain arte gertatu den bezala) elkarrengandik geroago eta aldenduago ibiliko. Aitzitik, hurbilduaz eta elkargana batuz joango dira.

Daueneko, arau hoiek betez gero, honako hiru eremu hauetan egiten da batasuna: 1) *Ortografian*. Hau bait da premiatsuena. Izan ere, Ortografia hizkuntza idatziaren jatzera dugu. Eta hitzek soineko berdin eta jakin batekin sartu behar dute begietan barrena: hau da hizkuntza idatziaren lehen legea. 2) *Deklinazioan*. Axola handiko eremu hontan ere Arantzazuko arauak batasuna eginga eman digute, euskalkien zenbait berezitasun errespetatuz. 3) *Hiztegian*. Hiztegi kontuan ere batasun handi batetara heltzeko bideak jarri dira.

Ez da erantzun osoa —esan dugu lehen ere—. Honelako obra handi bat ez da goizetik gauera burutzen. Baina planteamendua emana da, eta planteamendua ongi egiten asmatu denean, berez bezala datoz fruitu umoak, ondorioak.

Arantzazuko arau hauen argitan egin nahi du lan Euskaltzaindiak. Eta maisu, andereño, idazle eta denok languntzaile, lankide eta jarraitzaile dituelarik, obra handi honi buru eman nahi lioke.

Gure batasun bidea bi harroin edo pilare hauen gainean oinarriturik dago: Antzina Euskalerrri osokoa zena, eta gaur ere Euskal-

erri osoan edo gehienez edo zati dexente batean behintzat bizi dena, hori gorde, horri aurrea eman, horri eusten ahalegindu.

Beraz, antzinatasunean sustraiak bota. Hizkuntzak, berekasa utzirik, zatikatuz, barreiatuz, sakabanatuz doazela badakigu. Gure euskalkiak ere lehen hurbilago zeuden elkarrengandik, orain dauden baino. Beraz, antzinatasunari begiratzea dugu elkarganatzeke bide bat.

Baina antzinatasuna bera bakarrik ez da aski. Horregatik esan dugu: Antzina ororena zena, eta gaur ere ororena edo zati handi batena behintzat dena. Horra errebidea, horra antzinatasuna eta gaurkotasuna elkartuak.

Hau da Euskaltzaindiak hautatu duen bidea. Bide horren etsaiak, berriz, txokokeriak, probintzikeriak, tradizio gabeko berrikeriak.

Printzipio handi hauen argitan lan egiten segitzen badugu, oztopo handi gabe hel gindezke xedera. Bidea urraturik dago.

* * *

Euskaltzaindiaren urrezko eztaietaz *EUSKERA*-k orain baino lehen ere agertu ditu lanak.

1967.eko zenbakian D.Manuel Lekuona euskaltzainburuaren hitzaldia agertu zuen: «Euskaltzaindiaren Gizaldi Erdi betetzea» (*EUSKERA* XII (1967), 315). 1968-ekoan, berriz, Arantzazuko jardunen hitzaldiak, elkar hizketak, agiria eta abar agertu ziren (*EUSKERA* XIII (1968), 137-250); eta bai jardun beroien ondoren egin zen «Batasunerako Hiztegia» ere (*EUSKERA* XIII (1968), 251-265). Aita Intza-r Damasok Euskaltzaindi sortuberri eta euskaltzain zaharrei buruzko oroigarriak agertu zizkigun (*EUSKERA* XIII (1968), 271-273). Baita Idazkari Nagusiak prensarako, propaganda bezala, egin zuen lana ere agertu zen: Juan San Martín, «Bodas de Oro de la Academia de la Lengua Vasca» (*EUSKERA* XIII (1968), 293-299): Euskaltzaindiaren sorreraz eta Euskaltzainburu izandako jaunbez berri ugariak ematen dira bertan. Hurrengo bi urteetako tomuak ezer agertzeko ez zen erarik izan, Etxahunen lanek betetzen bait dute tomo hau. Baina tomo hau berau ere —700 orrialdetako tomo ederra, euskaldun koblakaririk famatuenaren lan guztiekin

Haritschelhar euskaltzainburu ordeak konposatua— urre eztaiak ospatzeko «extra» edo ohi-ez-bezalakotzat atera nahi izan zuen Euskaltzaindiak.

Oraingo zenbakian, bada, urte hartan zehar egindako lan, jaialdi eta bilera guztien berri ematen da. Eta bilera hoietan irakurritako hitzaldiak argitaratzen dira. Hitzaldi hoietatik gehienek lehen-orduko euskaltzain batzuk edo ta joan mendetako euskal idazle batzuk gorapatzeko eginak direla, esan beharrik ez dago.

Beraz, hau izango da zenbaki honen mamia: 1) Urre eztaietako kronika. 2) Euskaltzaindia sortu zeneko lehen batzar-agiria. 3) Euskaltzaindiak Iruine, Baiona, Gasteiz, Bilbao eta Donostian egin zituen bileretako hitzaldiak. 4) Ramón Menéndez Pidal jaunak egin zigun eskutitza. 5) Arantzazuko jardunen ondoko Agiria. 6) Hila-beteen izenei buruz Euskaltzaindiak jaso zituen txostenen eta eman zuen erabakiaren berriak. 7) «Educación y Ciencia» delako Ministru jaunari bilinguismoaren alde Euskaltzainburu jaunak egin zion eskutitza. 8) Euskaltzaindiaren Agiriak. 9) Euskaltzaindiak 1968-1969 urteetan hartu dituen euskal liburuen berriak. 10) Euskaltzaindiko jaunen lista edo zerrenda. (Bai gerra aurreko eta bai gerra ondoko Euskaltzaindiaz zer ikusi izan duten jaun guztien izentegia osatu dugu, alegia). 11) Eta azkenik, Euskaltzaindiaren kon-dairarako balio lezaketen zenbait argazki eta apaingarri ere atxiki nahi izan dugu, oroigarri bezala gelditi ditzeten.

* * *

Gure asmoa da, gainera, *EUSKERA* hau maizago ager araztea, eta gure hizkuntzarekiko lanetan dabilTZanentzat tresna baliotsuago bihurtzea. Ahal baldin balitz, hiru hilabetetik hiru hilabetera kalera irten behar luke, eta gehiago zabaldu gure hizkuntzaz arduratzen direnen artean. Euskaltzaindiaren lan, erabaki eta albistez ongi hornitua atera nahi genduke beti. Batez ere gure batzarretan irakurtzen diren txosten eta ikerpen lanek hemen izango dute argitaratzeko bidea (ez denak, noski, baina bai redakzio-konseiluaren iritziz onenak edo egokienak diruditenak). Hortaz gainera, euskalari jakintsuen ikerpen lanak, monografiak, behinolako testuen edizioak eta abar, orain arte bezala, ahal den neurrian argitaratuz joanen gera.

Gaurkoz, irakurle, bikoakizu, zenbaki hau, Euskaltzaindiaren urrezko eztaiei gehienbat eskainia.

Asmatuko al du Euskaltzaindiak agerkari hau bere asmo eta ametsen neurriko bihurtzen!

Luis Villasante
Euskaltzainburua

URRE EZTAIEN KRONIKA

Euskaltzaindiak, bere sorreraren urre-eztaietara heltzean, beharrezkoa zuen oroitzapenez zerbait bereizgarri antolatzea, eta hala egin zuen.

Elkargoaren kondaira labur bat idatzi zan, zenbait periodistaren berri eskeari erantzunez egin zena; arrazoi honegatik egin zen erderaz eta *Bodas de oro de la Academia de la Lengua Vasca* izenez zenbait aldizkari eta egunkaritaraz zabaldu, era berean gure *EUSKERA*-n ere. (1).

Iruñean, 1967-ko abenduan Manezaundi zenaren ohorez egin zen bilera hartan eskatu zen 1968-ko lehen bilera urre-eztai planifikazioari buruz egitea. (2). Orduandik, 1968-1969-ko agirietan ikusiko dugun bezala, hasi ziren autolakizunak.

1968-ko urtarrilean Bilbon egin zen bilera, M. Lekuona euskaltzainburuak hitzaldi labur batekin iriki zuen (3), eta bilera hone tan Oñatiko Unibersidadean azaroan Biltzar nagusi batzuk egitea

(1) EUSKERA, XIII (1968), 293-99 orr.

(2) EUSKERA, XIII (1968), 350 orr.

(3) Hitzalditxo hau EUSKERA, XII (1967), 315-17 orrialdeetan argitaratu zen.

erabaki zen, eta bertarako gai bakarra aukeratu zen: Euskera idatzia-
ren batasuna. Otsailaren 23-an Donostian egin zen batzarrean ontzat
hartua izan zen gai hau erabiltzea urre-eztaietako Biltzar nagusian.

Denen iritzia zen gure euskara idatziaren batasuna behar-beha-
rezkoa dugula hizkuntza biziko bada. Batasuna, Mitxelenak bere
txostenaren sarreran zion bezala, guztiok amore eman ez egin behar
den gauza da.

Gainera, Euskaltzaindiak bere sorkundetik du bere eginkizu-
netako bat, euskeraren batasuna, eta 1920-an egin zuen bere arau-
diaren 6-garren artikulua lehenean, hau dio: «a) ekingo du
euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-
-joskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-
-irakurketan erabiltzeko.» (Azken araudian, 1954-ko abuztuaren
24-an onhartu zen araudian, 5-gn. artikulura pasatuta aurkituko
dugu, ideia ber-bera). Beraz, aski beharturik Euskaltzaindiak aspal-
diko urteetan utzia zuen gai hau berriz ikutu eta aztertu du. (4).

Bertarako txostenak gertatzeko batzorde bat izendatzen da: M.
Lekuona, P. Lafitte, P. Larzabal, L. Akesolo, L. Basterretxea eta
X. Garmendia jaunak, gutxienez euskalki bi ezagutzen dituztenen
arteak. Gero, apirileko bileran, aurreko agiria onhartu ondorean,
L. Mitxelena izendatu zen batzorde honen buru, eta J. San Martin
idazkari.

Batzordeak bere batzarrak eginez eta lanak gertatuala kontu
eman ez joan ziren ondoko bileretan, 1968 eta 1969-ko agiritan
ikusiko dugunez.

1919-tik Euskaltzaindiko laguntzaile direnak ohorezko izenda-
tzea erabaki zen, eta numeruko edo ohorezko lehendik zirenei ome-
nezko zerbait eskaini. Hauen arteko genituen: M. Lekuona, I. Ló-
pez-Mendizabal, R. Menéndez Pidal, O. de Apraiz, J. G. Ibargutxi
eta G. Manterola jaunak. Eta, hauetarik, Menéndez Pidal jauna be-

(4) EUSKERA-ren lehenean aleetan agertzen denez. Ikusi, batasunari buruzko
bibliografia, XIII-gn. tomoan, i146-48 orrialdeetan.

rehalaxe ohorezko izendatzea erabaki zen, besteak Oñatiko Biltzar nagusietarako utziaz. Hala egin zen. Ondoko orrietan argitaratzen dugu eskertuaz egin zigun gutuna.

Euskara idatziaren batasunari buruz, Euskaltzaindiaren asmoen lagungarri, Durangoko «Gerediaga» Elkarteak euskal idazleen biltzarra eratu zuen Ermuan, Ekainaren 28, 29 eta 30-erako, idazleen iritziak aztertzeko. Bilera hartako gaiak eta elkar-hizketak *Jakin* aldizkarian argitaratuak dira (5).

Urre-eztaien antolamendurako, beste batzorde eragile bat ere izendatu zen, agirietatik ikusiko dugunez, baina urteok politikaz oso nahasturik izan ziren, euskarak oztopu eta debekurik aski zuelarik, eta gure asmoetatik gehienak hor gelditu ziren bete gabe. Honela, maiatzeko bileran erabaki bezala, irailaren 26, 27, 28 eta 29-an Oñatin Biltzar nagusiak egitea, ezinezkoa bihurtu zen, Euskaltzaindiaren zoritxarrerako.

Abuztuko bileran, Gipuzkoako egoera ikusirik, ezezpiz-legea bide, Euskara idatziari buruzko biltzarrak jaietatik banantzea erabaki zen, jaiak geroagorako utziaz, eta biltzarrak urrian Arantzazum egitea.

Arantzazuko bilera horietara idazle, maixu eta andereñoek ere dei egitea erabaki zen, eta hala bete zen. Era berean, joan nahi zuten euskaltzale guztiei eman zitzaizen sarrera eskubidea, eta hitzaren eskubidea ere bai. Horrela bete ziren urriko hiru egunetan biltzarrak Arantzazun, M. Lekuona euskaltzainburu jauna bezala biltzarren buru zelarik. Eta, han bertan J. M. Satrustegi euskaltzaina izendatu zen moderadore. Txostenlariak hauek izan ziren: Manuel Lekuona, *Euskeraren batasuna*; S. Garmendia, *Deklinabideak*; A. Zatarain, *Euskerazko itz berriak*; L. Villasante, *Antziñako euskal hitzen formaz*; L. Mitxelena, *Ortografia* (eta ortografiatik aparte, zenbait iritzi orokor: batasun oinharriak, hitzen formaz, hitz berriak, morfologia eta joskerari buruz). Txosten edo ponentzia hauek aldeztu aurretik multikopiaz zabaltu ziren. Biltzarren berri zehatzak, txostenok tartean direla, ikusi «Arantzazuko Biltzarrak» izenez EUS-

(5) JAKIN, 31-32 zenbakia (Maiatza-Urria, 1968).

KERA-n (6). Eta biltzarren ondorean jaso zen agiria (7) irakurri daiteke, batzar haien konklusio bezala. Zenbaki honetan berriz argitaratzen dugu, guztien jakingarri, 1970-ean uztaileko batzarrean berriz onhartu zenez.

Honela egin zen, Oñatin urre-eztai jairik behar bada ezingo zela ospatu usterik.

Oñatin egiteko ziren jaialdiak utzi behar izan zirenez gero (aldezturik susmatu bezala), urteko azken bilera Nafarroan egiteko zen eta harako utzi ziren zenbait eginkizun berezi. Abanduaren 4-ean Nafarroako Foru Diputazionean bildurik, hara deituak ziren zenbait instituzioren artean *Real Academia de la Lengua*, *Institut d'Estudis Catalans*, Barcelona-ko Omnium Cultural, *Real Academia Gallega*, Valenciako *Lo Rat Penat* eta *Obra Cultural Balear*. Era berean Euskal Herriko beste zenbait elkarte. Biltzar ondorean ohorezko izendapenak egin ziren, arestian aipatu diran 1919-tik urgazle izendaturik zirenei, eta ohorezko euskaldun makila bana eman zitzaient bi euskaltzain numerukori eta lehendik ohorezkoa zen bati. Euskaltzaindiaren lehen urteetako berri gogoangarriak (8) eta I. López-Mendizabal-ek euskaltzale eta euskalari arrotzak gogoaraziaz. Eta Rikardo Arregik gazteen izenean bihozki erantzun zien. Arratsaldean katalan, valenciar eta gailegoekin bilera berezi bat egin zen, premiazko gauzetan elkar lotuko gaituen laguntza erakunde bat sortzeko: Herri Hizkuntzen Idazkaritza, Frederic Roda jauna buru dela, eta *Symposium de Linguas Hispánicas* antolatzeke lehen erabakiak hartu ziren.

1969-ko urtarilaren 12-an Baionako Euskal Museoa egin zen bilera irikia. Bertako auzaphez eta Eskualtzale Biltzarraren burua bertan ziren eta agurrezko hitzak eskaini ziguten. Dassance jauna mintzatu ben Euskaltzaindiaren oroitzapenez.

1969-ko otsailaren 23-an Gasteizko bilera. Arabako Museoa. Arabako Foru Diputazionearen Consejo de Cultura-ko buruak eta *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-eko ordezkaritza-

(6) EUSKERA, XIII (1968), 137-265 orr.

(7) EUSKERA, XIII (1968), 230 orr.

(8) Ikusi hitzalditxo hau EUSKERA-n, XIII (196?), 271-73 orr.

ko zuzendariak bertan zirelarik. Biltzar irikian, euskaltzainburuaren agurraren ondorean G. Arestiren hitzaldi laburra Pedro Barrutia eta bere antzerkiari buruz, eta ondorean L. Akesolo-rena Jose Paulo Ulibarri eta honen lanari buruz.

1969-ko uztailaren 10-ean Bizkaiko Diputazioan biltzarra. Aldez aurretik Diputazioko presidentea agurtu zen, eta Comisión de Cultura-ko buruak batzartuei agurrezko hitz batzuk eskaini zizkien. Ondorean, euskaltzainburuaren hitzaldi labur bat, eta Juan Ramón Urkijo mintzatu zen bere osaba Julio eta honen lanei buruz, Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat bezala eta Riev-en zuzendaritzan euskal kulturaren alde egin zuen lana agerrerez; eta era berean E. Erkiagak Azkue eta Euskaltzaindiaren sorrerari buruz. Sociedad Bilbainan bazkaltzen geundela heldu zitzaigun berri beltza; bilerara etorrela bidean ezbeharrez hil zela Rikardo Arregi lankidea. (G. B.).

1969-ko irailaren 21-ean Donostiako Diputazioan egin zen urre-eztaietako azken batzarra. Hileroko biltzarrari jarraitu dio biltzar irikiak, Gipuzkoa eta Donostiako agintariak buru direlarik. Euskaltzainburu eta zenbait agintariren agur hitzen ondotik idazkariak Euskaltzaindiaren sorrerako lehen bileran jaso zen agiria irakurri zuen (kronika honen ondoreko orrietan berriz argitaratzen dugu), ondorean literatura sariak banandu, eta azkenean beste hitzaldi labur hauek: L. Mitxelena, Luis de Eleizalde-ri buruz; A. Zugastik, Erramon Intzagarai-ri buruz; L. Villasantek, S. Altube-ri buruz eta J. Artek, Karmelo Etxagarai-ri buruz.

Honela bukatu ziren urre-eztaiak. Baina urtearen buruan, betiko eginkizunetatik aparte, beste zenbait antolamendu bereizi egin ziren. Hauen artean:

Educación y Ciencia-ko Ministro jaunari, *Libro Blanco* dela-koari adierazpenak eginez, gutuna egin zitzaion 1969-ko apirilean.

Euskaltzaindiaren ordezkaritzak idiki ziren, lehendik Donostian egoanaz gain, Gasteizen eta Baionan. Eta, Euskaltzaindiaren Bilboko etxea berritu.

Estudianteen udarako euskara ikastaroak bere babespean hartu: neke askoren ondotik ahal bezala egin diren ikastaroak.

Euskaldunen alfabetatze kanpainak ugaritu.

Donostiako Unibersidadeko lege-ikasgoaren zuzendariei euskerazko irakaskintza jartzearen alde egin eta hortarako behar diren araberetarako laguntza eskaini.

«Gerediaga» Elkartek 1968-ko azaroaren 1, 2 eta 3-an antolatatu zuen euskal liburu eta diskoen feria bere babespean hartu.

Lan argitaratze bereziak bideratu eta bultzatu: Azkue-ren *Cancionero popular vasco* berriz argitaratzeko eraskinak gertatu; *Morfología Vasca* eta *Diccionario Vasco-Español-Francés* (tartean jabetasunezko hauziak izan baziren ere, berriz argitaratzeko antolamenak egin); *Aintziñako ipuiñak* izenez, haurrentzako irakurgai bezala, Euskalerrriaren Yakintza-tik hautatutako ipuin bilduma argitaratu; eta aspalditik agortua zen lan honen hirugarren tomoa argitaratu. EUSKERA zenbaki bereziak, XIII-garrena (1968) «Arantzazuko Biltzarrrak», Gaur-en informeko *El vascuence en los actuales niños de Guipúzcoa*, eta gainerako zenbait berri; XIV-XV-garrena (1969-1970) *L'oeuvre poétique de Pierre Tapet-Elchahun* estudio bereziari eskainiz. Hoiez gainera, «Irakur sail»-i *Euskera Batasuna* izenez EUSKERA-tik aparteko edizio bat egiten utzi (9), eta F. Mendizabal-i *Euskaldunentzat gramatika euskeraz* liburuarentzat bere babesia eman.

Literatura sariketetan, urteroko «Lizardi» izeneko poesia saria hutsean gelditu zen, inor presentatzeke. «Xenpelar» izeneko bertso-paper sariak, 1968-koa Manuel Matxainek eramane zuen eta 1969-koa Kalonjek. 1968-ko «Txomin Agirre» nobela saria, urre-eztaiegatik 20.000 pezetakoa jarri zen, Bizkaiko Aurrezki Kutxarenari Euskaltzaindiak bere aldetik beste hamar mila gehitu ondorean, eta J. L. Alvarez Enparantxa-ri eman zitzaion bere *Elsa Scheelen* izeneko nobelagatik. 1969-ko «Toribio Altzaga» antzerki sariketa, arrazoi beragatik gehitua izan zen, baina bi sari jarriaz, beti bezala antzerki libreaz aparte haurrentzako antzerki sariketa batekin; maila librean A. Zubikarai eman zuen *Mendu-zabarrak* izeneko antzerkiakin eta haurrentzakoa biren artean berdindurik gelditu zen, Maria Lur-

(9) *Euskera Batasuna*, «Irakur sail»-ek gaiaren zabalkunderako argitaratu zuen bezala, gai bera, charrez, euskara ongi konprenitzen ez dutenen artean ere zabaltu dadin, Villasantek argitaratu du *Hacia la Lengua Literaria común*. Aránzazu - Oñate, 1970.

des Iriondoren *Martin Arotza* eta Estanislao Urruxolaren *Iñakitxoren altxorra*. Horiez gainera, beste sariketa berezi bat ere jarri zen Caja Laboral Popular-ek eskainitako 20.000 pezetakoa, *Kooperatibismoa eta arrantzalearen eragintza* gaiez eta Antonio Pérez Bilbaok irabazi zuena.

Gora behera guztiak, xehetasunez, ondoko agirietan aurkitzen dira.

Idazkariak

ACTA DE LA PRIMERA SESION DE LA ACADEMIA

Para cumplimentar el acuerdo tomado en el Primer Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate (1918), para la creación de la Academia de la Lengua Vasca, dentro del plazo señalado por la Asamblea, se redactaron las bases para someterlas a las Diputaciones vascas. Las mismas fueron aprobadas, por la de Guipúzcoa el 11 de abril de 1919, por la de Alava el 2 de setiembre de 1919, por la de Navarra el 3 de setiembre de 1919 y por la de Vizcaya el 5 de octubre de 1919. Y las cuatro Diputaciones ordenaron a la Sociedad de Estudios Vascos para que cursaran convocatoria de reunión a las personas nombradas al efecto en el Congreso de Oñate, señores Azkue, Campión, Eleizalde y Urquijo, y a los representantes de diversas entidades culturales del país y a los directores de publicaciones euskéricas, según consta en EUSKERA, I (1920), n.º 1, páginas 46/48, y en Riev que se refiere en la misma cita.

En aquella reunión constitucional se levantó la presente acta:

A las tres de la tarde del día 21 de setiembre de 1919, se reunieron en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, previa citación hecha por la «Sociedad de Estudios Vascos», las personas á quienes, según el «Capítulo adicional» del proyecto elaborado por la ponencia que se designó en el Congreso de Oñate para organizar la Academia de la Lengua Vasca, correspondía la elección de los Académicos numerarios que habían de componerla. Asistían en tal

concepto los señores don Resurrección María de Azkue, don Arturo Campión, don Luis de Eleizalde y don Julio de Urquijo, nombrados ya Académicos en el documento mencionado; y entre los compromisarios que, conjuntamente con aquellos, habían de hacer la elección de los restantes, los señores don Carmelo Echegaray en representación de la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, doctor Pierre Broussain del «Eskualduna» de Bayona, don Domingo de Aguirre de «Euskal-Esnealea», R. P. Fray Dámaso de Inza de «Irugarrenko Prantziskotarra», don Cirilo de Arzubiaga de «Jaungoiko-Zale» y de «Jesusen Biotzaren Deya», cuyos dos votos estaba autorizado á emitir, don Toribio Alzaga de «Euskal-Erria» y don Gregorio Mujica de «Euskalerriaren alde». A petición de los reunidos actuaron de Presidente don Julián Elorza y de Secretario don Angel de Apraiz, que desempeñan los mismos cargos en la Sociedad de Estudios Vascos, suscribiendo por tal motivo la presente acta.

Después de un saludo del Presidente señor Elorza en idioma vasco, lo mismo que las deliberaciones y votación que siguieron después, dio lectura el Secretario al referido proyecto de Estatutos con las adiciones aceptadas por la Ponencia antedicha. Fueron también leídos los acuerdos de la Sociedad de Estudios Vascos en la reunión de su Junta Permanente de 3 de marzo último, relativos á la misma Academia y la comunicación que en su consecuencia dirigió á las Diputaciones Vascas, recabando la aprobación de tal proyecto y las respuestas favorables que se habían logrado de las cuatro Diputaciones.

Hubo amplia deliberación para proceder á la votación de las personas que habían de ser designadas para ocupar las ocho vacantes de Académicos numerarios; y por unanimidad resultaron elegidos los señores don Domingo de Aguirre, M. Pierre Broussain, M. l'abbé Adema, don Ramón Inzagaray, don José de Aguerre, don Juan Bautista de Eguzquiza y R. P. Raimundo de Olabide, suscitándose luego discusión acerca de si el único punto que quedaba vacante lo había de ocupar un suletino ó un vizcaíno. Y al ver la opinión de la mayoría de los reunidos, pues únicamente apoyó la segunda con su voto el señor Eleizalde, quien adujo en favor de la misma la razón del escaso cultivo literario que hoy alcanza el dialecto hablado en la región de Zuberoa, se trató de designar la per-

sona de ésta que había de elegirse, acordándose por unanimidad también que lo fuera el R. P. Pierre Lhande.

Se cambiaron impresiones acerca de los lugares de residencia de la Academia y para la celebración de sus sesiones; lo cual del mismo modo que la periodicidad de éstas y otros particulares, decidieron los reunidos queden para la resolución de la Academia una vez constituida con sus doce miembros numerarios, á quienes se acordó que don Arturo Campión y los firmantes de esta acta notificasen su nombramiento, convocándoles para la próxima reunión, que se celebrará el día 5 de Octubre, á las diez de la mañana, en el mismo local de la Diputación de Guipúzcoa.

San Sebastián 5 de octubre de 1919

El Presidente de la Sociedad de
Estudios Vascos y de la reunión
JULIAN ELORZA

El Secretario de las mismas
ANGEL DE APRAIZ

EUSKALTZAINDIAK HIRIBURUETAN EGIN ZITUEN BILERETAKO HITZALDIAK

Iruñean, 1968-XII-4an

EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Agurra

Euskaltzaindia'ren 50'gn. urte ontan, orain 50 urte, beraren sortze-inguruan, gure Euskeraren landan lanean ziardutenai, omen-alditxo bat eskeintzea erabakirik gendukan aspalditik.

Gaur degu ortarako eguna: eta egin ere, Iruñe'n, Nafarroa'ren Uri Buruan egin nai degu.

Ba dakigu, Nafarroa'ren Uri Buru onek, beti bezela, pozik artu duala, Euskaltzaindiaren asmo ori emen betetzea.

Eskerrak zor dizkiogu, beraz, Nafarroa'ko Diputazio Foralari eta gañerako laguntzalleai.

Ez nijoakizute, gaur omen-aldi egiten diegun guztien izenak aipatzera: emen dauzkatzute batzuek, kaskuak xuriturik, naikoa xaharturik — neroni lenengo naizela — bañan biotza bixkor, gaurko gazteai etsenplu-on eman nahiz: etsenplu on, xaharren urratsai jarrai dezaieten; jarraitu pozik, jarraitu eten-gabe, jarraitu iraunkor...

Aien artean Bizkai'tik etorri zaizkigu bi apaiz — Ibargutxi ta Manterola Jaunak — Jaungoiko-Zale, Eliz-Aldizkariaren sortzalle izanak; eta gero Ekin'en — kalean oiukatzeke izparringiaren — sortzalle izanak... A! bejondaiela, olako gizon azkar eta euskaltzale prestuari!

Orain, Bizkai'ko Ekin izenak beste izen maite bat dakarkigu gogora guri, gipuzkoarroi: Zatarain'dar Ambrosio Jaun zanak erregali egin zigun Argia'ren izen maitea... Emen bertan, gure artean bait-dago, euskal-izparringiaren, Argia'ren, Zuzendari gerraurrean izandako, D. Anizeto Zugasti Jauna. Txalo bat berari ere!

Eta zer esan, ain xuxen Argia'ren orrietan azaltzen ziran izenpe zeinbaitez? Nafarroa'tik ain txintxoki asteoro azaltzen zitzaigun «Larreko» baten izenpea, adibidez? Larreko, eskribitzalle ondo-neurtu, argi, ez ain oparo, bañan bai beti txukun, Baztan-aldeko bere euskera goxoa, lumaren ortzetik ezta bezain goxo zeriona? Gure adiskide Angel Irigarai Jaunaren aita izanik, beste gauza etsenplugarri bat ere bai bait zuan Larreko ark, gaur-dan-eguneko zenbait gurasoentzako ikasgarri: uri aundian bizi izan arren — Iruñe'n, dakizuten bezela — bere umeai Euskerarentzat atxikiak izaten gotorki erakutsi izana...

Manez Aundi'ri bezela, noiz opa bear diogu beste omen-aldi hero bat Larreko'ri?

Nafarroa'z mintza geran ezkeror, azken-alderako beste izen bat gorde nai izan dizuet: aiton bizardun baten izena, gaur omen-aldi meiezi-merezia opa diozutena bera: Aita Damaso Intza.

A. Damaso Intza'ren izena, beste euskerazko Aldizkari bati atxikirik bait dago: Zeruko Argia'ri, alegia. *Zeruko Argia*, izenak berak dion bezela, zeruko errañu alai antzo, makiña bat, Nafarroa'ko ta Gipuzkoa'ko, eta baita Bizkai'ko baserrietan sartzen zan Aldizkari txukun eta bipilla... Zeruko Argia: gerraurrean zeregin ori bete ondoren, gaur *periodiku orri-zabal*, Asteroko ongijantzi ta

apain agertzen zaiguna. Gaur oraindik bere koka-leku ofizial Nafarroa'n, emen Iruñe'n bait-dauka. Bañan batez ere, auxe da iñoiz ahaztu bear ez deguna: Zeruko Argia'ren sortzalletan, an izan zala, bere gazte-urteetan adoretzu ta langille, gure A. Damaso Intza. Eta arekin batean baita, orain Erroma'n AA. Kaputxinoen Ordenako zeregin aundietan sarturik dagon A. Iraizoz bat, «Jesus'en Bizitza» bikain baten egille argi-argia.

Bañan, gaur emen omen-aldi egin bearrekoetan Euskaltzaindiaren lenengo egunetako langille bezela, ba'degu beste izen bat ere, ez nafar, ez bizkai, ez giputz, arabar baizik dana: D. Odon de Apraiz, bere «*euskaltzale intelectual*» abizen «*Apraiz*» beti ere pozik aitoritu izan duana. Bere anai D. Angel'ek eratutako Oñati'ko jai-ondoren Gazteitz'en eta ibilli dan urrutiko baztarretan, euskal-alorrean langille zintzo beti izan dan Odon de Apraiz Jauna: buru zuritua bera ere, bañan gogoz beti buru euskaltzale «*intelectual*» jator azaldu zaiguna. Berari ere omen-aldi zor zitzaion, eta alaxe egiten zaio Euskaltzaindiaren aldetik.

Eta ez nua geiago jerraitzera, bañan bai auxe aizkenik esatera: asko zor diegula, eta zor *ori aitortzea* dagokigula, «aurrelari» *precursor* diran aiei, aien ondotik etorri geran guztiok.

Beste izen bat geiago oraindik euskal-kulturaren alorrean bein ere aztuko ez dana: Ixaak Lopez Mendizabal. «*Ixaka*» *neka-eziña* —Nork ikusi du iñoiz gure Ixaka, eskuak tolestuta geldirik?— idazle ta argitaltzalle; eta beti Euskeraren alde lanean. Urrutietako *periplo* luze ta onurakor baten ondoren, gaur berriz ere, bere Tolo-sa'ko txoko maitean daukagu: urte askotarako!

Txostena

Arantzazu'ko gure Batzarraren azken-aldean A. Bazterrika'k itz auek esan zituan gutxi-gora-behera: «Izkuntzaren batasunari buruz ari izan geran ezkerro, zergatik ez degu erabaki bear orain, Lau Gotzai Jaunai eskatzea, Liturgian ere batasuna lortu dedin, izen-datu ditzatela lau Obispaduetatik lau kargudun, Liturgi-itzulpenak danok alkarturik egin ditzaten? Erroma'k ere batasuna nai duala-ta?». Gutxi-gora-behera, oiek izan ziran A. Bazterrika'ren itzak.

Batzarrean zegon norbaitek, itz oietatik bide-arturik, Gotzaien bizkarretik far pixka bat eragiñazi nai izan zigun. Nolanai-dala beste norbaitek, ni, zuen Lendakari, au, or nagola, esan zuan, liturgi-itzultzalleen artean, eta nik gauza ori zuzendu nezakeala. Ortara nator. Bañan lendabizi zuei aditzera ematera, zer ta zer dagon Liturgi-batasunaren arazo onetan: zer dagon egiñik batez ere, bear bada, guztiok, ez bait dakizute.

Lenengo — eta A. Bazterrika'k au ba zekian — zer egin duten Gotzaiak, gai oni buruz.

Emen-aldeko iru Gotzaiak — Iruñe'ko, Bizkai'ko ta Donostiakoak — Iruñe ontan batzartu ziran batean, gauza ontaz jardun, eta au erabaki zuten: Donostia'ko Liturgi-Itzultzalleak egindako lana ontzat artzen zutela, iru Obispaduetan erabiltzeko. Iruretan bat-bera, alegia. Eta komeni zan ori jakitea. Gotzai Jaunen izen ona iñoren parragarri geldi etzedin.

Bigarren; geroztik ba dakizute. A. Bazterrika'k eskatzen dituan, lau Obispadutako kargudunak-edo, elkarrekin alkarturik, amar edo amabi batzar izanak dirala, aurtengo urte ontan bertan, Donostia'n Mezerdiko lau Kanon'ak — bata zaharra ta iru berriak eta zortzi *Prefatio* berri, danok alkarrekin lan-egiñaz berdin euskeraltzeko. Eta, bai Bizkaya'n, bai Bayona'n, bai Donostia'n lan batu aiek argitaldurik daudela *liburu apain-apañetan*.

Irugarren, Erroma'ren naia batasunari buruz A. Bazterrika'k aipatu duan ezkerok, nik auxe esan bear dizutet: Erroma'k beti ere arriturik ikusi izan duala, euskaldunok ain erri txikia izan arren, ala ere, iru itzulpen izatea Liturgian. Erroma'n, nunbait, uste zuten, kapritxo bat zala, guk itzulpen bat baño geiago izatea; etzala, alegia, Euskerak berak bere barrunbean alako alde ta bestelakotasunik daukalako kapritxoz baizik. Bañan, zana-zala, ikusten danez, aizkenik batasuna nola ta noraño egin bear dan erabakitzea Gotzaien esku utzi zan Erroma'tik; eta Gotzai Jaunak, ortarako eman zitzairen eskubidez, ola erabaki zuten: Gipuzkoa'ko itzulpena erabilli zedilla iru Obispaduetan: irurak bat.

Laugarren; Erroma'ren ariari jarraituaz, eta batasunaren norañoa Erroma'ren neurritz mugatuaz, auxe det esan bearrik: Iruñe'n, Liturgi-Musikari buruzko aste-beteko Batzar Orokarra izan zanean, Erroma'ko Delegado Mons. Bugnini, Liturgi-gaietako Sekretario

Generalarekin egon giñala; eta, ark esan zigunez, Irakurgaietan (Epistola ta Ebanjelioetan) Bayona'k, Bizkaia'k eta Gipuzkoa'k erabilli dezaketela bakoitzak bere itzulpena; Irakurgaietan ez dagola batasun-bearrik; bakoitzak bere itzulpena izatea ere konbeni zala; Irakurgaiak erriari erakusteko bait dira, eta erakutsiak erriari argi-argi eman bear zaizkio, errikoi-errikoi; eta gure artean errialde bakoitzak bere izkelgi errikoi berezia du. Beraz, *Erroma'ren naia ta gogoa gai ontan argi dago*: batasuna, Irakurgaietan ez bestetan; Irakurgaietan, ez.

Boskarrena; Irakurgaietaz-beste oietan bearren-bearrena, Mezerdiko Kanona zan; ango ta emengo Apaizak elkarrekin Meza *con-celebratua* eman-bearretarako: Arantzazu'n egin genduan bezela. Eta Kanonaren batasun ori esan dedan bezela egiña dago: guztion artean lau Obispadutakoak Donostia'n egiña, eta egiña itzez-itx, itz bakar batzuek ez beste, guztiontzat *dana berdin*.

Beste bearren-bearrenekoa, Mezaren Egunerokoa zan — *Confiteor, Gloria, Credo, Sanctus, Benedictus* eta *Agnus* —; bañan asiera-asieran lasterkatxo ibilli giñalako — ibilli bear izan gendualako — bakoitzak bere erara egin zuan zati au... eta orain, gaur edo bigar, Egun-eroko berriren bat etorriko ote-dan itxedoten gaude, orduan guztion artean ondotoxo bateratutako bat egiteko. Ala erabaki zan, bein ta bi aldiz ere, Urretxua'n, ortarako egin ziran bi batzarretan

Irakurgaiez gañera, irugarren zatia, *Partes variables* edo Gradualak dira; eta zati au, erriak kantatu-bearreko salmo-zatiz-eta osatzen da. Ontan ere bear litzake batasun. Zati oietan «argi ta errikoitasun» baño, bearrago da «batasun» —poesi-batasun— erri osoak —bateko ta besteko— danok bat kanta dezaten...

Bañan ontan zerbait ba degu esan-bearrik: *Liturgi-itxultzalleak alkartzetik izan zuten baño lehenago*, Belok'ek eman zuala bere itzulpena. Eta orrela, Gipuzkoa'k ere gero bere gisa bere itzulpena egin bear izan zuala. Bizkaia'k ere berdin edo berdintsu egin bait-zuan: lehendik Kerexeta Jaunak eginda zeukanari eldu alegia, Bata-sunerako bidea, *Gradual-gai ontan, ola gelditu zan ertsirik*.

Jakiña: batasuna egin zitekean Belok'eko itzulpena guztiontzat artuaz; bañan ez det uste Belok'ek berak ere *inoiz olako ametsik egin zuanik*. Belok'ek Bayona'rako egin zuan bere itzulpena. Belok'.

ekoaren euskera *nekez* on-ar lezakete Bizkaia'n, eta berdin Gipuzkoa'n ere. Batasunik ezin egin leiteke bakoitza bere erara ari izanaz. Batasunerako alkarri entzun bear eta alkarri amore-eman bear aundia dago. Lau urteotan lan ortan ari geranak dakigu ori ondotxo.

Lau urteren buruan, Donostia'ko itzultzalleok egindako lana aipatu degun ezkeror, emen daukazute, ikusi nai badezute, dana-dan. Lau urte oietan poz batean batzartu gera gu. asteoro-asteoro, Donostia'ko Apaizgaitegian, txandan-txandan bakoitzak egindako itzulpen-saioa zortzi edo bederatzi lagunen artean aztertu ta azken-ikutuak egiteko. Ez da lan erreza. Lendabizi hebreoz ta griegoazko itzak esan nai dutena —exejesisa— ondo finkatu; gero euskerarik errezen eta argienara itzuli. Askotan troxu txiki bat itzultzeko, ordu bete. Ola izan da gure lau urteko lana. Eta ola egiten ez bada, alperrik izango da: gauzak ez du bear *dan garantiarik izango*.

Orain, Erroma'tik ezartzen dizkiguten gaiakin ba degu lan, beste lau urterako ta geiago. Bañan orain ezartzen diguten ori, Irakurgaia da geiena. Batasunik eskatzen ez duan lana. Igande ta jaiegunetarako iru Irakurgai: Antziñako Testamentu eta Testamentu Berriko Epistola ta Ebanjelioak, iru serie; eta gero, astegun guzietarako beste ainbeste, *Lectio continua* deritzana. Dana Irakurgai. *Besterik* izango da, Gradual berriak datozenean; aiek batasunean egin bearko bait-dira...

Oietxek dira, beraz, Liturgiaren batasunari dagozkion gauzak gaurkoz, guztiok jakin dezazuten. Eta guzti ori kontuan eukirik, egin bear zaie gure lau Gotzai Jaunai Liturgiari dagokion eskabidea.

Bañan orain beste kontu bat da, Astola'ko Batzarrean ortaz gain aipatu zana: Kristau-Ikasbide herri bat ere etorri dala Madrid'etik eta Paris'etik; eta euskeraldu bearko dala ori ere. Orrek, ordea, ez du zer-ikusirik Liturgiarekin, ez liturgi-itzultzalleekin. Ortan beste itzultzalle batzuek ibilli oi-dira. Eta jakiña ortarako ere eskatu bearko zaie Gotzai Jaunai, batasunerako neurriak artu ditzatela, lau Obispaduetarako itzulpen *batu* bat egin dedin; ahalik batuen, eta ahalik lehenen.

REUNION DE LAS ENTIDADES ASISTENTES A LAS BODAS DE ORO DE LA ACADEMIA

Con el orden del día siguiente se reunieron los representantes de las entidades, que luego se mencionan, en el Hotel Tres Reyes, de Pamplona, a la tarde del mismo día, o sea, el 4 de diciembre de 1968. Después del orden del día se transcribe lo allí tratado

- 1) Dar lectura y renovar la petición que la Academia de la Lengua Vasca dirigió al Ministerio de Educación y Ciencia con fecha de 15 de noviembre de 1966, e invitar a las entidades allí presentes a unirse a dicha petición, si no lo han hecho aún.
- 2) Pacto de hermandad entre las entidades asistentes, para colaborar estrechamente por los intereses y defensa de las lenguas respectivas, para poder plantear y desarrollar conjuntamente, en pro de la oficialidad, desde un plano de problema lingüístico nacional.
- 3) Estudio para una posible convocatoria a un Symposium de Lenguas Hispánicas, a celebrar en 1969.
- 4) Estudiar los posibles temas a desarrollar en lo que consistiría dicho Symposium; por ejemplo:
 - a) Estado actual de cada lengua (que correría a cargo de los respectivos representantes de cada lengua).
 - b) Nuestras respectivas lenguas ante la enseñanza y ante los medios de difusión.
 - c) Nuestras respectivas lenguas ante las leyes vigentes.
 - d) Campaña pro bilingüismo a escala nacional.
 - e) Estudios del bilingüismo en otras naciones de Europa y sus soluciones al problema.
 - f) Los organismos superiores y la defensa de las lenguas (ONU, *Declaración de los Derechos Humanos*; 1948; UNESCO, *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*, 1953).

- g) Los organismos eclesiásticos (II Concilio Vaticano) y la defensa de las lenguas.

* * *

Pamplona, 4 de diciembre de 1968

Las entidades asistentes al acto de las bodas de oro de la Academia de la Lengua Vasca acordaron:

Constituir un «Secretariado para Información, Documentación y Coordinación sobre los problemas de las lenguas vernáculas».

Este Secretariado tendrá un carácter fundamentalmente técnico. Funcionará al servicio de las Instituciones reunidas. Estará al frente del Secretariado un Director designado por las entidades mencionadas por plazos de tiempo limitados. La primera designación recae sobre el señor Frederic Roda a quien se encarga de realizar las gestiones necesarias para la instalación en Barcelona, de forma provisional, del Secretariado. Corresponderá al Director del Secretariado organizar y dirigir la labor técnica de información y documentación, así como la coordinación confiada al mismo. Para orientar esta labor se designará a la mayor brevedad posible un Consejo de Gobierno del Secretariado constituido por dos representantes del Institut d'Estudis Catalans, dos de la Real Academia Gallega, uno de Lo Rat Penat, uno de la Obra Cultural Balear y dos de la Academia de la Lengua Vasca.

Este Consejo celebrará las reuniones que sean necesarias para orientar la creación y funcionamiento del Secretariado. La primera reunión ha quedado concertada para la segunda quincena del próximo mes de enero, en Barcelona, entre los representantes designados por las entidades para las gestiones técnicas del aludido Secretariado, y que tratará sobre su organización y del estudio del planteamiento de la implantación del bilingüismo oficial. De los resultados que se vayan obteniendo se informará a cada una de las Entidades patrocinadoras del Secretariado. A este efecto el Director del Secretariado estará en relación permanente con cada una de dichas Instituciones.

Paralelamente a las gestiones académicas se informará a los señores procuradores en Cortes que estén dispuestos a promover medidas legales en apoyo de las lenguas vernáculas, siendo asistidos

en todo momento por las Instituciones Cultas, allí reunidas. Estas instituciones trabajarán en colaboración para lograr cuantas declaraciones de principios, dossiers, estudios estadísticos, sociológicos, etcétera, relativos a la enseñanza de las lenguas vernáculas y a la utilización de éstas se estimen necesarios en todos los grados de la enseñanza y de la cultura. Este trabajo se desarrollará sucesivamente según le exijan las necesidades y las posibilidades de cada momento.

Se aprueba la celebración de un Symposium de Lenguas Hispánicas que tendrá lugar en Navarra, en el verano de 1969. Su organización sería confiada a la Institución «Príncipe de Viana», si esta prestigiosa Institución está dispuesta a asumir esta tarea. El Symposium se desarrollará en principio en torno a los temas señalados en el punto 4. El representante de la Institución «Príncipe de Viana», señor Cortés Izal, se encargará de las gestiones necesarias en orden a este proyecto y su previa aprobación por la Institución «Príncipe de Viana». Informará y permanecerá en contacto a este respecto con el Secretariado de la Academia de la Lengua Vasca. Cuando el estado de las gestiones lo aconseje, el Secretario de Información, Documentación y Coordinación dará cuenta de los planes concretos a cada una de las Instituciones patrocinadoras del mismo, a fin de lograr una colaboración lo más amplia y valiosa posible.

Omnium Cultural, Palau Dalmases, Montcada, 20 (Teléf. 2198058).
Barcelona-3. (Director de Servicios: Frederic Roda).

Institut d'Estudis Catalans. Apartado 1146. *Barcelona-3*. (Secretario General: Ramón Aramoni Serra).

Real Academia Gallega, Palacio Municipal. *La Coruña*. (Presidente: Sebastián Martínez-Risco). (Delegó la asistencia al académico: Ramón Piñeiro López).

Lo Rat Penat, Plaza de Manises, 3. (Telf. 310992). *Valencia-3*. (Presidente: Joan Segura de Lago).

Obra Cultural Balear, Torre del Amor, 6. Palma de Mallorca. (Presidente: Francesc de Borja Moll). (Delegó la asistencia en Antoni Vergei Albertos de Barcelona).

Institución «Príncipe de Viana» (Sección para el Fomento del Vascuence). Diputación Foral de Navarra. Pamplona. (Director de dicha Sección: Jorge Cortés Izal).

Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. Museo San Telmo. San Sebastián (Presidente: Alvaro del Valle Lersundi).

Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo». Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián. (Miembros: Antonio Arrúe y Angel Irigaray, que son al mismo tiempo miembros numerarios de la Academia de la Lengua Vasca).

Euskerazaleak (Asociación para el fomento del vascuence). Viuda Epalza, 12. Bilbao-5. (Presidente: Jesús Oleaga, que es al mismo miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca).

Euskaltzaindia. Academia de la Lengua Vasca. Ribera, 6-1.º Bilbao-5. Delegación de Guipúzcoa. Palacio de la Diputación Provincial. San Sebastián. (Presidente: Manuel Lecuona). Vicepresidente: Jean Haritschelhar, Director del Museo Vasco de Bayona) (Secretario: Juan San Martín). (Vicesecretario: José Luis Lizundia). (Secretariado para la Delegación de Guipúzcoa: Pedro Berrondo).

Lekuona'tar Manuel'ek

Baionan, 1969-I-12an

Urtarrilaren 12-an, Euskaltzaindiko jaunak Baionan bildu dire eta hemengo Eskual-Herriak ongi-etorri egin diote, Akademiaren berrogoi-ta hamar urteen kari.

Hamarrak et-erditan, Meza Nausia eskuaraz San Andres-eko elizan. Zer jendea eta zer eskual-kantuak! Goraki erran dauku Epphere jaun kalonjeak denek bat behar ginuela izan Jesu-Kristo baitan, Jainko-Aitaren nahia egiteko eta Eskual-Herria salbatzeko.

Gero, Eskualdun Erakustegian, mintzatu dire Haritschelhar jaunak, Lekuona jaun burua. Lafitte jaun kalonjea eta Dassance jaunak. Aita Xavier Diharce-Iratzeder-ek ere egin du hitzaldi bat: zertan den eskual-liturgia.

A. IRATZEDER-EN HITZALDIA

Joan den astean, Dassance jaunak erran daut harriturik egon dela, Eguberri egunean, hogoi urteko gizon gazte bati beha. Bezperak eskuaraz zituzten Uztaritzen igande guziz bezala, eta gazte harek, libururik gabe, gogoz kantatzen zituen salmo guziak eta himnoa ere.

Behauzeko gizonak aditu izan ditut neronek igande batez, eskual bezperak apuñatik emaiten, lehengo kantikak bezein gogotik.

Buruilaren 3-an, mila bat garaztar eta amikuztar ba omen zen Ibarreko beilan. «Kyrie», «Gloria» eta usaiako meza-kantu guziak eskuaraz kantatu dituzte eta, geiago dena, Michel Garikoitz-en meza-kantu bereziak ere. Nun adi ditake, Eliza saindu guzian, hola-korik?

Nolaz ote sartu da gure Eskual-Herria hoin errexki, Elizako Biltzar Nausiak zabaldu bide berrietan? On dugu jakitea eta onhartu dut aipatzea: ez espantuka aitzeko, bainan erakusteko ezin eginik ez dela Eskual-Herrian ere, elgar aditzen badugu eta sinesteak laguntzen bagaitu.

1963-ko azken egunetan, Elizako Biltzar Nausiak asmatu eta onhartu ditu Liturgian molde berriak. Ordu arte, prediku eta kantikak salbu, denak latinez emaiten ziren elizetan. Zer egin behar zen? Nahi-t-ez, ez hiltzekotan, berritu. Behar ziren, lehen-bai-lehen, elizkizun berriak eskuaralatu eta, gure elizek betiko kar hura ez zezaten gal. elizkizun berrieri lehengo eskual-kantuen indarra eman.

Ixil-ixila asmu horri buruz ari ginen zazpi urte hartan Aita Lerchundi eta ni. Eskual-aire xahar edo berritan kantatzeko gisan, itzultzen baginitu Salmoak eskuaraz, eginen ahalko zirela egun batez elizkizunak eskuaraz.

Tenoreko bururatua ginuen Salmo-en liburua eta, ezin-egin guzien gatik ere, Bizkaitar adiskide batzueri esker, tenoreko agertua.

Bi ilabete gabe, Martxoaren 17-an Eskual-Herriko erretor guziak Baionan biltzen zituen Jaun Apezpikuak. Frantsesezko liturgia izanen baitugu, eskuarazkoa ere behar ote dugu? Denek: bai!

«Beraz —dio Apezpikuak— liburuak erdaraz agertu-arau, eskuaraz ere argitaraz ditezke.» Eta guk, gure baitan: argitaraz ditezke eta agertuko dire.

Apirilaren 6-an, elgarretaratzen dire Beloken lehen aldikotz eskuarazleak. Hek ziren: Lafitte, Andiazabal, Emile Larre jaun apezak, eta hiru beneditano: Olçomendy, aita Etchehandy eta nerone.

Geroztik erran izan daukute ez ginuela Eskual-Herri guziaren batasunari aski kasu eman. 1964-eko apirilan, liturgia berria etzen, dakitanaz, aipatzen ere mendiz bertzaldean. Ez zuten, ez Donostian, ez Bilbaon, eskuarazlerik oraino izendatu. Funtsean, eskual-liturgiaren egitea buruzbero batzuen amets batez bertzerik ote zen?

Haatik, ezin ukatua zerbeit egin dugula hastetik batasunaren alde, gure Salmoak Bizkaitarrentzat Bizkaieratuak argit-araziz eta Gipuzkoarrentzat Gipuzkoeratuak. Geroztik ere, egin ditugun liturgia-liburu edo agerkarietatik igorri ditugu beti lau ale. Baionako Apezpikutegiaren bidez, Eskual-Herriko bertze lau Apezpikueri.

Dena den, Apirilaren 6-etik harat, astelehen oroz bildu gare. Lehen eguneko sei lagunekin batean beienik aitu direnak: Etchebarne, Bidart eta Olhagaray (Itsasuko, Sarako eta Gerezieta erretorak), Eppherre jaun kalonjea, Hiriart-Urruty eta Charriton jaun apezak.

Narbaitz jaun kalonjeari baginiozke ere zorrak: harek eman diote Irakurgai guziori baimenaren aintzineko behakoa, eta hura izan dugu buru, Hazilaren 16-an, Mezako Otoitzak ontzat hartu dituen bilkura handian. Egun hartan, hor ziren ere gurekin: Goity jaun kalonjea, Aguer Atharratzeko erretora, Mailluquet Lekornekoa eta Curutcharry Donazaharrekoa.

Hazilaren 24-an, Jaun Apezpikua, Erromatik itzuli bezein laster, Beloken ginuen Laxague jaun kalonjearekin. Andiazabal Uztaritzetik etor-arazi zuen eta bieri eman zaukun «Salmoak» liburu bat Erromako baimenaz apaindua.

1964-eko hazilan, onhartua izan zen beraz eskuara liturgian, eta Salmo-en liburuko kantuak eman zitezken, hortik harat, meza sainduetan. Apezpikuaren azken hitza: «Eta orai, Salmo horiekin egizkitzue urte guziko Mezak.»

Lau urtez iraun du, astelehen oroz, Epistola, Ebanjelio eta bertze irakurgaien lanak, grekazko erranak zilatuz eta ordu-arteko eskuaralatze guziori behatuz.

Salmoetarik hartu eta maiz aldatu behar ziren meza-kantu bereziak lantzen nituen bertzalde, Aita Etchehandy lagun.

Horiek hola, zer egin dugu xuxen?

Urte guziko eta Saindu-besta guzietako *irakurgaiak* argitarazi ditugu: denetarat hamahiru liburuxka, bakotxa gusta baitzaiku berderen mila eta berrehun libera berri.

Gero, Urte guziko eta Saindubesta guzietako *mezak*, Salmo-en pertsu neurritan: denetarat hamabi liburu, ahalaz frantses Aldareko-liburua bezein itxura ederrean inprimatuak. Ale batzu sei mila libera berri gusta zaizkigu. Eta, orroitzen bagare mendiz alde hontan, eskuara ibiltzen duten elizak 120 baizik ez direla, aitor dezagun gure aldetik erokeria zela eta zorrik gabe utzi gaituzten erretorren aldetik miragarriko sinestea.

Musika sailean ere ainitz egin da: lan geienak Aita Lerchundi-renak. Haren Meza Nausia-z bertzalde, Narbaitz-Arradoi-ek egin dauku Meza Laburra, herri ainitzetan ezagutua dena; Urteaga jaunak Igandeko Meza, Donibane Lohitzunen handizkienean emana izan dena. Nik otoizturik, bertze biek ere asmatu dauzkigute Meza ederrak: Garbizu jaunak Herriko Meza, eta Olaizola jaunak Eskual-Meza.

«Ezkila»-k larogoi bat kantu argitarazi ditu: ainitz Aita Lerchundirenak; bertzeak Arradoy, Urteaga edo Garbizu jaunena; hiru azkenak berritz Donetch erretor gaztearenak.

Lau dizka ere izan dire eginak: Meza Nausia Baigorriko kantariak, Meza Laburra Baionako apezgaiek, Aipa Jainkoa (edo Salmoak) Belokeko gaztek, Igandeko Meza Donibaneko Begiraleek.

Aipatu behar dut ere lau urte hoitako Otoizlari agerkaria. —Marzel Mendiboure jaun kalonjea buru, sei-zazpi aldiz urtean biltzen ginen Otoizlari-egileak. Maizenik hor zirenak: Eppherre, Curutcharry, Larzabal, Hiriart-Urruty, Emile Larre, Andiazabal, jaun apezak. Batzuetan hor ginituen ere Goity, Camino, Elizondo, Oxandabaratz apezak, eta ainitz lagundu gaituen ederzale bat: Jacques Etcheverry.

Apezek Otoizlari-n agertzen zituztenak, Herria-k, berrituz gerroztik, hartzen ditu. —Otoizlari bere lehengo sailerat itzuli da orai, Belokeko adiskideen agerkari.

Eskual-elizetan sartu direnetz egin ditugun eskual-liturgiako lanak?

— Irakurgaiak: igande oroz, eliza guzietan baliatzen dituzte; astelegunetan, batzuek bai, bertzek ez.

— Kyrie, Sanctus, Agnus eskuaraz kantatzen dire denetan. Arradoi-en edo Lerchundi-ren mezatik.

— Gloria in Excelsis, geinetan eskuaraz; Credo ere, asko elizetan.

— Meza bakotxeko Kantu Bereziak ainitzek emaiten dituzte eskuaraz, eta hortan lan handia egiten dute Serora batzuek. Bainan hemen huts bat: hartzen balituzte kantariak, artetan bederen, Salmo-en liburuan edo Ezkila-ko kantuetan diren aire aberatsenak..., beti aire errexenetan egon gabe.

— Denek diotena, herrietan geienik maite dituztenak: Igandetako Bezperak eta Ehorzketako Meza.

— Alde huntako eliza-kantu berriak mendiz bertzalderat ainitz hedatu dire eta mundu zabaleko zortzigarren Eskual-Herrirat ere: Pariserat, Caracas-erat, San Francisco-rat...

Joan den urtean, Oyarzun-en, ospatu dituzte Don Manuel Lekuona gure jaun bihotz handikoaren 50 apezurteak; eta zer dute kantatu 300 apezek Meza-sartzean? Aita Lerchundiren «Kanta Jau-nari, lur guzia.»

— Orai arte, gure fededunek handisko zaukaten Salmo-liburua; aste huntan agertuko da *esku-liburu bat* sakelan eman errexa, handiaren mami guziaz aberats.

— Eta, bururatzeko, huna argi bat batasun bidean: Sagarako Otoitzak Napar, Lapurtar, Xiberotar, Gipuzkoar eta Bizkaitarrek elgarrekin eskualalatu ditugu Donostian eta hitz berekin edo bertuekin argitarazi.

Eraile guti, jorraile ainitz. Aspaldiko egia.

Aitor dezagun balere, indar handia egin dutela aldi huntan eskual-elizek.

Bainan Eskualdun guziek jakin behar dute erretor ainitzek duten apezmina. Egin-abal guziak egin dituzte eskuara elizetan atxikitze edo liturgia-kantuekin berritz sar-arazteko. Burasoe, aldiz, eta gaitzen erakaslek hiltzerat uzten dute eskuara

Herriko eliza ez da hilen-etxea. Gaztek eta haurrek ez badakite eskuararik, erdararat jo beharko dute apezek.

Ea noiz piztuko den gure Eskual-Herrian eskuararen aldeko batasun funtsezko bat: Eskualdun Burasoen Batasuna. Geroztik sortu da Fededunak batasuna.

Eskoletan eta etxetan bizi dadila Eskuara, eta biziko da elizetan.

DASSANCE JAUNAREN HITZALDIA

Eskualzain, laguntzale, jaun andereak,

Egun bezalako batzar baten ondotik, bilkuran direnek pentsa dezakete azkenik mintzatuko denak, erran direnak bilduma batean harturik, elgarrekin josirik, erakutsiko duela laburzki egungo solasa zertarat eta norat zohan, agerian ere emanen eskuararen alderako dituzken ondorio onak.

Bainan, horra: holako ondar-bitz baten egiteko, nik, aiphatu direnak beharko nintuen aditu..., eta hortan da, ba, gorde ez dezakedan makurra; beharriek ez nautelakoan laguntzen, erran direnetarik gehienak huts egin baititut.

Ene ezinbertzea ikusiz, barkatuko ahal dautazue, eta, beraz, aldi huntan, nahi edo ez, ene pegarreko uretik edan beharko duzue...

Hasteko, nahiz gure adiskide Haritschelharrek egin dautzuen, oxtion, gisa zen ongi ethorria, ez dezaket, nik ere, ixilik atxik egungo bilkurak emaiten dautan atsegina, ikusten zaituztedalarik Eskualzain, laguntzale, oro Eskuararen adiskide eta langile hobere-netarik, hunarat bilduak, Eskualzaindiaren sortzearen berrogoita hamargarren urthe-muga-kari.

Mende erdi bat zerbeit bada segurki; haatik, Eskual Akademia baten xedea, edo hobeki erraiteko ametsa, etzen ordukoa: duela ehun eta zenbeit urthe, Dassance aphezak gauza horri hastapen zerbeit emana zion; geroxago, Hiribarren aphez Azkaindarrak ere; geroztik, bertze askok, eta, azkenik naski, oraiko Sarako hauzapheza-ren osaba, Adrien Dutournier Baionan miriku aiphatua zen batek, mila bederatzi ehun eta hamabian Eskualzaleen-Biltzar-rari galdegiten baitzion xutik ezer zetzan bi gauza: Eskualmuseo edo erakustoki bat, eta Eskuararen iraupenari buruz lan egingen zuen Akademia bat.

Fruitu horiek ontzera zohazin dudarik gabe, zenbeit urtheren barnean konplitu baitziren bi xedeak, ez haatik Eskualzaleen Biltza-

rrak obraturik... Bizkitartean, Hendaian sortu zen egunetan, batasun horrek ere etortzekoa zen Eskualzaindiaren xede bertsuak zituen: Arturo Campion eta Sabin Arana Goirik alde batetik, Zalduby, Arbelbide eta Guilbeau'k bertzetik, gehienik bilhatzen zutena baitzen: ortografa edo idaz-moldearen xuxentzea eta berdintzea. Baina Hendaia'ko lehenbiziko bilkura hortan tira-bira asko agertu zen hor zirenen artean, gei hori sopra zail eta nekhea ikusirik, burutik utzi zuten, erabaki hau hartzen zutela bakarrik, orok onhartzen zutena: «Eskuararen beiratzeko, zaintzeko eta haren alde lan egiteko batasun bat eraiki behar zela, eta berehala...» Ez baita, geroztik Eskualzaleen Biltzarra hastapeneko sail hortarik behinere baztertu.

Aspaldiko gertakari horiek nik baino hobeki oraino konda letzazke hemen ikusi uste ginuen gure lagun maite maite Ixaka Mendizabalek, duela hiruetan hogoi ta sei urthe Ondarrabian egin zen bigarren bilkura batean aurkitu baitzen: orduan eman zitzaion batasun berriari bere izena: erran ditake beraz, Hendaian sortu babilinbada Eskualzaleen-Biltzarra, Ondarrabian batheiatu dutela.

Batasun horrek geroztik bide egin du, hastean urriki, baina hamalauko gerlaren ondotik, laster emendatuz eta indatuz.

Zerbitzari, eta gure adineko lagun andana bat orduan sartu ginen, gu ere, batasun hortan, ez baiginakien, hain segur, zoin urrun eta zoin luzaz ereman behar gintuen orduko urhats horrek...!

Jainkoak eman dautan bizitze luze huntan, zonbat orhoitzapen nukon kondatzeko ezagutu ditudan, aspaldi itzalduak diren Eskualzale khartsu eta bihotzdun hoitaz! Zalduby eta Campionen ondotik, Julio de Urquijo, Georges Lacombe, Etienne Decrept, Pepe Eizaguirre, Jean Etchepare, batasunaren buruzagi ni baino lehen izan direnez! Eta, bertzeak... hirur ilabethetarik kintuen bilkueratarat heldu zirenak: Souberbielle Uztartzeikoa, Amestoy Kanboarra, Constantin eta Jaureguiberry Atharratzetik heldu zauzkunak, Diriarth Donaphaleutarra, Dufau Senpereko notaria, Charles Larre, eta... bixtan da denon hots-emaile paregabeak gintuen Oxobi eta Zerbitzari.

Tolosatik ere, behinere huts egin gabe, heldu zauzkun Pepe eta Ixaka, bi adiskideak, berant airean ethortzen zirenak: Tolosa urrun eta muga gelditu behar. Gure lana orduko bururatuxea ginuen, eta biak hasten ziren, berehala, Gipuzkoako berrien emaiten guri, eta gu, xoratuak heier...

Zer oren xarmantak elgarrekin hola iragan ditugunak... ez baitzaut iduri gintuen bilkuraxka horiek baino goxoagorik izan ditakela: Etcheparek bere eskuko hartuak zituen Semenario handiko apez-geier egin erazten giniozkaten lanak: nolako artharekin, errotik, ikhertzen zituen, eta zer loria zen harena, orduan gazte gazteak ziren Léon Léon, Piarres Lafitte, Dominique Behety edo Léon Pochelu batzuen lan hoberenak irakurtzen zaizkularik, aintzinetik ikusten zuela zenbeit urtheren buruko gazte horiek gure idazle hoberenatarik izanen zirela.

Oxobi'ren gain ziren, aldiz, bigarren maileko eskoletako lanen berextea eta lerrokatzea: hor sariztatu ditugunen artean kausi ditazke geroztik bide egin duten batzuen izenak, hala nola, eta bertzerik ez aiphatzeko, Eppherre kalonjea eta Piarres Larzabal, eskualzainak, biak.

Eta, aiphatu bi sail hoik bezala, Zerbitzariak gobernatzen zuen eskola ttipietako muttiko eta nexken garhait-sariena: lan balios horri zoin pulliki dirdira emaiten zakien gure adiskideak, herri bakotxari bere doi gatz eta laudorio negurturik!

Bilkura ttipi hoitan, ere, aphailatzen gintuen, arthoski, urtheko, bilkura nausiak, herriz herri eremaiten gintuztenak Xuberotik Lapurdirat, usuenik naski Baxenaberrerat: Meza nork eman; nork pheideika; bilkura nun? Zertaz? eta, azkenean, jakina, bazkari famatu hura, bere jateko, kantari eta phertsulariekin: jadanik ezagutuak ziren Gohanetx eta Panpaleren aldean, hor agertu dire, lehen aldi-kotz, Matxin Senpertarra, Ligueix Larrañekoa eta Etxahun-Iruri. Hor ere aditu ditugu Casenave Hazpandarra, Nequeçaur, kantari famatuak; hor ere, hemengo eskualzalek, atseginekin aditzen zituzten Gipuzkotik ethorri mintzatzaille bero, ederrak: Elorza, Azkainen; Urreta, Ezpeletan; Pepe Eizaguirre usuenik; Luhoson, Aitzol handia; ahantzi gabe Buenos-Airesetarik noizbenko gu ganat heldu zen Jean-Pierre Passicot, sortzez Bidarteko semea.

Holakoak ziren gure orduko bilkura eta biltzarrak. Holakoak ere ezin ahantzizko lagun eta adiskide maite horiek...!

Barkhatuko dautazue, luzaturik, doi bat galdu baniz ere: aspal-diko errana da gazteko orhoitzapenak xahartzeak edertzen dituela, eta aldean banu, orai, eskuan bezala latinean trebe zen Zerbitzari maitea, laster bota lezake: «Laudator temporis acti».

Eder eta maitagarri zaukun iragan denbora horri ene esker-
onezko agur aphala eskaint ondoan, adin onean direner utzi behar
diotegu oraiko eta geroko karga, ez baitute ttipia izanen: alabainan,
hemendik aintzina, gu bezalako xaharrek bertzen laguntzea baizik
ez dezakegu egin.

Eskuararen geroa ilhun eta lanjerrez bethea dela, nork ez du
ikusten? Hortakotz, ene iduriko, behar zaiote, lehen bai lehen Es-
kualduner, erran eta ongi adiarazi, ohoreak berak manatzen diotela
egin ahala egin dezaten beren mintzaira ederra, jakintsun handiek
hala goersten dutena, galtzerat ez uzteko.

Bertze pondutako asmu, xede eta iritzi gehienetan barreiatsuak
eta nahasiak balinbadire ere, bertze gizon guziak bezala, Eskuararen
amodioak ez othe dezake Eskualdun guzien arteko juntatze eta bate-
ratze mirakuluzko bat egin?

Agian, bai, Jainkoaren laguntzarekin.

Ez etsi beraz eta jarraiki lanari. Aro txarraren, ekhartzaren on-
dotik, badakigu denbora ederra heldu dela, bethi.

Gasteizen, 1969-II-23an

RESUMEN DE LA DISERTACION DE DON GABRIEL ARESTI SOBRE LA FIGURA DE BARRUTIA

Comenzó diciendo que la obra que comúnmente es conocida en
vascuence por el título de *Gabonetako Ikuskizuna*, título que no es
otra cosa que la traducción más o menos literal del encabezamiento
castellano que a la copia para Resurrección Azkue olografió Juan
Carlos Guerra, es universalmente atribuida a Pedro Ignacio Barrutia
Basagoitia, nacido en Aramayona y muerto en Mondragón en 1757.
Datos sobre la vida de Barrutia fueron suministrados por el propio
Azkue, y después ampliados por el propio conferenciante. Señaló
que es un detalle verdaderamente curioso que el día en que leyó y
copió en el libro de registro de Mondragón la partida de defunción
de Barrutia, se cumplían exactamente doscientos años de dicha fecha.

Continuó diciendo que sobre que la obra sea realmente obra
de dicho Barrutia nadie había expresado anteriormente duda alguna,

hasta que él mismo lo hizo en el prólogo que escribió para la edición que juntamente con el *Borracho Burlado* del conde de Peñaflores y *Gabon-Sariak* de sor Luisa de la Misericordia, preparó de la citada obra para la Editorial «Auspoa». Se basó para ello en que el lenguaje empleado en el *Acto para la Noche Buena* no es indudablemente vizcaíno del siglo XVIII, sino más bien de finales del XVI o principios del XVII. Por otra parte se desconocen las bases sobre las que se asentó Guerra para atribuir la obra a Barrutia. Pues en puridad de concepto, el único dato que se puede manejar es que Guerra puso el nombre de Barrutia al pie de la copia que se conserva en la Biblioteca de la Academia Vasca.

Señaló a continuación los caminos que se han recorrido para que dicha obra llegue al conocimiento de los estudiosos, e hizo particular hincapié en las acres polémicas que mantuvo con los académicos Sres. Labayen y Aquesolo.

Hizo finalmente mención, por primera vez en público con nombres y circunstancias concretas, del hecho de que dicha obra fue plagiada por Manuel Ziarsolo, y premiada como si este último fuera su real autor por el Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».

Finalmente enumeró las virtudes del *Acto para la Noche Buena*, para lo cual repitió en líneas generales los argumentos que en conferencia dictada en la Biblioteca Provincial de Vizcaya fueron posteriormente publicados en esta misma Revista *EUSKERA*.

Despidió su conferencia diciendo que Alava bien puede estar orgullosa de haber visto nacer de una hija del pueblo en su tierra al supuesto autor de tan interesante obra, aunque fuera concebido de caballero de la Orden de Santiago en tierras de la provincia de Guipúzcoa.

DISERTACION DEL P. AQUESOLO SOBRE LA FIGURA DE ULIBARRI

En este acto, que se quiere sea un homenaje-recuerdo a los escritores euskéricos alaveses, creo que no debe faltar cuando menos una mención para un contemporáneo de Barrutia, el jesuita Juan Bautista de Gámiz, escritor poco menos que desconocido entre nosotros. Su obra euskérica, de escritor vasco, tiene un particular

interés, tanto por los valores propios que pueda encerrar como por el testimonio que nos aporta para el mejor conocimiento de la historia geográfica de nuestra lengua, por tratarse de la obra de un hijo de Sabando, lugar que ha quedado tan lejos de las actuales fronteras del euskera.

El P. José Ignacio de Arana, a finales de la pasada centuria, citaba a Gámiz (aunque con nombre equivocado, el de José Antonio de Butrón y Mújica), entre los autores vascos clásicos del siglo XVIII, como escritor cuya obra no debería desconocer nadie deseoso de conocer a fondo la lengua vasca y su literatura. A falta de un número para él en el programa de este acto, quede, por lo menos aquí esta mención de su nombre, haciendo votos porque los hijos de San Ignacio de Loyola, poseedores de su obra manuscrita, la pongan al alcance de todos los interesados lo más pronto posible.

De una generación algo posterior y natural de otra zona que ha perdido su antigua lengua es también José Pablo de Ulibarri y Galíndez, otro escritor euskérico alavés, sobre el que vamos a concentrar nuestra atención por unos momentos. Cultivó el vascuence. Y lo cultivó en prosa y en verso. Pero más que como escritor, le corresponde un lugar destacadísimo entre los hombres de su tierra que más fuerte sintieron la llamada de la lengua nativa y más denodadamente lucharon entre nosotros por despertar la conciencia de sus paisanos, promoviendo entre ellos un esfuerzo unido y sistemático, a nivel individual y colectivo, para dar a la lengua de sus mayores el rango que creyó corresponderle, así en la vida privada como en la social y pública.

No era del todo desconocida entre nosotros la personalidad de Ulibarri. De unos años a esta parte, el *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* está contribuyendo a la divulgación de algunos aspectos de su obra con la publicación, siquiera sea parcial y fragmentaria, de su famoso manuscrito. Pero hasta estos últimos años nadie había indicado ni llegado a sospechar el origen alavés de su autor, más conocido con el apelativo de *El Herrador* vascófilo de Abando, con que le bautizaron entre Fernando de la Quadra Salcedo y Julio de Urquijo a principios del siglo. Una lectura más atenta del manuscrito, que su autor tituló *Gutunliburua*, ha permitido aclarar este dato y ha hecho posible la obtención de una

imagen más cabal de la personalidad de Ulibarri y de las varias facetas de su actuación euskerista.

El *Gutunliburua*, efectivamente, afirma repetidas veces el origen alavés de su autor, su nacimiento en jurisdicción de la tierra de Ayala, concretamente en Oquendo, pueblo del que nos suministra detalles curiosos e interesantes.

Sea el primero la forma propia de su nombre, que Ulibarri escribe Ocondo, y algunas veces Ucondo. Cualquiera de estas formas nos está dando indudablemente la forma más originaria del nombre vernáculo de este lugar. Compárese con la doble forma conocida de otro pueblo alavés: Zalduendo-Zalduondo, y aun con el nombre de otro lugar vecino de Oquendo, que es Luyando, cuya forma primitiva debió de ser Luyaondo.

Oquendo era por aquel entonces un pueblo totalmente de habla vasca. Así nos lo presenta Ulibarri. Hablaba vascuence todo el pueblo, tanto la zona baja alrededor de la Parroquia de Nuestra Señora de Unza, como la zona alta de San Román, que Ulibarri llama de Ocondogoyena, traducido al castellano, Oquendo de Arriba, y que ahora llaman algo contraído Oquendojena.

Pero otra afirmación hay en el *Gutunliburua*, que tal vez a muchos suene a peregrina: la afirmación de la existencia de dos escuelas vascas en Oquendo en la infancia de Ulibarri, una por cada parroquia. Dos escuelas vascas, y en el centro del pueblo una tercera, castellana ésta, para quienes la prefirieran, frecuentada principalmente por jóvenes con propósitos de emigrar.

Al decir de Ulibarri, su pueblo natal debía de ser de fuerte emigración. Y llega a afirmar, no sin algún orgullo, que Oquendo había dado hombres de renombre, célebres por mar y tierra, muchos de ellos educados en esas escuelas vascas. Y lo dice en verso:

*Euskerazko eskoletatik urten dabe
guxtizko yakitun andiyak:
iru milla urte onetan
Ukondoko semiak
itxasoz ta legorrez agintari nagosiyak*

Afirma asimismo Ulibarri que las escuelas vascas estaban dirigidas por los sacerdotes del pueblo y en ellas la enseñanza (ésta es su característica) se impartía toda en vascuence. Es afirmación que Ulibarri hace en otras ocasiones extensiva a otras poblaciones vascas, citando casos concretos de personajes conocidos de su época, como el vizcaino José de Murga, que, a través del vascuence, ya había, para los ocho años, aprendido el latín. Hechos de esta naturaleza le proporcionarían más tarde argumentos para defender como viable la idea de la creación de escuelas vascas, en las que el euskera fuera el vehículo único de enseñanza para toda asignatura.

Si tales afirmaciones sonaran a fantásticas a alguien, en su apoyo pudieran aducirse otras ajenas, como algunas del Padre Cardaveraz en su *Euskeraren Berri onak* (1761), que no distan mucho de las del hijo de Oquendo. Y aun en el mismo sentido, parece hablar el hecho de que las más de las primeras gramáticas vascas se escribieron con la finalidad de enseñar a los vascos algún erdera, el latín o el castellano, muy al contrario de las que se escriben ahora.

El que a comienzos de este siglo iba a ser llamado el *Herrador Vascófilo de Abando* abandonó su casa paterna a los pies de su Andra Mari de Unza, de tierna edad, a sus nueve años, para emigrar, no como algunos paisanos suyos a tierras de Ultramar ni a ningún país extraño, sino a un pueblo vasco junto a la ría de Bilbao, acogándose a la hospitalidad que le brindaron unos tíos que tenía en Abando.

Sería allá por los años de 1784. Había nacido el 17 de agosto de 1775. Y en Abando continuó su instrucción. Y allí, o desde allí, hubo de seguir su carrera hasta obtener el título de mariscal veterinario, como él mismo se titulaba en una tarjeta que hizo imprimir para anunciarse como tal y en el memorial que quiso presentar al rey Fernando VII en su visita a Bilbao.

En Abando, por los años de 1794, se alistó como soldado en una de las tres compañías que Abando aprestó para salir a oponerse al avance del ejército francés por tierras de Guipúzcoa. Años más tarde recordaba con cierta amargura y remordimiento la vida en el frente de lucha, en las posiciones de Iciar y Sasiola, con el excesivo consumo que allí se hacía de bebidas alcohólicas.

En Abando, a sus 22 años, contrajo matrimonio con una joven del lugar, doña María Josefa de Landa y Urquiza, la Maripatxu de sus cartas, cuatro años más joven que él. No tuvieron descendencia. Y allí, en su barrio de Bilbao la Vieja, enfrente de las siete calles de Bilbao, cerca de los frailes de San Francisco, discurriría el resto de sus días, viviendo del ejercicio de su profesión.

Pronto se hizo hombre importante en la vida de aquella anteiglesia vizcaína, siendo llamado repetidas veces a ocupar los más altos cargos en la vecindad, como el de fiel regidor, llevando tantas veces el chuzo, al decir de él. Lo menos cuatro veces desempeñó este cargo. La última vez, en plena guerra civil, el año 1836, a pesar de sus claras simpatías por la causa carlista.

Las actas del antiguo Ayuntamiento de Abando dan fe también de otros cargos por él desempeñados al servicio de aquella anteiglesia. En 1820, por ejemplo, es archivero contador, y dura en el cargo, con la interrupción del trienio constitucional, hasta 1826. Era en el desempeño de sus cargos de una rectitud inflexible, que le hizo enfrentarse más de una vez a sus propios jefes. Como archivero contador, su firma era necesaria para autorizar toda salida de las arcas del pueblo. Pues él, tan religioso y clerical, tiene todo un pleito con el Ayuntamiento porque se niega a estampar su firma para el pago de una función religiosa organizada por aquél, porque le parece que el gasto es excesivo. El Ayuntamiento le destituye. Pero él recurre y logra mantenerse en el cargo sin ceder en su actitud.

Estallada la guerra civil, con un Ayuntamiento de nombramiento gubernativo bajo el dominio liberal, y a pesar de sus ideas tan poco favorables a la situación política imperante, es nombrado miembro de la comisión que estudia y elabora un nuevo «plan o proyecto económico» para Abando. Y es que Abando parecía no saber prescindir de los servicios de su veterinario cuando se ventilan problemas cuya solución, como dicen las actas, requiere «integridad, conocimientos y capacidad».

Su personalidad de hombre público no quedó encerrada en los términos de la anteiglesia de Abando, sino que trasciende al Señorío entero con su actuación. Las actas de las Juntas del Señorío en Guernica también han dejado constancia de la presencia de Ulibarri en ellas. En dos ocasiones al menos representó a Abando en aquellas

graves asambleas de las que emanaban las normas para el mejor gobierno de Vizcaya. Fueron los años de 1814 y 1829. Y estuvo presente en otra ocasión más, pero no como apoderado de Abando, sino en sustitución del apoderado de Lujua, sustitución buscada y lograda por él, después se dirá con qué fines. En las Juntas de 1829 fue miembro de una Comisión nombrada por las mismas para buscar una transacción entre el Señorío y el Consulado de Bilbao, y en unión con otro de los vocales formuló un voto particular disintiendo del dictamen de la Comisión.

En política fue siempre decidido anticonstitucionalista. El movimiento liberal encarnado en la Constitución de Cádiz era para él un movimiento diabólico, y lo combatió por enemigo de los fueros vascos y por enemigo de la religión. Para calificarlo creó un término propio en vascuence: Debruziñoa, acción diabólica, como quien dice.

Muy adicto a Fernando VII, como a Señor de Vizcaya, (Ulibarri había obtenido carta de vecindad y de nobleza vizcaina el año 1816 oficialmente), manifestó especial empeño por entrevistarse con el monarca cuando el año 1828 realizó éste su gira por Guipúzcoa y Vizcaya. Quería ofrecer sus servicios de mariscal veterinario. Buscó para conseguirlo los servicios (que no dieron resultado) de Juan Ignacio de Mendizábal, el impresor de Tolosa y uno de los prohombres de Guipúzcoa en aquel entonces. Este debería entregar un memorial redactado al efecto en castellano. Pero llegado el momento, Mendizábal tenía instrucciones de Ulibarri en el sentido de que dirigiera su primer saludo al rey en vascuence. El monarca no podría llevarlo a mal, tratándose de un saludo dirigido a su Señor en nombre de un vizcaino, tan adicto además a su persona en momentos tan críticos para la causa monárquica.

Este solo dato es revelador del alma vasca de Ulibarri. Y una vez presentado el marco en que se desarrolló su vida, ha llegado el momento de hablar de lo que él representa como vascófilo y como escritor euskérico, que es la manifestación más característica de la personalidad de este hijo de Oquendo.

Aquí fue, ante todo, un despertador de la conciencia euskalduna. El mismo representa la manifestación o aparición de esa conciencia tal vez nunca sentida en forma tan intensa y agudizada en

un simple hombre de nuestro pueblo. Pero conciencia que no queda en pura contemplación ni exaltación, sino que impulsa a la acción. Y a una acción sabia, la conducente en el caso, enderezada a salvar y fortalecer la vida del euskera. Sin duda, como hijo de su siglo, aceptó crédulamente fantasías románticas sobre el origen de su pueblo o sobre la antigüedad y pureza de su lengua, pero no fue para quedarse ahí bobamente extasiado ante ellas en gesto de necia vanidad. Pensó que había que actuar lógicamente. Pensó que era deber de todo vasco impedir la desaparición de su lengua, mimarla, conservarla y cultivarla. Empezando por hablarla, teniendo a honra el usarla siempre como medio ordinario de comunicación entre los que la tenían por la lengua materna y se preciaban de vascos, reservándole el puesto de honor que le correspondía, no sólo en la familia, en la iglesia, en la calle, sino también en las asambleas públicas civiles o en las actas que recogen sus resoluciones.

Hay datos expresivos y reveladores de las exigencias que Ulibarri formulaba en este punto.

Desde sus años de archivero-contador, comenzó a llevar él un copiadore de las actas del Ayuntamiento de Abando, que hoy se guarda en el archivo municipal de Bilbao. Como simple copiadore que es, las actas están en la lengua en que se redactaban, en castellano. Pero Ulibarri añade al margen algunas observaciones suyas en vascuence. Y al entrar en el año 1826, no puede menos de expresar el dolor que ello produce en su alma: «Emen sartzen da 1826'gn urtea, izquiribaturik erdera mingaitz latzian». El preferiría ver las actas redactadas en la lengua de sus vecinos. Sólo una vez encontramos un comentario marginal en castellano, y es cuando fue relevado de su cargo de archivero-contador. Si hemos de creer al comentarista, su destitución ha sido consecuencia de las maquinaciones de quienes «se intitulan guardias del honor» y «son catedráticos de junto al pellejo de vino mientras los oficios divinos y la Misa Mayor». Nunca fue amigo de este tipo de «catedráticos» ni, en general, de tabernas ni tabernarios.

Hizo ley de su vida el lema «Euskaldunei euskeraz». Los hermanos Cengotita-Bengoa, Juan y Francisco, dos hijos de Bériz, siguieron la carrera de las armas y eran ambos jóvenes coroneles, de caballería e infantería respectivamente. Con ambos entabló amistad

el veterinario de Abando (sin duda en razón de su mismo oficio) y mantuvo correspondencia epistolar. Y en una de sus cartas decía a Francisco: «Euskaldunari eguño ez (egin) erderaz, euskaldunari beti euskeraz orra zeure adiskidiaren esan maitia, Praisku».

Por su epistolario desfilan distinguidos hombres públicos tanto de Vizcaya como de Guipúzcoa: el marqués de Valdespina, Novia Salcedo, el ministro Erro, etc. Con todos se atiene en sus cartas al lema que se había fijado.

Así buscaba y promovía la rehabilitación social del euskera. Y con esta misma preocupación hizo campañas en favor de que se implantase oficialmente en el País Vasco la enseñanza del vascuence en las escuelas, y propuso a quienes juzgó más capacitados la preparación de un diccionario y una gramática que recogieran el más completo caudal de voces y de leyes del habla vasca. Y aún fue más ambicioso en sus planes y exigencias, que no se contentaban con menos que la implantación de lo que pudiéramos llamar la escuela vasca, es decir, enseñanza del vascuence y enseñanza, además, en vascuence sobre todas las asignaturas corrientes en cualquier otra escuela o grado de enseñanza.

Una moción pidiéndola había preparado Ulibarri para presentarla a las Juntas de Guernica al término ya de su mandato como apoderado de Abando en ellas en 1829. Era ya tarde y no podía optar a un nuevo mandato para el siguiente bienio en representación de Abando porque se lo impedían las normas vigentes en la anteiglesia. Fue entonces cuando se las apañó para conseguir la representación de otra anteiglesia vizcaina. Acude a Guernica muy ilusionado como apoderado de Lujua. Pero no pudo asistir sino a las sesiones de la primavera. Las fastidiosas consecuencias de un accidente, de una caída en las escaleras de su casa, le obligan a permanecer inactivo y alejado de toda actuación pública y aun de su propio trabajo profesional por dos años. Sus ilusiones quedaron cortadas en flor.

Con todo, la semilla por él lanzada en el surco fue sin duda la que once años más tarde, el año 1841, había de fructificar en el acuerdo tomado por las Juntas del Señorío para el establecimiento de una cátedra de lengua vasca en el Instituto Vizcaino que se proyectaba. Y fue asimismo en el sentido de las reclamaciones tantas

veces formuladas de Ulibarri el acuerdo de las mismas Juntas de «que diariamente se trajese a la Junta en lengua vascongada por escrito el extracto del acta de la sesión precedente».

Ulibarri abogó asimismo por la creación de una especie de Academia de la lengua vasca. La idea no había nacido en él, precisamente; la tomó de Erro. Pero él la hizo suya y se movió y trabajó por verla realizada con el apoyo de las Juntas de Guernica. Habría de constar de 24 miembros y sería una verdadera *Euskaltzaindi*, con la misión de velar por la conservación del Euskera, de difundirlo y dignificarlo.

La puesta en práctica de todas estas ideas y planes llevaba consigo la necesidad de tener a mano una biblioteca vasca bien surtida. Y Ulibarri no escatima gastos cuando se trata de adquirir libros escritos en vasco o sobre vascos. Estaba vivamente interesado en comprar cuanto se hubiera escrito en vascuence o relacionado con su país y su lengua. Fue de una curiosidad extrema en este punto. Aquí van unas muestras.

Llega a su noticia que el marqués de Valdespina espera una buena remesa de libros interesantes que le vienen de Francia e inmediatamente le escribe: «Yauna, ain da aundija nere gurarija gauza orrelakoak ikusteko ze, ezin eperik eman dit biotzak; eta aizartu naiz aurpegi aurpegi berorri eskribitzen».

Acompañando a los duques de San Fernando, llega a Bilbao el año 1833 José Francisco de Aizquibel, ilustre vascófilo y autor luego del gran diccionario vasco-español que lleva su nombre. Inmediatamente recibe de Ulibarri un espléndido regalo de libros vascos, algunos bien raros, que causan la admiración de Aizquibel, quien se ofrece a pagar a su donante 2.000 reales por ellos. Pero ofendido éste, le contesta: «Logrerua ez naiz ni izan iñoz; eta emoten deusatz Verbategia egiteagatik». Es decir: «Jamás he sido interesado; yo se los regalo a usted, porque haga el diccionario». Se procuraba cuantos libros podía para sí y además los agenciaba para otros.

Muchas de nuestras bibliotecas se han enriquecido con ejemplares de obras vascas que este distinguido hijo de Oquendo fue acumulando en su vida, marcados con su inconfundible *ex-libris* y su firma característica: el dibujo de un navío de tres mástiles y encuadrado en el casco del navío escrito su segundo apellido, Galíndez.

Ulibarri debe ocupar por todo lo que antecede un lugar distinguidísimo, no sólo entre los amantes de nuestra literatura, sino también entre los precursores del despertar literario vasco.

Ahora bien, ¿cuáles son las propias realizaciones suyas en el campo del cultivo de la lengua vasca? ¿Qué obras en euskera se deben a su pluma?

Es la pregunta a la que queremos contestar a grandes rasgos a continuación.

1) Su primera producción fue un fruto bien humilde ciertamente: un almanaque vasco («Egunari eusquerazcoa»), que lo destinó para el uso de vizcainos, guipuzcoanos y alaveses, como reza su título. Este almanaque nació de un desafío que se cruzó entre Ulibarri y un *erdaldun*, que se comprometió a costear la edición caso de que Ulibarri demostrase ser posible escribirlo en vascuence. Ulibarri cumplió con lo prometido por su parte, pero tuvo que cargar asimismo con los gastos de la edición, ya que el *erdaldun* desapareció luego sin dejar señas. Muchos años después aún llegaban al autor peticiones de su almanaque, hasta de Navarra. Esta obrilla, en su modestia, hace a este escritor alavés ser el precursor entre nosotros de esta clase de publicaciones. Data de 1815.

2) Es autor de algunos de los villancicos de su tiempo, de los que tradicionalmente se publicaban y cantaban en Bilbao y Abando todas las Navidades desde tiempo inmemorial. De los que en vida de Ulibarri se dieron a la estampa, algunos son ciertamente de él. En su tiempo, cabalmente estos villancicos adquirieron un carácter mixto religioso y profano a la vez. Al villancico propiamente dicho seguían unos zortzicos de contenido muy a tono con las preocupaciones de Ulibarri, que exaltan los tiempos antiguos, los fueros; propugnan un movimiento en favor del euskera y hasta de una economía mejor dirigida. Una vecina de Abando es autora de varios de ellos. Es Vicenta Moguel, la fabulista vasca, que más de una vez fue colaboradora de Ulibarri en la revisión y corrección de escritos suyos cuando éstos tenían por destinatario algún personaje de pro, como el ministro Erro. Pero de otros villancicos Ulibarri es evidentemente el autor, que es felicitado por el acierto de sus versos. Los villancicos siguieron publicándose cada año, con alguna excepción

impuesta por medidas gubernativas en la etapa última, hasta el 1832 cuando menos.

3) Pero la obra principal de Ulibarri quedó inédita y la mayor parte de ella tampoco estaba destinada sin duda a la publicidad. Es su *Gutunliburua*, en la que cabe distinguir dos partes principales. La primera, la que mejor responde a su título, está constituida fundamentalmente por su epistolario, así por las cartas que escribió como por las que recibió. Contiene también otros escritos. Así, algunas efemérides, escritas posiblemente al paso de sus lecturas, como resumen de lo leído; fórmulas de contratos con sus estipulaciones con los aprendices de herrador (redactados en vascuence o en castellano, según fuera vasco o no el solicitante); relatos de sucesos de su vida, como el del registro policíaco efectuado en su domicilio durante el sitio de Bilbao, en que le faltó el manuscrito de un diccionario vasco, etcétera. Merecen destacarse, como exponente de su ideario, la primera carta dirigida a don Diego de Basaguren, del año 1823, fecha inicial del epistolario, y un memorial destinado a los diputados vizcainos del lado carlista en 1834, que vienen a ser verdaderos manifestos y programas de acción para los vascos en consonancia con sus ideas tantas veces expresadas.

Entre las cartas y otros documentos de diversa índole, se van de vez en cuando insertando en el manuscrito envíos poéticos a sus amigos con motivo de sus onomásticas, en los que no pueden dejar de salir a relucir y de escucharse, como estribillos, los temas de sus constantes propagandas.

He aquí, por ejemplo, una muestra del tema de la escuela vasca:

*Esaizu: zelan da au,
(edo) zetara adi gara?
Euskera berba eginda,
eskolia erdera?
Ori da asmo gaiztoak
egitia gu galtzera.
Esan biarrian Aita Guria
esaten Padre Nuestro
erderazko garrazkerian!*

Hay también duros ataques contra las tendencias erderizantes de los bilbainos, sus vecinos de enfrente:

*Zer garbitu asko dago
emengo lekuetan.
Uri au da geure galtzaille
gauza guztietan,
egin dan legez pozua
erdera loiekaz,
mota guztiko suge ta
ganeko piztiakaz.*

También está expresado en verso el proyecto de la constitución de una Academia de la lengua vasca:

*Oegtalau gizon biar dira izentau
Gernikako batzarrian
egiteko alegin an,
euskeraren ganian.*

4) En la segunda parte de su *Gutunliburua* es donde su autor aparece haciendo más de propósito sus pinitos literarios. Es hacia el final de sus días, una vez retirado ya de toda vida pública.

Esos ejercicios suyos en verso, entre literarios y didácticos, están recogidos en las últimas ciento y pico páginas del manuscrito, escritas a dos columnas, de las 392 de que consta el tomo. Parecen escritas no por el mismo Ulibarri, sino al dictado suyo por amanuenses femeninas bastante inexpertas, lo que explica las indecisiones e incorrecciones ortográficas de que están plagadas.

Consta el nombre de una de ellas. Se llama Valentina o Balentzi. Y hay un momento en que el que dicta le advierte, también en verso, que afine la pluma y se esmere en escribir claro:

*Balentzi:
imini lumia zorrozki,
nasaro onean izkribatzeko
garbirik eta ederki*

¿Qué se propuso el autor en esas páginas versificadas? Puede afirmarse que, por más que los temas parezcan a una lectura superficial dispares, hay en ellos cierto propósito unitario evidente. Se diría que contienen un poema didáctico, destinado a instruir de primera intención a las mismas amanuenses, que nos imaginamos podrían ser algunas sobrinas suyas con las que viviera. Los temas desarrollados son de la historia sagrada y profana, empalmando con la historia del pueblo vasco, su aparición en Euskelerría y su establecimiento definitivo aquí en lucha con los elementos para conquistar su mar y sus tierras. No hay relatos de hazañas bélicas. Con ser el autor exaltado admirador del pasado, no hay lugar en sus versos para gestas guerreras, como si no tuviera fe en la legitimidad de otras luchas que no sean las que el hombre emprende para dominar la naturaleza. Así, la mejor parte de su poema es un canto a la vida del labrador, del ferrón y del marino vascos, a la inteligencia y habilidad desplegadas por nuestros antepasados en poner la naturaleza que les rodea, mar y tierra, a su servicio.

En los temas didácticos desarrollados no falta uno, bien refractario a ser tratado en verso como es el de las matemáticas, ni una lección largamente explicada acerca de la educación del niño desde que nace hasta que, a través de su desarrollo en la familia, se capacita para actuar en la sociedad.

Tampoco hay apenas asunto en que, venga o no venga al caso, por *a* o por *b*, no se introduzca el tema de su euskera o erdera.

Véase cómo lo hace, por ejemplo, al narrar la caída de los ángeles:

*Bere ederrena ederrez
len uste ebana izan
zeruan burua,
orain bere lagun ainiñoen artean da
erdaldun sulezekua.
An da buru, an da agintari,
an danatuen errondari,
here erderaren merkatari.*

Las últimas páginas van dedicadas a su Oquendo natal conteniendo una descripción del pueblo y de su caserío y un canto a la valía de sus hombres y a su condición de euskaldunes:

*Okondoko erria,
da euskaldun bere izatia...*

La obra tiene un final brusco, dando la impresión de quedar truncada e inacabada. Cuando se escribían las últimas líneas, según parece leerse con alguna dificultad por obra de la polilla, debía de correr el año 1844.

Tres años más tarde, el 5 de mayo de 1847, moría en Abando, su pueblo de adopción, el hombre que tantos planes había concebido para el bien del pueblo vasco y para el resurgimiento de su lengua. Si los planes no prosperaron, acháquese, no a la inviabilidad o falta de sentido realista de los planes, sino más bien a las luchas fratricidas que se habían iniciado ya y habrían de absorber la atención y energías de sus paisanos.

José Pablo de Ulibarri, que se adelantó a tantas iniciativas que aún pugnan por abrirse paso, promotor de la escuela vasca y aun del proyecto de crear una Academia de la Lengua Vasca, bien ganado tiene el derecho a este recuerdo que la Academia Vasca, ya fundada y con 50 años de existencia, le dedica hoy ante sus paisanos en esta Alava que le vio nacer.

Bilbon, 1969-VII-10ean

EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Jaun ta Andreok

Gure Euskaltzaindiaren gaurko jai au, D. Julio de Urkixo zaren omenez egin nai degu; merezi ere bai bait zuan Deustu'ko seme argi ark, Bilbao batean au bezelako omen-aldi bat berari opatzea.

Itz-aldi ederrik entzungo dezute laister, gai oni buruz. Baiñan nik ere, gaur Euskaltzainburu naizenez, eta D. Julio bera apur bat ezagutu nuanez, nik ere zerbait esan nai nuke.

Bestek esan bear dizutenik, nik lardaskatu gabe mintza nai nakizute —edo-ta al dan gutxienik lardaskatuaz—. D. Julio'ren lan eder baten alderditxo bat ukituko det bakarrik: bere «Riev» bikaiñaren alderditxo bat, guk ere gure euskal-lanetarako berarengandik zerbait on ikasi dezagun.

* * *

«Riev», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, D. Julio'ren egitada berezi, berarizko, berebiziko bat izan zan; nortasun aundiko ta begi-argidun euskaldun bizkaitar baten egitada. Erderaz «gesto prócer» eta «gesto de vasco clarividente» esango litzakena.

D. Julio de Urkixo'k eta D. Resurrección María Azkue'k ba zuten biok, gauza askotan, elkarren antz. Biok bizkaitar geniodun, titan-genio-dun, azaltzen zaizkigu euskal-lanetan; bizkaitar-geniodun, beste askok, —besterik geienak— «askoren artean» egiten dutena, bizkaitar batek «berak bakarrik asi, ta berak bakarrik garatu». Genio bizkaitarra.

Askotan esan oi degu, eta egia ere ba da, Izkuntza baten Iztegi osoa, ez dala izan oi, gizon bakar baten lana, lagun-arte baten, ekipo baten lana baizik, erderazko Iztegia, *Real Academia Española*k askoren artean egiña dan bezela; eta berdin bide bait da frantzesekoa ere.

Azkue'k, ordea, berak bakarrik, bere eskuz egin zuan bere Iztegi bikaiña, eta berak bere boltxikotik argitaldu gaiñera. Berdin egin bait zuan beste bere «titan-lan» dan Kantutegiarekin ere: berak bere eskuz bildu, erririk-erri, Kantutegi arrigarri ori osatzen duten «milla ta bat» abestiak ere...

Nortasun aundiko egitada, benetan «gesto prócer» esango gendukeana.

* * *

Bide ber-beretik ibilli zan gure D. Julio de Urkixo ere, bere «Riev», *Revista Internacional de Estudios Vascos* ekin.

Revista-kontuan —estudiotarako Aldizkari-kontuan, alegia— aldizkaria bera sortu baiño leenago, lagun-arte bat osatu oi da, sortu bearreko Aldizkaria eratu, argitaldu eta zabalduko duan lagun-arte bat. Gure artean ere, Urkixo Jauna arte, ola oitu izan da. Donostiar

Aldizkari «Euskal-erria» ola sortu zan. José Manterola izan zuan Zuzendari, baiñan Aldizkaria 1880'gn inguruan sortu zuana, «Consistorio de Juegos Florales Euskaros» izan zan.

Berdin gertatu bait zan, gero —«Euskal-erria» Aldizkariari, berrogei bat urteren buruan, bere leengo giroa, bere arnas aundia gutxituta— Aldizkari berri bat sortu bear izan zanean ere: Bazkun berri batek, «Euskal-esnaleak» sortu zuala «Euskal-erriaren alde». Gregorio Mujika izan zan Zuzendari; baiñan Bazkun bat izan zan sortzalle ta jabe: «Euskal-esnalea»-Bazkuna, donostiar eta tolosar jaun adoresuz batez ere, osatutako Bazkun langille-langillea...

Berdin gertatu bait zan Bilbao'n ere, beste Aldizkari burruka-zale batekin: «Euzkadi» rekin. Eta berdin baita Baiona'n ere «Gure Herriarekin», etab. Guztiok beti, sortzalle ta eusle, Bazkun bat, lagun-arte bat izan dutela.

Baiñan, berriz ere, leen aipatu ditugun bi titan bizkaitarrak izan genituan, lege orren bereizkuntz, «berak bakarrik» beren kontura olako Aldizkari bana sortuaz: Azkue ta Urkixo, berriz ere; Azkue, bere «Euskalzalea»-Aldizkari itxuraz xotill, baiñan eragitez azkar izandako «Euskalzalea»-sortuaz; eta Urkixo Jauna, bere «Riev», *Revista Interlacional de Estudios Vascos* sortuaz.

* * *

Don Julio, bere aldetik, egitada ontan, oso «Jaun» eta «Zaldun» azaldu zitzaigun.

«Boltxikoz», ba zezakean —bear ere baita, ortarako boltxiko iori ta mukuru—. Urkixo Jauna, jaun aberatsa zan. Familiako egoerak ere laguntzen zion, bere txanponak lan ortan arraixkatzen. Besteren batek, olako boltxiko ioria, *yate* bat erosten erabilliko zuan; edo-ta, Diputadu ateratzeko, auteskunde-burruka batzuetan parra-parra eralkiko zuan. Don Julio'k, beste bide bat eman zion bere diruari: «Riev» sortu zuan; baiñan ez bere burua goratzeko, Euskeraren on aundirako baizik.

* * *

D. Julio'k, bere begi argiz, eusko-kulturaren soroan utsune bat ikusten zuan. Iñoren errutrik gabe esan bait liteke, utsune ori ba zala: ots, Euskeraren auzia, «erritxiki-auzi» biurtzeko arraixkua, ale-

gia: erritxiki-auzi, orube ta zabal-une estu ta urridun gauza. Euskeraren auzia, euskaldunen arteko auzi romantiku, oso romantiku, baiñan bere-baitan bilduegi, eta ez ain eragille biur zitekean... Eusko-ikaskuntzai, euskal-estudioai, «internacional»-jitea eman bearra zegon: ori zan D. Julio'ren begi argi, zorrotzak ikusten zuana: gure ikaskuntzari giro «internacional» eman bearra...

Bera zan, ura, benetan internacional. Bere bizikeraz eta bere izaeraz. Paris bazan, Viena bazan, Berlin bazan, Londres bazan, guzietan zuan sarrera ta arrera. Eta an-aietako euskaltzaleak —bai bait ziran, dakizuten bezela, Humboldt batengandik onuntz— an-aietako euskaltzaleak ezagutzen eta tratatzen zituan: zala Schuchardt, zala Dongson, zala Vinson, zala Eis, zala Ulhembeck, zala Gavel: zein ez? Guzti aien euskal-jakinduriari erreten bat, urbide bat ipiñi bearra zegon, kategori eder bateko Aldizkari baten bitartez... Euskeraren on aundirako...

Eta, esan-da-egin, berealako batean erantsi zizkion eskuak lanari...

Guzti ura etzan izan amets bat, amets zoro bat. Or daude 40 tomo eder, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, beste ainbeste urteren buruan argitalduak, lan bikaiñez ornituak, euskeraz, frantsez, alemanez, inglese... 40 urteren buruan, 1907'tik onuntz —Europako Gerra Aundia bitarteko— gure gerra arte argitalduak: 40 tomo.

* * *

Utsune bat aipatu dizuet leentxuago; Euskeraren arraixku bat; Euskeraren auzia txikiegi egiteko arraixkua.

Baiñan, nik uste, D. Julio'k etzuala bere egitekoa egin, arraixku orrengatik bakarrik, ezta «orrengatik bereziki» ere; Euskerarentzako bentaja eder bategatik baizik. Berak gauza artan etzuan «ezetzera» jokatu, «baietz» eder batera baizik. Ikusten bait zuan, nolako iritzi ta giro ederra zegon Europa'n gure Euskerarentzako (emen, gure inguruan, bestelako giro kaxkarra izan arren). Giro europar eder ori eskuratu nai izan zuan, Euskeraren onerako.

Etzuan jokatu, beste iñoren kontrako ere, besteren lanak mendratze-agatik, alegia; ezta iñolako bere alderdiren alderako ere; guztion probetxurako garbi-garbi baizik. Eta, izan ere, ala izan zanik ezin lezake iñork ukatu. Gai ontan ez nua ezer esatera, auxe beste

rik: gaur dan egunean, Euskerari buruz, zerbait jakin nai duan orok, D. Julio'ren «Riev» era jotzen duala, iturririk garbienera bezela...

* * *

Ondo bete zuan D. Julio'k, bere egun aietako zer-egia. Garai-ari zegokiona. Europa'ra begira egin bear zana.

Gaur daukagun giroak guri, bear bada, beste gauza bat eska-tzen digu. Euskeraren iraupena, Euskeraren bizia degu gaurko pro-blema. Euskerari, gure baserrietan, gure kaleetan bizirik iraunerazte-ko, euskaldunoi euskeraz mintzaerazteko, euskeraz irakurrerazteko, eta euskeraz idazterazteko problema...

Orregatik gaurko giroan esaera eta slogan au daukagu guztiok ahoan: «Euskaldunai euskeraz», «Euskaldunok euskeraz». Orrega-tik gaur, ezer-bada-ta, Euskerari iraunerazteko Ikastolak sortzea degu problema; Ikastolak eta Aldizkariak: leen «Argia» ta «Ekin» ta «Eskualduna» bezela, orain «Zeruko Argia» Donostia'n, eta «He-rria» Bayona'n... eta «Anaitasuna» Bilbao'n; eta berdin *ad usum privatum*'go aldizkaritxoak Seminario ta Fraidetegietan: dala «Ya-kin», dala «Laiaketan», dala «Arnas», dala «Bidez»... Ots, euske-razko liburuak, euskerazko argitaldariak... Euskeraz itz-egin, euske-raz irakurri, euskeraz idatzi; itz batean, «Euskalduna alfabetizatu». Eta pozik asko esan bait dezakegu, gaur zerbait egin dala, eta bide onetik goazela gai ontan.

Ala ere, ezin esan dezakegu, «Riev» en bideak era-bat utzi egin bear ditugunik; «Internacional» bideak, alegia; ots, Europa'ren bideak.

Euskeraren problema, Europa'ren problema izango da beti; Gi-zadi osoaren problema... «Onu» ren eta «Unesko» ren problema dala esan bait dezakegu, eta Internacional guztien problema, Giza-kulturaren problema sakon eta miña dan ezkerro. Europa'k ezin bait lezake bertan beera utzi gure Euskeraren problematika, gure Eus-ker a maitea Europako izkuntzarik zaarrena izanik. Eta alde ortatik, ain zuzen, gaur dan egunean, orregatik dauka gure Euskaltzaindiak eraturik, datorren udazkenerako, Espainia'ko Izkuntza txiki guztien *Symposium* zabal bat Nafarroan.

* * *

Gauzaren «internacional» «Laterrien arteko» izateari dagokion aldetik ori.

Beste orrenbeste esan bait dezakegu —eta bukatzera noa— «Riev» ek «Estudios» dion orren aldetik ere.

Estudio, «Ikaskuntza», «Eusko-Ikaskuntza», alegia. Euskeraren Teorika, *Lingüística*. Bide au ere ez bait dezakegu esan, gaur bide «superatua», atzean gelditutako bidea, bide «desfasatua» danik. Ikaskuntza baten «planificacio» on baten barruan, teoriak beti bear du leku, praktikaren aldamenean. Teoriak ez dio iñoiz kalterik egin praktikari. Teoriak osatu egiten du praktika.

* * *

Eta ez noa ezer geiago esatera.

Orixe zan, esan bear nizutena nere itzalditxo ontan: Ikasgai bikain bat ematen digula guztiori, gaur emen omen-aldi ta goratzaire egiten diogun D. Julio de Urkixo Jaunak, bere *Revista Internacional de Estudios Vascos* en bitartez.

DISERTACION DE DON JUAN RAMON DE URQUIJO

Constituye para mí, dada mi doble condición de vizcaíno y sobriño carnal de Don Julio Urquijo, una grata responsabilidad el honrar, aquí y ahora, la figura vascongada y científica de quien fue académico numerario fundador de la Academia de la Lengua Vasca.

A fuer de vizcaíno he de confesar mi emoción al ocupar precisamente la tribuna donde otro de los míos —mi tío Adolfo, hermano de D. Julio— presentó, siendo Presidente de la Diputación Provincial de Vizcaya, una proposición para crear una Academia de la Lengua Vasca, antecedente inmediato de la Corporación aquí reunida. Y como pariente de Don Julio por tener que referirme, aunque sólo sea por carambola y de una manera breve —ya que en este acto correspondía hablar a mi hermano Ignacio y, por otra parte, no quisiera que mi intervención rebasase en un solo minuto la media hora concedida—, al quehacer considerable en favor de la Bibliografía y la Lingüística vasca de aquel inolvidable D. Julio de Urquijo que dedicó toda su vida a la conservación y salvación de los viejos

valores vascongados y a la sistematización y difusión de nuestra misteriosa lengua.

He dicho en otra parte, al prologar la reedición de la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, —fundada, dirigida y sostenida por D. Julio de Urquijo—, que no son los afectos familiares los más propicios para analizar objetivamente una vida fecunda y ejemplar, engrandecida a mis ojos por el afecto que, en vida de D. Julio, tío y sobrino nos profesamos.

Puesto que las circunstancias me colocan de nuevo ante su figura prócer, únicamente he de agradecer a la Academia el homenaje y la designación, añadiendo que procuraré en todo momento paliar los efectos familiares con la misma objetividad y seriedad, honradez y mesura que D. Julio utilizó en todas sus empresas. Ellas, han conformado la realidad de su considerable labor y han hecho que, al borde casi del centenario de su nacimiento, nos reunamos hoy aquí, especialistas de la lengua vasca y gentes vircaínas de la más diversa condición, para recordar, aunque solo sea a través de mis torpes palabras, la vida y la obra del inolvidable vascófilo Julio de Urquijo e Ibarra.

El motivo no puede ser más justo: el cincuentenario de la fundación de la Academia de la Lengua Vasca, entre cuyos cuatro primeros miembros, designados por plebiscito unánime, figuraba (junto a D. Resurrección María de Azkue, D. Arturo Campión y D. Luis de Eleizalde), D. Julio de Urquijo.

Este su acceso a la Academia en plena madurez vital, recién cumplidos los cuarenta y siete años de una vida larga en vigiliass y afectos, ha de ser el motivo principal que estructure y sistematice mis familiares palabras.

O dicho de otra manera: lo que deseo plantear en este momento son las razones por las que D. Julio fue designado para Académico de la Lengua Vasca; los motivos por los cuales fue elegido para la difícil tarea de conseguir, mediante su esfuerzo, que se hiciese lección y verdad el sugestivo lema de «Ekin eta Yarraí», es decir, de *trabajar y continuar* en la perfección del idioma que nos legaron nuestros antepasados.

Ya lo hemos señalado: cuando la Academia de la Lengua Vasca empieza a dar sus primeros pasos D. Julio tiene cuarenta y siete

años de edad. Es el más joven de los cuatro Académicos numerarios fundadores. Con su maestro, D. Resurrección María de Azkue, es el segundo representante vizcaíno que entra en la Corporación. Los otros dos traen hasta la Academia preocupaciones navarras —tal es el caso de D. Arturo Campión— o guipuzcoanas desarrolladas apasionadamente sobre el afán cultural de Vitoria, donde Eleizalde profesaba una Cátedra de Matemáticas en su provinciano Instituto.

¿Por qué esta designación unánime? ¿Por qué esta arribada plebiscitaria y singular sin una sola voz disiente para tales designaciones? Estimo que la respuesta es bien sencilla, incluso en el caso de D. Julio Urquijo a quien sus paisanos —todo hay que decirlo— conocían más como pintoresco ejemplar entercado en llevar a su biblioteca todos los libros raros y curiosos de la bibliografía vasca que como lingüista vocacional, puesto que esta última actividad se había desarrollado casi siempre en difíciles contactos con los especialistas de allende nuestras fronteras.

Es indudable que si para muchos contemporáneos la figura de D. Julio pudo estar enmarcada por lealtades a una dinastía o por aficiones librescas, para cuantos seguían de cerca la realidad de los estudios euskéricos, D. Julio fue la figura señera que, a través de diversas empresas culturales y, sobre todo, desde la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, logró conectar el estudio de nuestra lengua con las grandes corrientes filológicas y científicas imperantes en Europa, mediante un contacto —a veces hasta heroico—, con los grandes especialistas de la filología europea, a muchos de los cuales logró interesar en la problemática de una lengua entonces en declive y con escasez de antecedentes escritos.

D. Julio de Urquijo tenía, por tanto merecimientos sobrados para llegar a la Academia.

Desde sus aficiones bibliográficas había podido intuir como nadie la necesidad de crear el organismo idóneo que velase por la fijación y conservación del idioma vasco. Quien desde su juventud se preocupó por aportar luces propias a la polémica sobre la ortodoxia o heterodoxia de los Caballeritos de Azcoitia y sometió a revisiones los juicios de D. Marcelino Menéndez Pelayo, es indudable que conocía perfectamente los empeños vergareses y carlotercescos de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, cuyo antepro-

yecto de Estatutos preveía la circunstancia de los socios aplicados «a pulir y cultivar la lengua vascongada y a recopilar lo más caro y escogido que haya escrito en ella, así en prosa como en verso», esforzándose, al mismo tiempo, por la puesta en marcha del necesario y oportuno Diccionario, propuesto por Rodríguez Campomanes, Director de la Real Academia de la Historia e individuo de número de la Bascongada.

Aún andaba D. Julio por las aulas del Instituto Vizcaíno de la Plaza de los Auxiliares cuando el Ayuntamiento de Durango convocó, en 1885, unas «Fiestas Euskaras», de cuya comisión organizadora fue presidente el patricio durangués D. José María de Ampuero. A sus manos llegó la convocatoria de los certámenes literarios, musicales y artísticos. En ellos, figuraba señalado un apartado —el 18— convocando un «Proyecto, Bases y Reglamento de una Academia de la Lengua e Historia Eúskaras en completa armonía con los principios católicos», al cual puede considerarse como un inmediato antecedente de la actual Academia de la Lengua Vasca, por tratarse de un estudio completo perfectamente articulado y que sin duda alguna hubo de servir como inspiración y base para estructuraciones posteriores.

Resulta tremendamente aleccionador a este respecto el que precisamente, en 1906, D. Adolfo de Urquijo e Ibarra, hermano mayor de D. Julio, siendo Presidente de la Corporación que hoy nos acoge, presentase a la Diputación de Vizcaya una moción para crear la Academia de la Lengua Vasca, en cuyo articulado se inspiró la Academia llegada la hora de redactar sus actuales estatutos y seguir una serie de directrices en las que no es extraño pensar en la influencia directa de D. Julio.

Si la moción de Adolfo de Urquijo no tuvo repercusiones inmediatas en Vizcaya, es indudable que las tuvo en el «Cercle d'Etudes Euskariennes», fundado en Bayona en noviembre de 1911 por los Sres. Broussain, Daranatz, Dourisboure, Gavel, Lacombe, León y Urquijo, con una estructura orgánica y unos fines concretos que coinciden con los de la actual Academia. Esta fue asimismo presentada desde la Corporación Provincial de Vizcaya, en enero de 1918 y al amparo de una brillante moción, suscrita por los Diputados Sres. Elguezábal, Rotaache y Landáburu, quienes propusieron

la creación de una entidad, bajo el patrocinio de las cuatro Diputaciones vascongadas y con los fines concretos de «estudiar, purificar, robustecer, unificar y defender el idioma vasco y sus variedades dialectales».

Don Julio de Urquijo, que había sido elegido por unanimidad presidente del «Cercle d'Etudes Euskariennes» de Bayona, fue nombrado entonces miembro de la Institución promocionada por la Diputación Vizcaína.

Meses más tarde, con motivo del Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate, destaca por merecimientos propios la interesante intervención de don Julio de Urquijo en torno al «Estado actual de los Estudios relativos a la Lengua Vasca», y se adopta por la *Sección de Lengua* el acuerdo de «Creación de la Academia o entidad tutelar de la Lengua Vasca». A este efecto, se nombra una ponencia para la redacción del proyecto de Estatutos que habrían de presentarse a las Diputaciones vascas.

La ponencia redacta el oportuno estudio y, en el mismo, puede verse un «Capítulo adicional» cuyo texto dice lo siguiente: «Para la sección filológica quedan, desde luego, designados académicos los señores don Resurrección María de Azkue, don Arturo Campión, don Luis de Eleizalde, y don Julio de Urquijo, con facultad para nombrar los demás miembros que han de integrar dicho grupo».

Ya tenemos, por tanto, a la Academia de la Lengua Vasca en marcha. Y entre sus cuatro indiscutibles académicos numerarios fundadores a don Julio de Urquijo e Ibarra, el estudioso que conocía como pocos los sucesivos esfuerzos vascongados en favor de una institución que estudiase, purificase, unificase y defendiese al idioma vasco.

Sus méritos excelsos a los campos de la bibliofilia o de la erudición para insertarse en una actividad lingüística que había originado la más lógica de las simbiosis entre bibliografía y filología vascongadas.

La biografía toda de don Julio de Urquijo parece proyectada para este ingreso en la Academia de la Lengua Vasca.

Nace en Deusto el 3 de abril de 1871, en el seno de una familia muy unida al quehacer industrial y mercantil que empalma con las páginas finales de «Paz en la Guerra». La familia de don

Julio, pasadas las vicisitudes del sitio de Bilbao, vuelve a su refugio de «La Cava» de Deusto, donde contaban con oratorio particular y con la providencial circunstancia de un sacerdote de Lequeitio, recién ordenado —no hace falta decir que me refiero a don Resurrección María de Azkue— quien, como capellán de la familia, vivió de cerca la educación de las familias Ibarra, Vilallonga, Urquijo y Zubiría, interesándoles e iniciándoles en los conocimientos del ancestral idioma cuyos ecos misteriosos dejaban oírse apenas traspuestos los límites pequeños de la Villa de Bilbao.

Con el ingreso en 1887 de don Julio en la Universidad de Deusto, coincide el desplazamiento a Salamanca de don Resurrección María de Azkue. Conviene volver los ojos sobre esta Bilbao pequeña que había ido creando zonas residenciales a lo largo del Campo de Volantín y de las huertas de Deusto y se aprestaba a encontrar su Ensanche al otro lado del río, sobre las campas de Albia, en la República de Abando. Es la Bilbao aquella una capital que vive considerables expansiones mineras y siderúrgicas, bastantes de ellas protagonizadas por miembros de la familia de don Julio. Al calor del desarrollo minero, mercantil e industrial, la Villa empieza a preocuparse por la parcela de la cultura. Interesan las expresiones indígenas y don Resurrección trae hasta los salones y los jardines de «La Cava» el palpitante autóctono de los muelles lequeitianos a través de los juegos que le enseñara su padre, director de la Escuela Náutica de Lequeitio, y desde los refranes, leyendas y cuentos que aprendiera de boca de su propia madre.

Superados los estudios de Derecho Romano, don Julio de Urquijo tiene ocasión de asistir como espectador a la creación de una cátedra de vascuence en los locales del Instituto Vizcaíno que le había acogido como alumno y, al mismo tiempo, de vivir las vicisitudes de su provisión, hoy acaso excesivamente desmesurada por la significación de quienes se presentaron al concurso.

Era por la primavera de 1888.

Don Julio se alegra con el triunfo de don Resurrección, el capellán de la familia que había puesto un poco de orden en sus entusiasmos lingüistas y había conseguido proyectar sobre el euskera la enorme predisposición para los idiomas del joven alumno.

Fue precisamente Azkue quien salvó a Urquijo del desencanto que le habían producido las teorías profesadas en la Universidad de Deusto por don Julio Cejador y Frauca, el inquieto filólogo que acabó por dejar la Compañía de Jesús para explicar una cátedra en la Universidad madrileña.

Si para don José Ortega y Gasset, príncipe en el Colegio malagueño de El Palo y alumno distinguido en Deusto, las enseñanzas de Cejador resultaron beneficiosas, don Julio tuvo que empalmar en el trato con D. Resurrección María de Azkue viejos entusiasmos de los tiempos del Instituto Vizcaíno, cuando el magisterio directo del P. Arana y las orientaciones definitivas en materia filológica de don Román Biel, autor de dos folletos sobre «El habla popular de Vizcaya», y, especialmente, de don Tomás Escriche y Mieg, director de la Revista Vizcaya y defensor infatigable de una lengua universal hasta el extremo de convertir al adolescente Julio de Urquijo en entusiasta volapückista.

Lo cierto es que el propio don Julio ha declarado en alguna parte que fueron el P. Arana y D. Resurrección María de Azkue quienes influyeron más directamente para que comenzara a estudiar el idioma vasco, añadiendo que no tardó mucho en saber lo suficiente para leer y entender medianamente el euskera.

El interés definitivo hacia la lengua vasca renació años más tarde, en San Juan de Luz, luego de haber contraído matrimonio en 1894 con doña Vicenta Olazábal e instalar su casa en la localidad francesa; después de haber sido, en 1903, Diputado a Cortes por el distrito de Tolosa y haber sabido de encuentros providenciales con una serie de libros y manuscritos vascos que le obligaron a manejar y ponderar el «Ensayo de una Bibliografía de la Lengua Vasca» de M. Julien Vinson.

Contactos epistolares con tan importante autor resucitaron, allá por los primeros años del presente siglo, los propósitos euskeldunes, semidormidos en el alma de don Julio de Urquijo.

Y se dio a la tarea con un tesón inusitado y un entusiasmo sin límites.

Empezando en 1906 por influir cerca de su hermano Adolfo a efectos de la ya citada moción para crear, amparada por la

Diputación de Vizcaya que en estos momentos nos acoge, una Academia de la Lengua Vasca.

Creando en 1907 la «Revista Internacional de Estudios Vascos», calificada por nuestro escrupuloso investigador Fausto de Arocena como la obra definitiva de don Julio, definida como el gran empeño que había de consagrar su prestigio indiscutido, lo mismo entre los de casa que entre los de fuera.

Afinidades culturales y, si se quiere, filológicas con Georges Lacombe, además de una franca amistad entre ambos, hizo que surgiese a la vida de la cultura la «Revista Internacional de Estudios Vascos», nacida, al decir de todos sus historiadores, para poner orden y método, es decir, ciencia, en el campo de nuestras investigaciones, preferentemente de las investigaciones filológicas.

La RIEV —digámoslo con palabras del discípulo Fausto Arocena— fue el aglutinante que agrupó dentro de sus páginas a franceses y alemanes, a ingleses y rusos, y no se diga que también a vascos de ambas vertientes. Una sola condición era precisa para figurar como colaborador de la RIEV: «la solvencia científica».

Podría añadir a las palabras de Arocena algunos detalles definitivos al respecto. Muchos de ellos están en las libretas de correspondencia de don Julio, preciados cuadernillos en los que iba anotando datos y resúmenes de cartas que han llegado a mis manos por deferencia de la viuda de don Julio y tía mía y que conservo como inapreciable tesoro.

En esta correspondencia de don Julio, rara es la página que no contenga alusión alguna a sabios extranjeros, a filólogos y lingüistas de Alemania, Francia, Inglaterra o Rusia, que pusieron su vocación y su talento en nuestra antigua lengua.

Hugo Schuchardt fue objeto principal de las atenciones y solicitudes de don Julio. El prestigioso profesor de Filología Románica de la Universidad de Grazz —la ciudad que se interpuso en el destino de muchos vascongados, hasta el punto de que en su cementerio está enterrado el escultor Nemesio de Mogrobejo— mereció el trato exquisito de quien siempre le supo el más señalado renovador de los estudios lingüísticos y le consideró como el sabio de rigores extremados consagrado al estudio de las afinidades del vascuence con otros idiomas.

A Julien Vinson —el polígrafo galo a quien don Julio debía el definitivo reencuentro con su vocación bibliográfica y filológica—, le buscó, maduro de sabiduría y polémicas con los Bonaparte, Van Eys y demás vascólogos, para injertarle dentro de la RIEV a lo largo de una serie de colaboraciones de verdadera importancia, dignas en todo momento de quien, no en vano, había llegado a dirigir la «Revue de Linguistique».

Georges Herelle y Albert Leon, junto al Conde de Charencey, cerraron la nómina de filólogos franceses, importantísima siempre aunque sólo hubiesen existido las aportaciones del profesor Saroi-handy, viejo amigo de don Julio desde los contactos primeros a través de Georges Lacombe, el gran colaborador en las tareas de redacción, selección y montaje de la Revista Internacional de Estudios Vascos.

En la célebre Universidad holandesa de Leyden, don Julio buscó para su revista y para su vascuence, las aportaciones metódicas del profesor Uhlenbeck y las teorías luminosas de su discípulo B. Faddegon, el primer colaborador de la revista desde 1908 y el segundo con un importantísimo trabajo sobre la teoría psicológica del cambio de consonantes y su aplicación a la fonética de nuestros dialectos, publicado en la RIEV de 1911.

Allí donde existía un sabio dedicado al estudio del euskera, allí estuvo la pasión científica de don Julio y su deseo de revalorizar el viejo idioma que le enseñara un día don Resurrección María de Azkue. Con todos matuvo correspondencia. Y a muchos de ellos les tradujo sus originales. Sus cartas y sus afectos llegaron a Breslau, para ganarse a Winkler; a Berlín para perfilar algunos problemas con el pastor Th. Linschmann; a Rusia, para aplacar las refutaciones que a Goutman y a sus artículos de la RIEV hizo Hugo Schuchardt; a Jena, a Viena, a Bonn, en una palabra, al más escondido lugar de Europa, si en él se cobijaba un sabio capaz de aportar solidez y ciencia al campo de la investigación lingüística vascongada, falta del oportuno ámbito universitario entonces y ahora —sólo sé de promesas respecto a la implantación de estudios humanísticos— y por ello excesivamente expuesta a los enfoques partidistas, a las polémicas a nivel provinciano y a las intuiciones más o menos genialoides de los improvisadores de turno.

Don Julio luchó a brazo partido por traer hasta el vascuence el rigor y el método de los grandes filólogos que profesaban en las Universidades y en las aulas de mayor tradición científica europea.

A veces, poniendo en el empeño todas las dosis de paciencia y de resignación necesarias, todo el comedimiento y la comprensión de un hombre de mundo unidas a la humildad de un santo.

Y esto referido a algún caso de científico español —no creo descubrir nada nuevo al hablar de la irritabilidad de don Telesforo de Aranzadi— o a determinado vascófilo extranjero, excéntrico y difícil aunque, antes que nada, según don Julio, verdadero caballero andante de la vascolología.

Creo que a un auditorio tan cualificado como el que aquí se congrega, no hay porqué señalarle que me refiero al inglés Eduard Spencer Dogson, el más estrambótico y falto de mesura de los colaboradores de la RIEV, aunque siempre con datos de sumo interés en sus considerables trabajos y reimpressiones.

Este acercamiento de don Julio y su Revista a las Universidades y Centros extranjeros —hasta se ha escrito sobre la benéfica xenofilia de mi inolvidable tío— lo expresó de manera definitiva en el discurso pronunciado en el Congreso de Oñate el 3 de septiembre de 1918.

«Dadas la falta de un tratado de metodología lingüística vasca y nuestra natural incompetencia en una disciplina que solo cultivamos como aficionados —dijo entonces don Julio de Urquijo—, creímos que el único medio de dar unidad al movimiento vascológico y de hacer fructificar en nuestro país los métodos que tan fecundos resultados habían dado en otros países, sería el fundar una publicación en la que, a la colaboración de los principales prestigios de Euskalerría, se uniera la de aquellos vascólogos extranjeros que gozaban de reconocida autoridad en otras ramas de la lingüística. Nuestro objeto se logró, por lo menos en parte, pues es indudable que conseguimos estrechar las relaciones entre los vascólogos extranjeros y los del país y atraer hacia nuestros estudios, o retener en ellos a eminentes lingüistas».

Vísperas de fundarse, en 1919, la Academia de la Lengua Vasca, merced a la labor desprendida de don Julio de Urquijo, se

habían conseguido metas que en algún tiempo pudieron parecer inalcanzables.

De ahí la unanimidad al designarle «Académico Numerario Fundador» junto con don Resurrección María de Azkue, don Arturo Campión y don Luis de Eleizalde.

Años más tarde —concretamente el 10 de marzo de 1927— cuando don Julio ingresa, junto con don Resurrección y representando al vascuence, en la Real Academia Española de la Lengua, el académico don Vicente García de Diego, en su discurso de contestación, nos recuerda, junto a la labor aquí abocetada, los doscientos trabajos de don Julio referentes a bibliografía, historia, etnografía y lengua vasca.

Y, naturalmente, entre los doscientos títulos propios, los relativos a nuestro idioma, algunos de ellos importantísimos, como, por ejemplo, *La forma verbal deustat*, *Aglutinación y Desaglutinación*, *El vascuence de San Juan de Luz*, *Observaciones sobre los pasajes en vascuence de Marineo Siculo*, *La lengua vasca y la lengua china*, así como diversos trabajos de tipo etimológico.

Precisamente el prestigio científico que don Julio alcanza en el extranjero a través de sus libros y sus artículos de la RIEV, tan apreciados de los altos cultivadores de la lengua vasca, es lo que hace que la Universidad de Bonn le confiera, el año 1924, el título de «Doctor Honoris Causa».

Son detalles de la biografía de don Julio seguramente conocidos por todos ustedes.

De ahí el que pase por alto condecoraciones y recompensas, actividades públicas y viajes de quien, sobre todo, estimó grandemente los títulos de Hijo Predilecto de Vizcaya e Hijo Adoptivo de Guipúzcoa.

Porque, antes que nada, deseo volver al enunciado de mi disertación —don Julio de Urquijo, Académico Numerario Fundador— para deducir unas pocas —muy pocas— consecuencias que, de todo corazón, desearía actuaras continuamente sobre todos nosotros, a fin de que el mensaje y la labor esforzada de tan relevante personalidad caiga sobre terrenos predispuestos y dé espléndidos frutos.

No creo que haga falta sentirse hechicero de tribu alguna, mago o aruspice, para pensar que don Julio, de haber vivido en nuestros días, hubiese dejado oír su voz en esta sala para pedir a la Diputación Provincial de Vizcaya una atención constante hacia el vascuence, tan necesitado en estos momentos de cátedras y lecciones, de cursos y programas que muy bien pudieran ser auspiciados por el nombre insigne de don Resurrección María de Azkue, el profesor animoso de Julio de Urquijo.

Tampoco estimo necesario perder el tiempo en corolarios retóricos o en elogios fúnebres a don Julio de Urquijo.

Los cantos funerales resultan un contrasentido cuando la trayectoria marcada canta a la vida y una obra palpitante vibra de por medio.

Este es nuestro caso.

El ejemplo de don Julio está demasiado encima y, además, vivirá con nosotros durante muchos años.

Por lo menos, mientras se hable y se estudie nuestro ancestral vascuence.

Porque allá donde exista un vascófilo o un cultivador de nuestra lengua, allá donde respire un académico o un aficionado a la filología, se levantará siempre la figura prócer de don Julio de Urquijo para señalarlos una ruta honrada y científica en la que el método y la seriedad de la investigación —procedan de franceses o ingleses, alemanes o rusos, castellanos, mallorquines o vascos— se impongan siempre a los sistemas ortográficos y formulismos «a priori», a los prejuicios de bandería o de escuela, o, lo que es peor, a torpes rivalidades provincianas que ya, ni en el terreno deportivo, resultan aceptables.

He dicho.

ERKIAGA JAUNAREN HITZALDIA

Bilbon berton asiriko 50 gn. Urteurren luze samarra aundiro amaitu baiño leen, barriro emen, Bilbon, batu da gaur agirian Euskaltzaindia. Emen dozue, ba, Bizkai-semeok barriro bere, zeuen aurrean batzar errikoian.

Aurretikoen izen ona gogoratzea, aurretikoen lan eta nekeak bear dan lez aintzat artzea goragarri baldin bada, guk bere, gomutau eta oroitu egingo ditugu jai atsegin onetan, zeregin bardintsuan jardun eben gizonak. Eurenganako esker onekoak izan gaitezkan.

Euskaltzaindiaren kanpoko joan-etorria, guztiok edo dakizue.

Durangoko Euskal-jaietan, 1886 gn. urtean, Aristides Artiñano jaunak, Euskerearen akademia zein eta zelakoa izan zeitekean azaldu eban.

Geroago, bien bitartean amaika aalegin alperreko egin ostean, geroago 1918 gn. urtean, Bizkaiko aldun ziran oneik, Kosme Elgezabal, Errotaetxe ta Landaburu jaunak eskabide zeatza egin eben, eta lau Diputaziño euskaldunak alkar-itundurik, Izkelzaingoa sortzea eta Eusko Ikaskuntzaren lenengo Batzar nagusian, an, Oñatin errotzea erabagi eben.

Bien bitarte orretako gorabeera ta azi-orrazi batzuk jakitea bere, atsegin izango jatzuelakoan, Urrats eta oinkada batzuk agertuko ditugu.

Aureliano Galarza diputau jaunak, 1887 gn. urteko azillaren 8-an, eskaria egin eutsan Diputaziñoari, onetaraxe idatzia (euskeraz jarri dogu).

«Jaun agurgarri ori:

Euskal-enda au berezi dauan izakirik jatorrenetariko bat, zalantzarik bage, bere antziñako izkuntzea dogu, itzetan aberats, joskeran bakana, izkeralari ospatuak arrituta laga dituana.

Ta eskualde bakartadeko ta argi onetako erri-agintariak barreatzen eta zabaltzen aalegindu baldin badira, ba dirudi oraingo aldian iñoiz ez lez egiteko premiñan dagozala...

Ori dala-ta (amaitzen dau eskari ori), izena ezarten dauan diputadu onek, Bizkaiko Institutuan Euskal-irakasgua sortzeko eskatzen deutsu, orretarako, urrengo urtealdian, bearreko dauan esku artea izentauaz.»

Andik lau urtera, R. M. Azkuek egin eban lenengo gramatikan —guztia euskeraz idatzia— 1891 gnean., agerturiko lenengo herbak bere, gogoragarri ditugu:

«Bizkaiko Ekautari:

Bizkaiak'beste askori legez'baituran emon eus-tan niri bere, izkeraa; nik ezdaut zelanbait arautu baino egin; liburu au ezdai, bada, nirea; Bizkaiakoa ta Bizkaiana da.

Nor dai ta non dago, baina, bere burutzat dauka-guna?

Euskaldunak, gomutaratu atzo zintzazan guztia, gaur nortzun zaizan ikusi eizu; iruditua daigun eze-lan albadaugu'biar *zer* izateko gagozan.

Zeu, Ekautu agurgarriok'lengo Bizkaian iaieriko seme zintzook, zeu zaiz Bizkai izanak itxiriko iarauntsi edo guruzkuian gordetzaileak: bere izkera zainak...».

Geroago, 1935 gn. urtean, Azkuek berak «Euskalerriaren Yakintza» lau liburuko sail ederraren itzaurrean⁸ 1897 urteaz ziar-duala, ziñoan:

«Bizkaiko Aldundiaren (sic) orduko asmoa, gora andikoa izan zan, euskera zaarrari, indar berriak zainetartzeko. Orduan asi ginan Arana-Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanetz, barrura begira, nola edo ala lanari ekin ta ekin. Irakurleak atseginez ikusiko duala, uste dut, gure Aldundiak artarako erein zuen lenengo azia».

Baiña, goazan mende onen asierara bertara. Aldi aretan, Bida-soaz araindiko ta onaindiko euskalzaleak, artaga ta urduri ibili zi-rean, alkartasuna, alkartasun lokarria egiteko aalegiñetan. Batera-tzerik ez eben lortu, ta orduko asmoa, utsean gelditu zan.

Ango «Eskualzaleen Biltzarra» ta emengo «Euskal-Esnalea» (Esnatzaillea obeto), ez zirean naikoa izan Azkue gurearentzat. Onen buruan, etenbako amesa, loratu-urren ebillen: Izkelzaingoa sortu bear zan.

Gomutau daigun 1887 gn. urtean Bizkaiko Diputaziñoak era-tu eban Euskalkatedra aretako irakasle, Azkue bera izan zala, eta urte luzeetan izan bere.

Urteak aurrera, eta Azkue, Frantziako Tours-en ebillen, bere iztegi nagusia argitaratzeko arazoetan eta nekeetan. Antxe egiñiko

gutun baten, 1905 gn. urtean, emengo Aldundiko buru zan Adolfo Utxikxo zaldunari dirautsa: (euskeraz jarri dogu atal au).

«Ene lagun on ori:

Berba egin genduan Juliok eta biok, beste zer batzuen artean, zure asmo eder orrezaz, ain zuzen aspaldiko gure asmoa bera; zera, Akademia sortzea.

Zeure kargu goiko orretan egiten dituzun aalegiñak, atsegiñez aitatu genduzan...».

Urrengo urtean, 1906 gn. otsaillaren 2-an, adiskide bati frantsesez egifiko gutunean zirautsan: (euskeraz jarri dogu):

«Txit interesgarri, euskal-akademiaz egin dozun artikuluko ori. Noizean bein, akio-makio jardun bear dogu erriak premiña orixe jakin daian. Gauzak premiñazko direala siñistu ezkerok, eurek bultzera-giten dabe.

Nik bere, orixe egin daroat, ezarian baiña etsibage aitatu beti, iragan zazpi-zortzi urtean, Euskal-akademia asmoa, labur baizen argi. Broussain-ek ba dau, uste, liburuxka ori».

Andik illabetera, 1906 aprillaren 10-ean, Azkuek karta bi egin zituan. Bata, Karmelo Etxegarairi; Daranatz kalonje jaunari bestea.

Biei, geienbat, gai berbera adierazoaz. Laster sortzeko zan izkelzaingoan, aulkidunak amabi izango zireala aurki, ta nortzuk izan zeitekezan. Deiturak eta abar izentatzen zituan.

Etxegarairi auxa geitzen eutsan:

«Zelan autetsi? Lenengo belaunaldia, labaldia, lau Diputaziñoak egin bearko. Gerorantz, orraitio, Zaingoak berberak, beste iñok eskurik ezarri bage, ez ongille ta ez agintari, Zaingoak berberak izentau ta jantziko ditu.

Aulkidunetaz ganera, laguntzailleak bere izango dira; baiña guzti oneik bere, Zaingoak autetsiak; eta baita deduzkoak bere, izango ditu.

Ez dau «garbitu, ezarri ta argitu» soillik egingo; izkuntzeari iraunerazo, ta izkuntzea zabaldu bere, egingo dau...».

Izkelzaingoaren billa soillik ez ebillen Azkue.

Lankideak bere, begiz jo zituan, bai emengoak, bai ango euskalzaleak. Aren eretxiz, Julio Urkixo bere, izkelzain izan zeitekean. Baiña merituak batu ostean. Orraitio, onen anai Adolfo, Diputaziño-ko lendakari izan bitartean, ez.

Galbarriatu Ramon adiskideari, Köln-en egindako gutunean (1909-V-12), beste arazo batezaz diarduala, Azkuek, Eguskiza aipatzen dau: «gizaki betekoa, ikasia, doai bikaiñak dituana. Taldean artzeko, oso aukerakoa dogu Eguskiza».

Bederatzi egun geroago (Köln, 1909-V-21) Azkuek Eleizalderi idatzi eutsan, eta atsegin giroz, zirautsan:

«Araiñegungo zureari erantzuten deusatz, nire ederra egitearren artzen dituzun nekeakaitik esker ona agertu deizudan. Pepe Arriagari idatziko deusatz, Arana-Goirik asmau zituan itzen txortea eskatuaz».

Azkueren eretxiz, Arana-Goiri ta Broussain izan zirean orduan, itz barri asmatzailleen artean abillenak, gure barrutian.

Köln-en 1909-V-19 egindako kartan, Tradición Navarra aldizkariaren zuzentzailleari, Hilario Olazaran-i agerturiko aipamena da, Aranari buruzkoa.

Azkuek, 1913 gn. urteko martiaren 3-an, Bilboko Orfeon Euskeria-ko artezkariatz itzegin eban, eta bere operak agertzean, itau-rrekotzat Sebero Altube gura ebala adierazo eutsan, eta ez beste iñor.

Begi zolia ebala erakusten deusku, billatu zituan gizonak aukeratzea.

Eta enparaukoak...

Campion ondo baiño obeto ezagutzen eban. Eta Txomin Agirre, barriz, auzoerrikoa ebanez ganera, Seminarioko ikaskide izana.

Indar ta asieraz Oñatin 1918 garren urtean eratua izan zan arren, Euskaltzaindia ez zan aldi aretan ibiltan asi.

Urrengo udabarrian, kezkatu ebillen barriro bere, Azkue gurea.

Hasparrengo alkate ta mediku zan Piarres Broussain-i, konfiantza beteko gutunean darakus artegatasun ori. Bilbon atonduriko kartan, ba ditugu atal jakingarriak:

Olabide, oso argia, baiña zailla; Campion, idazle fiñenatarikoa; oster, biok euskaldunbarriak. Nafarra, lendakari izan zeitekeana da, baiña, batzarrak zelan euskeraz egin aal izango?

Eleizalde, txit azkarra, inspektore arazo barrian oraintsu zearo arazopetua. Urkixo, jo ta su euskeraz ikasi ta ikasi. Orraitio, Txomin Agirre, oso geiso. Karmelo Etxegarai, argia baizen adeitsua, baiña gure lanetarako... Zaarra bai gozoa! (Broussain-ez diardu, nunbait bere) Olabideren eta Azkueren kemena gozatzeko gai dana! Baiña, alkatetza ta geiso-ikerketak utzi egin bearko...

Olabidek, 12 euskaltzain naikoa dala diño; enparauok, ogei uste genduan. Baiña egia esan —jarraitzen dau Azkuek—, ainbeste izateko, «Amaika gabetako ipuiñetako» argimutil zoragarriaz igurtzi bearko!

Eusko-Ikaskuntzak, Oñatin izentau zan batzordeak agertu dauana, bereala ontzat artzeko eskatzen deutse gure lau Diputaziñoiei. Oneik, Bidasoaz araindiko euskaltzaiñei bere, emengoei aiña sari eskiñiko deutse. «Bi-iru illabete barru, Donostian alkar ikusiko dogula uste dot».

* * *

Esanak esan, 1919 iraillean batzandu zirean euskaltzaiñak Donostian.

Orduan agertzen dan izen saillean, onexek daukaguz: Azkue, Urkixo, Eguskiza; Eleizalde, Altube, Intzagarai; A. Olabide; A. Campion, Aita Intzakoa; eta Bidasoaz araindikoak, Lacombe, Lanerretxe ta Aita Lhande. Erdiak, elizgizonak.

Labur esan, Txomin Agirre ta Broussain ez zirean osoro Euskaltzaindiratu; eriotzeak aldenduerazota, ainbarik geratu zirean euskaltzain lagunak. Agerrek eta Ademak, laga egin zituen eskiñitako aulkiak.

Bizkaiko orduko Urgazleak bere, aitatu daiguzan, eta esker onez egin bere: F. Belaustegigoitia, J. C. Ibargutxi, G. Manterola, N. Oleaga, A. Urriolabeitia, P. Zamarripa eta Aita Arriandiaga. Geroetan, eurotarik bi, Nazario Oleaga ta Paulo Zamarripa, euskaltzain oso izan zirean.

Lenen orduko euskaltzain osokoetarik, Aita Intzakoa bakarrik bizi dogu.

Azkue izentau eben lenengo lendakari, ta berau izan zan, illar-teraiñoako guztian, Euskaltzainburu, otsemaille ta gidari.

Guztion lanak eta nekeak banan agertzeko betarik ez dogun ezkeror, Luis Mitxelena lendakari zanari egindako gorazarrearen atal batzuk irakurriko ditugu orain, eta euskaltzain guztiei opari-egin («Zeruko Argia», 1964-VIII-9an):

«Garbi giroa garaikoa zuen, ez berea. Urkixo bera (nork esan?) etzebillen orretan ain urruti Azkuegandik. Orrexegatik, batez ere, etzan beñiere ausartu Landucci-ren iztegia edo Zuberoako pastoralak argitaratzen.

Ongi egin dan lanak, ordea, askotarako balio du, egilleak berak uste duen baiño geiagotarako.

Orrexegatik, edozein kastatako jendeak Azkue-gana jo bear du egungo egunean ere, bere egarria berdintzeko. Orrera doaz euskal-idazleak itzez ornitzera, orrera izkuntzalariak euskal-itzen jatorria ta historia aztertzer. Or jakin dugu anitzek, antziñako aberastasun gutxietsien berri, or ditugu guztiok gure izkuntzaren batasunerako oiñarriak. Eta azkenik, Azkue h-zale etzalarik, or ikusi dute askok (ikasi dugu esan ote dezaket?) letra ori noiz erabili bear dan, gure klasikoen eredura, eta noiz ez.

Iztegi orren ondorean aztertu nai dutenak euskal-literaturan, ar bitzate bi liburu, Azkueren kide zan Txomin Agirrerena: «Kresala» ta «Garoa». Euskalkia gorabeera, itzetan duten aldea, eta ezta deus gutxikoa, Azkueren iztegi berriaren gidaritzari zor zaio, soil-soillik.

Geroztik etorri diranak (leen maillan Aita Lhande, ta beronen laguntzailleak) eztute Azkueren iztegia garaitu eta menderatu, berritu, geitu eta osatu baik; zenbaitetan, gaiñera, neroni aurrelari naizelarik, zertxobait murriztu ere bai.

Azkuek lan miragarria egin zuen sail askotan. Eta alaz ere, orien artean zerbait aukeratu bear bagendu, aren iztegi aundia litzake, niretzat bein-

tzat, arrigarriena ta bikaiñena. Are arrigarriagoa ta bikaiñagoa iduriko zaigu, gogoan badugu, 1905-1906 -ean izan zala argitaratua, berrogei bat urte zituelarik, eta ez bear zukean bezela, bere bizi luezaren arken-buruan (Mistral-ek bere erriarentzat egian zuen lana; Madrilleko Akademiak gaztelanarentzat 1726-37-an bete zuen eginkizuna). Eta euskal-literatura osoak agirian darama, geroztik, kopet ezurrean josia, Azkuek utzi zion seiñalea».

Oneraiño, Mitxelenaren itzak.

Eta amaitzeko.

Euskalzain zaar aek ez eben ezagutu oraingo egoera itxaropengarri samar onetan dakuskuna; esaterako, euskera liturgian sartuta, eta gobernuak oraintsu agertu dauan Liburu zuria.

Orrein aurre, ba dogu, tamalaren aundiz, alderdi makurra bere; zera, errian, erritxuetan, baserrietan euskera atzeraka doala, makalduaz, isilduaz, baztertuaz. Mingarri orixe euskaltzale guztientzat.

Egia da Euskaltzaindia oraingo aldian gaillegoekin, katalanekir, valentziatarrekin eta balearestarrekin artu-emonetan asia dala, guztion alkartasunaz, bakotxa bere izkera bereziari laguntzeko ustez eta gogoz.

Baiña ez daigun, aaztu, orraitio, beste gizadi orrein berbetak, latiniaren ume direala, ta beraz, auzokideak. Gurea, barriz, ain desbardiña dogularik, aen nekearen ondoan gurea, larriagoa, aundiagoa, sakonagoa ta etenbakoagoa izan bear, izkuntzeari bizirik iraun-erazogura baldin badeutsagu.

Euskaldun guztien arloa da, euskaltzale guztien zeregiña ta ardua: gure izkerea ikasi, ta irakatsi, ta indartu ta zabaldu. Baiña batez bere, erabilli, itzegin, mintzatu.

Euskerearen etorkizuna, euskaldunengan dago-ta.

Donostian, 1969-IX-21ean

EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Gaurko Batzar au, aurtengo Batzar Nagusietan azkenekoa degu. Batzar Nagusi, ots! Euskaltzaindiaren berrogeitamar urte beretzearen gogoangarri Erribururik-Erriburu egiten ari geran bost batzar Nagusietan azkena: Euskaltzaindia sortu zan illabete berean, Agorrean egiten deguna.

* * *

Batzar Nagusiok banan-banan egitea, Bilbao'n urtearen asieran erabaki zan. Eta geroztik or egin ditugu, al degun aundikiroen.

Batzar aien egikera ezaguna dezute: lenengo, illeroko gure Batzarra, eta gero, ondoren, guztiontzako beste Egite Akademiko bat, itz-aldi jasoagoko batzuek egiñaz, bai gai berezi ta egoki bati loturik, bai euskaltzale aipaturen baten bizitza ta lanak sakondu ta edatuaz.

Iruñe'n, gogoan det, neronek Liturgiaren batasuna ikutu nuala, eta Nafarroa'ko bi Euskaltzale bikain Manezaundi ta Larreko gorai-patuaz, gure Irigarai Jauna ta Satrustegi Apaiza ari izan zirala; eta aizkenik Lopez Mendizabal'dar Ixaka eta Aita Damaso Intzaren gogoberritze-itzak Euskaltzaindiaren asierako gizonak gogoraziaz, entzun genituala goxo-goxo.

Bayona'n, era berean, entzun genituan Dassantze Jaunarenak, eta Aritxelar Jaunaren itz-xorroxta beroa, eta baita Laffite jaunak era Iratzeder Aitak irakurri zizkiguten lan biribillak, bai Geografia Linguistikari buruz, bai Belok'eko Liturgi-lanai buruz.

Gazteiz'en, neonek egindako, oroitzapenez beteriko itzaldi romantiko baten ondoren, Aresti Jaun eta Akesolo Aita mintzatu zitzaizkigun, bata euskal-teatro-zale Barrutia'z eta bestea Abando'ko «Perratzalle» Uribarri'ri buruz.

Bilbao'n, Urkixo'ko Don Julio euskaltzale bizkaitar jatorra izan genduan gai, bai nik —labur-labur— bai, omenduaren illoba argi Juan Ramon Jaunak asi-ta-buka ain ederki osatutako lan bikain baten bitartez; eta gure lenengo Lendakari Azkue Jaunaren idazki batzuek

aztertuz azkenik gure adiskide lekeitiar Erkiaga jaunak. Bañan, oroituko zeraten bezela, Batzar ura berri txar batek goibeldua izan bait zan: Rikardo Arregi jaunaren eriotz-berriaz alegia (G. b.).

Gaur, Donostia'ko txanda degu. Azkena. Erabakitako bostetan azkena. Gipuzkoa'ko Erri-buruan. Gipuzkoa'n, Oñati'n artu bait zan Euskaltzaindia bera sortzeko erabakia, eta aren lenengo Batzarra ere, ementxe, Donostia'ko Aldundi-etxe ontantxe egin.

Orain bada, asitako legeari jarraituz, emen ere zenbait euskaltzale gipuzkoar ospetsuren goratzarre egingo degu: lenengoetako lau Euskaltzain goragarri aipatuaz: Intzagarai, Eleizalde, Etxegarai Karmelo eta Altube. Intzagarai, Apaiz, Zugasti Apaizak aipatuko bait du; eta Eleizalde, Mitxelena Jaunak; eta Etxegarai Artetxe Jaunak; eta Altube, Aita Villasante'k.

Eta izlari oiei entzuteko irrikitzen egongo bait zerate, ixiltzera noa ni.

Entzungo ditugun, euskaltzale ta euskaltzain zintzo aien egite ereduak, bero gaitzate, Erriak gugandik itxaroten duan arloari zintzo erantzuten.

MITXELENA JAUNAREN HITZEN LABURPENA, ELEIZALDEZ

Euskaltzaindia, mende erdi baten buruan, lehenbiziko aldiz atzera begira gelditu zenean (arinagi ez badabil ere zenbaiten ustez, behar bait du, ehun urtez bitan edo, atsedenditxoren bat), Eleizalde, Eleizalde'tar Koldobikaz berak idazten zuenez, mintzatzeko eskatu edo agindu zidaten, izenagatik edo ez dakit. Presaka eta murka eman nituen zenbait hitz baldan Donostian, Euskaltzain zenuen oroitzapenetan egin zen jaialdian.

Urteak joan dira geroztik hona eta han erabili nituen paperxoak ere galduak ditut. Ez dakit, bada, ene oraingo hitzok ordukoen pare izango diren ala ez. Huskeriak gora-behera, bai, ez bait naiz gehiegi gai honetan iritziz aldatu.

Eleizalderetik berririk aski badakit, ezagutu zutenen ahotik entzunik, baina ez naiz horien kontaktetan hasiko. Esan nahi nuke, haatik, Eleizalde eta Eleizalderen gizaldiko jendeaz begiramenez beretik, haurrak gurasoengana duen begiramenez, oroitzen eta min-

rtzatzen naizela beti. Onenak behintzat, eta Eleizalde onenetakoa genduen noski, gizon osoak zirelako, batez ere, burutik oin-zolarainoko gizonak.

Banago «euskaldun, fededun» delako hori aipatzeko, aipatzekoa bai litzake garai honetan. Zenbait haserra dedin baino lehen, ordea —eta beste zenbait haserra dedin, behar bada—, fededuna izan dela diot eta are fededuna dela orain ere euskalduna gehienbat (Eneko Loiolako, Joanes Beraskoizko edo Tomas Meabeko), fede osoa behar duen gizona biziko baldin bada. Ez litzake neke agertzea zertan sinesten zuen fede biziz Barojak berak ere. Ia hauzo dudan Unamuno izan ezik, baina honek, fedea baztertu gabe, federekin kukuka ari zela atertu gabe aurkitu zuen bere gogoko bizimodua eta eskura zuen irabazi zuen izena eta omena.

Eleizalde fededuna genduenik ez du inork ukatuko, ezta ere fede zuzenduna, nolapait esan, zenik. Fededun osoa zen erlijio gaitan: hor da lekuko berak ongi zekien gaitz hilgarriak jorik zegoela Lourdesera egin zuen joanaldia, *Cuatro conferencias*-en idatzi zuena aski ez balitz. Fededun osoa abertzaletasunean, eta orain gehiegi eza gutzen ez den *Landibar* elaberria hartuko dut lekuko. Fededun osoa bere lanbideak ezartzen zizkion esaminetan, eta fedea behar da esaminetan sinesteko: oraindik ere gelditzen da, noski, «ikus» batez apaindurik agertu zitzaion zenbait ikasle zorigaiztoko.

Ez, neure ustez, eta ni beste gizaldi bateko gizona naiz, ez dira Eleizalderen gizaldiko eta lehenagoko euskaldunen iritziak eta «fedek» behar bezain ongi aztertu. Ez dakigu ia deus gure herritarrok pentsatu eta nahi izan dutenaz, 1750-etik hasi, norbaitetik hasi behar eta, ia gure egunotaraino. ehan gendukean historiaren ordeaz, ez dugu zenbait eskema hustal baizik. Eta aldi joanaren ume garenez, aldi joan honi lotu behar gatzazkio, geure buruaren berri azkenik jakin behar badugu. Ez diot inori gibelera begira geldi dedin eskatzen: nor garen jakin behar dugu soil-soilik, orainaz eta geroaz jabe gaitezen, gizona eta gizataldea baizik ez den herria jabe daitekeen neurriz.

Bi puntutan agertu nahi nuke neure iritzia Eleizaldeaz, besteak beste. Ez dut bidenabar baizik aipatuko euskal-aditzari buruz egin zuen lana. Ez dut ere uste, neure teilatura harrika hastea bait litzake, lanbidez matematiketarako zuen ixuriak makurtu zuenik gai honetan. Bazuen hemen sekula matematika kutsurik izan ez zuen aski irakasle,

Astarloagandik behera gutienez. Bere asmoa zuzena zen, funtsean. Bazekien Eleizalde euskarak, mendeak joan eta mendeak etorri, ez zuela asabengandik zetorkion ondadea galera gaitzik gabe gorde. Galduak irabazi nahi zituen Eleizalde aditz-sailean, dirudienek sekula izan ez ditugun aberastasunez ere jabetu nahi zuelarik; hitz-sailean galdu ditugunak gureganatu nahi zituen euskal leku-izenak biltzen hasi zenean, bukaturik —bildu zituenak agorturik, baina bildugabe-korik aski eta gehiegi gelditzen zela— utzi zituen arte (1).

Aipatu ditudan bi puntuak besterik dira. Hona bata: erdaraz idatzi zuela gehienbat. Erdaraz idazte honen erroa nik Bilbaon ikusten dut Eleizalde, Aita Villasantek ederk! adierazten duenez (2), Bilbaon ikusten zuelako «Euskaldunen hiri buruzagia»: han zegoan indarra, handik etorri zitzaion heriotzeraino iharrausi zuen eragina. Eta Bilbao erdalduna zen eta erdalduna da. Bilbao-ingurukoak euskaldun ditzagun gogoz behintzat, pentsatu bide zuen Eleizalde, gero ahoz ere euskaldun ditezten. Oker zebilen agian, oraingo usteen arahera —hango bertakoen ustez ere bai—, eta nik ere egingo nuke oker zebilela puntu horretan, baina premiazkoa da gogoan edukitzea orduko indarren nondik-norakoa: ordukoak eta oraingoak ez dira bat, eta ordukoek ari gara. Orduko Belen edo Betlehem anitzentzat Bilbao-inguruan zegoen.

Bada espantuz beterik agertu denik gure artean, orain berriro, Bilbao, hain aberats eta bortitiz izanik, ez dugulako behar gendukeen kulturaren sorleku eta habia. Badira gure kondairan, nik uste, ilun baino ilunago dagoen hauzi bat baino gehiago. Milaka ere baditugula esango nuke. Ez da horietakoa, ordea, Bilbaorekikoa. Kultura ez da, inoiz edo behingo mirakuiluz ez da, berez sortzen, basa-lorearen gisa. Oinharriak behar ditu eta Bilbaok izan dituen eta orain ere dituen

(1) *Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas* zelakoa RIEV-en agertu zen gehienik, baina Eleizalde hil ondoan: falta ziren apurrak Donostiako BRSVAP-en argitara genituen, oraindik orain. Gauza jakina da, ordea, Eleizalde ez zela RIEV-eko lankide izan lehenbiziko bizpahiru urteetan baizik. Sortu zen haserrabidea, nik uste, aldizkari hartan «Uchin de Mendaur»-en izenpean agertu zen «Un bautizo» alkarbiz-keta gatzozpinduak sortu zuen: harako Alfredo Camprodón «Olperda Ganportona» bihurtu zuen bataio hark. Eta egingo nuke «Uchin de Mendaur» hori ez zela Arturo Campionek ziria sartzekotan erabili zuen izengoitia besterik.

(2) *Historia de la literatura vasca*, Bilbao 1961, 326. Eleizalderi zor omen diogu etxe nagusia Bilbaon izatea.

oinharriak agerrian, begien aurrean, dauzkagu. Komeniago da mai-zenik, honelako hauzietan, oinpean darabilgun lurrari begiratzea, begiak urrutiko odeietara jasotzea baino.

Bestea, euskararen batasunari dagokiona da. Hitzaldiaren ondoren idatzi nuen lantxo batean (3), luzazki azaldu nituen gai honetan Eleizalde zituen iritziak. Hauexek dira, guti gora-behera. Lehenik, euskarak ez duela iraungo hizkuntza idatzia eta eskolatua (irakatsia) ez baldin bada. Bigarren, idatzi eta irakatsi behar badugu, euskera batua behar dugula, nahi eta nahi ez. Batasun hori, hirugarren, euskara idatziari eta irakatsiari dagokala. Bi bide daudela, laugarren, batasun horretara heltzeko: berezkoa eta poliki-poliki, Jainkoak nahi badu, erdietsiko dena eta bestea «norbaiten» eraginez, ez urak bere bidetik lasai doazelarik, sortuko dena. Azkeneko batasun hau nahi zuen Eleizalde, batasun hori zuen oihu larriz eskatzen *duela berrogei -ta-hamarren bat urte*, hilzoriko premian geundelako orduan.

Zer esan gerokoaz? Eleizalde, hiltzeko bezperan, eskatzen zигunari ez diogula jaramonik egin, lotsa gaiztoz batez ere, batzuek edo besteak ez minberatzearren. Hark hartuko zukeen bidea ez da, segur aski, guk hartuko gendukeena edo hartu nahi duguna: harena zuzena zen, agian, eta okerra gurea. Nolanahi ere, bide *bat* hautatu beharrean gara, zuzen nahiz oker; *status quo ante* delakoak ez garamatzi inora, galbide jakinera ez bada. Begik itsu omen ditu fedeak. Ez zizkion, haatik, ez begiak ez burua itsutu Eleizalde fededunari. Haren deia erantzun eske dagokigu oraindik. Eder eta atsegin da geure buruari ederretsiz bizitzea, baina, zerbaitetan sinesten baldin badugu, gure buruaz kanpoko eta gaineko zerbaitetan, ez gindezke orain arteko bake ederrean, bakearen izenik merezi baldin badu, bizi.

(3) Egan-en, 1970, 11-26. Geroztik irakurri dut (*Agur*-en, noski) Zaloña jaunak egin zidan erantzun miresgarria, jakitez eta argitasunez ongi jantzia egileari dagokionez. Huts bat aurkitu nion, egia esan, horrenbestearainoko ausardiaz mintzatzea zilegi bazait: Eleizalderengandik aldatu nituenei buruzkorik ez zela delako erantzun horretan agertzen. Eta erantzunak edo elkar-hizketak, irri eraqiteko sortzen diren teatro-lanetan izan ezik, gaiari lotuak eta arrazoibide bati menderatuak behar dute izan. Ez dira ez hitz-aspertu bat egiteko, ezta ere nor bere burua nabarmentzeko egiten. Plaza-gizon ezaguna dugu gainera Zaloña jauna, Donostia inguruan behintzat, eta ez du horrelakoren premiarik.

A. VILLASANTEREN HITZALDIA ALTUBEZ

«GIZONA» ETA «EUSKALTZAIÑA»

Sebero Altube jaunaren itzala eta oroitzapena guregana ditzagun, minutu koxkor batzuetan baiño izango ezpada ere. Gure lagun zaharraren irudia eta irakatsi argiak gogoratu nahi nituzke. «Gizona» eta «Euskaltzaiña» izango dira nere lantxoaren atalak. Dena labor eta murriz, lan luzerik egiteko ez dela au garai egokia ba dakit eta.

I «GIZONA»

Sebero Altube jauna Mondragoen jaio zan 1879 gn. urtean. Sol-dadutza egin ondoren, 1901-ean Gernikara aldatzen da. Musika banda sortu nahi zuten emen eta berau eragitera etorri omen zan Gernikara. Baita sortu ta gobernatu ere egin zuen makiña bat urte-tan. Musika izan zan Sebero Altuberen gogoko sail bat. Jose Antonio Arana jaun gernikarra dabil orain Sebero Altube musikolari bezala istudiatzen.

Gernikar emakume aberats batekin ezkondu zan: beronen izena, Gregoria Gangoit. Ez zuten umerik izan. Gernikan bertan, «Alkartasuna» arma-fabrika bateko buru edo gerente izan genuen gero gure Altube. Pistola klase berri bat ere asmatu omen zuen, eta beronen legezko patentea atera ere bai.

Euskeraren kezka ia aur denboratik zekarren. Euskeraren alde-ko lanentzat oiñarri sendoak billatu nahirik, Linguistikako liburuak, batez ere frantsesak, irakurri eta ausnartzera lotu zan. Utsune bat ikusten zuen berak gure euskaltzaleengan: gure euskaltzaleek euskera jaso eta landu nahi zuten, bai, baiña Linguistikak irakasten dizkigun lege eta gertakari nagusien berririk jakin gabe ari ziran («izkuntz jakintzarik ezpalitz bezela», dio berak), eta jakintza orren faltaz aha-lerin asko alperrikoak eta beste asko kaltegarrik ziran euskerarentzat. Linguistikaren irakatsiak aintzat artu eta zabaldu: hori izan zan Altuberen kezka andienetako bat. Linguistikaren kezka onek eman zion Altuberen euskaltzaleetasunari bere jite berezia.

Euskaltzaindia sortu eta berehala, euskaltzain baten utsunea ger-tatu zan: Domingo Agirreren. Eta ain zuzen, utsune hori betetzeko, 1920 gn. urtean, Altube jauna izendatzen dute. Gernikan, garai ar-

tan, beste euskaltzain bat ere bizi zan: Karmelo Etxegarai jauna, gipuzkoarra au ere, baiña Karmelo, Altube baiño geroago egin zan euskaltzain.

Errepublikako denboran Gernikako alkate jauna ere izandu zan Sebero Altube.

Aren lan nagusiak, 1920 gn. urtean asi eta 1936 gn. urtera arteko bitartean egiñak dira denak. Aipatu egingo ditut soil soilik: «Izkuntz jakintzia ta euskeriaren bizitzia» (sarrera-itzaldia, 1920). «Euskel itz Barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen» (1922), *De Sintaxis Euskérica* (1920), *Erderismos* (1929), *El Acento Vasco en la prosa y en el verso* (1932), *La Vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa* (1933), *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de Azkue* (1934), *Más sobre la vida del euskera. Barriro euskerearen bizitzari buruz* (1936), ta abar.

1936 gn. urteko gerra sortu zenean, «emen ez dator gauza onik» esan da, Argentinara ihes egin zuen, eta gero andik Frantziara. Emen, Pabe-ko irian (Pau), ainbeste urte igaro zituen. Pabe-n zegoe-larik, 1957 gn. urtean, liburuxka bat argitaratu zuen frantsesez: «La fonction de la douleur». Filosofi alorreko gai bat darabil bertan. Fisikalariei siñistu behar badiegu, beroaren galera edo gutitze bat gertatzen da munduan. Gertakun orren ondorioz, mundua ezeztatu edo desegindu egin beharko litzake, baiña ez da desegiten. Beste aldetik, galera orrek nun izan dezakean bere ordaiña ez da ikusten. Esan nahi dut: galera orrekin egiten den zuloa, nola estaltzen den edo estaltzen ote den ere ez da agiri. Beste aldetik, nola edo ala zulo hori estaltzen dela bistan da. Non da misterio onen esplikazioa? Oiñazean ez ote? Bai gizonak eta bai animaliak ere asko penatzen dira, neke-lan eta oiñaze asko pairatu behar izaten dituzte. Neke, lan eta oiñazeak jasatzean, eta edozein ahalegin egiterakoan ere bai, indar bat sortzen omen da, eta au izango litzake arako galera aren ordaiña. Orra itz gutxitan adierazita liburuxka orrek darabilen gaia. Nahiko bitxia eta pesimista da Altubek liburu ortan defenditzen duen teoria. Schopenhauer eta Platonen ikuskera beltzak agintzen du an; baiña utz dezagun hori alde batera. Altube jauna min eta samin asko ikusia zan. Batez ere, ainbeste urtetan atzerrian egote orren samiña

ezagutu behar izan zuen. Beharbada ortik erne zitzaion, beste askori bezala, giza-oiñazearen misterioa argitu edo esplikat u nahia.

Urrengo urtean, 1958 gnean. alegia, Gernikara itzuli zan. Eta an il zan 1963-an, 84 urte zituela. Gernikako kanposantuan ehortzia dago, eta ain zuzen, Karmelo Etxegarairen ondo ondoan. Bi euskaltzaiñen illobiak bata bestearen ondoan daude, nahiz eta Altube urte asko geroago illa izan.

Altube jaunak ba du illoba bat: Elisabeth Sauzon d'Altube, Parisen ezkondua. Berarengana, eta bai Gernikako Jose Antonio Arana jaunarengana ere jo dezake aren berri gehiago jakin nahi duenak. Azkenengo oni zor dizkiot nik emen jarri ditudan zenbait gauza.

Gizon zeatz meatza, langillea, dena seriocki eta benetan artzen zekiana, osasunaz ere asko arduratzen zena. Metodua ren eta ordenantzaren barnean bizitzera eta lan egitera ohitua. Euskaltzaindiak bere lehen aroan izan zituen gizon prestu, langille eta jakintsuene takoa.

II «EUSKALTZAIÑA»

Baiña aren bizitzako gora beherez eta giza irudiz apurreria auk esan ondoren, jaun orren irakatsi nagusi batzuk gogoratu nahi ditut, aren sarrera itzalditik artzen ditudala baitipat. Irakatsi auk, nere ustez, Altuberen «forma mentis» bezala dira, ark ahoz beti aipatzen zituenak, eta bere idazlanetan erruz eta aspertzeke gogoratzen dizki gunak. Eta gaur emen oien aipamena egiteko ba da beste arrazoin bat: irakatsi oiek ez dutela beren gaurkotasunetik, den gutiena ere, galdu.

Gizona, gaur, iñoiz baiño gehiago, axaletik bizi da. Lau aizetara zabaltzen diren slogan-ak errazki iresten ditu, oietan egon ditek en egia, egi-antza edo gezurra neurtzen asi gabe. Orra slogan auetatik bat: «Kulturak salbatuko zaitu». Polita, ezta? Baiña egiazkoa? Jum! Hori beste kontu bat da. Bai ta ez, esan beharko. Mataza nahasi batean sartuko giñake, slogan orren egia, balioa ta abar neurtu nahi izate ezkerotan.

Slogan orrek ba du, beintzat, arrisku bat, eta ez txikia, nere ustez. Ara zein: liburuak eta literatura ugaria, apaiña eta dotorea euskeraz egin ezker o, euskera salbatua dagoela, dena egiña dagoela

uste izatea. Eta hori gezurra izan. Gezurra galanta eta engaiñu boro-billa. Engaiñu ortan erortzeko arriskua bageneukala garbi ikusten zuen Altubek, eta orregatik ari zan beti izkera mintzatuaren garrantzia eta lehentasuna aldarrikatzen. Izkerak mintzatzeko egiñak dira, ezpaiñetan erabiltzeko; hori da aien lehenbiziko destiñua eta zeregiña. Idaztea, berriz, liburuak egitea, literatura lantzea, hori bigarrenko gauza da, gaiñetikoa mintzatuaz gaiñekoa, eta mintzatzearen urrenko behar duguna. Lehenbizikoa falta bada, bigarrenak ez gaitu salbatuko. Or dugu latiña: iñoiz izkuntza bat kultur tresna izan bada, latiña izan da noski. Nekez aurkituko da beste izkuntzarik, idazteko eta literatura egiteko orrenbeste erabilli izan denik. Idatzi eta irakurri egin da, bai, latinez, baiña orrek ez du latiña salbatu. Orregatik auxe zan Altuberen betiko leloa: euskera mintzatuari, biziari behar zaiola eutsi eta lagundu, hizkera bizia behar dugula, indartu, babestu eta sendotu. Euskera mintzatua ez dedilla itzali, bestela gureak egin du. Orra benetazko euskaltzaleak izan behar duen lehenbiziko kezka, kezka nagusia. Euskeraz mintzatzeari ez utzi. Euskera ezpaiñetatik ezkutatuko balitz, literatura idatzia eukiagatik, zer? Kulturak salbatuko gaitu, bai, baldin euskera mintzatua galtzen ez bada; bestela ez. Bego, bada, zutik lehenbiziko puntu au: euskera mintzatuari eman behar zaiola aurrenengo tokia euskeraren aldeko lan, ardura eta kezketan.

Euskera mintzatua, bizia, orra zer behar dugun zaindu eta gorde. Euskera mintzatua, ordea, erriarena da. Erriak belaunez belaun, gizaldiz gizaldi, erabilliaren erabilliz, eskutik eskura bezala, gurasoetatik semeetara aldatzen edo pasatzen du. Euskaltzaleak, bada, erri euskera au behar du ondo ikasi. Erri euskera onen aurrean euskaltzaleak ikasle behar du izan eta ez maisu. Erriaren izkuntza den bezala behar du ikasi. Orretarako beharko du luze eta arretaz erriari entzun, adi egon, erri izkuntzaren legeak, dohainak, aberastasuna, esakerak eta abar miatu, aztertu, ikasi. Eta ez pentsatu guk gure aginduetara ekar dezakegunik erri izkuntza. Hura den bezalakoa da, eta bere bidetik joango da, guk nahi ez nahi.

Izkuntza mintzatua da, bada, nagusi. Au gal baledi, dena galdua legoke. Orduan zer? Literaturak eta idazteak ez ote du batere balio? Bai. Idazteak ere ba du bere garrantzia, eta ez txikia; baiña Altuberen-

tzat bigarrengo gauza da au. Lehenbizi, euskeraz mintzatzea; gero, idaztea.

Eta izkera idatzi onek izkera mintzatuaren lagungarri ta morroi behar du izan, eta ez etsai. Idaztea, Altuberentzat, izkuntza mintzatuaren lagungarri bat besterik ez da. Baiña ziñez eta egitez lagungarri izan dedin, idatz izkerak aho izkeratik gertu samar egon behar du.

Idatz izkera aho izkeratik urrun edo desberdin egotea, ordea, bi eratarata gerta diteke. Ara lehenbiziko era: idatzi era batera egiten denean, eta irakurri eta itzegin bestera. Desberdintasun au itxurazkoa bakarrik da, ortografiatik eldu dena. Desberdintasun au frantsesez eta ingelesez ikusten dugu; gaztelaniaz gutxiago. Azalekoa bakarrik da, irakurri eta itzegin berdinean egiten den ezker. Orrek ez du, bada, idatz izkera eta aho izkera elkarrengandik urruntzen (irudiz edo izan ezik).

Baiña ba da beste desberdintasun bat oso kaltegarria: idatzi eta irakurri era batera eta itzegin bestera. Au da txarren txarrena. Desberdintasun au gertatzen denean, idatz izkera alde batetik eta aho izkera bestetik dijoaz, biak bananduta. Au da benetazko desberdintasuna. Orrelakorik gerta ez dakigun, idatz izkerak aho izkeratik urbil egoten ahalegin guztiak egin behar ditu.

Baiña onekin ez dago dena esana. Idatz izkerak, errikoizateaz gainera, berdinean izatea ere nahi du. Beti berdinean ez, baiña mende batean ororentzat berdinean bai. Orre idatz izkeraren beste lege bat: batasuna edo berdintasuna. Badirudi lege au aixtian esan ditugun aurka dela, baiña ez. Idatz izkera denontzat da, eta orregatik berdinean izatea eskatzen du. Aho izkera izkelgitan banakatua eta zatikatua egon ohi da, eta indar banakatzaille hori bestaldeatzeko, idatz izkeraren berdintasunak zaintzen du batasuna. Hori izkuntza guztiek egiten dute. Eta ontan iritzi bateko dira izkuntzalari guztiak. Ala ta guztiz ere, guk, euskaldunok, eztabaida-gaien artean darabilgu oraindik batasunaren auzi premiatsu au.

Erri jarraitzaille alde batetik, eta ororentzat berdinean, bestetik, behar du izan, bada, idatz izkerak. Nola egin, ordea, idatz izkera berdinean au, ororen au? Bizitzarik sakon, sendo eta zabalen duten itz eta gramatikakia aukeratuaz, nagusitzeko jokera dutenak artuaz, alegia.

Altube jaunarentzat arau aukeratuaz ez da gutxi gora behe-rako kontua, il edo biziko gauza baizik. Entzun bestela arene itzak: «Gogoan euki daigun egi itzal au: gaur eguneko giza-artu-emonetarako,

batasunezko eta errijaz adiskide bizi dan idatz-izkerarik euskeraan aurkitzen ezpadogu, gura nai ez, erdereetara joko dogula danok, ut-sune ori beteteko. Zoritxarrez, egi itzal eta samin orren ondorenak, larregi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean».

* * *

Orain arte aipatu ditudan Altuberen irakatsi auk, aren sarrerá itzalditik jasoak dira, 1920-an egin zuenetik, alegia. Andik bi urtera Billera sonatua egin zan Gernikan, Eusko Ikaskuntzak eratua, eta bertan beste itzaldi luze eta mamitsua irakurri zuen Altubek: «Euskel Itz Barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deus-kuen». Euskal iztegiaren arazoak goitik behera, oso zeatz eta sakonki, garbitzen ditu bertan. Altubek lan ortan proposatzen dituen ideiak beste behin azaldu nituen (Ikus EUSKERA 1963-64, 293-313), itzaldi orri orpoz-orpo jarraituaz. Orregatik ez dut emen ango bi puntu nagusiak aipatu baizik egingo.

Lehenbizikoa.—Iztegi gaietan garrantsirik andiena eman behar diogula itzen zabalgoari. Zabalgoa zera da: «área de extensión de una palabra». Itz batzuk Euskalerra osoan edo zati zabal samarrean erabiltzen dira, maiz eta arrunt entzuten dira, sendo sustraituak daude, osasun mardulez bizi dira: orra zabalgo andiko itzak. Beste batzuk, berriz, toki edo txoko batean iñoiz jasotakoak. Orain bada, zabalgo-rik txikiena dutenak nahiz andiena dutenak mailla berean jartzea, garrantsi berdiñekotzat artzea, hori da —Altuberen itzekin esateko— nahastetarako laguntasun ederra. Nahaste hori, Altuberen iritzian, maiz gertatu da gure aroko euskera idatzian. Entzun ditzagun, berriz ere, aren itzak: Zerueta edo aingeruen euskeraz amesetan ibili eta lurreko au ezagutu eta ikasteko ez zaletasunik eta ez gogorik... Ulertu eziñezko euskeraz liburu eta idatz lanak egin eta onetara irakurlerik asko uxatu... Benetan euskeriak burua jasoteko dituan eragozpenai lagun egiteko, ezin zittekean gaur bide obarik autu...

Eta gaitz onen sustraia auxe genuke: itzen zabalgoaz kontu guti egiten dugula. Orregatik gaiñeratzen du Altube jaunak berak: Izkera gauzetan zabalgo orreri behar dan lotsia ta garrantsiya emoten ikasi ezpadaigu, eztogu sekulan lan ganorazkorik egingo; eztogu euskeriau indartu ta goratzeko arloan aurrerapiderik lortuko.

Bigarren puntua.—Ondoren onako auzi oni eltzen dio: jakin-tza gauzetan euskerak duen itzen falta, nola erremediatu? Ontan

ingeleza jartzen du Altubek guretzat eredu bezala. Nahiz eta latiniaren ume ez izan, ingelesak bildurrik gabe artzen ditu, kultura eta jakintza gaietan, latin eta griegotiko itzak. Eta guk ere beste ainbeste egin beharko genduke. Ingelesak onartzen dituen latin eta griegotiko itzak guk ere kezka gabe onartu behar genituzkela uste du, alegia. Ondo daki Altubek bere aroko idazleek ez dutela hori egiten. Alemana bera baiño ere urrunago joan direla bakar bidean. Baiña bakar bide hori artzea —dio berak— iñoizko kaltegiñena oraintxe litzai-guke. Jakintza gauzetako itzeetan ba da alako batasun bat errien artean eta batasun orretatik kanpora euskaldunok bakarrik gelditzea, ez dirudi zentzunezko gauza. Geuretakotu behar dugu, bada, iztegi hori, itzei, euskera antza emateko, aldakuntza lege batzuk behar denean ezarriaz.

* * *

Oneraiño Altube jaunaren irakatsiak, ia itzez itz aren lanetatik aldatuak. Baiña onenbestekin aski izango dela uste dut. Altube jaunaren irakatsi nagusi batzuk gogoratu nahi izan ditut. Ark gauza auek esan zituela ba da ia 50 urte. Ala ta guztiz ere, ene ustez, ez dute gaurkotasunik galdu. Bidezkoa zan, beraz, beroien aipua egitea, Maisu argi eta jakintsu aren oroitzapena egiten dugun bitartean.

Jainkoak egun on dizuela denoi.

JOSE ANTONIO ARANA JAUNAK, ALTUBERI BURUZ
EGINDAKO BIBLIOGRAFIA

21-9-1969

Euskaltzaindiaren urre-eztaiak amaitzera doaz. Berrogetamar urte onek beteta. aldi onetan izan diran euskaltzainik onenak goratzea bearrezkoa izan da, eta alan ari da Euskaltzaindia urte bete zear bere jaialdietan. Ona emen, Donostin, Altubereren txanda. Aita Villasanteren aoz eskeiñi deutsagu Altube Jaunari guztion biotzetako omenaldia. Bere merezia artu dau, azkenengo urteetan aztuta izan dogu ta. Neuk be, bere erri izan zan Gernikatik zeozter omenaldi onetan euki dagian, bere idazlanen bilduma au EUSKERA aldizkarira bialtzen dot. Ez dira, bear bada, idazlan guztiak emen aitatuko, baiña bai geienak. Asiera baiño ez bada be, bidea idigita dago; ea nork jarraitu ba dago!

1916 *Zortziko*, Euskalerriaren Alde, 1916, 56 orrialdean. Erderaz.

- 1919 *Bostarrika*, RIEV, 1919, Xgn. Tomoan, 369 orrialdean. Euskeraz.
- 1920 *Euskeraren Joskerea dala ta*, Euskal Esnalea, 1920. Euskeraz. *De sintaxis euskerica*, Euskal Esnalea, 1920, 111 orri. Erderaz. *Erderatiko itzak, itz barriak eta antxiñako itzak*, EUSKERA, 1920, 2gn zenbakia, 44/54 orrialdeetan. Euskeraz.
Izkuntz jakintzia eta euskeriaren bizitzia, 1920-ko Abenduaren 28-an eginiko Itzaldia, bere euskaltazain sarreran. EUSKERA, 1921, lgo. zenbakian, 3/49 orrialdeetan. Euskeraz.
- 1921 *Euskera Gaiak: «AL» «NOIZ?»*, Euskal Esnalea, 1921. Dagonilla, 212 zenb. 153/154 orrialdeetan. Euskeraz.
- 1922 *Euskel itz barriak. Eurok Eraltzeko erderoak zetara lagun egin bear deuskuen*, Eusko-Ikaskuntzak Gernikan 1922 gn. urtean izandako Batzar ospetsuan irakurrinikoa. III gn. Eusko Ikaskuntza, 78/93 orrialdeetan. Euskeraz.
- 1923 *De fonética vasca*, RIEV, 1923, XIV gn. Tomoan, 517/534 orr. Erderaz.
- 1928 *Gernikako egun gurenak eta euskerazko kantak*, Euzkadi, 1928. IV. 5. Euskeraz.
Euskalerriko ekandu onak, Gernikan, 1928-ko Uztailla. Txistulari aldizkaria, 3 gn. zenbakia, 2 gn. orr. Euskeraz.
- 1928 *Yosukisto gure jaunaren nekaustea*, Y. L. Basterrexeta-tar Agustin 1750 garren urterontz egille.—Y. L. Galdos-tar Erroman 1928 garren urtean argitaratzaille, RIEV, 1928. XIX gn. Tomoan, 653/4 orr. Euskeraz.
- 1930 *Erderismos*, Idaztegia-Irarkola Gaubeka, Bermeo (Bizkaia), 1930, 316 orri. Erderaz.
- 1932 *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*, Gaubeka, Bermeo. 1932. 332 orri. Erderaz.
Aurrekuaren alde, Txistulari aldizkarian, 25 gn. zenbakian. 1935, 5 orri. Euskeraz.
- 1933 *Aita Donostiaren lan ederra*, Txistulari aldizkarian, II gn. aroa lgo. zenbakia, 3 orrialdean. Euskeraz.
Kanpion jaunaren omenez, Gernika, 1933.8.10, Txistulari aldizkarian, II gn. aroa, 2 gn. zenbakia, 3 gn. orrialdean. Euskeraz.

Notas sobre el santoral vasco o Deun ixendegi euskotarra, de Arana Goiri'tar Sabin, EUSKERA, XIV gn. urtea, II zenbakia, 153/196. *Euskaltzaindiari*, EUSKERA, 263/265 orrialdeetan. Euskeraz.

- 1934 *Observaciones al tratado de «Morfología Vasca» de don R. M. de Azkue*, EUSKERA, XV gn. urtea, I-II zenbakiak, Gaudika, 232 orri. Erderaz.

La vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa. Itzaldia, Donostin irakurrikoa eta Bilbon argitaratua, Editorial Vasca, 1934, 108. Erderaz.

- 1936 *Más sobre la vida del euskera*. EUSKERA. Erderaz.

- 1949 *La unificación del euskera literario*, Eusko Jakintza aldizkarian, 1949, III gn. zenbakian, 181/204 orrialdeetan. Erderaz.

- 1951 *Sobre el vocablo vasco «gudua»*. Homenaje a don Julio de Urquijo, Donostin, 1951, Igo. Tomoan, 351/360 orrialdeetan. Erderaz.

Observaciones a unas notas de Ch. Bouda. Eusko Jakintza aldizkarian (?). (Separata bat daukat, urte gabe). Erderaz.

- 1955 *Literatur euskera (sobre sintaxis vasca)*, 1955n idatzita eta EUSKERA aldizkarian argitaratua, 1956, 3/13 orrialdeetan. Erderaz.

- 1959 *Olahide ta «Giza-soiña»*, Eusko Gogoa, 5/6 zenbakian, 507/8 orrialdeetan. Euskeraz.

- 1958 *La fonction de la Douleur*, Pau, 1958, 120 orri. Prantzeraz.

- 1959 *Eibartarrak eta euskera*, EUSKERA, 1960, 61/65 orrialdeetan. Gernikan, bertan urtean idatzita. Euskeraz.

- 1960 *Euskerari buruz*, EUSKERA, 1960, 329/333 orrialdeetan. Au be Gernikan idatzita. Euskeraz.

Gernika, 1969'ko iraillak, 13.

ARTETXE JAUNAREN HITZALDIA KARMELO ETXEGARAIZ

Bizitzak dakartzkien gauzak abetxek. Ez nuan auxe beñere pentsatuko. Zenbait urte gertakizun artatik? Berrogei ta bost, berrogei ta sei? Nere jaioterrian zan. Azkar zabaldu zan berria. Bandua jo zuten. Erriko ezkiña guzietan egin zuan alguazil edo meriyuak deadar eta aldi bakoitzean berri auxe.

Erritar ospetsu zan Karmelo de Etxegaray jaunak Euskaltzaindiko sarrera Errikoetxe gela nagusian egin bear zuala illunabarrian.

Alkate jaunak erritar guziei dei egiten zien. Alegia joan zitezela Ayuntamientura don Karmelo-ri omenaldi egitera.

Mutil oso gaztea izanagatik ni ere joan nintzan Ayuntamentura.

Ondo gogaratzen naiz Karmelo de Etxegaray jauna nola sartu zan saloian eta egin zuan itzaldiaz. Mogeltarrak erabilli zituan aotan. Gogoratzen naiz baita ere Euskaltzaindiak asiera ta bukaeran errezatu zituan otoitzaz. Baita ere gogoan daukat juntakizuna amaitzean erritarak txalo bero egin ziotela Don Karmelo-ri.

Baita ere ondo gogoratzen naiz biyaramonean Erriko-etxearen arkupetan nola kruzatu nintzan Karmelo de Etxegaray jaunarekin. Ordua ere esango nuke. Arratsaldeko ordu bata terdian edo ordu biak laurdena gutxiagotan.

Bakarrik eta presaka zijoan Don Karmelo. Pauso motx eta azkarr. Nik esango nuke gizon bixta laburren pausoa zala. Begira gelditu nintzaion izkutatu zan arte.

Nork esango zidan orduan neri, Gipuzko Diputaziyoko gela nagusian bertan iya berrogei ta amar urte pasata Euskaltzaindiak Don Karmelo-ri eskeiñitako omenaldi berezi onetan nik neronek itz egin bearko nuela?

¡Bizitzak dakarzkien gauzak!

Gure txikitako eta gaztetako urteak bere oroimen errespetagarriakin beteak izan ziran.

Gure gurasoak Don Karmelo-kin batian ibilliak izan bait ziran eskolan.

Bai omen zan sasoi artan Azpetitiko errian maixu napar pama aundikoa: Don Leoncio Ventura. Estella inguruko erri txiki batekoa: Oteiza de la Solana.

Nere aitag askotan kontatu oi zidan nola maixu onek Karmelo mutiltxoaren erantzun arrigarriak entzunik, danon aurrian nola esaten zion:

—*Tú serás un hombre, Carmelo. Tú serás un hombre.*

—Gizona izango aiz, Karmelo. Gizona izango aiz.

Gizona gizona bezelakoa izan genuan Karmelo de Etxegaray eta Korta jauna. Biotz xamur, egiazko kristau zintzo, langille purrukatua txiki txikitandik.

Biotzeko lagun ditudan Fausto Arozena eta baita Fernando del Valle de Lersundi jaunak, askotan kontatu izan dizkidate Don Karmelo-ren bizitza benetan garbi ta umillaren xetasunak.

Gure erriaren arrokeriari arpegi ematen dioten zer-nolakoak. Ez ditut emendik esango, bañan norbaitek jakin nai balituzke esango nizkioke ixillean.

Goramen ordu onetan Don Karmelo Etxegaray-ren bizitz argitasunak auxe dakarkite burura. Gure Karmelo-ren bizitz detalleak ez dirala bere izen argi ta garbiaren lotsagarri, baizik guri lotsagarri bizi bat sortuarazteko.

Oraindik egun gutxi, Gure Patroi Aundiaren eguneko arratsaldian, nere errian dagon Don Karmelo-ren irudi ingurura joan nintzan. Bera jaio zaneke etxe aurrian umetxoentzat jolas-leku zuzenduta dago gaur para je ura. Luzean jokatzeko frontoia zan joandaneke mendeetan. Etxegaray-ren irudia orain dala lau urte ipiñi zan, bere jaiotzako eun urte betetzian, 1965 garrenian. Arratsalde argian umearen jolas dea dar alaiak betetzen zuten bazter polit ura. Elizako torre zarra dauka zaindari alde batetik. Izarraitz-ko arkaitz larru-utsak bestetik.

Pixkatian egon nintzaion irudiari begira. Eta burutapen auxe etorri zitzaidan. Karmelo de Etxegaray jaunari egiazko onore ta laguntasunak oso berandu etorri zitzaizkiola.

Bada bere bizitzan pasaizo ager garri bat. Gaztea zan oso aita il zitzaionean. Bizi bearrak eragin zion Karmelo gazteari eta bere pamili ingurukoari Gipuzko kosta-erri bateko sekretario kargua eskatzera. Edadea etzeukan artean, orduan eskatzen zana beintzat, bañan beste edadeko gizon zentzuko batek pimatuko zituala Karmelo gaztearen lanak agindu zuan. Orrekin legearekikoak beteko zirala.

Erri artako Ayuntamentuan ba ziran Karmelo-ren aldekoak, bañan etzan kontsegitu kontzejalen bateko iritzia.

Gaur irripar tristea eragin arazten digu ainbeste ta ainbeste ager-erakusle, obeto esateko, salatari zaigun gipuzkoar ayuntamentuaren ezezko erabakiak. ¡Zorioneko erabakia! Jaungoikoak ondo dakizki bere bide zuzenak, aldi askotan bide garratzak ba dira ere.

Entzun egin bear zitzaion nolako errespetuz itzegiten zuan Don Karmelo-tzaz bere anai Don Boni-k, Euskaltzaindiko baita ere izan-dakoa.

Don Boni ere ba zan zerbañt euskal estudio alorrean, eta etzan bakarrik noski anai zarragoari zor zaion begiramena, ez. Neretzat zerbañt geiago ere ba zen. Eta zerbañt geiagoko au pamiliatzaz gazte gaztetatik sakrifikatzea tokatu zitzaion anai zarrarenganako errespetu ta eskerron bizi-bizia zan.

Don Karmelo-ren esturio bideak berezko bideak izan ziran. Etzuan beste aukerarik izan. Titulo bat bakarrik izatea etzitzaion posible izan. Bere buru-maisu izan zan beti.

Bañan alaz da guztiz ¡lan arrigarriak bereak! Erdi-mendeko ixtori jakintsu eta espezialistari Don Karmelo-ren *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media*, liburu benetan aipagarria serbitzeko suertea izandu det Diputazio ontako liburutegian.

Baita ere tokatu izan zait ixtori espezialista oieri entzutea nola ditekcan titulorik gabeko batek orren goi-mallako liburu argia eskribitu al-izatea. Neri olakoetan ixillik egotea iruditu izan zait egokiena. Irriparrez begiratu izan diet orrelakoei geienetan. Bañan erantzueratetzait iruditzen zailla eta ezta gutxiagorik ere.

Orrelako lanak egin ditezke benetakoa jakin-zale izan eta bide batez arrokeri guziak uxatuaz egiazko izpiritu umilla eduki-ta.

Lenago aitatutako Fausto Arozena adixkide biotzekoari aditua naiz askotan berak Don Karmelo-ri entzuna: —Ni, nere bizitza guzian ikaslea izango naiz. Alaz da guztiz makiñabat jakintsuk beren liburu eta esturioentzako itz-aurre eske joan zitzaizkion Don Karmelo-ri.

Mediku eta eskritore ospetsu izandako Marañon jaunak zion, itz-aurre baten oparia etzaiola iñori ukatu bear. Zenbat eta zenbat itz-aurre idatzi zituan ez dago esaterik.

Ainbeste ez, jakiña, bañan ¡zenbañt itz-aurre tokatu zitzaion eskribitza Don Karmelo-ri ere! Bere eskuarteko lana utzi bearra eragingo zioten konpromisoak. Don Karmelo-k etzien beññere iñori ezetzik esan.

Bañan ez bakarrik itz-aurreak. Zenbat debaldeko kolaborazio etzituan bidali Jainkoak bakarrik ezagutzen zituen errebitetara.

Gogoan edukitzekoa da, eta bere bibliografia lanetan ari diranak alderdi au ezin aaztu lezakete, bestela utsune aundiak izango dituztela ziur izan.

Jario oso errexeko estiloa zuan, eroso, apaña. Idazteko egokitasunari begiramen aundia zion. Letra ederra zuan gañera. Oso begitan zuan traketskeria.

Bertsolariak —bere denborako bertsolariak— etzituan maite, zarpaillu ta sastar oso iruditzen zitzaizkion.

Kanta paperak entzutean lotsatu egiten zan ta baita sumindu. Askotan arrazoi paltarik etzuan, baña etzion igarri bertsolariaren doai izkutu ta bereziari. Olerkari biozko izateak ez al zizkion bertsolarien ganako burutakizunak lausotzen?

Dana dala, Euskalerriari gogor oso lotu zion bere anima D. Karmelo de Etxegaray jaunak. Adimena Euskalerritik kanpo larreatzeko okasioak izan zituan Menendez y Pelayo-ren aizken-nai betetzaille izandakoak.

Bańan Euskalerriarentzat leial beti izan zan. Etzan nolanaiko leialtasuna berea.

Leialtasun bizi oni onore egińaz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputatziyuak alkar artu ta iru probintzietako kronikari egin zuten.

Baita berak kargu aipagarri onen erantzunbearrak benetan bereganatu.

Gernika-n il arterańo bizitzeko asmoa artu ta bete zuan. Gernikatik, gure-gure dan Arbola itzalpetik zabaldu zituan bere adimen argiaren aizken izpiak.

Gernikan il zan Karmelo umil ta aundia.

Gizon bakoitzaren eriotza bere bizitz-antz irudia dala esango genuke, eta Karmelo de Etxegaray jaunaren eriotzak irudikizun goienekoa daukala ezin ukatu.

Eriotza orretan gure Euskalerriaren ganako leialtasun garbiak dizdiratsu egiten digu argi biziz.

¡Leialtasuna! Karmelo-ren bizitz bilduma, orixe: leialtasuna.

Leiala izan dan gizonari errespetua zor zaio. Gaur eguneko munduan errespetua gutxi-etsita ikusten ba degu ez ote gizonak bere buruarenganako errespetua galduta dabilrelako? Gizona benetan errespagarri izateko, aurren-aurrena bere izateari bear dio giza-lotsa.

Eta nik orain arte nere erritar ospetsu Karmelo de Etxegaray jaunaren omenez esandakoak, bere Euskalerriarenganako leialtasunezko birtute arrigarrian korapillatu nai nituzke.

Leial beti jokatzek lanak ditu. Biotz oso-oso lotu eta beartzen bait du leialtasunak. Baño baita ere iraun-erazi. Iraun.

Fueroak azpiratu zituzten urte beltz artan Karmelo gazteak amaika urte zituan.

Xeetasun au ez det uste bear ainbat artu izan danik gogoan, eta artzekoa dala ez dago batere dudarik.

Txikia izanagatik une triste ura etzitzaion beññere aaztu.

Askoren azal gogorrean orrelako gertakizunak txirristatu egiten dute, bañan ba dira gizonak bere bizitz guzirako bere barren ixillean markatuta gelditzen diranak.

Oetakoa izan genun Karmelo de Etxegaray jaun agurgarria. Eredu bikaiña bai, benetan, gaur egunian guretzako.

ZUGASTI JAUNAREN HITZALDIA INTZAGARAIZ

Jaun-andreok:

Ez nintzan izan Euskaltzaindiaren azkeneko batzarrean. Eta, egun artan bertan, jo zidan telefonua Zeletak: nere izena eman omen zuan norbaitek, Dn. Ramón Intzagarai, euskaltzain izanaren omenez itzaldi labur bat egiteko. Gero, bi egunen buruan, Euskaltzaindiko idazlariaren gutun bat artu nuan, eta berri ori bera ematen zidan, eta esateko egingo nuan ala ez.

Eta nik ezin ezetz esan, iñolaz ere.

Mirakrutzen, moja prantsesak neskentzat zuten ikastetxean apaiz zala ezagutu nuan nik Dn. Ramon. Umea nintzan artean. Altzako eliz-barrutikoa zan etxe ura te sarritan joan bear izaten zuan Altzara. Oso etzekoa zan gurean; orregatik, nik ura baño len ezagutu ninduan ark ni, artean ez bait-nintzan ni iñor ezagutzeko gauza.

Ni Anixeto izan nintzan beti Dn. Ramonentzat; ume nitzala Anixeto; ta gero, ni apaiz eginda, biok San Bizenten, ura koajutore ta ni kantore ibiltzen giñanean ere bai: beti Anizeto. Maite-maite nindun Don Ramonek; eta nik ere bai Dn. Ramon. Maite nuan eta errespetua nion.

Onetxegatik erantzun nuan baietz eta onetxegatik naukazute orain zuen aurrean itz-jario.

Dn. Ramon zer zan, nalakoa zan?

Gizona zan: atsegina, argia, apala, gizartekoa.

Ba-dakizute: gizonak, batzuek gizonak izan oi dira, ta beste batzuek gizonak. Don Ramon gizona zan, itzaren betekoa, eta gizona, beste zera oiekin guztiakin ornitua.

Eta apaiza zan, apaiz ona. Gizona, itzaren betekoa, oñarri zuala, apaiza ere ona, jatorra, zintzo, itzaren betekoa.

Ortaz gañera, langille purrukatua.

Goizean bere San Bizenteko lanak zintzoro egin, eta gero lanari ekiten zion, buru belarri. Bere etxean lenenik, eta gero, Etxe ontako (Diputazioko) liburutegian, batipat. Orain irakurle asko biltzen da liburutegi ortan; orduan bi izan oi ziran, noski, ia egunero liburutegi ortara joaten ziranak: Dn. Julio de Urkijo ta Dn. Ramon Intzagarai. Biak, bakoitza bere lanera: liburu bat artu, ta papera ta lapitza, ta... irakurri ta idatzi.

Orregatik ez da arritzekoa Dn. Ramon asko-ikasiya ta asko-jakiña izatea. Neronek irakurri izan det bein baño geiagotan, emengo egunerokoetan, Dn. Ramonentzat norbaitek esaten zuana: «El cura erudito de San Vicente».

Eta ongi esana, noski! Ba-da ark egindako liburu eder bat, eta ez txikia: *Historia eclesiástica de San Sebastián* deritza. Donostiko eliz-kondaira aztertzen du. Eta ezin ukatu, beste asko baño aurrerago ta sakonago iritxi zala Dn. Ramon liburu ontan; eta askok erabilli dutela eta erabilliko ere eskuartean, ixtori-saill ortan argitasun izateko.

Dn. Ramon il-da gero, Dn. Miguel Zubiarraín, San Bizenteko sankristauak eman zidan onako kuaderno au A. B. C. ta abar dauzkan bere orrietan, gordetzen zuan D. Ramonek maiteki oargarri iruditzen zitzaion guztia. Gauzik geienak euskerari dagozkio. (Badago gai oni buruz jakingarririk pranko: itzak, esaerak, aditz-jokoak, gramatika-puntuak, arrantzaleen izen-goitziak -Donostikoenak, jakiña-, itxas-muturren izenak, bertso politak e-a. Entzun onako au adibidez:

*Aita Bixarrek ekarriko du
txalupa bete berdela;
Ama Tripollak Altunenetik
bonbilla bete mixtela...
Bonbilla bete mixtelarekin
altzoa bete okela...
Gaberdireko jarriko gera,
arraigorriya bezela!*

Or dezute Dn. Ramon, potorrua uretan bezela, bere xaltzan murgildua!

Kuaderno au, euskerari buruz, altzor aberats-aberatsa da.

Bañan, euskel-gaia utzi, ta beste zerbait esan nai nizuteke oraingoz.

Kuaderno onen orrietan ere agertzen da Dn. Ramon gurea asko ikasiya zala. Bere barruan orri askotan griego idatzitako itzak eta lerroak ere ba-daude.

Beste batzuetan, berriz, ba-daude itzak, lenbizi euskeraz ipiñiak, eta gero, griego, alemanez eta prantsezez ezarriak, euskel-itzaren ordekoak.

Nik ez dakit zenbaterako ezagutuko zituan gure Dn. Ramonek izkuntza auk. Bañan, agian, jakin zezakean eta, jakin ere, ba-zekin: *El cura erudito de San Vicente* deitzen zionak.

Lenbiziko atal au bukatu baño len, beste ikutu txiki bat eman nai nioke Dn. Ramonen izakerari.

Donostiarra zan, oso donostiarra, donostiar jatorra; bañan, ez Donosti guztiko donostiarra; Bulebarretik kaialderakoa, Urgull-alderakoa, baizik. Gutxitan ibilli oi zan Donosti berriko karriketan. Ala ere, Bulebarretik Antiguaaldera ibilli oi zan; baña, beti itxasoa begien bistan zuala, kresalak aurpegia igurtzitzen ziola. Ain maite zituan itxasoa ta kaya ta arrantzaleak. Arrantzaleak maiteen noski! Orregaitik aitatzen zituan bere Donosti-Donostiko euskera jatorrean ainbeste bider eta ain maiteki!

1919 urtean egin zuten euskaltzain Dn. Ramon Intzagarai, apaiz jauna. Eta ez noski, eliz-kondairan eta griego, aleman eta prantsesean asko jakina zalako; ezta Donosti ta kaya ta arrantzalleak

asko maite zitualako ere. Euskera-maitea zalako, baizik, eta euskara asko zekilako ta euskaraz asko ta ondo idazten zualako. Jakin, non-bait, batek baño geiagok, itz lauz eta itz neurtuz, idazle jatorra zala.

1892 urtean asi zan, noski, gure Dn. Ramon bere lantxoak argitaratzen. *Euskalerrria; Euskal-Esnalea; R. I. E. V. aldizkarietan* agertu ziran. Lenengoa *Euskalerrria*-aldizkariaren 404 orrialdean irakurri det. *Galdera polita* deritza.

Entzun:

Aizazu, Maritxo!

Ama dago miñez?

— *Miñez? Ez, jauna, ez!*

Ta asi zan negarrez.

Andik pixka batera

esanik dolorez:

— *Galdera polita:*

nere ama il-ta!

Gero asper gabe ekin zion, idazi ta idazi. Aldizkarietan agiri diran lanik geienak itz neurtuz egiñak ditu.

Eta saria irabaziak, gañera. Itz lauz egiñak bi lan billatu dizkiot: *Kulubix* eta *Antzerki Zarra*: biak sarituak. *Kulubix* irakurgai bixi-bixia, luxe-luxea, arrantzale-girokoa. *Antzerki zarra*, Donostiko ixtori-kutsukoa.

Ona orain olerki batzuen izenak: *Aizkorri, Umezurtz, Arrantzale batek itxasoari, Zorion Iturritxo, Seme Aberats, Jerusalem Jerusalem, Donosti kixkaliyari, Koruko Ama Birjiñari, Ume zurtzaren negarrak*, eta beste asko ta asko.

Aldizkingietan azkena agertzen dana «Karmelo Etxegarai», izenekoa da, noski. 1925 urtean azpeitiar jaun leñargiaren eriotza zala-ta egiña.

Itz lauz, *Ipuyak* izeneko liburuxka bat ere egin zuan. *Argian* ateratakoak xortaou-ta, noski.

Eta, azkenik, antzerki txiki bat aitatu bear det:

Kontxexi ta Petratxo, nexka txikientzako 1918an egin zuan alkar-izketa atsegia.

Emagun beste urrats bat Dn. Ramonen bizitzan.

Intzagarai, apaiz jaunak, euskera-alde egin zituan lanen berri osoki eman nai duanak, nai ta ez, *Argia* aitatu-bearra dauka: 1921 urtetik 1936 urterako ain lan bikaña egin zuan *Argia* asterokoa.

AGUR!

Goiz-goiz eldu dan argia, illunabarrerako agurka da. Bañan, irakurle, orain datorkizun Argia onek ez luke illunabarrrik ikusi nai; illunabarra amaitza bezelaxe litzaioke-ta. Beti argi; luzaroan euskaldunen alde argi ta argi! Giza-lanak odoyik eta lanbrorik gabe izatea, gauza zalla da, noski; gizonak berekin daramazki-ta betiko txurriyoko zirpillak. Utsale izango gera gu ere, ta orrela ibilli bearrak, alik eta Jainkoak, bere baitan, osatu gaitzan arteraño. Bañan, utsale geranok, osabide, marratx gatozenontzat ongille, Jainkoa zaigu; ta *Argia-ren idazle* tentel-xamarrek, Beroni argi-eskeka gatoz, oraingo ta geroko lanentzako.

Lenbiziko agur eztitsuen Jainkoarentzat, beraz. Gure mendien tontor eta gallurrak, itxasoaren burrundak, ortziko argi, odoi, aize, bidaxoi eudi-zapar eta oñazkarrak Jainkoaren nagusitasuna dakarkigute; ta euskaldunen biyotzak nagusigo orretarontz menderatzea: orixe guretzat eginkizunik bikañena noski ta noski!

Apezpikuaren bedeinkapenaz ornitu-ta gatoz. Beronen baime-na, belaunikaturik, artu degu. Zer aldi atsegiña orretxen eskuz Jainkoaren baietza bait-zetorkigun! Pozak eguteratu gaitu, ta egutera irtara luzaro begoz gure etxe mirrixkaren ateak eta leyoak. Apezpiku jaunari agur maitetzua!

Agur sutsu bat Euskalerriko izparringi ta aldizkingi guztiai, *Argiaren* orriak gogoz eskeiñiaz.

Agur euskaldun guziai; ta lagundu digutenok eta lezakekigutenentzat: oyentzat agur eta biyotzaren giñargiñarra! Ez bitez lekereratu; begoz gurekin illunabarrak goibeldu ez ditzan. Gure etxean izango dute zer jan, zer edan, zer ikasi, zertaz bizi, non etzan, zer maite...

Gure etxe ta atariyetara gatoz: Euskalerrira. Ta Euskalerriak ez al du euskerazko papertxo bat merezi? euskaldun geyenak ziaroko gauzetan gaude gain onetan. Utsune ori betetzera dator gure lana, ta entzun: gogo barrengo utsunea bete dezatekenak, edo artara-

ko leyatzen diranak, ez dira, noski, arbuyatu bear; gutxiago, herriz, inkurriyopean gaitxetsi.

Esan oi da, euskerazko gogo-lanak alperrikakoak dirala, euskera artarako gai ta zoar ez dalako. Ori dasakenari, oraintxe alderdi ego-kia datorkiyoque, gure lantxoak ikusi-ta, bere iritzi makurra ayenatzeko.

Orain arterañoko euskerazko lan ederrak irabazi duten toki garayean begoz; gure lana beeragokoa da; hurraren axalean ibilli nai giñake, oraindik ortxe daude-ta euskaldunen abarkak eta mantarrak; bañan, astero-astero gure papertxoan asko ikasi dezakete gure irakurle maiteak, uste gabeka ta pitin-pitinka eragin oi diralako, nagusitzara daramaten gizarteko jakinbide guziak.

Agur Jaunak, eta laxter arte!

* * *

Ez dakit non ikusi dedan argazki gogoangarri bat, —ba-diteke neronek etxean eukitzea ere—. Argazki artan bost gizon ageri dira, oker ez ba'nago: Dn. Anbrosio Zatarain, jaun leñargia (oraingo gure Zatarainen aita zana), Gergorio Mujika Jauna, JEME zana, Dn. Bitor Garitonaindia, Dn. Jesus Karrera ta Dn. Ramon Intzagarai; azkeneko iru onek apaizak.

Bost oiek izan ziran (bost oiek beintzat bai) *Argia*, orduko asteroko ederra sortu zutenak. Zor aundia diete gure mintzaira maiteak eta Euskalerrriak asteroko ura sortu zuten gizonai!

Eta, ain zuzen, *Argia*'n agertu zan lenengo lanari *Agur* deritza; eta bere barrenean *Elurmendi* izen-ordea ageri da. *Elurmendi* Inzagarai apaiz jauna zan.

Argia'k lenengo atala beti *Astea* izan oi zuan; asiera artan, beti Dn. Ramonek egiña; gero ere bai askotan. Amaika gogoeta eder, gozo, bizi jalki zuan Elurmendik dotore asko apaintu-ta, bere asteroko *Astea* artatik.

Eusko-umorea ba-dala ta ez dala itzaldiak entzun izan ditugu, atsegin askoak. Elurmendiren lan oiek irakurtzea naikoa, par-irri gozoa egiteko ta adur-jario gelditzeko.

Argia'k ere (Argiakoak obeki esan) gertatu oi dan bezala, nerik asko izan zun asiera artan. Gai ori ikutu zuan Elurmendik aurrenatako *Astea* batean.

Orain arte kabuxak ipiñi zion izen bere lanari. Eta, besteak beste, ala dio:

«Ala galdetu omen zioten bein batean Tutuluxi:

—I Tutulux, ezer arrapatu al dek?

—Orain arte kabuxak. Lupiyak ere etorriko dituk!

Guri ere beste ainbeste gertatzen zaigu. Kabuxetan gaude; bañan, lupi-garaya elduko zaigu. Bitartean, gure lanean arduratsu egongo gera, naiz arrai ederrak ez atxi.»

Oar bi zati txiki ontan: Euskeraren alde lanean lertzeko ere gertu zegola Dn. Ramon. Ta, biotzean zeramana irteten zitzaiola lumaren muturretik: itxasoa, arrantzaleak, kaya, kabuxak, lupiyak...

Argia'ren lantegira sarrio joan oi zan gure Dn. Ramon, eta geinetan ba-zuan izkirimirri parragarriren bat esateko. Bi ba-dauzkat gogoan neronek-neronek entzunak:

«Bein batean bi gazte omen ziatziken kostako trenian. Gelditu omen ukan trena ta Patxik galde Pellori:

—Pello, nun gaudek?

—Eta Pellok:

—Etzekiat, baño, laxter ikusiko diat. Retreten gaudek.

Orduan Patxik:

—E! Mokaru bat artu bear diat!

Eta Dn. Ramonek bere algara gozo luzea zuan; eta parrez alde egin.

Beste bein.

Ba-omen zan kayean Kanpanario-kalean etxe bat zuan gizon bat. Etxe orren bodega ta ganbara alkilartzeko omen zeuzkan. Eta anuntziyoa jartzea erabaki omen zuan. Artu ol bat eta ikatza, ta onela jarri omen zuan:

«Sakilla bódega y gánbara. De la gánbara se ve la frageta».

Entzutekoa zan gero, aren ja, ja, ja, algara luze-gozoa.

Baña, gero?

1947 urtean il zan Dn. Ramon. Amar azken-urteetan ez omen zion, noski, inork par-irrik ikusiko ezpañetan. Bildurra sartu omen

zitzaion ezurretaraño ta biotz-ondoraño tristura. Eta bildurra joan ba'zitzaion ere, tristura ez.

Tristurak bizi omen zuan, eta azkenean, tristurak ill. Artetxerekin egiten omen zuan ia egunero bere ibill-aldia Kontxa Gañean. Beti illun, beti triste, beti itun. Euskalerrian odei illunak ikusten omen zituan, eta bere euskera maite kutunarentzat, argi-izpirik ez iñondik.

Eta len ain parre gozoak egiten zituan Dn. Ramonek, ezin par-irri txikienik ere egin. Gaur bizi balitz, zer esango ote luke? Parre gozorik egingo ote luke? Bai noski! Nik uste!...

Jaun-andreak! Gaur euskerak txusperraldia du. Txusperraldi onen ondoren, bizi kementsu-zabala opa ba'diogu, lan egin dezagun gogor, Dn. Ramonek eta aren antzeko gizon jatorrak egin zuten bezela.

Eta orain, gizon oietako lauren omenez, batzar aundi eder au egin degun ezkerro, jo txalorik beroenak Dn. Ramonen eta aren antzeko gizon jatorren oroiz eta gorapenez.

CARTA DEL MIEMBRO DE HONOR DON RAMON MENENDEZ PIDAL, CON MOTIVO DEL CINCUENTENARIO

Sr. D. Juan San Martín Ortiz de Zárate
Secretario de la Academia de la Lengua Vasca.

Mi querido amigo:

A Ud. como Secretario de la Academia de la Lengua Vasca me dirijo para que me haga el favor de transmitir a esa Corporación mi profundo agradecimiento por haberme nombrado Miembro de Honor.

Estos momentos me traen el recuerdo de tantos amigos queridos, las grandes figuras de Urquijo, Echegaray, Azcue y, ahora, Mendizábal a cuyo aliento debo todo el muy antiguo fervor que siempre he sentido por la venerable lengua vasca.

Esta es, también, la ocasión de hacer muy cordiales votos por la prosperidad de los estudios vascófilos, que desde principio de siglo vienen floreciendo de modo envidiable. Mucho querría yo, vuestro último compañero, poder contribuir en algo a ello.

Muy afectuosamente,

R. Menéndez Pidal

Arantzazuko Agiria

ARANTZAZUKO JARDUNEN ONDOKO AGIRIA

Arantzazun, 1968-ko urriaren 3, 4 eta 5-ean egin ziren bileren ondorean, han izan ziren ponentzi eta elkarrizketak aintzat harturik, bukaeran bildu ziren euskaltzain jaun hauek: Manuel Lekuona, A. Damaso Intza-koa, A. Irigaray, A. Irigoyen, Antonio M.^a Labayen, Pierre Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martin, Jose Maria Satrustegi eta L. Villasante, eta batasunari buruzko argi-bide hauek agertzea erabaki zuten:

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurrerapena agertu nahi du orain.

1) Ortografiaz hortarako hautatu zen batzordeak adierazi di-tuen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez

2) H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdín nahiz ezberdinen artean crabiltzen hastea. (1).

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.

3) Morfologiaz, izenen erabileraz batzordeak prestatu duen aintzin-lana puntu nagusietan oinharri bezala hartuaz jokatu du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.

4) Aztertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta be-rrien formaz gertatu dituen lanak, gero ere hori bide beretsutik hobeki lantzeko asmoz.

Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, gendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du, gero ere, guztion laguntzarekin, bere eginkizuna beteko duela. Hortan saiaturiko dela.

Arantzazu-Oñati, 1968-ko urrilaren 5-ean (2).

TRADUCCION AL CASTELLANO DEL ACUERDO DE ARANZAZU

Después de las jornadas de Aránzazu, reunidos los académicos de número allí presentes, dieron las siguientes orientaciones.

Finalizado el Congreso de Aránzazu, la Academia de la Lengua Vasca quiere rendir gracias a todos los que han acudido o han enviado sus dictámenes.

(1) Ohargabez ez zen hemen jarri xehetasun beharrezko bat, guztion gogoan zegoena, bestalde, alegia: bokalen arteko h letra ez dela beti eta itsu itsuan jarri behar, letra hau mintzatzean eta idaztean erabiltzen duten euskaldunen arabera baizik.

(2) 1970-en uztailaren 29-an Donostian egin zen billeran, agiri hau berriz onetsia izan zen erabaki hau hartzean: «Euskal aldizkari guztietara ohar bat bialtzea puntu batzuk argituaz: a) Arantzazuko batzar hura, Euskaltzaindiarena zela eta ez zenbait idazleena; b) Han irakurritako agiria, bertan ziren jaun euskaltzain osoen artean harturiko erabakia zela.»

Baizuek jarri zituzten dudgeatik behartu zen Euskaltzaindia argitasun hau ematera.

Lo primero que se ha puesto de manifiesto en el Congreso es que, a juicio de todos, la unificación nos es necesaria. Ciertamente, la unificación no es tarea que pueda hacer la Academia, y menos aun que pueda hacerla inmediatamente. Supuesto que hablamos de unificación del euskera escrito, tal unificación será la obra de escritores y maestros, con la guía y asesoramiento de la Academia.

Para que los euskaltzales que han estado y los que no han estado en Aránzazu tengan una orientación, queremos dar ahora un avance de las decisiones y trabajos que la Academia publicará ulteriormente y con más detenimiento.

1) Acerca de la Ortografía: La mayor parte de los puntos que ha expuesto la Comisión que se escogió para ello, han sido aceptados, según se ha visto.

2) En cuanto al pleito de la H, después de oír los pareceres que se han emitido, se ha escogido, para comenzar, una vía media: a saber, que la Academia vería con buenos ojos el que se comenzara a emplear dicha letra entre vocales, sean éstas iguales o diferentes. Esto no quiere decir que los ensayos de los que quieran ir más allá no hayan de ser bien vistos. (1).

3) Acerca de la Morfología: Se acepta como base en sus puntos principales el trabajo elaborado por la Comisión acerca de la declinación de los nombres, dejando para otra ocasión lo relativo a la conjugación.

4) Se han examinado asimismo los trabajos preparatorios por la Comisión acerca de las palabras vascas antiguas y acerca de la forma de las palabras nuevas, y se tiene el propósito de reelaborar ulteriormente el tema siguiendo la dirección apuntada.

La Academia de la Lengua Vasca ha visto con satisfacción el ambiente, la corrección y el deseo de trabajar en equipo que se ha manifestado en este coloquio, y piensa que también después, con la

(1) Por pura distracción o inadvertencia dejó de ponerse aquí una precisión, que, por lo demás, estaba en la mente de todos, a saber: que la colocación de la h intervocálica no debe hacerse siempre o indiscriminadamente, sino según reglas que hay que deducir del uso hablado y escrito de los que pronuncian esta letra.

ayuda de todos, podrá continuar realizando su cometido. Ella proseguirá en este empeño.

Aránzazu-Oñate, 5 de octubre de 1968 (2).



D. Manuel Lekuona euskaltzainburua Arantzazuko batzarraren azkenean

(2) En reunión celebrada en San Sebastián el 29 de julio de 1970, esta acta fue ratificada al tomar el siguiente acuerdo: «El enviar una nota a todas las publicaciones euskéricas puntualizando los siguientes extremos: a) Que aquella reunión de Aránzazu era de la Academia de la Lengua Vasca y no de ciertos escritores; b) El acta allí leída era un acuerdo tomado entre los señores académicos numerarios allí presentes.»

Se obró de esta manera ante las dudas suscitadas por algunos por las que la Academia se vio en la necesidad de publicar esta aclaración.

(N. D.: Para cuantos tengan alguna dificultad en la correcta interpretación del vascuence y se interesen por la unificación del idioma escrito, recomendamos el opúsculo que con este fin publicó L. Villasante bajo el título: Hacia la Lengua Literaria común. Que además de una breve historia sobre la unificación, contiene la traducción del informe completo de L. Mitxelena que en su día vio la luz en EUSKERA, tomo XIII (1968) y en el libreto Euskera Batasuna (Bilbao - Donostia, 1969), enriquecido con comentarios a continuación de las traducciones del texto original. Hacia la Lengua Literaria común se puede adquirir en las librerías del país o en la Editorial Aránzazu, Oñate.)

Hilabeteen izenen batasuna

EUSKALTZAINDIKOEN ARTEAN ENKUESTA

Ilen izenak bateratzeko, Euskaltzaindiko en artean enkuesta

Jorraileko batzarrean, andereño talde batek eskatuta, egutegien desberdintasuna ikusita ta beste arrazoi askogaitik hemen ere batasun bat beharrezko dala konturatuaz, besterik ez bada ere, konbenzionalki (beste hizkuntzetan ere il batzuek konbenzionalak badira) erabaki bat hartu beharrean gaudela eskatzen nuen. Hortarako, hiru gauza aipatzen nituen: oinarritzat Villasanteren lana hartzea (Ikus Euskera VII 1962, 328-334 orrialdeak); Euskal Idazkaritzako zerrenda, besterik ez bada, bat hartu. Hau enkuesta bezela era hontara egin dut. Mesedez, datorren batzarrerako bagilerako, garagarrilerako, errearorako erantzunak Euskaltzaindira bidali, sistematizatzeko.

Urtarrila	Onartzen duzu? Ez baduzu, zein uste duzu dala bateratuena, zergatik?
Otsaila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Epaila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Jorrraila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Maiatza	Onartzen duzu? Ez baduzu...

Garagarrila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Uztaila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Agorrila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Iraila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Urrila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Hazila	Onartzen duzu? Ez baduzu...
Abendua	Onartzen duzu? Ez baduzu...

J. L. Lizundia

EUSKALTZAINDIAK ESKATURIKO TXOSTENA, A. VILLASANTEK EGINA

Aztertu ditut Lizundia jaunak gai oni buruz bialdu zizkidan txostenak. Ogei dira guztira. Izenik gehienetan bat datoz iritziak. Orrek esan nahi du batasuna ia egina dugula. Ba dira, alere, kora-pilo batzuk. «Junio» eta «setiembre»-ren izenak dira, ene ustez, erabakitzen txarrenak.

Aztertu ditudan iritzietan azaltzen dira, iñoiz, kriterio batzuk auzi au garbitzeko balio behar ez luketenak, nere iritzian behintzat. Zenbaitek, esate baterako, ara zer dion: autatzen diren izen guztiek «ila» bukaera euki behar dutela. Zer dela ta? Guk zabalduenak, Euskalerrian sustraituenak aukeratu behar ditugu, itzaren bukaera nolanahikoa izanik ere. Au da behintzat nere aburua.

Beste batek dio «Loreila» izenak, «Maiatzak» baiño poesi usai gehiago duela. Baiña poesiak zer du zer ikusi arazo ontan? Gainera, bi izen oietatik zeñek duen poesi usai gehiago erabakitzen ere ez giñake bat etorriko.

«Garagarrila» izena onartzeko, oztopo bat aipatzen dute beste batzuek: izen hori Bizkaian «julio» izendatzeko erabiltzen dela. Oztopo au kontuan eukitzekoa da, noski, baiña ez dut uste arrazoi onek, beste gabe, izen au zokoratzeko aña indar duenik. Beste ainbeste gertatzen baita beste izen batzuekin ere. «Urria», «Agorrila» ta abar, toki batzuetan il bat eta beste batzuetan beste bat izendatzeko erabiltzen baitira.

«Abendu» itza ez artzeko ere, ara zer arrazoi ateratzen duten bik: Elizak ba duela Liturgi-garai bat «Adventus» deritzaiona, eta hori adierazteko guztiz egoki letorke «abendu» itza. Beraz, nahaspilla sor ez dedin, «diciembre» esateko beste itz bat artu behar da. Baiña arrazoi orrek balio ote du? Nere ustez ez. Hori izango litzake errian sustraituta dagoen itz bat eta sentidu bat baztertzea, beste sentidu berri bati leku uzteagatik. Gu ez gera nor hori egiteko. Erri izkerari zor zaion lotsak debekatzen du hori. «Diciembre» esateko, «Abendua» baldin bada itzik zabalduena eta sustraituena, orduan bego zutik itz au eta adierazpen au. Gero ikusiko dugu nola esan behar den «Adviento». Orixek «Etor-Aro» deitzen dio. «Adventua» ere esan diteke beharbada, jatorrizko itza ahalik eta gutiena aldatuz. «Abendua» eta «Adventua» biak jatorri beretik etorriko lirake, baiña lehenbizikoa erri bidez sartu zan euskeran eta bere adierazpena finkatua dauka: utz dezagun, bada, dagoen ortan. Bigarrena guk orain latiñetik zuzen zuzenean artzen dugu eta aldatu gabe sartzen dugu euskeran sentidu berezi bat adierazteko. Orrelako formazioak erruz ikusten ditugu gure inguruko erderetan. Bi eratako itzak, alegia, iturri beretik moldatuak, baiña bata erri bidez eta bestea ikasien bidez izkuntzan sartua; eta itz oen itxura, sentidua eta enolegua ez da bat ere berdiña izaten. Orra bikote batzuk, gatzelaniatik artuak: obrar/ operar, hacedor/ factor, hechura/ factura, seña/ signo, entrañar/ internar, maleza/ malicia, derecho/ directo, nocherniego/ nocturno, abertura/ apertura; ta abar. Bikote bakoitzeko lehen itza, erri bidez sartua da izkuntzan eta Fonetika legeen araura aldatua;

bigarrena, berriz, ikasien bidez latīñetik zuzen artua eta ahalik eta gutiena aldatua. Gure inguruko erderetan orrelako formazio asko daude, eta gu ere iñoiz orrelakoen beharrea gertatzen gera, batez ere jakintza eta kultura gaiak adierazi behar direnean.

Nolanahi ere, duda gaztiak eta zalantza guztiak uxatzea ez da erreza izango. Batasun konbenzional bat behar dugu, eta hori batek erabaki behar du —Euskaltzaindiak, alegia—; bestela ez da egingo. Mitxelena jaunak zionez, batzuetan berdin da ezkerretik edo esku-bitik ibiltzea, baiña organismuren batek esan behar du nundik denak ibili.

Nik neri ondoen iruditzen zaidan izen zerrenda eskeintzen dut. Ortarako oni bakar bakarrik begiratu diot: zeintzuk diren errian zabalduen eta sustraituen dauden izenak. Dudako kasuetan bi itz edo iru jartzen ditut elkarren ondoan. Gero Euskaltzaindiak erabaki dezala. Gainera, onako ohar au ere egin beharra dago: autatzen diren izenak Egutegietarako ta ola direla batez ere: baiña orrek ez du esan nahi beste izenak literaturan ta abar erabili ezingo direnik. Eta egutegi bat euskalki berezi batean egiten bada, zilegi izango da, nik uste, euskalki artako izenak ipintzea.

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIA

Euskaltzaindiak jakin erazten du, urriko batzarrean erabaki ta azaroan onhartu zituala ofizialki, euskeraren batasunerako hilen izen hauek:

Urtarrila	enero	—	Janvier
Otsaila	febrero	—	Février
Martxoa	marzo	—	Mars
Apirila	abril	—	Avril
Maiatza	mayo	—	Mai
Ekaina	junio	—	Juin
Uztaila	julio	—	Juillet
Abuztua	agosto	—	Août
Iraila	septiembre	—	Septembre
Urria	octubre	—	Octobre
Azaroa	noviembre	—	Novembre
Abendua	diciembre	—	Decembre

**Escrito al Excmo. Sr. Ministro de Educación y Ciencia,
sobre el Libro blanco**

Excmo. Señor:

Don Manuel Lecuona Echaveguren, en calidad de Presidente de la Academia de la Lengua Vasca,

Expone:

Que esta Academia de la Lengua Vasca, ante la aparición del *Libro Blanco* (Bases para una política educativa), publicado por ese Organismo y con referencia a la parte segunda del mismo, número 20, párrafo 1.º que se refiere a las regiones bilingües, hace constar su satisfacción por el abordamiento de esta cuestión tan transcendental por ese Ministerio.

Esta Academia de la Lengua Vasca, consciente de los problemas derivados del bilingüismo, ha efectuado conversaciones y contactos de carácter técnico con la Real Academia Gallega y el *Institut d'Estudis Catalans*, llegando en principio a un acuerdo de base sobre una precisa ampliación de los criterios del *Libro Blanco* sobre el problema mencionado.

Por ello y considerando: entendemos que la enseñanza de la lengua vernácula habría de ser obligatoria para todos los niños nacidos o residentes en una de las regiones nominadas «bilingües», puesto que los niños en estas regiones, en sus primeros años, monolingües, salvo casos especiales en que el padre y la madre sean de diversa lengua nativa, es decir, que en la mayoría de los casos, la única lengua arraigada íntimamente en el espíritu infantil de las referidas re-

giones es la vernácula. Los valores de esta intimidad son tan profundos que la pedagogía moderna recomienda sin vacilación, el uso y estudio de la vernácula, como el mejor vehículo para la enseñanza primaria; y aun más, recomienda el uso de la lengua materna, hasta el grado más elevado posible de la formación intelectual, según declaró el equipo de psicólogos y pedagogos de la UNESCO, en la monografía titulada *Empleo de las lenguas vernáculas en la enseñanza* (edición en español, Lucerna, 1954), de la cual extractamos esta afirmación: «La lengua materna debería ser empleada como medio de instrucción hasta el más alto grado posible de enseñanza»; «Las autoridades deberían hacer todo lo que esté a su alcance para crear condiciones que permitan extender cada vez más el empleo de la lengua materna a la segunda lengua lo más suavemente posible y del modo menos perjudicial desde el punto de vista psicológico (página 55). «La lengua materna es el medio natural de expresión de una persona, y una de sus primeras necesidades es desarrollar al máximo su aptitud para expresarse»; «Todo alumno deberá comenzar sus cursos escolares en la lengua materna»; «Si la lengua materna es adecuada en todos aspectos para servir de vehículo de instrucción en las universidades y establecimientos de enseñanza, debe emplearse como tal» (pág. 75).

Posterior al estudio de la lengua materna o vernácula, cabría emprender en la segunda lengua —la castellana en nuestro caso—, la cual no sólo no sería obstaculizante por el uso de la vernácula, sino que, al contrario, resultaría favorecida, porque el previo estudio metódico de la lengua materna serviría al niño como punto de comparación, que facilitaría la captación de las diferencias y matices que distinguirían las dos lenguas. Los especialistas de la UNESCO formulan estas nociones, que dicen: «Si la lengua materna del niño no es la lengua oficial de un país, o una lengua mundial, necesita aprender una segunda lengua. Es posible adquirir un buen conocimiento de la segunda lengua sin emplearla como medio de instrucción general. Durante el primer año, o el segundo, de asistencia del niño a la escuela, el estudio de la segunda lengua puede ser introducido como asignatura. La enseñanza de la lengua debe progresar gradualmente y no se debe emplear como medio de

instrucción hasta que los alumnos estén suficientemente familiarizados con ella» (pág. 76).

El aprendizaje de dos lenguas facilitaría a su vez el de terceras lenguas, en nuestro caso del vascuence: uso del partitivo, además de otras formas gramaticales, leyes fonéticas, especialmente valores fonológicos: j, x, ts, tt, tz, etc., más la concordancia del léxico. Estos y otros detalles similares ayudarían al aprendizaje de otras lenguas en tiempo breve. Prescindir del estudio metódico de nuestras lenguas vernáculos significa limitar y entorpecer esta facilidad para el conocimiento del español mismo, así como de otras lenguas. Todo lo expuesto expresa nuestro punto de vista sobre el párrafo primero del número 20 de las «Bases para una política educativa», para las modificaciones pertinentes.

Dios guarde a V. E. muchos años.

Andoain, a diecinueve de abril de mil novecientos sesenta y nueve.

EXCMO. SEÑOR MINISTRO DE EDUCACION Y CIENCIA

Euskaltzaindiaren Agiriak

SARRERA

Euskaltzaindiaren Lan eta Agiriak: hau da gure agerkari honen eremu bikoitza. Euskaltzaindiko jaunen lanetaz gainera, Euskaltzaindiaren beraren agiriei, erabakiei, erakunde berriek eta abar agertu behar dute Euskera-n. Dokumentazio ofiziala izango da, bada, atal honen barnean datorrena.

Azken urte honi gagozkiola, hona hemen argitaratzen diren dokumentuak: 1) Euskaltzaindiko kargu aldatze eguneko hitzaldiak (Lekuona, Villasante). 2) Euskaltzaindiaren egituraz zuzendaritzak prestatutako txostena. 3) Batzorde berri batzuen sortzeaz eta Donostiako ordezkaritza hornitzeaz egindako izendapenak. 4) Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren sorrera. 5) «Andima Ibinagabeitia Saria» eman zeneko hitzaldia. 6) EUSKERA aldizkaria gaurkotzeaz egindako izendapenak. 7) Hileroko batzar eguna hobekiago aprobe-txatzeko emandako agiria. 8) Idatzarauetazko batzordeak prestatu, eta Euskaltzaindiak onartutako I eta II. txostena. 9) Euskaltzaindiko sailen organigrama. 10) Bizkaiko Aurrezki Kutxak emandako laguntzaz jarritako Sariketaren iragarpena.

Eta azkenik, batzar-agiriak.

MAULEN, KARGU ALDATZEAK ZIREIA ETA EGINDAKO HITZALDIAK

DON MANUEL LEKUONA, EUSKALTZAINBURU
ZAHARRAREN HITZAK

Itz bi eskatu dizkit gure Lendakari Jaun berriak, eta itz bi esan nai dizkitzutet gaurko Batzarraren sarreran. Itz bi, bi ziogatik bi suietagatik.

Lenengo suieta, gaurko Batzar au, Salaberry'ren omenaldi bezela egiten degulako. Salaberry'ren izena, neretzat oso oiarzun aundikoa izan da aspaldidanik, batez ere, orain berrogei urte, aren abesti-sorta bigarren aldiz argitaratu zan ezkeror.

Egun aietan, Bergara'ko *Eusko-ikaskuntzaren* Batzarrerako nere «Poesía Popular Vasca» itzaldia antola-bearrez gai-billa nenbillen ni, ots! gure Folklore berezi-bereziaren itzak an ta emen biltzen. Egun gogoangarri aietan, gure Salaberry'ren liburu bikaiña, bere berrogei-tamar abesti ederrekin oso egoki etorri zitzaidan nere eskuarteko eginkizunerako. Eta, geroztik, beti gogoko ta sinpati aundiko izan zait neri Salaberry'ren izena, beste bere kidekoen artean, ala nola Michel baten, eta Manterola baten, eta Vinson baten artean. Gaur, Salaberry'ri omenaldi egiteko Maule'rako deia artu dedanean, pozik, oso pozik prestatu naiz Batzarrera etortzeko, eta Batzarrean Lendakari *ohi zahar* bezela lenengo itzak zuei esateko.

Bigarren zioa, gaur degulako A. Villasante'ren Sarrera, Euskaltzaindiko Lendakaritzan. Berak nunbait umezurtz arkitzen zuan bere burua egun ontan, eta bere Bataiorako aitabitxi billa nigana jo nai izan du. Nik, ordea, ez bait det uste orren umezurtz datorrenik bere kargu berri ontara: berak uste duan bezain umezurtz, alegia. «Bere lanak ditu bere lagun» esan dezakegu emen, Elizaren itz batzuetaz baliaturik. Bera, bere kargu berri ontarako, ni nere egunean baño askotaz meritu geiagor apaindurikan dator; bi aldetatik: batetik, Arantzazu'ko euskal-ikastaroetan orrenbeste urtean jardunaz, irabazirik daukan itzal aundiagatik; eta bestetikan, eta batez ere, bere bi lan eder bikain, guztiok arriturik irakurtzen ditugunengatik: *Jaun-goikoa ta Jesukristo* euskeraz, eta *Historia de la Literatura Vasca*

erderaz. Benetan aundia bait da, bi lan oien bitartez Lendakari berriak gure artean irabazirik daukan izen eta aipamena.

Eta itz bi oiek esan ditudan ezkerro, orain berari uzten diot, bere Lendakaritzako Aurren-itzak esateko bide.

A. LUIS VILLASANTE, EUSKALTZAINBURU BERRIAREN HITZAK

Maule-ko Alkate Jauna

Euskaltzaindiko lankide, lagun eta gogaide guztiak

Jaun-Andreak:

Biziki pozgarri zait (eta zaigu denoi), Euskaltzaindiko gure bilhura hemen, Zuberoaren bihotzean, gaur egitea. Ahalkez eta lotsa gorritz aitortu behar dizuet: gaur artio Zuberoan egon gabea nintzen. Baina hori bai, ba nuen Euskalerriko gure probintzia nimiño eta berezi berezi hau ezagutzeko desira eta gogo bizia. Eta Maule-ko Alkate jaunari eskerrak, bai nik eta bai beste zenbaitek ere, gure amets zahar hori gaur erdietsia ikusten dugu.

Euskaldunek, mugaz hango eta hemengoek, elkarren berri gutxi dakigu, zoritxarrez. Hala ere, gure artean ez da inor *Agur, Xuberoa* kanta zoragarri hori ezagutzen ez duenik.

Duela zenbait aste, Larresoro eta bai beste batzuk ere, gure euskal kazeta *Zeruko Argia*-n Zuberoaz mintzatu dira. Ederki zion Larresorok: Zuberoak ba du zerbait berezi, bortitz, basati kutsua darriona, eta euskaldunari bere asaben oroitzapen mina senti erazten diona. Behinolako Euskalerraren ispillu jator eta oihartzuna dugu Zuberoa. Gure sorterriaren ispillu edo irudi bat, mirakuiluz-edo bere antzina kutsu eta itxura harrigarri hortan gure egunok arte heldu zaiguna. Bai. Uhatzandi bakarraren ibarrean diren herri txikiek euskaldunari, industri zibilizazioaren arora igaro den euskaldunari, zerbait, eta zerbait baino gehiago oroiterazten diote, han, konzientzi azpian ezkutaturik, bihotzaren tolesetan gorderik dakarren zerbait. Arrazaren oihua da, asaba zaharren deihadarra. Eta on da gure ispillu edo mirail huni kasu egitea, egungo uholdean gure nortasuna eta izakera gal ez dezagun. Denok dakigu ondotxo gure egungo arriskua zein den: gatzeta uretan bezala, Euskalerria ere urtua, desegina izatea, bere dohain guztiak eta izate guztia galtzea: mintzaira, nortasuna, arimako bertute bereziak. Itsaso zabalean deusetaraturik gelditzea.

Edozeinek bere nortasuna, bere burua begiratu behar baldin badu, berdin eta areago herriek. Eta hain zuzen ere, eginbide huntan esenplu eman zigun jaun bati ohore ematera etorri gera gaur Zuheroara.

Zuberoak jaun prestu eta argiak eman dizkio Euskalerriri. Gure mintzaira lantzen lan ederrik egin duten gizonak. Guztion gogoan dira Oihenart, Sauguis, Belapeyre, Chaho, Etxahun, Archu, Inchauspé, Gèze, Lhande, eta hainbeste eta hainbesteren izenak.

Eta hoi en artean toki berezi bat zor zaio Salaberri jaunari, duela ehun urte «Chants Populaires du Pays Basque» liburu xarmanta agertu zuenari.

Ehun urte bete da, bada, orai, Salaberri-ren liburua agertu zenez geroztik. Ehun urte: adin beneragarria, bitarte handi xamarra. Mereziki luke, bai, pausatu eta so aldi bat egitea, Euskalerrriak ordutik huna egin duen bidea ikusteko, euskerak pairatu dituen inarrosiak eta izan dituen ongaitzak neurtzeko.

Baina luza dezagun lan hau beste okasio batetarako. Salaberri jauna nor zen eta zer lan burutu zuen, egungo beste hizlariak kontatuko digute.

Ohar bat edo beste eginen dut haatik. 1870 gn. urtean Salaberri bere liburua ateratzen du. Urte hortan bertan edo oso inguruan Mme. Villeheliok ateratzen du berea, eta Fabrek bere Hiztegia eta «Lettres Labourdines» direlakoak ere bai. Urte batzuk lehenxeago Duvoisin-ek Biblia osoa lehenbiziko aldiz euskerara itzulia eman zigun. Francisque Michel-ek, berriz, bere «Le Pays Basque» famatua. Eta Abbadie jauna lehenxeagotik oraino urteoro ari zen hemengo herrixketan euskaldun festak eragiten eta sustatzen.

Dudarik gabe, ensei u batzuk, hastapen batzuk izan ziren hoiek, gero, joan den mende hondarrean euskerak bi Euskalerrietan ezagutu zuen lorete eta gora-aldirako. Eta beste anitzetan bezala, orduan ere, hemengo Euskalerrriak aurea hartu zion hangoari, lehenbiziko urratsak hementxe eman ziren, argi zuzia hemendik hara pasatu zen.

Salaberri-ren liburua agertu eta bederatzi urte geroago, eta Abbadie-ren laguntzaz, ospatuko da Elizondo-n euskaldun poesiaren lehenbiziko eguna, mendiez bestaldean egiten zen lehena. Eta Salaberri baina urte batzuk geroago Manterola donostiarrak bere «Cancio-

nero» agertuko digu, eta «Euskalerria» aldizkaria sortu ere bai. Urte hoietan Soroa-k euskaldun teatroari hastapena emango dio, Campion-ek bere «Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara» aterako digu, Aizkibel eta Novia de Salcedo-ren hiztegiak agertzen dira, eta, hitz gutiz esateko, ba dirudi Euskalerrri zaharrak lozorro luze batetatik iratzarri eta ernatu nahi duela. Bere nortasuna, bere kultura, bere mintzaira galdumenditik begiratzeko lanean hasten dela. Aro berrien bide gurutze huntan bere burua arriskutan ikusten du, eta nahi du zerbait egin, bizirik irteteko. Ehun urteko bitarte huntan egin da, bai, lan ederrik. Batzuek herri musika, bertsoak, koplak eta kanta zaharrak, hitzak eta herriko jakinduria, esaerak eta abar bilduz, beste batzuek gure euskera zaharra landuz eta trenpatuz, aztertuz eta barnatuz. Langile guzti hoi en ize-nak orain hemen aipatzerik ez dago. Ohorea eta eskerrona denei, eta bereziki Salaberri-ri, haren liburuaren ehun urteko mugan.

Jaun guzti hoiek egindako lanak ez du bere gaurkotasunetik den gutiena ere galdu. Galdu beharrean, irabaziaz eta berretuaz joan dela esango nuke. Bai. Herri baten ondasuna (gure herriarena, alegia) biltzea, ezagutzea eta baliatzea, sekula baino premia suago bilakatu zaigu gaur. Gaur gure herria bihurtune handi baten aitzinean dago. Lehengo bizitze moldeak, usuarioak, ohidurak, ideak inarrosi gogorra hartu dute. Eta hori ikustean, halako tentazio gaizto bat somatzen da zenbait euskaldunetan. Iragana iragan, orain dena behar dugu berri, dena lehen ez bezalakoa. Lehengo kontu zaharrek ez dute gehiago balio. Ehortzi ditzagun betiko, eta lehenaz lokarri denak hautsirik, jar gaitezen etorkizuneko hiri berria muntatzen. Bai. Huelako mentalidade bat ernetzen ari da gure artean, eta tentazio horretan erortzea engainu ikaragarri batetan erortzea litzake. Herri baten arimaz, arnasaz, ondasunaz, eta mendez mendeko izakeraz eta dohainez kontu guti eginik, dena irauli, dena azpikoz gora jarri. Mixiolariei, beste herrietara doazenean, hango jakinduria, ohidura eta tradizioei errespetorik handiena gorde dezatela erakusten diegu. Eta gero, zer da ta, guk hemen, gure herrian eta geuron artean, besteentzat eskatzen dugun lege hori ez gordetzen?

Aldaketak eta berriztapenak behar direla? Bai. Betoz ordu onean. Betoz aurrerapenak eta behar diren antolamendu guztiak. Baina kontuz sustraiekin! Sustraiak atxiki, oinarriak fermo eta sen-

do gorde beti! Erroak mozturik abiatzea, zer zorakeria! Nora joanen giñake? Bere lur eta erroetarik hastandu den landarea ba dakigu nora dihoan: heriotzera zuzen. Eta herri baten heriotzea ez da inorentzat ere mesedegarri: ez berarentzat, ez besterentzat.

Horregatik nion Salaberrik eta hainbeste jaun prestuk egindako lana egungo egunean zaigula sekula baino ere baliosago.

Eta azkenik, eskerrak berriz ere zuri, Maule-ko Alkate horri. Salaberri-ren gorasarre hau ez zen posible izango, zuk agertu duzun arta eta nahitasun handi hori agertu ez baldin bazendu. Zorionak zuri, eta zori hobeak horrelako agintariak dituen hiriari. Bere seme prestuak ohoratzen dakien hiriak bere burua ohoratzen baitu.

* * *

Beste puntu bat ere ba dugu gaur Euskaltzaindiko bilera huntan aipatu beharrekoa. Euskaltzaindiko Araudiak agintzen duenez, kargu berritzeak bi urtez behin egin behar dira, eta uztailleko bileran egin ere. Kargudun berriek, ordea, urriko bileran hartzen dute beren kargua.

Egun, bada, Zuberoako hiriburu huntan egiten da Euskaltzaindiko kargu aldaketa.

Nere aurretik kargua eduki duenarentzat (D. Manuel Lekuona jaunarentzat), nere estimaziorik, adiskidetasunik eta eskerronik osoena gordetzen dutala esan beharrik ez dago. Eta gero ere gure artean izango dugu beti D. Manuel, lankide baliotsu eta estimagarri bezala.

D. Manuelek ez du nere goresmenik behar. Baina hortaz ere hemen zerbait esateari justiziazkoa derizkiot. Izan ere, gaur ohoratzen dugun Salaberri jauna bezala, D. Manuel ere herri poesiaren ikertzaile eta barnatzaile dugu. Kanta zahar, kopla, bertso eta erromantze: anitzek mezipreziozko keinu batez behatzen zituen puxka hauek, D. Manuelek amodiozko planta batekin hartu, eta amodioak eman ohi dituen begi zorrotz eta erne hoiekin zulatu ditu, eta beroien barneko gozoa argi osotan jarri eta gusta arazi egin digu. Bai. Herri baten gordairua den poesia umil, sotil, xalo, garden hori berak konpreni arazi eta maitatzera eraman gaitu. Eta bere liburu, hitzaldi eta istudioen bidez langile berriei bidea erakutsi ere bai.

Hau esatean, nere anaia Salvatore Mitxelena dut nik gogoan: D. Manuelen istudioei eta aholkuei eskerrak, hartu baitzuen hark bere poesi bide berezia.

Eta mundu guztiak daki zer eta zenbat zor diogun euskaldun fededunek D. Manueli gure elizek ezagutu duten udaberri eta erraberritze huntan: Liturgia euskerara itzultze lanean, esan nahi dut. Euskaldunek (agian eskarmentu gehiegi hartuak izan), halako susmo gaiztoz eta pesimismu hitsez hartzen ditugu aldaketak eta era berri guztiak. Aldaketa hoiek euskeraren kalterako izango direla, aldeztatik aurretik etsita egoten gera. Azken Kontzilioak Liturgia herriko mintzairan jartzeko agindu zuenean, bati baino gehiagori beldurra sartu zitzaion gorputzean: «Ba, hau izango duk azkena, hunek emango dio herio kolpea euskerari»... Hala uste zuen askok. Eta neronek ere beldur hori sentitu nuela, aitortu behar dizuet. Baina gauzak ez dira hala gertatu. Aitzitik, toki askotan behintzat, era berri hunek euskerari berebiziko indarra, itzala eta laguntza ekarri diola, ezin da ukatu. Ahor, ba, aldaketak eta bide berriak ere inoiz izan ditezke, bai, euskeraren onerako. Baina hunako hau ere esan behar da: udaberri hau ez zen posible izango, baldin langile askok gogotik lan egin ezpalu. Gure eskerrona eta gure txaloak langile guzti hoiei, hango eta hemengo Euskalerrian lan huntan aritu direnei, eta bereziki denen buru bezala izan den eta den D. Manueli!

Euskaltzaindiko buru bezala ere asko zor dio gure elkargoak D. Manueli. Batez ere, hileroko gure batzarreak (Euskaltzaindiak Euskaltzaindi bezala lan egiteko duen okasio bakarra), askoz ere probetxugarriago bihurtu dira azken urte hauetan; beronen zuzendaritzapean, alegia. Asti gehiago hartzen dugu orain euskaltzainek lanerako; batzarreak luzeago eta arreta gehiagoz paratu eta egin ohi dira, berari eskerrak. Euskaltzaindiko urte ezteiak gogoratzeko egin diren festek era lanek ere D. Manuel izan dute eragile eta bultzatzaile.

Gure asmoa (kargudun berriona), ez da, ba, erraboluiziorik egitea, edo aurrekoek egin duten lana gutxietsi eta zokoratzea. Aitzitik, haiek egindakoa oinarri eta zimendutzat hartu, eta urrats bat aitzina ematea: horixe besterik ez, ez gehiago eta ez gutiago.

Ohidura omen da kargudun berriek bere lan programa aurkeztea. Ohidura huni men eginez, nik ere zer egin gogo dugun hitz gutiz beharko dut, bada, azaldu.

Euskaltzaindiari maiz tiroak jaurtikitzen zaizkio, eta alde orotarik jaurtiki ere. Ez duela deus egiten, edo gehiegi eta arinegi egin nahi duela, edo politika arazoetan ez duela aurpegi ematen. Nik al dakit zer eta zenbat zirto eta eztenkada! Anitzetan gure eremuko ez diren gauzetan nahi luteke guk eskuak sartzea. Horregatik, ez da gaizki egongo zer geran eta zertarako geran (gure xedeak eta helburuak, alegia) gogoratzea. Helburuak beti garbi eta argi izatea: hori baita lehen.

Euskera zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen egikizun bakarra. Ez du beste politikarik. Euskera da beraren politika eta bandera. Euskeraren ona, euskeraren iraupena eta osasuna eragin, euskera gaur eguneko egikizunetarako tresna zalui eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman. Hain zuzen ere, bere egiteko nagusi hori beteko baldin badu, ahal dela, alderdikierietatik hastandu eta bere lan bereziari zearo lotua egon behar du. Eta bi erresumen mugez gaitetik, euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoan artean, lokarri bat izan behar du. Eta ahal bada, eta ahal diteken neurrian, guztiontzat literario hizkuntza bat muntatzen bermatu eta enseiatu.

Ordu larria da gaurkoa. Bi Euskalerriei, hangoari eta hemengoari, begirada bat egitea aski da, une larrian eta menturaz gure herriaren irautea edo azkena jokatu den kenka gaiztoan aurkitzen gela ohartzeko. Hemengo Euskalerria euskaldunez hustutzen ari da; bertako jendea ihesi; bizi beharrak bultzaturik, Euskalerritik kanpora joan beharrean gertatzen da. Hangoan, berriz, euskaldunak ez doaz kanpora, baina erdaldunez bete zaizkigu bazterrak; lan bila datozen erdaldunez, alegia. Era hortara, bai han eta bai hemen, euskera itoa izateko zorian aurkitzen da.

Beste aldetik, zenbait tokitan behintzat, euskaldunen artean konzientzia hartze zoli eta bizi bat nabari da. Ez denetan, noski, baina ba da minoria gartsu eta suhar bat, gure asaben mintzaira ondamendi eta heriotzetik begiratu nahi duena. Argi ikusten dute euskaltzale fin hoiek euskeraren etorkizuna eskolan garbituko dela: landare berriei, haur eta gazteei, irakasten ezpazaie, gizaldi bat edo

biren epean, euskerak erreka joko duela. Eta horregatik sortu da ikastolen mobimendu hori, gure haurrak eskolatzeko.

Gure euskerak dituen korapilo eta problema guztientzat Euskaltzaindiak —bistan da— ez du erremedioa eskuan. Baina berari dagokion eremu edo sailean asko egin lezake, zenbait korapilo eta problemen soluzioa bilatuz. Hortarako sortua baita, eta bere barrutiko euskal problemak argitzen eta erabakitzen lan egingo ezpalu, ez luke esistitzeko arrazoirik.

Batez ere, ikastolen mobimendu hau sortu denez geroztik, eskabide eta galdera asko egiten zaio gure elkargoa huni: euskeraz idazteko kontuan aidean diren katramila eta istilu asko erabaki dezagula eskatuz. Gugana datoz argi eske, eta aholku eta laguntza eske. Izan ere, nora joko dute, hartarako jarria den elkargora ezpada?

Bai. Eginbehar handi, ugari eta premiatsuak ditu gaur Euskaltzaindiak. Eta eginbehar hoiei buru emateko, lan egin beharko du gogotik, bere eremutik irten gabe, baina bere berea duen sail hori landuz eta jorratuz.

Zenbatetaraino izango ote da gai gure Euskaltzaindia erantzukizun handi hoiei erantzuteko? Nik ez dakit. Batzuek ez dute deus espero gugandik. Nagiak gerala diote, seriotasunik ez dugula, funtsezko gauzarik ez dugula egiten, aburuetan zatikatuak gabiltzala, ez diogula gure elkargoari atxikidurarik erakusten, ta abar. Kritika zorrotz hauek noraino ote dira justuak eta zuzenak? Ez gera hemen hori neurtzen hasiko. Agian kritika hoiek ez dira denak gezurrak.

Beste batzuek, berriz, dena gugandik espero dute. Berek deus egin gabe, guk dena egin dezagun, alegia. Euskerarekiko zeregin eta arazo guztiak gure bizkar egozten dituzte. Euskaltzaindi bat denez gero, euskeraren salbamendua segurtatua dagoela uste dute, nahiz eta berek kolperik ez eman.

Lehenbiziko jokaera bere fidantzia ezean urrunegi badoa, bigarrena oraindik makurragoa da, ene ustez. Kritikek bere neurrian lagun egin dezaigukete, gure eginbidera lot gaitezen. Axularrek dienez, Plutarkok ba du liburu bat etsaietatik atera ditekean prebetxuaz, eta on izango zaigu hori ez ahaztutzea.

Ez ditzagula gure ahalmenak diren baino urrunago luza. Baina diren baino laburragotzat jo ere ez. Guk ez dezakegu dena egin,

baina ba dugu, noski, zeregin berezi eta erresponsabilidade larririk aski oren huntan.

Gure laguntalde hunek, bere lana burutu ahal izateko, ba du, bai, eragozpen eta gaiztasun handirik: hori ezin uka. Alde batetatik, sosa eskas. Elkargoa osatzen duten lagunek bere lanetik bizi behar dute: bata midikua, bestea lege gizona, harako hura apaiza: denek beren ofizioko lana dute, eta Euskaltzaindiko lan berezietarako asti gutxitxo gelditzen zaie. Egia da, beste aldetik, euskaltzain askok bakarka edo bere kabuz lan handia egin duela edo egiten ari dela euskerarentzat. Baina lan hori, nahiz eta axola handikoa izan, ez da Euskaltzaindiarena.

Euskaltzaindiak Euskaltzaindi denez, Euskaltzaindi bezala, alegia, behar luke lan gehiago egin, gaur eguneon gure hizkuntzak dituen korapiloak askatzen. Erabaki gabe ditugun hainbeste puntu erabakitzen. Sosik eza ez dut uste gure gaitzik txarrena den. Gaur eguneon Euskalerrian ez da dirua falta; euskerarentzat konzientzia eta amodioa ere ez. Lanari gogoz lotuko bagina, dirua bilatuko litza-ke. Eragozpen handiagoa heldu zaigu aburuen desberdintasunetik. Aburu desberdinak izatea, hori ere, bere neurrian, ez da kaltegarri, eta gizonen artean betiko kontua izan ohi da. Bere neurrian esan dut, ordea; izan ere, oinarriko gauzetan bat ezpagatoz, gaitz izango da urrats bat aurrera egitea. Oinarriko gauzetan bat ez etortze horrek geldiarazi du, bai, behin baino gehiagotan, gure elkargoaren ibilpidea.

Nolanahi ere, eta traba guzti hoiek gora behera, denok behar-ko dugu egungo uneak gugandik espero duenari erantzuten ahalegin-du. Eta Euskaltzaindiak Euskaltzaindi denez lan egiteko, nola ezpaitu hileroko bilkurak baino beste okasiorik, hoiek beharko ditugu hobekiago baliatu. Bai. Ba dakit. Gutxitxo da. Baina bere apurrean ongi aprobetxatuz, lan baliotsua egiteko hastapen bat izan diteke.

Aita Gaztelu gure lankideak, oraindik denbora asko ez dela, eskabide haxe egin zuen gure bilkura batetan: bilkura hoiek Euskaltzaindiko lan berezirako aprobetxa ditezela, tramite eta bulego gauzak alde batetara utziaz edo lasterrago despatxatuaz. Arrazoi osoa zuen, ene iduriz, Aita Gazteluk. Gure bilkuretan arazo hoiek denborarik gehiena edo dena ebasten digute. Ez eta ez gindezke han, nornahik egin edo bidali duen investigazio lan edo gramatika

azterpena irakurtzen edo entzuten egon, nahiz eta hortarako ere tokitxoren bat beharbada utzi. (Investigazio hutsezko gauzak esan nahi dut. Pratikarekin zer ikusi dutenean, orduan eskubide gehiago eman dakieke).

Gure hileroko bilkurak beharko dira, ba, beste modu batetara antolatu, Euskaltzaindia gaur eskatzen zaion lanari erantzuteko, pretago egon ahal dedin. Hango eta hemengo euskaldunen artean lokarriak sendotu nahi ditugu. Goazen denok elkarrekin, ez gehiago sakabanatu eta barreiaturik. Gure lana zuhurtziaz beharko da egin, baina baita ere ausartziaz.

Asmo hauek betetzen eta aitzina eramaten, gure elkargoa osatzen duten lagun guztien kemena, beroa eta erantzun osoa izango dudala nik ez dut dudarik. Eta Goiko Jaunak bedeinka eta emankor bihur ditzala gure asmo, lan eta ahalegin hoiek.

Halabiz.

Maule-n, 25 - 10 - 70

EUSKALTZAINDIAREN EGITURAZ

Euskaltzaindiko lagun prestuak:

Maule-ko batzarrean asmo bat agertu nuen: hileroko gure batzarreak beste modu batetara antolatzeko asmoa. Euskaltzaindiko helburuak erdiesteko egokiago den sistema edo era bilatuz, alegia.

Ba da hamabost urtetik gora Arantzazuko puntatik gure batzarre hauetara natorrela. Eta egia esango badizueta, etxerakoan, beti edo ia beti, etsipenak edo pesimismoak hartuta itzultzen nintzan. Gure batzarreetatik itxoiteko eskubidea duguna ez zen ikusten. Frutu edo ondore eskasa jaso izan dugu batzarre hoietatik. Ez dut esan nahi guztiz alferrikoak direnik, hori ez. Baina gaurko egokeran Euskalerrriak gugandik itxoin lezakena ez diogula ematen, hori bai. Euskaltzaindiko egikizun berezi eta nagusietara ez gera lotzen (edo oso gutxitan lotzen gera). Gure batzarreak geldoak, astunak eta efikaziaren aldetik hutsaren parekoak izaten dira gehienetan. Begien

bistan dena ez dezagula uka. Nik ez diot inori errurik botatzen. Baina gure batzarreek, ene ustez, ba dute huts bat oinarrikoa eta nabari nabaria: batzarreak egiteko sistema bera. Beste erakunde bat, beste egitura, itxura, organizazio edo estrukturazio bat eman behar zaie, beren helbururako egokiagoak, hartarakoagoak gerta ditezten, eta guk geure eginbehar jakinetara arreta gehiagoz eta seriotasun gehiagoz jartzeko aukera izan dezagun.

Organizazio kontu hunetan gu —idazle, olerkari, estudio eta ikertze lanetan gabiltzan giza-kasta hau— nahiko ezjakinak, motzak eta amutsak izaten gera (guti adituak eta saiatsuak esan nahi dut). Eta beharbada hortik dator gure batzarreen fruitu eskasa, urteak hutsaren bahian joaten uztea.

Zorionez, gure Idazkari-ordeak bere «tarjeta de identidad» delakoan ba du titulu berezi bat: «funcionario». Eta ez da izena bakarrik, izana ere bai. Ayuntamentuetako batzarreak (eta bai beste elkarte eta korporazio askotakoak ere) nola organizatu behar diren, Komisio edo Batzordeek, lan egingo badute, zer modutara moldaturik behar duten egon, guzti hori berak ongi daki: guri horren axola digun eta hain esoteriko zaigun jakintza hunetan bera oso jantzia dago. Beregana jo dut, bada, argi eta orientazio eske. Horrek ez du esan nahi besteen iritziak eta sujerentziak ere jaso behar ez ditugunik. Bai. Betoz ordu onean eta ondo jasoak izango dira gure batzarkideen sujerentziak gure batzarreak hobekiago moldatzeko.

Gure Idazkari-ordeak, bada, neuk eskaturik, halako planifikazio bat egin dit, eta gure gauzen matxarako prozedura lege batzuk, hots, ibilpide legeak edo arauak ezarri ere bai. Nik uste dut horrelako zerbait behar beharrezko dugula (disziplina baten barruan jokatu eta ibiltzea, alegia), gauzak behar den pulamentuz eramateko.

Lizundia jaunak honela sailkatzen du gure Euskaltzaindiaren eremua. Euskaltzaindiak hiru sail ditu: *Lehenbizikoa*: Euskaltzainburugoa (Directiva). *Bigarrena*: Batzordeak (Comisiones). *Hirugarrena*: Ordezkaritzak (Delegaciones). Bigarrena eta hirugarrena Araudiak dion Iker-Saila (sección filológica) eta Jagon-Saila (sección tutelar) izango lirake, guti gora behera behintzat. Dakizuten bezala, bi atal hoietaz osatua da gure Euskaltzaindia.

Eman ditzagun orain hiru sail hauen xehetasunak bana banaka, bakoitzaren eginbeharra, ibilpide-legea ta abar gogoratuz.

I *Euskaltzainburugoa* (Directiva). Sail hau honako hauek osatzen dute: Euskaltzainburuak, Buru-ordeak, Idazkari Nagusiak, Idazkari-ordeak, Diruzainak eta Ordezkaritzetako bulego-buruek. Zein da Sail hunen eginbehar berezia? Euskaltzaindiaren burokrazia arazoak eramatea.

II *Batzordeak* (Comisiones). Bigarren saila —esan dugu— Batzordeek osatzen dute. Euskaltzaindiak bere Iker-sailean zerbait egingo badu, bere lan hori Batzordeen bidez burutu behar du. Orain, Batzordeetatik behar den fruitua ateratzeko, berebiziko inportantzia du hoiek behar den bezala eratuak egotea eta prozedura lege jakin batzuen arabera jokatzeari; bestela ez dugu hoietatik atarramendu onik aterako, maiz ikusi dugun bezala.

Idazkari-ordeak dionez, bada, Batzorde bakoitzak bi atalez behar du osaturik egon: bata, Atal Eragilea izango litzake; eta bestea, Kontseilari-Atala (hots, Comisión ejecutiva y Comisión consultiva).

Batzordearen Atal Eragilerako pertsonak hautatzea Euskaltzainburugoiari dagokio. Honek batzarkideei Batzarrean proposamendua egiten die, beti eskribuz eta arrazoiak emanez; beraz, arrazoez hornitu eta finkatutako proposamendua izan behar du (propuesta razonada). Era berean, beste batzarkideek ere proposamenduak egin ditzakete, baina beti eskribuz eta arrazoiak emanez hoiek ere. Batzarreak (el Pleno) ontzat eman ondoren, Batzordearen Atal Eragilea izendatua gelditzen da.

Batzordearen Atal Eragilean ez bitez egon hiru baino gutiago, ez eta bost baino gehiago ere. Arrazoiak bistan da: jende gehiegi sartzen baldin bada, ez da lanik egiten. Gainera, Atal Eragile hunek buru bat eta idazkari bat izan behar du.

Kontseilari-Atala nahi den beste lagunez osatua egon diteke. Beren borondatez eskatzen dutenak sar ditezke Atal honetan; eta inork bere burua eskeintzen ezpadu, Euskaltzainburugoak egingo du proposamendua eskribuz eta arrazoiak emanez (eta berdin egin ditzakete beste batzarkideek ere). Proposamenduaren onartzea, beti bezala, Batzarreari (al Pleno) dagokio.

Batzordearen lan egiteko prozedura edo ibilpide-lega honela izango da: Atal Eragileak lana prestatzen du, eta ondoren Kontseilari Atalari pasatzen dio. Hauek beren oharrak, eraskinak eta abar

jarri ditzaioke lanari, beti arrazoiak emanez. Gero Atal Eragileak, ohar eta eraskin hoiek estudiatzeko, berriz ere lana hartzen du; eta estudiatu eta azken eskua eman ondoren, lana Euskaltzaindiaren Batzarre osora (al Pleno) aurkezten da. Hemen, Araudiak dionez, batzarkide guztiek izango dute hitza, banan banan (bost minutuko bitartea emango zaio bakoitzari hitz egiteko). Eta azkenean, boto-tara behar baldin bada, euskaltzain osoek bakarrik izango dute botoa.

Batzarreak lana onartu ondoren, hurrengo Euskera-n argitaratu behar da.

Gaurkoz —eta beti Idazkari-ordeak jakinarazi didanez— Alfabetatze Batzordea bakarrik daukagu zutik, Bilbon iraileko Batzarrean erantsi zitzaizkion emendailuekin.

Euskaltzainburugoak Batzordeen fitxeru bat osatu behar du, eta Euskaltzaindiaren etxean egongo da. Ordezkaritzek ere fitxeru hunen kopia bat euki beharko dute.

Euskaltzainburugoak hurrengo Batzarrerako Batzordeen organigrama bat prestatu eta ekarriko du. Era hortara begi kolpe batez ikusi ahal izango da Euskaltzaindiaren Sail, Batzorde eta Atal guztien multzoa.

III *Ordezkaritzak* (Delegaciones). Hauek dira hirugarren saila. Hauek osatzen dute batez ere Euskaltzaindiaren Jagon-saila (sección tutelar). Donostia eta Gasteizen ba dira bulegoak. Iruine eta Baionan ere jarri behar lirake. Bilbon Euskaltzaindiaren etxe nagusia dago, baina haatik ongi litzake Ordezkaritza batzorde bat ere bertan balego, Ordezkaritza hauek egikizun berezia baitaukate.

Ordezkaritza bakoitza bospairu lagunek osatua izango da. Gutienez, hilean behingo bilera egin beharko lukete. Ordezkaritza bakoitzak lehendakaria eta idazkaria euki behar du; hortaz gainera, kontseilari bat, bi edo hiru ere bai.

Bilboko Ordezkaritzako idazkari, bertan Idazkari-orde dagoena izango litzake.

Ordezkaritza-Batzordeko ez izanarren, edonor Euskaltzaindikok bertan parte har lezake, hartarako Batzarrean proposamendu eginez.

Euskaltzaindikoko Idazkari Nagusia izango da Ordezkaritza guztien buru. Eta Idazkari-ordezkoa izango da koordinatzailea. Koordinatzaile hunek hileroko agertu bat egin beharko luke Ordezkaritzetara, hoiengan lana koordinatzeko.

Hiru hilabetez behin Idazkari Nagusi eta Idazkari-ordeak Ordezkaritzetako idazkariekin bilera egin beharko dute. Euskaltzainburuari ere, aldeaz aurretik bilera horren berri emango zaio; eta joateko eskubidea du, berak nahi baldin badu behintzat.

* * *

Ororen Batzarrean, hots, hilabete oroz egin ohi dugun Batzarrean ere, ene ustez aldakuntzaren bat sartu beharra dago. Disziplina baten barruan ibili beharra dugu denok, eta hori denon onerako izango da. Lehen guti ginen, eta gutiren artean ez da erregela baten behar handirik izaten. Orain gure familia ugaritu egin da, eta Jainkoari eskerrak ematekoa da. Baina, jakina, asko izatean, esan dudana disziplina horren beharra ere somatzen da. Gauzak behar den ordenamenduz eta seriotasunez egin ahal izateko, eta gehiegikeriak eta neurritik kanpora irteteak ahal dela gerta ez ditezten, nik honako hau proposatzen dut: Euskaltzainburuaz gainera izan dedila gure Batzarreetan moderatzaile edo speaker bat, bere mikrofonu, txintxarri eta guzti. Honi eskatu beharko zaio hitza, honek ebakiko ditu sesioak, eta hitz batean esateko, Batzarrearen haria berak eramango du. Aldiz aurretik banatuko den egitaraua segituz, noski. Nik Lizundia Idazkari-ordea proposatzen dut zeregin hortarako.

Donostia, 27 - 11 - 70

BATZORDE SORTZEAZ ETA DONOSTIAKO ORDEZKARITZA HORNITZEAZ

EUSKALTZAINDIAREN ARAUDIA BERRITZEKO BATZORDEA

Aspaldiko asmoa dugu hau, baina sekula burutu ez duguna. Ba dirudi, ordea, ezin dugula gerotik gerora gehiago luzatu. Euskaltzaindiak legezko nortasun bat erdietsiko badu, nahi ta ez bere Araudia gaurkotua aurkeztu beharko du. Horregatik —eta besteak beste direla—, Araudiaren berritze eta gaurkotze horri premiatsuenetako puntua derizkiogu.

Hona hemen Euskaltzainburugoak proposatzen duen Batzordea:
Batzordearen Atal *Eragilerako*:

A. Luis Villasante, euskaltzainburu bezala

J. M. Lojendio, euskaltzain eta lege gizon den aldetik

A. Arrue, euskaltzain eta lege gizon den aldetik

J. L. Lizundia, burokrazia arazoetan aditua den aldetik

Atal Eragile honen buru Villasante izango da, eta Lizundia idazkari.

Kontseilari Atalerako:

Jean Haritschelhar, mugaz hangoen eskubideak eta erreprezentazioa zaintzeko

Manuel Lekuona, euskaltzainburu izanak eman dion esperientziagatik

Joan San Martin, Euskaltzaindiaren Idazkari den aldetik

Jesus Oleaga, lege gauzetan duen jakitateagatik

J. M. Satrustegi, euskaltzaina, Nafarroako eskualdearen izenean

M. Ruiz Urrestarazu, Arabakoarenean.

Donostia, 27 - 11 - 70

IRUINEKO SYMPOSIUM-A ERATZEKO

Iruineko Symposium-a eratzeko Batzorde bat jarri behar zela pentsatu zen. Lehendik ere esanak daude izenak, baina ofizialki egiten zaio gaur Proposamendua Batzarreari:

Atal Eragilerako:

Carlos Santamaria jauna

Jesus Oleaga jauna

Jorge Cortes Izal

Carlos Santamaria izango da buru. Eta *Cortes Izal* idazkari.

Kontseilari Atalerako:

A. Irigarai, euskaltzaina

J. M. Satrustegi, euskaltzaina

M. J. Urmeneta, euskaltzain laguntzailea

J. L. Lizundia, Euskaltzaindiko Idazkari ordea.

A. Damaso Intza, euskaltzaina

Donostia, 27 - 11 - 70

ETXEGINTZAKO HIZTEGIA PRESTATZEKO BATZORDEA

Dakizuten bezala, Euskaltzaindiari eskabide bat egin zaio hon-taz: Arkitektura edo Etxegintzako euskal hiztegitxoak egin dezala, alegia.

Eskabide horri men eginez, eta lan hau prestatzeko, Batzorde bat jarri behar zela pentsatu zen. Euskaltzainburugoak, bada, izen lerrokada hau proposatzen dio Batzarreari; baina, jakina, izen hauek gehi, gutxi nahiz alda egin ditezke. Eta batez ere, ea mugaz beste aldean inor hartarakorik ote den jakin nahi luke.

Atal eragilerako:

J. M. Barandiaran, euskaltzaina

Joan San Martin, Euskaltzaindikoko Idazkaria

Jesus Elozegi, euskaltzain laguntzailea.

Atal Eragile honen buru, Barandiaran jauna. Idazkari, berriz, Elozegi jauna.

Kontseilari Atalerako:

J. M. Zumalabe, «Aparejador» delakoa

Ambrosio Zatarain, euskaltzain laguntzaile jaun injeniurra

Castor Uriarte, arkitektua.

P. Lafitte, euskaltzaina

Donostia, 27 - 11 - 70

EUSKALTZAINDIAK DONOSTIAN DUEN ORDEZKARITZA

Donostiako Ordezkaritza osatzeko, hirukote hau proposatzen du Euskaltzainburugoak:

Aingeru Irigarai, jaun euskaltzaina, buru bezala

Carlos Santamaria jauna, laguntzailea, kontseilari bezala

Salvador Garmendia jauna, laguntzailea, idazkari bezala.

Donostia, 27 - 11 - 70

ADITZ BATZORDEA

Iraileko Batzarrean erabaki zenari men eginez, aditz batasuna nola egin ahal izango den estudiantzeko, Batzorde bat izendatu beharko da. Euskaltzainburugoak, bada, bere Proposamendua egiten dio Batzarreari.

Euskerak lau euskalki literario ditu. Beraz, euskalki bakoitzaren izenean pertsona bat hautatzea pentsatu dugu. Hori, Batzordearen Atal Eragilerako.

Lapurdi eta Nafarroa Behereko euskalkiaren izenean, *Pierre Lafitte* jauna. Euskal Gramatika eta euskal idazle zaharrak eta berriak ere hain sustraitik ezagutzen dituenegaz gero.

Zuberoako euskalkiaren izenean, *Guillaume Eppherre* jaun euskaltzaina, «Gure Herria» aldizkariaren zuzendaria.

Gipuzkoako euskalkiaren izenean *Aita Patxi Altuna*, euskal irakaskintzan zeharo sartua dagoena, eta «Euskera hire laguna»-ren egilea.

Bizkaiko euskalkiaren izenean, *Aita Imanol Berriatua*, «Anaitasuna» aldizkariaren hizkuntza zuzenketak egiten dituenak. Hau ere euskal aditzari buruz azterketa sakonak egina da.

Atal Eragilearen buru bezala, L. Mitxelena; eta idazkari bezala, Patxi Altuna.

Kontseilari Atalerako, berriz, norbaitek bere burua eskeintzen badu, haintzat hartua izango da. Euskaltzainburugoak, bere aldetik, izen lerrokada hau proposatzen du: *Intza-r Damaso* Aita, Nafarroako aditz laguntzailea aztertu duena (Euskera, 1921); *René Lafon* jauna, «Le système du verbe basque au XVI ème. siècle» obra handiaren egilea; *Inazio Omaetxebarria* Aita, euskal aditzaz liburu baten egilea (Zarauz, 1959); *Joseba Intxausti* Aita, «Euskal Aditza»-ren egilea; *Gabriel Aresti* eta *Xabier Kintana*, «Batasunaren Kutxa» deritzaion liburuako aditzean lan egin dutenak; *Isidro Baztarrika* Aita, aditzari

buruz liburu bat egin duena; *Josu Oregi* jauna, aditzari buruz Euskaltzaindira txostena bidali duena; *J. L. Alvarez Enparantza* (Txillardegia, Larresoro), «Sustrai Bila»-ren egile, Euskal irakasle, idazle t. a.

Lista hau luzatu behar ote den, ala laburtu nahiz aldatu, zeuek esan.

(Horietaz gainera, Aita Iraizoz, Aita Akesolo, F. Mendizabal eta Jon Etxaide izendatu ziren.)

Donostia, 27 - 11 - 70

EUSKALTZAINDIAREN PRENSA BULEGOA

Guztiok irakurriko zenduten, noski, abenduaren 22-an egunkarietan agertu zen albistea. Euskaltzaindiak 30-ean Donostian zuela bilera, eta Larzabal jauna, euskaltzain denez gero, segurki egun hortan Donostian izango zela. Notizia ona, egun haietako egoeran, gure batzarrea periodistez inguratua ikusteko. Itxuren arabera, notizia honek gure artekoren batengandik irten behar izan du; bestela periodistek nekez jakin zezaketen hori. Mauleko batzarre ondoren ere polizia galdezka ibilli omen zan Bilboko egunkari batetan agertutako albiste okerrean bat oinarri hartuta. Eta Euskaltzaindiari buruz edo Euskaltzaindikoko batzarreei, erabakiei edo lanei buruz maiz azaltzen dira prensan zehaztasun gutxiarekin egindako berriak, zeharo okertuak edo beharbada intentzio gaiztoz aldrebes jarriak ez direnean. Bistan da horrek ez digula bat ere mesederik egiten eta Euskaltzaindiaren izen ona beztu deo lañaatu egin ohi duela. Beste aldetik, guk herriari geure lanen eta eginen informazio zuzena zor diogu, baina arazo hau ezin utz diteke edozeinen eskuetan.

Beste instituzioek «oficina de prensa» edo horrelako zerbait euki ohi duten bezala, guk ere behar dugu sail hori sortu. Eta nik uste, zeregin hau edo sail hau Euskaltzainburugoaren beraren lane-

tatik bat da. Euskaltzaindiaren zuzendaritzak bere gain hartu behar duen arazoa edo egikizuna, alegia.

Beraz, hemendik aurrera gure batzarreen eta gauzen berri ematea Euskaltzainburugoak beregain hartuko du. Berak idatziko du prensara bialdu behar den azalpena, eta azalpen hori egunkari eta aldizkarietara bialduko da. Era berean egunkari eta aldizkarietara eskatuko zaie bide hontatik ez datorren gauzarik gure elkarteari buruz ez dezatela onart, Euskaltzaindiaren onezkoa ez duenez gero.

Uste dut gauza honen axolari ohartuz eta bide hau hartzea txit komeni zaigula ikusiz, ontzat emango duzuela denok proposamendu hau.

Iruinean, 30-12-1970

«ANDIMA IBINAGABEITIA SARIA» EMAN ZENEKO HITZALDIA

Gaurko batzarreak ba du, ondo dakizuten bezala, zerbait berri eta berezi, zerbait aparteko, pozgarri eta guretzat ohoregarri denik. Caracas-ko «Euskera Lagunen Elkarateak» sari bat jarri zuen: «Andima Ibinagabeitia Saria». Eta Elkarate hark berak sari honen irabazle gertatu denari, Euskaltzaindiak ospez eta agerkiro saria eman dezaion eskatu digu. Euskaltzaindiak, jakina, baietz erantzun du. Pozik, ondo pozik gainera, hartuko duela saria behar bezalako ospeaz irabaztunari emateko kargua. Izan ere, gure barrutiko diren gauzetan Euskaltzaindiak ez du, ezin du bere burua gorde. Gure hizkuntza lantzen beren bizitza higatu dutenak saristatzeko eta go-raipatzeko okasiorik ezin gal lezake berak.

Sariaren irabazlea, Aita *Guillermo Larrañaga* jesuita, gertatu da.

Etengabeko langille isil jarraitua izan dugu Aita Guillermo Larrañaga. Hainbeste lan ditu atereak euskal aldizkarietan, eta hainbeste argitaragabeak. Beti irakaskintzan haritua, Ordenako nagusiek bialdu duten tokietan: *Caracas, Bilbao, Las Palmas, Tudela*... Beste askok, toki aldaketa hoiien aitzakiaz, aguro ukatuko zuen euskaltasuna, erromantikokeria bailitzan. Zuk ez duzu horrelakorik egin. Beti eraman duzu zeurekin euskeraren kezka, non-nahi zaudelarik. Eta euskeraren alde lan egiteko gogoia obraz erakutsi eta mamitu duzu. Batez ere, Didaktika eta Jakintza izan dira zuk jorratu, hornitu eta jantzi nahi izan dituzun sailak. Alde batetik, euskera horren premia gorritan dagoela ikusten zenduelako, eta bestetik zure irakaskintza ofizioak ere hartarako gaitzen zaituelako.

Eta hain zuzen, gaur beste lan askoren buruan saristatu dizuten lana ere sail hortakoa dugu: «Landare Jakintza»: hots, Botanikari buruz egin duzun lan eder, trinko, mamitsu eta baita usaintsua ere, Botanika lan bati dagokion bezala.

Hona hemen guztiontzat ispillu eta eredu bikaina.

* * *

Saria, berriz, Andima zenaren oroitzapenetan jarria da. Hark ere berdin euskeraren aldeko lanetan higitu zuen bere bizi guztia. Ez naiz hemen hasiko haren euskal lanak bana banaka aipatzen. Guztiok ezagutzen dituzute, noski, Virgilio-ren olerkiak, hark euskerara itzuliak. Eta joan urteetako euskal aldizkariak iraultzen eta aztertzen badituzute, maiz egingo duzue harekin topo. Batez ere, Euzko Gogoa-n, aldizkari hau Guatemala-n ateratzen zen garaian, liburuaren kritikak eta abar gure Andimak egiten zituen.

Nik ez dakit Andimak gogoko zuen sail bat ontzeagatik heldu dion Aita Larrañagak Botanikari, baina hauxe da egia. Orain dela hogeituro Euzko Gogoa aztertzen baduzue, gure Andima ere Botanika euskeraz ematen ibillia zela ikusiko duzue. Eta hauek baino lehenago, Lakoizketa nafarra, Arantzadi, Elissalde, Althabe ta abar bide beretik ibilli ziren. 1963 gn. urtean Aita Gatchiteguy eta Aguerrek ere liburu gotor bat atera ziguten: «Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko»; nahiz eta Botanikakoa ez izan, ba du Botanikaz zer ikusi duen gauza asko.

Gizon guzti hauek guri ematen diguten jarraibidea: hori da guk ikasi eta gogoan hartu behar duguna. Andimak ba du urte haietako Euzko Gogoa-n lan bat Joannes Etxeberri Sarakoari buruz. Denok buruz dakigun historia triste hura kontatzen du. Hainbeste neke Didaktika gaiak euskeraz ematen hartu ondoan, Lapurdiko Biltzarrenaren laguntza eskatu zuen. Bere seme Agustin igorri zuen Biltzarrrera. Hara joan zen Etxeberriren semea, bere aitaren liburuak besapean zituela, laguntza eske, baina ez zuen deus erdietsi. Komentario hau egiten du Andimak:

«Etxeberri gizajoa! Semea Uztaritza biali zenun gure agintariak euskal bidera erakartzeko. Alperrik ordea.»

Eta beheraxeago jarraitzen du:

«Emen ari gaituzu zure iarraile euskaltzale mordoxka bat, gure izkuntza aurrera atera gurarik. Gu ere, zu bezela, txoro ta erotzat gauzkate euskotar eta are abertzale geienak, diruketa, atseginketa, alperketa, beste ametsik ez duten gizon GURPIL eta izatez gainetiko oriek. Naiago dugu, ordea, Etxeberri maite, zuk bezela gere bizitza guzia euskeraren onean erre, txiro, beartsu baita ere euskeragatik ero izan, ez euskotar geienak bezela diru-atsegin lokatzartean, Epikur-en zerri-taldeak antzo, muturrak sartuta uxarka ibili» (20-VI-1951).

* * *

Tori, bada, Aita prestua, ondo irabazia duzun Saria. Ez zure neke lanen ordain egokia delako, ba dakit. «Euskera lagunen Elkartek» leiaketa batean geraile neurtu zaitu. Eta bide batez, euskeraren aldeko zure lan guztiakgatik, Euskaltzaindiak eta Euskalerriak, eskerronez beterik, omenaldi apur hau egin nahi dizute. Euskaltzaindiak gogoko duen lelo jakin hura berrituko dizut: Egindako lanen sari eta egingo dituzunen pozgarri izan dakizun, tori!

Eta Zorionak!

Iruinean, 30-12-1970

«EUSKERA» ALDIZKARIA GAURKOTZEAZ

Aurreko batzarrean Euskaltzaindiaren zuzendaritzari honako hau eskatu zitzaion: «Euskera» aldizkariari buruz azterketa bat egitea, geroari begira. Hala egingo genduela hitza eman genduen, eta hitz hori betetzera nator.

Hil honen 13-an errebista honen batzordeko giñanok Arantzazun bildu giñan. Eta orain arte egin denaz eta hemendik aurrera egitea komeni denaz mintzatu giñan.

Izan ere, 1969-ko azaroaren 28-an, hemen Donostian egindako batzarrean eta Euskaltzainburuak proposatuz, batzorde bat jarri zen, eta batzorde horren esku utzi zen aldizkari honen arazoa. Batzorde hortarako Villasante, Akesolo eta Irigoyen izan ziren izendatuak. Eta lan ejekutiboa idazkari ordezkoiari utzi zitzaion.

Horregatik, bada, neuk deituta, esandako egunean laurok Arantzazun bildu giñan. Han esan zuena bera, pixka bat osatu eta boro-bildua, jakinarazi nahi dizuet gaur.

* * *

«Euskera», Euskaltzaindiaren boletin edo organua izateko sortu zen. Eta gerra aurretik bere zeregin hau nahikoa ondo betetzen zuen. Hiru hilabetetik hiru hilabetera irteten zen, eta inoiz lan monografikoak eta luzeak ere argitaratzen zituen. Esate baterako, Azkueren «Morfoloía Vasca», Altuberen «Erderismos», «El Acento Vasco», «La vida del euskera» ta abar. Baina batez ere Euskaltzaindiaren batzar-agiriak, erabakiak, euskaltzainen txostenak eta abar ekartzen zituen, eta era hortara Euskaltzaindiaren lanen berri jakiteko eta kondaira egiteko iturri apartekoa da.

Gerra osteko aroan «Euskera» berandu samar hasi zen irteten. Eta hasi zenean ere, liburu bezala, ez aldizkari bezala. Legezko baldinkizunak era hortara hobeki beteko zirela pentsatu zen, eta hartatik hartu zen bide hau. «Euskera»-k bere bigarren aro honetan ere lan ederra egin duela aitortu behar da. Eta Euskaltzaindikoenok zordun gera Euskera-ren argitaratze lanean nekatu diren guztiekin, batez ere Alfonso Irigoyen jaunarekin. Tomo ederrak azaldu

dira, lan bikainekin. Esate baterako, Azkue zenaren omenez atera zena. Euskaltzaindiak Arantzazun, Donostian eta Bilbon egindako Biltzar agirien lanak, eztabaidak eta abar tomo hoietan ederki ja-soak daude. Toribio Etxebarriaren hiztegia, Guereñu-ren «Voces Alavesas», Etxahun-en olerkien edizio kritiko osoa eta beste gauza on eder asko agertu ahal izan dira. Beraz, azken hamabost-hamasei urte hontan, Euskera-k bere zeregiña, orduan bete zitekean moduan, bete izan du. Eta gure txaloak eta esker onak lan honengatik me-rezi ditu Irigoyen jaunak. Eta zintzotasun osoz eta bihotzez ematen dizkiot Euskaltzaindiaren eta neure izenean.

Baina denboren sifaliei ere kasu egiteko mementuan gaudela iruditzen zait. Aro berri baten atarian gaudela uste dut. Eginak egin, urrats bat aitzina egitea dagokio Euskaltzaindiari, gaurko egokerari begiratzuz. Legearen aurrean Euskaltzaindiaren nortasuna erabat onar-tua eta ezagutua izateraiño joan nahi genduke. Gaur eguneon, diru-dienez, iritxi ezin ditekene ez da, eta euskeraren alde benaz eta gogotik, sustraitik lan egin ahal izateko, helburu hau lortzea nahi ta nahiezkoa iruditzen zaigu.

Eta horretarako, besteak beste, gure elkarte honek bere Bole-tina behar du. Ez bakarrik bi urtetik bi urtera-edo irteten den liburu bat. Aldizkari bat maiztasun jakin batekin irteten eta zabal-tzen dena, eta Euskalerriko zoko denetara Euskaltzaindia ba dela jakinarazteko heltzen dena, eta Euskaltzaindia horren berriak, gora-beherak, lanak, erabakiak, agiriak eta abar ekarriko dituen. Ga-rrantsi handieneko puntua dela hau guretzat edozeinek ikus lezake. Euskaltzaindiak, alegia, behar du errebista hau errebista bezala ber-piztu, maiztasun jakinez agerrarazi eta Euskaltzaindiari buruzko be-rriez ondo hornitua atera. Nik uste, hiru hilabetekaria izan behar lukela, gerra aurretik zen bezala.

Euskaltzaindia instituzio bat da. Eta instituzio honek bere or-ganua edo boletina behar du. Legearen aldetik ez dut uste gaur oztoporik izango dugunik. Hor daude «Boletín de Amigos del País» eta beste agerkari antzekoak. Ez dut uste Euskaltzaindia hoiek baino gutiago denik eta hoiek lortzen dutena guk lor ezin dezakegunik. Esan dezadan berriz ere: orain arte ahal zen moduan jokatu dugu eta orain arteko lanak gure esker on guztia merezi du, baina orain

arte aski izan dena, beharbada gaur ez da. Oso mehatz eta bakan irteten da gure «Euskera», Euskaltzaindiko berriak eta lanak urri ekartzen ditu. Lan monografiko luzeak argitaratzea ongi dago, noski, eta bere tradizioari segituz, hori ere egin lezake, baina formularen bat bilatu beharko da aldizkari bezala bete behar duen egitekoari argitaratze hoiek kalte egin ez dezaioten. Esate baterako, urte barruan lau zenbaki ateratzen baldin badira, hiru mehe samarrak izan ditezke, Euskaltzaindiko berri, txosten eta lan arinagoekin; eta laugarrena lodiagoa, lan monografiko bati eskeinia. Nolanahi ere, gaur eguneon Euskalerrriak gugandik itxaroten duenari erantzun nahi baldin badiogu, nik uste dut «Euskera» gaurkotu, erraberritu behar dugula, beste modu batetara antolatu eta gehiago zabaldu.

Gure agerkari hau behar bezalako egoeran ez eukitzetik halako ondoez eta minberatasun bat sortzen da bazterretan. Ondoez horren zantzu bat edo beste aipatuko dut soilki. Kamaraka jaunak idatzi du Alderdi-n: «Se hace difícil, por no decir imposible, seguir la reorganización y actividad interna de la Academia». Eta Agur-ek oraintsu (1971, urtarrila 30) galdetzen du ia Aita Villasantek zenbat euskaltzainen iritziak eskatu zuen hilabeteen izenen aukeratzea egiteko. Horrelako gauzen argitasunak ematen ibili beharrik ez legoke, eman ziren pausuak, eskatu ziren iritziak eta egin ziren txostenak gure agerkarian agertuko balira; denak ezin bada, eramandako prozeduraren laburpen bat bai gutxienez. Eta gaur herriari horrenbeste zor diogu, eta gauza hoiek Euskera-n dute bere toki hautatua. Hartzen diren erabakien arrazoiak, erabaki hortara heldu baino lehen eman diren pausoak, egin diren azterketak, eskatu diren iritziak ta abar gure errebistan azaldu behar lirake, nere ustez. Ikus dezala herriak ez gabiltzala gauzak arbitrarioki egiten. Argi bila gabiltza eta ez dugu argiaren bildurrik.

* * *

Nola ikusten dudan nik gure errebistaren antolamendu berria? Egia esan, ideia zehatz garbirik neronek ere ez daukat, baina guti gora behera haxe esango nuke. Euskaltzaindia instituzio bat da. Instituzio honek ba du bere boletina edo organua, beste instituzioek duten bezala. Beraz, zuzendari beharrik ez du. Euskaltzaindiko buru eta buru-ordekoa izango dira beronen zuzendariak eskubide

osoz. Eta Idazkari nagusia aldizkariaren idazkaria ere izango da. Jaun hoiei bere karguagatik tokatzen zaie zeregin hau. Hortaz gainera, batzorde bat egongo da, eta hau bai izendatu egin behar da. Euskaltzainburugoko jaun hoiekin batean, batzorde honek erabaki beharko du zein gai, lan eta abar zenbaki bakoitzean agertuko den. Eta gero, ejekutibo lana, funtzionario lana, alegia (gaiak inprentara eramane, probak zuzendu edo zuzendu arazi), errebistaren zabaltzea, salmenta eta finanziaio kontuak, hori denori Idazkari ordezkorearen eskuetan utzi. Bide honi lotzea eskatzen digu, nik uste, Euskaltzaindiaren gaurko egokerak.

Beraz, batzordea edo redakzio-kontseilua izendatu behar dugu. Batzorde honetan sartzen dira Euskaltzainburu eta buru ordekoa, eta Euskaltzaindiko Idazkari nagusia. Hoiei bere karguagatik tokatzen zaie batzordeko izatea. Euskaltzainburua batzordeko buru bezala gainera, eta Idazkaria idazkari bezala. Hoietaz gainera beste lagun batzuk izendatu behar dira: hauen karguak, beste karguak bezala, bi urtetik bi urtera berri edo alda ditezkenak izango dira. Nik honako izen hauek proposatuko nituzke:

- Alfonso Irigoyen, «Euskera» argitaratze kontuan duen esperientziagatik.
- Aita Lino Akesolo, bibliografia eta kondaira eremuan duen jakitateagatik.
- Aita Joseba Intxausti, gazteen dinamismua gure batzordera ekar dezan amoreakgatik.
- Pierre Lafitte jauna, euskal eremu guztian inor ez bezala jakitatez jantzia dugun aldetik.
- Jose M.^a Satrustegi, «Fontes Linguae Vasconum» eta Euskera-ren artean bitarteko bezala izan dedin.
- Luis Mitxelena jauna, Linguistika gaietan beronen aholkua izan dezagun.

Eta hauetaz gainera edo hauen ordezkari beste inor sartu behar ote den, zeuek esan.

Ejekutibo lana, berriz, funtzionario lana, gorago esan dugun bezala, Lizundia jaunaren esku geldituko litzake, hau da, Idazkari ordearen eskuan.

HILEROKO BATZAR EGUNA HOBEKIAGO APROBETXATZEAZ

Euskaltzaindiko makina hau mugitzeko burubide batzuk eta egitura-berriztatze batzuk Azaroko batzarrean agertu nituen. Batez ere, lan bereziak egiteko, batzorde edo komisioak jarri behar zirela esan genduen. Batzorde hoién ibilbide-legea zein izango zen ere han adierazi zen. Batzorde bakoitzak bere lana edo lanaren zati bat burutzen duenean, lan hori Oron Batzarrera edo Plenora pasatu beharko da, eta orduan honek azken baietza ematen baldin badio behintzat, Euskaltzaindiaren erabakia bezala geldituko da puntu hura.

Hau da hartu genduen bidea. Herriari, gugandik itxaroten duena emango baldin badiogu, lanari lotu behar gatzazkio, eta euskera landan erabaki baten eske dauden puntu eta katramilak, aztertu eta finkatu behar ditugu. Denak ezin badira, beharrezkoenak eta premiatsuenak behintzat bai.

Komisioak jarriak dira, eta lanean hasiak ere bai. Komisio bakoitzaren atal egile delakoa lagun gutxiren artean jarri behar zela esan genduen, bestela, asko izanik, zaila bait da lan egitea eta lana aurrera eramatea. Hala ere, gutxi izanik ere, oztopo jakin batekin topo egin dugu. Batzordekoek elkarrekin biltzea ez da erraza izaten. Denok ez gera toki berean bizi. Bakoitzak badu bere lanbide eta irabazpidea. Bere eguneroko lana utziz, osterak eta joan etorriak egitea askorentzat ez da posible; inoiz edo bakan egin ditekena da, haina ez askotan. Gainera gastuak sortzen dira hortik, eta hoiék ordaintzeko ere Euskaltzaindia urri dago.

Beraz, oztopo hau garaitzeko eta Komisioen martxa bizkorrago joan dedin, gure hileroko batzarrea egiteko eran aldaketa batzuk sartu behar ez ote diren pentsatzen ibili gera. Pentsakera hau hemen azaldu besterik ez dut egingo. Asmoa proposatu, alegia. Zuek ere, zeuen aldetik esan zer derizkiozuten, eta ia zerbaitetara heltzen geran.

Euskaltzaindiak hilabete oroz egin ohi du bere batzarrea, ororen batzarrea, alegia. Eta egun hori Euskaltzaindiarengatik galtzea edo Euskaltzaindiko zereginei ematea ontzat ematen dugu. Orain

bada, nik diodana hau da: Egun hori Euskaltzaindiari ematen diogunez, aprobetxa dezagun hobekiago. Bestetarako galdutzat ematen dugunez gero, Euskaltzaindiarentzat lan egiteko balia dezagun, Euskaltzaindikoa lanetan ordu gehiago emanez, «al máximo» lan eginez, alegia. Orain Oron Batzarrea egiten dugu bakarrik egun horretan. Hamar t'erdietan hasi eta ordubatak edo ordubiak arte, eta deus ez gehiago. Eta alde batetik tamala da egun osoa hain lan gutxi egiteko galtzea. Bati baino gehiagori entzun izan diot: Ez dut neure denbora alferrik galtzeko, eta horregatik ez naiz joaten.

Nik proposatu nahi nizueken formula berria hau da: Goiza Batzordeak (hau da, Komisioak) biltzeko utzi, eta arratsaldean Oron Batzarrea egin. Era hortara Batzordekoei egokiera bat ematen zaie elkarrekin biltzeko eta bere lanak aurrera eramateko. Beraz, gorago aipatu dugun oztopo hura gainditua geldituko litzake. Eta Euskaltzaindiarentzat eskeintzen dugun egun hori hobekiago aprobetxatuko genduke. Gainera, asmo edo era hau, ikusten dudanez, ez da berria. Euskaltzaindia sortu zenean, goizean batzarre bat eta arratsaldean beste bat egin ohi zutela argi ikusten da Euskera-ren lehen urtean (ez beharbada beti, baina bai sarri). Guk orain, gaurko organizazioak eskatzen digunari erantzunez, Komisioen lanerako utziko genduke goiza. Beharbada beti (esan nahi dut, hilabete guztiez), batzorde guztiek ez lukete bildu beharrik izango. Hori bakoizka ikusi beharko litzake.

Beraz, proposatu nahi nizuen asmoa hau da: Hilero batzar deia bialtzen denean, egun hortako bilkuren xehetasunak emango dira. Goizean zein ordutan eta nun zein batzordek egin behar duten bere bilkura. Gero bazkaldu. Eta arratsaldean, hiru t'erdia edo lauretan Oron Batzarrea egin.

Hortarako, jakina, batzordekoak elkarrekin biltzeko tokiak ere bilatu behar dira. Donostian badugu Euskaltzaindiaren gela edo bulegoa. Urkixo Mintegian ere beharbada horrelako bilkuraren bat egin ahal izango da. Batzorde bakoitzak toki berezi bat behar baldin badu, denentzat toki bana bilatzea ez da erraza izango, baina gela batean bi batzordek bere lana egin ezinik ere ez dago.

Plan honen alde onak eta alde txarrak.—Alde onak: Hileroke egun hori hobekiago baliatzea. Batzordekoei bere lana aurrera era-

mateko okasio ematea. Eta bide hau hartzen ez baldin badugu, komisiokoak elkarrekin biltzeko modurik ez da ikusten. Orain arte batzordeak geldiroegi ibili badira, horrexegatik izan da baitipat, batzorde bakoitzeko lagunak biltzen izaten bait dira lanak.

Alde txarrak: Nik ikusten dizkiodan alde txarrak hauetxek dira: Orogen Batzarrea beharbada behar den patxaraz ezingo dugula egin, denboraren faltaz eta batzuk bere txokora bihurtzeko artega egongo direlako. Prensarako egiten genduen agiria egiteko ere ez zaigu egun horretan astirik geldituko. Baina azkeneko hau biharamonean ere egin ezinik ez dago. Eta oro har, nik uste dut abantailak handiagoak direla. Gainera, zintzo eta bizkor ibiltzen baldin bagera, denerako atera dezakegu denbora.

Nolanahi ere, hau guztion artean ikusi behar dugun gauza da, eta denon iritzi eta aburuak eskatzen ditut, ia zerbaitetara heltzen geran.

Gainerakoan, era berri hau ez litzake batzar egun denetarako izango. Batzar deian ifiniko lirake xehetasunak kasu bakoitzeko.

Bilbon, 20-4-71

IDATZ ARAUAK

I

IDATZ ARAUAK ESTUDIATZEKO BATZORDEA

Euskaltzaindiak idazte kontuan erregela edo arau gutxi eman du orain arte. Eta ez horren beharrik ez dugulako, noski. Euskal irakaskintzan zerbait haritua naiz. Eta askotan esan behar izan diet nire ikasleei: Puntu hau, eta hori, eta harako hura erabaki gabe daude oraindik. Eta maiz entzun behar izan dut ikasleen erantzuna: Eta noiz erabaki behar dituzue, noiz arte egon behar dute gauzak hala aidean? Egia esan, ez dut jakiten zer erantzun.

Hainbeste katramila eta istilu txiki edo handi daukagu irakasleok euskeraz idazten irakasterakoan! Arrazoen puruz ezin garbi ditezkenak, gehienetan. Askotan bospasei bide hauta ditekete. Baina hizkuntza idatziaren izakerak, puntu hoiek —denak ezin badira, ondu xamar direnak behintzat— erabakirik eukitzea galdetzen du. Lan hau du, gainera, Euskaltzaindiak bere berea, bere lan berezia, nagusia eta hautatua. Eta lan hau egitearekin mesede eta laguntasun ederra egingo die ikastoletan eta euskal irakaskintzan dabil-tzanei.

Beharbada oraintsura arte ez zen somatzen horren behar handirik. Eskolarik ez bait zegoen. Eta idazleek, bakoitzak bere gisa, erabakitzen zituzten istilu hauek. Hori ere ez dago bat ere ongi, baina tira. Gaur, ordea, denok ikusten dugu euskera biziko baldin bada, eskolara eraman beharra dugula. Baina hortarako euskera idatziaren legeak ahal den neurrian finkaturik eta loturik egon behar dute. Arazo hauek Euskaltzaindiak ezin luza ditzazke beti gerorako. Lot gaitezen noizbait geure zeregin nagusira.

Ba dakit nik hauzi txar eta korapilotsu bat dugula hemen hasiera hasieratik: batasunaren hauzia. Euskerak lau literario euskalki

ditu; eta gaur gauden egoeran ez dut uste euskalki hoien nortasuna uka edo dudatan ifin ditekeanik. Euskalkiak gorde eta errespetatu beharko dira, bada. Mitxelena jaunak askotan esan du: «Nik euskera batua diodanean, ez dut erabat batua esan nahi. Batu antzekoa, batasunerantz abiatua edo horrelako zerbait». Lehen pauso hau behintzat eman dezakegu, eta emateko ordua dela uste dut. Baina denon buruan sartu behar dugu ideia hau: Batasun bidea eta euskalkien nortasuna neurri batean gordetzea, bi gauza hauek, alegia, ez direla bata bestearen etsai.

Has gaitezen errazen eta azalekoen diren gauzetatik. Puntuazio kontuan, esate baterako, hamaika gauza dago erabaki beharrekorik, eta ez dut uste erabakitzen zailak direnik. Galdera eta harridura seinaleak esaldiaren hasieran eta bukaeran, ala bukaeran bakarrik jarri behar ote dira? Apostrofua zein kasutan jarri behar da, marratxo (guión) berriz, noiz eta non? Aipamenetan (zitetan) zer erabili behar da? Numeralak eta ordinalak idaztekoan, nola jokatu behar da?

Baiezko eta badaezpadako «ba» nola idatzi behar dira: batuta ala berezita, edo bata batuta eta bestea bereiz?

«Ez» eta «Bait» nola idatzi behar dira? Biak batuta ala biak berezita; ala bata berezita eta bestea batuta?

Hitz elkarteetan nola jokatu behar da? Esate baterako, «hitz egin», «oilo anka», «traba leku», «errota harri», «lagun taldea», «anai artea» eta horrelako hitzak nola idatzi behar dira? Biak (edo hirurak) elkarturik, edo denak berezita, zatiak berezirik agertuaz, edo marratxo bat tartean zubi bezala jarriaz? Euskalerrriaren izena bera ere oraindik ez dakigu nola idatzi behar den.

Ikusten duzuenetz, honelako istilu eta katramila txiki asko dugu, eta ez dut uste erabaki bat hartzea, gauzak ondo estudiatu ondoan, horren zaila litzakenik.

Eta gero hor dugu Ortografiaren landan, Hiztegi eta Morfologiarenean, beste puntu asko argibide eske. Ez dut esaten dena egin ditekenik. Baina egin ditekena, behintzat, egin. Hori da Euskalerrriari gaur zor dioguna. Eta ezin egon gindezke beti zor hoiek ateratzen hasi gabe.

Gauza hoietaz azken erabakia nik uste dut Orogen Batzarreak (ei Pleno) hartu behar duela. Gauza batek Euskaltzaindiaren ofi-

zaltasuna izan dezan, hemendik pasatu eta hemen onartua behar du izan, ene ustez. Baina hona etorri orduko Batzorde batek, hartarako jarri behar den Batzordeak, behar du gauza hori aztertu, estudiatu eta prestatu. Puntuok bana banaka estudiatu beharko ditu Batzordeak. Eta puntu bat ongi heldurik eta ondurik dela uste deanean, Batzordeak Euskaltzainburgoari pasatuko dio, honek Oronen Batzarrera aurkez dezan. Batzarreak onartu ondoren, «Euskera» aldizkarian agertuko da, Euskaltzaindiaren erabaki bezala.

Eta zeregin honetan eskuak sartzeko, ez dezagun beldur gehiegirik. Hutsen batzuk egiteko beldurra, esan nahi dut. Hartuko diren erabakiak ez bait dira ezin aldatuzkoak. Geroago punturen bat beste era batera aldatu behar dela ikusiko balitz, beti gelditzen da horretarako atea zabalik.

* * *

Gaur, bada, lan axolatu hau egiten hasteko eta aurrera eramateko, Batzorde bat izendatu behar dugu. Euskaltzainburgoak honako izen hauek proposatzen dizkio Batzarreari.

Lehenik, buru bezala, *Luis Mitxelena* jauna. Gogoan izango duzue, noski, aurreko Batzarrean erabakia: batasun gauza guztietan berari jarri behar dugula buru, denek aitortzen diogun jakitate eta gaitasunagatik.

Egile Atalerako, berriz, *Mitxelena* jaunaz gainera, beste hauek ere proposatzen dira. Zeregin honetarako beren euskalkiaz gainera, besteak ere ezagutzen dituztenak egokiago direla uste dugu, eta ahal dela hoietatik hautatu ditugu. Hona hemen izenak:

Pierre Lafitte jauna, mugaz beste aldekoen izenean. Euskal idazle, irakasle, gramatikalaria, literatura zahar eta berriaren kondairagile eta abar bait da.

Imanol Berriatua, «Anaitasuna» aldizkariaren hizkuntza zuzenketak egiten dituen. Hizkuntza idatziaren xehetasun txikiei kasu egiteko begi ernea eta aparteko gaitasuna duena.

Salvador Garmendia, «Zeruko Argia» aldizkarian hizkuntza zuzenketak egiten dituen, eta mugaz hango eta hemengo literatura oso ongi ezagutzen duena.

Luis Villasante, Euskaltzainburua.

Villasante bera izango da Egile Atal honen idazkaria.

Kontseilari Atala. — Atal hontarako baten batek bere burua eskeintzen baldin badu, kontutan hartua izango da. Bitartean, Euskaltzainburugoak honako izen hauek proposatzen ditu:

J. L. Alvarez Enparantza. Idazle eta euskal irakasle den aldetik .

X. Kintana. Idazle eta irakasle hau ere.

J. Etxaide. Idazle.

E. Erkiaga. Idazle.

M. Lekuona. Idazle eta Liturgia taldearen buru bezala.

A. Irigarai. Alfabetatze batzordearen buru bezala eta literatura zaharra eta euskalkiak ezagutzen dituen aldetik.

Odon Apraiz. Euskeraren kondaira zaharra ezagutzen bait du, eta Arabako eskualdearen izenean.

J. M. Satrustegi. Nafarroakoarenean.

Iruinea, 30 - 12 - 1970

II

IDATZARAUETAZKO BATZORDEAK PRESTATUKO LEHEN TXOSTENA BATZARREARI AURKEZTEN

Euskaltzaindiko jaun agurgarriak:

Iruineko batzarrean, joan den abenduko 30'ean egindakoan, Idazte Arauak estudiatzeko batzordea jarri zen.

Edo guztiz oker nago, edo batzorde honi egotzi zaion zeregina, oso da axola handikoa; Euskaltzaindiak bere-berea, berezienetakoa eta nagusienetakoa duena. Euskera inoiz gaur eguneko arazoetarako tresna egoki, zalui eta gai bihurtuko bada, batez ere idazte kontuan garbitu gabe diren mila hauzi eta katramila txiki eta handi garbitu beharrean gertatzen da. Lan handia dugu eremu hontan egiteko.

Euskaltzaindiak behintzat, gaur artio, argitasun eta zuzenbide gutxi eman ditu, eta zuzenbide hoién faltaz, bai idazleak eta bai eskola maisu edo andereñoak ere maiz zeri lot ez dakitela egoten dira. Argi gidari bat nahi lukete. Eta argi gidari hori ematea nori dago-kio, guri ez bada?

Idazte puntu hauek estudiantzeko, bada, batzorde hau jarri genduen. Batzordeak bere txostenak edo atzalgaiak aztertu, estudiantu eta gertatu behar ditu. Eta azkenik, txosten horrek Orogen Batzarre-ra pasatu behar du, eta honek, ongi baderizkio, bere azken onespena edo baimendua emango dio.

Batzorderako honako jaun hauek hautatu ziren. Egile Atalera-ko: Luis Mitxelena, buru. Luis Villasante, Idazkari; Pierre Lafitte, Imanol Berriatua eta Salvador Garmendia. Iruineko batzarrean esan nuen bezala, egikizun honarako, hanbatik hanbatean, beren euskalkiaz gainera, besteak ere ezagutzen dituztenak trebeago dirudite, eta hoietatik hautatzen saiatu giñen. Imanol Berriatua eta Salvador Garmendia hautatu bagenituen, baitipat, arrazoi honegatik izan zen: hots, beren jaiotzako euskalkiaz gainera, beste euskalki literarioak ere sustraitik ezagutzen dituztelako; eta hortaz gainera, bi euskal aldizkariren zuzenketak egiteko kargua izanik, hizkuntza idatziaren xehetasun txikiei kasu egitera begia jarria dutelako. Eta hoietakoak behar ditugu, hain zuzen, batzorde honi eman zaion lan-bidea burutzeko.

Kontseilari Atalera-ko beste jaun hauek hautatu ziren. Gehienak, idazle edo irakasle direnak. J. L. Alvarez Enparantza; X. Kintana; J. Etxaide; E. Erkiaga; M. Lekuona; A. Irigarai; Odón Apraiz (euskeraren kondaira zaharra ezagutzen bait du), eta J. M. Sasturategi.

Batzorde honek bere lanen lehen fruitua eskeintzen digu, bada: «Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri». Huskeriak dirudite, txikikeriak, baina idazte kontuan bere axola dutenak dira. Axaleko gauzak, kanpoaldekoak hizkuntzan, baina hala ere hizkuntza idatziarentzat beharrezkoak. Hoietatik hasi behar genduela pentsatu dugu. Izan ere, errazagoak ere badira ta.

Askotan, ordea, katramila txiki hoiek arrazoién puruz erabakitzerik ez dago. Bide bat baino gehiago duzu aukeran, eta bat

hartu behar. Baina zein? Hor dago koxka. Gure bidea izan da bi kriterio hauek begien aurrean eukitzea: 1. Ohitura edo tradizioarena; 2. Sinpletasunarena. Beraz, euskera idatzia beharrezko ez diren puntuazio markez gehiegi ez zamatzea edo astuntzea. Bi kriterio hoietaz baliatu gera gure lan hau prestatzekoan.

Bi hitz, orain, lana burutzeko, batzordeak eman behar izan dituen pausuez.

Batzordeko idazkari bezala, lehenbiziko lana, oinarri lana, nerek prestatu nuen. Lan horren kopiak batzordeko atal egilea osatzen duten jaunei bidali zitzaizkien. Mitxelena jaunaren eta Aita Berriatuaren oharrak, iskribuz eginak, jaso ziren. Gero Atal Egilearen bilera Bilbon egin zen, apirilaren hogeian, Euskaltzaindiko etxean Mitxelena jauna gure artean zela aprobetxatuz. Nahiz ahoz nahiz iskribuz hartutako oharren arabera, beste redakzio berri bat eman zitzaion lanari, eta redakzio berri hau kontseilariei bialdu zitzairen.

Kontseilarietatik batzuek iskribuz bidali zituzten beren oharrak (X. Kintana, E. Erkiaga).

Azkenik, gaur goizean (Maiatzaren 28an) batzorde osoaren bilera izan dugu (egileak eta kontseilariak, alegia).

Batzordeak, bada, bere onespena eman dio txostenari.

Eta orain Batzarreari aurkezten zaio, honek ere berea eman dezaion. Txostenak dakarrena ongi neurtu eta ezagutu ahal dezazuten, kopiak atera eta banatu dira batzarkideen artean. Nahi baldin baduzue puntuz-puntu hementxe orain irakurri eta komentatuko dugu.

Gainera, hitz bat uste dut esan beharra dagoela arau hauen balioaz. Ez da gure asmoa agindu zorrotzak ematea, eta gutiago oraindik betirakoak ematea. Gizon kaxkarren obrek ez dute horrelako pisua jasaiteko behar litzaken aîñako gerririk. Ez dugu horrelako ametsik izan behar. Hutsezinak ere ez gera. Iruineko batzarrean esan nuen bezala: Hartuko diren erabakiak ez dira ezin aldatuzkoak. Geroago punturen bat beste era batera aldatu behar dela ikusiko balitz, beti gelditzen da horretarako atea zabalik. Etorkizunean hizkuntzak izan ditzazken eboluzioen berri guk ez dakigu. Ez dugu gure arauekin ezin neurtuzkoa neurtu nahi.

Baina honako hau ere esan nuen Iruineko hartan: Zeregin honetan eskuak sartzeko, ez dezagun beldur gehiegirik. Hutsen batzuk egiteko beldurra, esan nahi dut.

Beldur horrek eskuak lotzen badizkigu, orduan egin du gureak. Hizkuntza norma batzuen premia gorritan daukagu, eta kenka larri hontan ezin egon gindezke beti isilik edo besoak tolesturik.

Zer izan nahi dute orduan gure atzalgai hauek? Norma gidari batzuk, bihar edo etzi beharbada alda ditezkenak edo beste hobeago batzuez truka ditezkenak. Baina gaurkoz hauek iduritu zaizkigu egokienak, eta hala eskeintzen dizkiegu idazle, maisu eta abarri.

Nahikoa lasaiak dira, bestalde. Ikusiko duzuten bezala, inoiz norma bat gomendatu ondoren, segidan hauxe esaten da: «Hala ere ez da baztertzen beste era». Beste batzuetan era bat norma bezala gomendatzera ere ez gera ausartzen, eta hauxe diogu soil-soilik: «Zilegi izan bedi», eta abar.

* * *

Eta bukatzeko, barkatu lan hauen premiaz eta beharraz oraindik hitz bat gehiago esaten baldin badut.

Gaur inoiz baino gutiago dugu lo egoteko eskubiderik, gure herriaren euskaltasuna, gainera datorkion gataska honetan, bizirik atera nahi baldin badugu, behintzat. Telebistak zaplasteko ederra eman d'io euskera biziari, honek zeukan santuariorik sakratuenean (esan nahi dut, etxeko, familiako santuarioan). Hori guti balitz, gure baserriak hustuaz doaz, eta inork ez dit ukatuko euskeraren iraupenari hoiek ematen zioten sostengua. Beste aldetik, gaur eguneon Unibersidadeak jarriak ditugu Euskalerriko hiriburuetan, Unibersidade erdaldunak, noski, eta hoietara milaka doaz gure gazteak goi-mailako estudioak egitera. Badakit nik gure konfiantza ikastoletan dugula jarria. Baina Edukazio lege berri honekin ikastolak aukera bat egitera beharturik geldituko dira: edo parvulario hutsak izan (eta orduan euskeraren alde egin dezaketena hutsaren pare izango da), edo bestela hamalau urtetara arteko ikaskizun guztien erantzukizuna beren gain hartu. Eta euskera ikastaro guzti hoiek emateko gai izan dedin, lan handia egin beharra dago, eta aguro egin beharra, bestela ere berandu gabiltz da.

Mugaz beste aldean prozesu hau, Euskalerriaren ezabatze prozesua, aintzindu egin dela esan genezake. Gure artean baino lehenxeago somatu da han, alegia, baina guri ere gauza bera datorkigu, eta nahikoa lan izango dugu, bai han eta bai hemen, gure herriaren arima bizirik irautea nahi baldin badugu. Gute artean, lege berriaren araura, «Bachillerato básico» hori guzti guztiei ematen baldin bazaie, horrek esan nahi du urte guti barru, gure Euskalerrian orain arte ezagutu izan dugun egoera eta giro hura erabat aldatuko dela, eta erdal kulturak euskaltasun guztia jango digula, euskeraz kultura hori ematen gogotik eta lehiatsu eta aguro ahalegintzen ez bagera. Eta hortarako nahi-ta-nahiezko baldintza da tresna gerturik eukitzea: hizkuntza idatziaren tresna, alegia, ongi trenpatua eta finkatua eukitzea.

Euskaltzaindiak bere eginbideari uko eta herriari, larriune hontan, traizio egingo lioke, gure hizkuntzaren istilu eta korapilo hauek askatzen gozoz eta arretaz arduratuko ez balitz.

Luis Villasante

Donostian, 1971, maiatzak 28

III

PUNTUAZIO MARKA BATZUK NON, NOIZ ETA NOLA JARRI

1. *Harridura eta galdera markak* (!?). Harridura eta galdera markak esaldien asieran eta bukaeran jarri behar ote dira, ala bukaeran bakarrik? Gaztelaniak lehenbiziko bidea segitzen du, frantse-sak bigarrena. Kontu honetan euskeraz, gaurko egunez, idazlerik gehientsuenek bigarren bidea harturik daukate, hau segitzen bait dute gaztelaniak ez, beste hizkuntza guztiek. Euskaltzaindiak ohitura edo joera hau ontzat ematen du, Beraz. *Erregela*: Harridura eta galdera ezaugarriak esaldiaren bukaeran bakarrik jarriko dira.

2. *Zenbakiak.*

a) *Ehuneko hainbeste* adierazteko marka, zenbakiaren aurretik jar bedi. Adibidez: % 5 = ehuneko bost. Arrazoa: euskeraren izakerak ordena hau eskatzen bait du.

b) *Ordinalak*: Erromatar zenbakiz idazten direnean, zenbakiaren ondoan puntua jarriko da ordinala adierazteko. Adibidez: X. mendea (Hamargarren mendea). Deklinazio kasua jarri behar denean, puntuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako: XX.ean (Hogeigarrenean), x.aren (Hamargarrenaren).

Zilegi bedi, ordea, honako beste era hau ere: garren beti osorik idaztea, zenbakitik tarte batez aldendua. Adibidez: X garren, XX garrenean.

Arabitar zenbakiz idazten direnean, puntu soila jarriko da azken zenbakiaren ondoan, ordinala adierazteko. Adibidez: 200. urteburua (Berrehungarren urteburua). Eta deklinazioan, berdin: puntuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako: «Berrehungarrenean», era hontara idaz ditek: 200.ean (edo CC.ean). Hala ere, ez da baztertzen beste era: garren osorik idaztea, zenbakitik tarte batez aldendua: 17 garren, 17 garrenaren. Bat-i dago-kion ordinala, Lehen da, eta ahal dela, letraz idaz bedi.

d) *Kardinalak*. Nahiz eta zenbakiaren ondoren atzizkiren bat etorri, zilegi izan bedi tartean ezertxo ere ez jartzea. Adibidez: 8an [(zortzian), 5ean (bostean)]. Arrazoa: Sinplesatuna eta premia-rik eza.

3. *Komatxodun hitzen ondoren*, nahiz eta atzizkiren bat egon, zilegi izan bedi, orobat, tartean ez deus jartzea. Adibidez: «Anaitasuna», «Jakin»era, «Zeruko Argia»tik. Arrazoa: Sinpletasuna eta gehiagoren beharrik eza. Komatxorik ez denean, era hontara gomendatzen da: *Garoa*-n.

4. *Siglez osatutako hitzak*, letra maiuskulez jar ditezke, eta deklinazioan, atzizkia letra arruntez, bat ere tarterik gabe. Adibidez: UNESCOren, USAko. Arrazoa: Sinpletasuna eta gehiagoren premia-rik eza. Letra arruntez idazten direnean, era hontara gomendatzen da: *Usa*-ko.

5. *Apostrofua* (').

Apostrofua noiz erabili behar da? Honetan ohitura bat baino gehiago izan da eta da oraindik euskeraz idaztekoan. Adigarri honen zeregina eta marratxoarena ongi mugatu eta berezi behar dira bata bestetik, bakoitzari bere balio eta esanahi jakina ezarritz. Berezketa hori egin nahiz, eta gaur idazlerik gehienek harturik duten bidea onartuz, Euskaltzaindiak erregela hau proposatzen du: hitz batean letra bat edo beste *jan* dela adierazi nahi denean, orduan jarriko da apostrofua. Esate baterako: «Bederatzi t'erdiak». Arrazoiak: Hau da inguruko hizkuntzetan marka honi ematen zaion balioa edo esanahia. Gure artean ere franko ugariak dira bide honi jarriak direnak, eta marratxoaren eta apostrofuaren zereginak ongi berezteko, bide hau hartu eta finkatu behar dela dirudi. Beraz, *Erregela*: Hitz batean hotsen bat ezabatu dela adierazi nahi denean, apostrofuaz aditzera eman bedi. Hontaz, ordea, oharpen bat egin beharra dago: benetazko premiarik ez denean (zerbait berezi adierazteko edo), horrelako *jate* hoiek ez direla iskribuz adierazi behar. Beraz, hitzak osorik idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

(Gainera, hitz elkarteetan, silaba galera gertatuagatik, ez da ezer jarri behar, edo jartzekotan, marratxoa jarriko da. Baina hortaz, hurrengo puntuan).

6. *Marratxoa* (-). Marratxoa da, zubi antzo, lokarria adierazteko erabiltzen den marra txikia. Bi hitzen artean edo hitzaren eta atzizkiaren artean jartzen da. Ez ordea beti. Adigarri honetzaz euskera idatzia gehiegi zama ez dezagun, kasu beharrezkoenetan bakarrik jarri behar dela uste dugu. Kasu hoietaz landara, bat ere marrik ez erabiltzea hobe. Hona hemen, bada, kasurik beharrezkoenak.

a) *Pertsona edo toki izen propioetan*. Arrotzak, ezezagunak edo guti ezagunak direnean bakarrik. Adibidez: «Scott-ek», «Bremen-en», «Hitler-ek». Gainerakoetan, deus ez: «Orion», «Bolibarren», «Gernikatik», «Parisen»; «Mogelek», «Axularren irakurria».

b) *Aldizkari eta liburu izenetan, aipamenetan eta abar*. Komatxorik ez denean eta atzizkiren bat segitzen baldin bada, tartean marratxoa jarri beharra dago. Adibidez: «*Garoa*-n irakutzen da». «Frantsesezko *corps*-ek» (letra berezia marraraino bakarrik).

d) *Atzizkia edo aurrizkia soilik aipatzen denean*. Adibidez: «*tu- atzizkia*», «*-ber aurrizkia*».

e) *Hitz elkarteetan*. Ez ordea beti. Hitz elkarteak beti sortzen hari da euskera. Beti horrelakoetan marra jarri beharra, aspergarri eta are itsusi ere litzake. Aipa ditzagun kasurik beharrezkoenak. Hoietaz landara, ezer ez jartzea hobe:

— Hitz elkartearen bigarren zatia lehenbizikoaren oiartzuna denean. Adibidez: «Tarteka-marteka», «nahas-mahas», «duda-mudatan».

— Marratxoa jarri gabe, hitz elkarte ote den garbi ageri ez denean. Adibidez: «Kandela-argia», «batzar-agiria», «andre-sendagile», «haur-saltzaille». Beti, ordea, horrelakoetan jarri beharrik ez da: hitz laburrak direnean edo lehenbiziko hitzaren bokala galdu ez, baina aldatu egiten denean, hobe da dena loturik idaztea. Adibidez: «Ahazabal», «buruhandi», «sudurluze».

— Bikotea osatzen duten esaldietan. Adibidez: «Senar-emazteak», «seme-alabak», «nagusi-langileak».

Bukatzeko, hau izan bedi erregela nagusia: Marratxoaren enplegua kasurik beharrezkoenetarako utz bedi. Aipatu diren hauek dirudite beharrezkoenak.

(Euskaltzaindiak 1971.go maiatzaren 28ko batzarrean onartua)

IV

IDATZARAUETAKO BATZORDEAK PRESTATUTAKO

II. TXOSTENA BATZARREARI AURKESTEAN

«*Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak*»

Euskaltzaindiko Jaunak:

Joan den maiatzeko batzarrean Idatzarauetazko Batzordeak bere lehen txostena ekarri zigun: «Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri». Txosten hura, aldaketa batzuekin, batzarreak ontzat eman zuen.

Batzorde berberak prestatu duen II. txostena dakarkitzuegu gaur: «Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak».

Beti bezala, II. txosten hau nola prestatu den eta abar jakin dezazuten, beharrezko diruditen xehetasunak emango ditut, lehenik. Eta gero, gai hau erabakitze orduan nabari den zailtasun eta sentikortasunaz esango dut zerbait.

Batzordeko idazkaria naisenez, eta batzordearen lehendakaria den Mitxelena jaunarekin kontatuz, lehen redakzioa neronek egin nuen, eta kopia bana batzordearen atal egilea osatzen duten guztiei bidali zitzaien.

Mitxelena jaunak bere oharrak iskribuz egin zituen (20-V-1971).

Maiatzeko batzarre egunaren goizean (28-V-1971) batzorde atal egilearen bilkura egin zen, txostena aztertu eta diskutitzeko. Lafitte, Berriatua, Salvador Garmendia eta Villasante bildu ginen. Batzordeko ez diren beste batzuk ere han zeuden, eta hoiien iritzia ere entzun ziren.

Hala, bada, guztion iritzia jaso edo behintzat jakin ondoren, idazkariak redakzio berria eman zion txostenari, eta oraingo hontan redakzio honen kopia batzordeko denei (nahiz atal egileko nahiz kontseilari izan) bidali zien, oharrak egiteko epea emanez (11-6-71).

Kontseilarietatik hiruk bidali dituzte oharrak: Jon Etxaide, Eusebio Erkiaga eta X. Kintanak. Eta Atal Egilekoa den Berriatuak ere hai.

Eta azkenik, batzarrera presentatzeko, hirugarren redakzio egin da oraindik. Gaur goizean, gainera (abuztuaren 4ean), batzorde osoari dei egin zaio, nahiz atal egileko nahiz kontseilariari. Eta bildu geranon artean txostena berriz aztertu eta jorratu dugu.

Beraz, atzera aurrera guzti hoiien ondoan, geron lana batzarrera dakargu, honek ere (hala uste baldin badu behintzat) bere baimendua eman dezaion.

Gai honen zailtasuna eta axola.—Txosten hau prestatzea ez da bat ere erraza izan. Iritzi eta jokaera desberdinak bait dira idazleen artean puntu hauen gainean. Bai ahoz eta bai iskribuz hartu ditudan iritzietan mota guztietako bideak —bata bestearen aurkakoa, bata mutur batean eta bestea beste muturrean direnak. alegia—, hartu

edo entzun behar izan ditut. Baten batek, gainera, erdi amenazoka edo, idazten du: Euskaltzaindiak hau edo hura erabakitzen baldin badu, ez dut sekula obedituko...

Jaunak, zer egin?

Istilu txiki hauek arrazoiaren puruz erabakitzea ez da erraz. Askotan arrazoiak neurtzen hasiz gero, bai bide bat hartzeko eta bai bestea hartzeko ere edireiten dira arrazoi egokiak edo egokitasun antza dutenak. Beste aldetik, hizkuntza idatziak bere legeak nahi eta behar ditu. Hark puntu hauetan bide bat, beti bat, euki dezagun nahi du. Eta gu, batzuen eta besteen iritzia entzun ondoren, aukera bat egin beharrean gertatu gera, ez guztien gustokoa, noski, iritziaik elkartzea ez bait zen posible.

Orain segituan txostenaren kopia bat denok begion aurrean duzuela, hemen irakurri eta aztertuko dugu, eta eztabaidarako eta iritzi emateko aukera izango da.

Nik garbi esango dizuet. Hauzi txiki hauek modu batetara nahiz bestetara erabaki, neri ez dit gehiegi axola. Baina idazteko bide bat denontzat berdina hartua eta Euskaltzaindiak gomendatu behar dugula: hori bai, horren premia garbi ikusten dut. Horren galdez eta horren billa gabiltza, bada.

Puntuazio markak erabakitzean, zenbait kasutan bederen, bi era edo bide hautatu eta jo ziren zilegitzat. Baina gaur garbitu behar den sailean badirudi bide bakarra, beti bat eta berdina behar dugula. «Bereiz ala loturik idatzi behar diren partikulak». Hemen, nere ustez, ez da komeni nolanahi, orain modu batetara edo gero bestetara jokatzeko ibiltzea. Joko bat, beti berdina eta jakina, behar dugu. Eta hori erabakitzea edo gomendatzea dagokio Euskaltzaindiari. Beti aidian dauzkagun ezguzatzko hauek noizbait lot eta finka ditzala.

Prozedura.—Hizño bat, azkenik, erabiliko den prozeduraz.

Segituko den prozedurari buruz nik hauxe eskatuko nuke: Inork txostenean datorrena beste era batera aldatzeko eskatzen baldin badu, azken epaia batzarreak boto bidez eman dezala. Bestela, honako hau gerta ditek: inork azkeneko minutuan aldaketa bat egitea eskatu eta batzarrearen iritzia ondo jakin gabe, aldaketa hori onartua iza-

tea. Komisio batek arretaz prestatu duen lana bota edo alda dezake bai batzarreak, baina hortarako bere nahia edo iritzia garbi eta agerriz agertu behar du botazioz. Ez da aski batek edo bestek ahoz bere ustea agertzea.

Badakit nik batek baino gehiagok maxiatzen duela bototara jozte hau. «Zer du zer ikusi demokraziak jakintza eta gramatika hau-ziekin?», entzun ohi da sarritxo. Hala da. Baina jakintza alderdi eta arrazoi guztiak ongi neurtu ondoren, diren bideetatik zein hartu denok garbi ikusten ez dugunean, eta, bestalde, pratikarako guztiok bide bakar berdina behar dugunean, ba ote da beste irtenbiderik?

L. VILLASANTE

Donostia, 1971, abuztuak 4

V

LOTURIK ALA BEREIZ IDATZI BEHAR DIREN HITZ, AURREZKI ETA ATZIZKIAK

Euskeraz idaztean bada nahikoa zalantza eta istilu hitz eta hizki batzuekin. Hitz eta hizki hoietako batzuk, zenbaitetan, hurrengo edo aurreko hitzari loturik idazten dira, beste batzuetan bereiz, eta beste batzuetan, azkenik, marratxo batez aurreko edo atzeko hitzari elkarturik.

Hona hemen («Ez», «Bait» eta «Ba»ren hauzia beste batetarako utziz), maizenik gertatzen diren kasuak: 1) Hitz elkarteak edo bilketak. 2) «Gabe» atzizkia. 3) «Baitan», «baitara», «baitarik»... deklinazioko kasuak. 4) «Arazi»/«Erazi», esanahi eragilea duen aditza. 5) «Ta»/«Eta», aditz ondoko atzizkia. 6) Hitz eta aditz ondoko «Edo». 7) Eta azkenik, duda sortzen duen beste zenbait hitz: «Omen», «Ote», «Ahal», «Bide», «Antza»...

Kasu bakoitzean gomendagarri dirudien jokabidea agertuko dugu:

1. *Hitz elkarteak*. Marratxoa jarri behar denekoak alde batera utziz (Ikus Lehen Erabakia), honako beste kasuok gogoratu behar dira:

a) Jatorriz hitz elkartua izanarren, osagarriak elkargana bildu baldin badira eta hitz sinplea bezala erabiltzen bada, orduan dena loturik jar bedi. Adibidez: «Sagardo», «Gaibide», «Amorraia».

b) Hitz elkartuaren osagarriak osorik eta garbi ageri direnean, bereiz jartzea hobe. Adibidez: «Hitz egin», «Elkar hizketa».

d) Aurreko hitzak bilketan letraren bat galdu baldin badu, eta aurreko zein atzeko hitza laburra baldin bada, biak baturik idaztea hobe; bestela, berriz, bereiz. Luzea bezala jotzen da bi silabatik gora duen hitza. Adibidez: «Abendats», «Arnasots», «Elizgizon», «Gizabide», «Gizalan», «Gizatalde», «Itsasertz». Baina: «Anai maitasuna», «Arnas gaitzaldia», «Ekonomi arazoa», «Eliz agintariak», «Filosofi saila», «Giza eskubideak», «Kultur gaiak», «Euskal kantari», «Literatur irakaskintza». Baina bilketa egitean, bi hots, euskeraz elkartzen ez diren hoietakoak, elkar joko baluteke, hori gerta ez dedin, kasu horretan, hitzok bereiz idatziko dira. Adibidez: «Eliz zerga», «Itsas xori».

2. «Gabe» *atzizkia*. Bereiz jar bedi. Gainerakoan, hala izan da ohitura. Adibidez: «Ez naiz egiteko gabe» (Ax 9). «Premia gabe» (Ax 262).

Beste hitz batekin bilketa eginik izen berezia sortzen duenean, ordea, loturik idatziko da. Adibidez: «Paregabe», «Errugabe», «Lotsagabe», «Etengabe».

3. «Baitan», «Baitara» eta abar. Deklinazio kasuak loturik jartzen dira. «Baitan» sail honek, ordea, exzepzioa egiten du. Sortaldeko euskalkietan «inesivo» kasua, pertsona izakiekin, «Baitan» horrekin egiten da gehienetan; eta hurrengoak «Baitara», «Baitarik»...; -gan, -gana, -gandik eta abarren ordaina da. Adibidez: «Amarengan» «Amaren baitan»; «amarengana»/«amaren baitara»; «amarengandik»/«amaren baitarik». Sortaldekoek bereiz jarri dute beti *baita* delakoa. Hala izan da eta da ohitura, eta hala segitzeko erabakitzen da.

4. «*Arazi*»/«*Erazi*». Hitz honekin gertatzen diren kasu bereziak kontuan hartuz, honako bide hauek proposatzen dira:

a) *Arazi* nahiz *Erazi*-ren aurreko aditza osorik dagoenean, orduan hobe da biak aparte jartzea. Adibidez: iraun arazi (erazi), eman arazi (erazi), hil arazi (erazi).

b) *Arazi* nahiz *erazi*-ren aurreko aditza mozturik badago, eta, R letrarekin bukatuz, T bat hartzen ez badu, orduan hobe da biak aparte idaztea. Adibidez: eror arazi (erazi), har arazi (erazi), isur arazi (erazi), sar arazi (erazi), sor arazi (erazi). Baina: sortarazi, sorterazi.

d) *Arazi*-ren aurreko aditza mozturik badago eta A bokala rekin bukatzen baldin bada, loturik idatziko da, A biekin bat eginik. Adibidez: aldarazi, benedikarazi, jokarazi, koordinarazi, obligarazi, sozializarazi, trabailarazi, ukarazi.

Berdin egingo da, aurreko aditza, A bokalarekin bukatu ez arren, laburra baldin bada edo T bat hartzen badu. Adibidez: Adiarazi, ezagutarazi, galarazi, geldiarazi, helarazi. Baina: nabarmen arazi, ihardets arazi, iharros arazi.

e) *Erazi*-ren aurreko aditza mozturik badago eta laburra bada edo T bat hartzen badu, orduan biak loturik idatziko dira. Adibidez: adierazi, aldaerazi, bukaerazi, ezaguterazi, galerazi, geldierazi, hele-razi, jokaerazi, ukaerazi. Baina: aldara erazi, benedika erazi, kordinara erazi, obliga erazi, publika erazi, sozializa erazi, trabaila erazi.

5. «*Eta*» partikularen zenbait kasu.

a) *-ik* edo *-rik* atzizkien sentidu bera duenean, loturik idatziko da, TA edo DA formak hartuz. Adibidez: nekatuta dago, hilda aurkitu nuen, ohean etzanda zegoen.

b) BAIT partikularen sentidu bera edo antzekoa duenean, aparte idatziko da, eta behar denean koma bat ezarriko zaio ondotik. Adibidez: Haur nire gorputza da eta. Hau dela eta, pozik etorri naiz gaur Donostiara. *Eta* honek badu bariante arrunta: TA.

d) Oraindik bada beste hirugarren kasu bat: «eta abar»en orde, «ta» edo «eta» soilki jartzea. Adibidez: «Pedro ta, joan


ziren» (=Pedro eta abar, Pedro eta honen lagunak, Pedro eta gainerakoak esan nahi du). TA/ETA horren ondoren, zerbait jartzekotan, koma bat jar diteke, baina beti ez da beharrezkoa. «Pedrok eta guztiz ondo egingo lukete hau». «Pedrok eta egin dute hau».

6. *Hitz eta aditz ondoko «Edo»*. Bai sortaldeko eta bai sartaldeko euskaldunen artean ere maiz gertatzen dira honelako esaldiak: «Joakinek edo esango zuen hori». «Entzun edo zerbait egin du harek». Kasu honetan ere, EDO horren ondoren, zerbait jartzekotan, koma jarriko da; baina gehienetan ez da beharrezkoa ezer jartzea.

7. *Aditz aurrean edo ondoan jartzen den beste zenbait hitz: «Ahal», «Bide», «Omen», «Ote»...* Denak bereiz jartzea hobe. *Ote*-k eta *Omen*-ek «ba» aurretik dutenean, bereiz hoiek ere: «Ba ote». Eta aurretik duena «ez» baldin bada, «ez» hori ere bereiz jarri behar da: «Ez omen», «Ez ote». Adibideak: «Egin ahal dezake». «Egin ahal baleza». «Etorri omen da». «Ba omen daki». «Ba ote da inor?». «Egin bide du». «Etorri da antza».

(Euskaltzaindiak 1971.go abuztuaren 4ko batzarrean onartua.)

EUSKALTZAINDIKO SAILEN ETA BATZORDEEN ORGANIGRAMA



LITERATURA SARIKETA

GAIA: SAIAKERA

BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK EMANDAKO LAGUNTZAZ
JARRITAKO LITERATURA SARIKETA

Bizkaiko Aurrezki Kutxak babesturik, bere Berrogeitamar urteburua dela-ta, Euskaltzaindiak 25.000 pezetako literatura saiakera bat jartzen du.

Sariketaren oinharriak:

1) Euskeraz, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1968), gomendatutako idazkera arauetan.

2) Gaia *Literaturari buruzko saiakera*. Gai honen barnean, berdin da literaturari buruz era orokarrean edo literatura mota berezi baten barnean.

3) Egileak bere kabuz egin izan behar du eta ez da ontzat hartzen itzulpenik.

4) Lanak, orrialde batetik makinaz idatziak, lerro-une bat zuri utzirik, folio edo DIN A-4 (210 x 297 mm.), paper neurrian gutxi gora behera, gutxienez 50 orrialde.

5) Bizkai Aurrezki Kutxak jarritako sari bakarra 25.000 pezetakoa izango da, epai-mahainak hala uste badu, erdibana dezake, baina ezingo da utsean utzi.

6) Mahai-burua Euskaltzaindiak izendatuko du.

7) Lanak Euskaltzaindiaren etxera bidali behar dira (Academia de la Lengua Vasca. Ribera, 6. Bilbao-5), 1971-ko Uztailaren 26-a baino lehen. Lema batekin izenpetu, eta lemaren giltza estalduta, lanarekin batera bidali.

8) Saria Urriaren 31-n, Aurrezki Kutxen egunean emango da, Bizkai Aurrezki Kutxaren etxean egingo dan jaialdian.

CONCURSO DE LITERATURA

TEMA: ENSAYO

Patrocinado por la Caja de Ahorros Vizcaína con motivo del Cincuentenario de su fundación, la Academia de la Lengua Vasca convoca un concurso literario dotado con 25.000 pesetas.

Bases del concurso:

1) En lengua vasca y siguiendo las normas recomendadas por la Academia de la Lengua Vasca en su Congreso de Aránzazu (1968).

2) Tema: *Ensayo sobre Literatura*. Dentro de este tema, puede ser indistintamente sobre literatura en general, o sobre una especie literaria particular.

3) Deberá ser obra propia del participante, no admitiéndose traducciones.

4) Los trabajos deberán presentarse escritos a máquina a una sola página, a doble espacio, aproximadamente en tamaño folio o DIN A-4 (210 x 297 mm.), y con un mínimo de 50 páginas.

5) El premio de la Caja de Ahorros Vizcaina será único, de 25.000 pesetas. Si el Jurado así lo decidiese, podrá ser repartido, pero no declarado desierto.

6) La Academia de la Lengua Vasca nombrará el Jurado calificador.

7) Los trabajos habrán de enviarse a la sede de la Corporación: (Academia de la Lengua Vasca. Ribera, 6. Bilbao-5), antes del 26 de julio de 1971. Firmados con un lema, éste dentro de un sobre, que será enviado juntamente con el trabajo.

8) El premio será entregado el 31 de octubre, Día Universal del Ahorro, durante el acto conmemorativo que celebrará la Caja de Ahorros Vizcaína.

Batzar - Agiriak



1968 - I - 26

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1968-ko ilbeltzaren 26-an, goizeko 11-etan asi da Euskaltzaindiaren Urre-Eztaietako Lendabiziko Biltzarra.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Satrustegi eta Villasante jaun euskaltzaiñak; Altuna, Andrinua, Arenaza, Aresti, Atxa, Azpeitia, Baztarrika (Isidor), Beobide, Berriatua, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, Etxeandia, Etxenagusia, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Gereño, Goikoetxea, Lete, Lizundia, Loidi, Manterola, Aita Mendizabal, Merino Urrutia, Onaindia, Oñatibia, Zubikaray eta Zugasti jaun-andere euskaltzain laguntzailleak, San Martín idazkari dala.

Barandiaran (José Miel), Dassance, Lojendio, Aita Zabala, Etxaburu, Olaizola eta Zatarain jaunak ezin etorria adierazi dute.

Euskaltzainburua laburki mintzatu da nola 1918-garrenean, lehenengo Euskal-Ikaskuntzaren biltzar nagusian, Oñatiko Unibertsidadean, sortu zan Euskaltzaindia. Biltzar aretan, izkuntzaren saillekoak Azkue, Urkijo, Olabide, Eleijalde, Txomin Agirre eta abar zirala. Ta orduko oroitzapen laburrak eman ditu.

«Educación y Ciencia»-ko Ministeriotik ofizio bat artu da, esanez, bazutela asmoa aurtengo urterako euskerazko poesi sari bat jaritzeko eta estudiantuko dutela guk egindako eskaria «Orix» sariari buruz.

Maria Paz Ziganda euskaltzain laguntzaille zanaren ilburukoaren berriak eman ditu A. Irigaray jaunak, esanaz, Inmobiliaria Urbis, S. A.-ren akzioak utzi dituala Euskaltzaindiarentzat, Iruñeko «Banco de la Vasconia»-k aditzera eman duenez. Bere anai Ramon Ziganda (Navas de Tolosa - Pamplona) jaunari eskerrak ematea erabagi da.

Idazkariak «Onena» pentsuak eratu duan Lehen Bertsolari Sari-ketaren berriak eman ditu, esanez Euskaltzaindiaren babesa eskeiñi diotela, ta maiburuko Euskaltzaindikoak izango dirala. Asmu ori arrera eramateko gogoan izan direla lehen aldiz puntuaziozko sistema berri bat probatzea eta baita orain etortzen ez ziran bertsolariak ekartzea ere. Ontzat artu izan da.

«Coca-cola»-k aurrentzako eratu duan euskerazko sariketaren berri eman da.

Donostian, Diputazioko «Urkixo Mintegia»-n Euskaltzaindiaren ofizina irikia danaren berria eman da, egunero, goizeko, 10-etatik ordu bata arte irikia izango dana. Beraz, Gipuzkoa, ta batez ere Donostia inguruetaoak bertan arkituko dute beren etxea. Bestalde, ofizina onetatik Lafitte ta Allières jaunekin ar-emanen, «Urkixo Mintegia»-rekin batera eramango dira «Atlas Lingüístico» eta Euskaltzaindiko iztegiari buruzko lanak. Ofizinarako buru bezala izango dira idazkaria, Loidi eta Berrondo jaunak. Santiago San Martín Diputazioneko kultura sailleko buruari eskerrak ematea erabaki da lan gela ori utzi dugutelako.

Irigoyen'ek eman ditu zenbait berri: euskaldunen estadistika datuak eskariz artu duen karta eta Araba'ko Gobernadoreak euskeraren alde esan dituan itzak, bialdu duen liburu batean irakurtzen danez.

Gero, Aita Baztarrika'k eman du Araba aldean euskerak duen giroaren berri.

Oleaga jaunak adierazi du, zelan aurreko egun batean, igaro dan asteartean, «Euskerazaleak» bazkuna batu dan bere legezko autueran. Eta egin zan batzar nagusian erabagi zala Euskaltzaindiaren ondoan ibiliko dala euskera-ren alde al dan guztia egiteko asmuz. «Euskerazaleak» alkartearen buru bera, Oleaga jauna dugu, ta abegi ona izan du bere eskeintzak.

Aita Patxi Altuna mintzatu da «Alfabetatze taldearen» izenean, egin dan kanpainaaren berri emanaz, nun eta noiz izan diran kursi-

lloak eta berekin izan diran gastuak. Asierako kursillo oiekin 30.000 pezetako gastuak izan dira. Ontzat artu da guztia Euskaltzaindiak ordaintzua, baiña aurrerantzean auto-finanziatzeko bidea arkitu bear dala, besterik ezean kursilloan parte artzen duten beraiek matrikulaz ordainduaz.

«Xenpelar» bertso-paperen sariketarako lanak artu dira eta erabagitzeko aukerak izendatu dira epai-maiko: Fernando Artola «Bordari», Pedro Berrondo eta Aita Antonio Zabala.

Eta, era berean, «Lizardi» poesia sarirako: Antonio Arrue, Juan Goikoetxea «Gaztelu» eta Juan San Martin izendatu dira epai-maiko.

F. Setien jaunak Gipuzkoako Goyerri aldean nai du «Alfabetatzeko kanpaina» oietako bat eratu ta izlarien laguntza eskatu du.

Juan Garmendia «Zeleta» jaunak irakurri du txosten luze bat Azkue zanaren gorazarrez ta bere lanen berri emanaz.

Aita Mendizabal mintzo da, urre-etzaiak bide zerbait egin bearra dagoala-ta eskola liburuak eta maixu-maistrak gertatzeko.

Irigoyen'ek dio, Bilbon euskal katedra bat lortzeko bidea dagoala, Diputazioaren laguntzarekin: euskal-historia, linguistika eta deretxo-oral gaien istudiuetarako, Consejo Superior de Investigaciones Científicas'en babespean jarriarik. Eta, orrez gainera, Institutoetan «lenguas regionales» maillan euskera sartzeko bidea ere badala.

Gereño'k beste txosten bat irakurri du euskeraren aldeko ekintza lana nola eraman adieraziz: Batzorde nagusi bat errejionala, probintzi bakoitzean beste batzorde bana, guztiak batean egunkariz, irratiz eta abar euskeraren alderako propaganda eramateko. Institutoetan euskera sartzeko kanpaina, ta era berean ikastolak ugaritzekoa.

Lizundia'k irakurri du beste txosten bat, erakunde bakoitzarentzat batzorde bat eskatuz; adibidez; erakunde batzordea, argitalpen batzordea, jaialdien batzordea ta abar, dena euskeraren zabal-kunderako erriari begira. Eta, «Gerediaga» alkarteak gertu omen dago disko ta liburuen feria bat egiteko Durango'n Euskaltzaindiaren izenean.

Idazkariak irakurri du beste txosten bat, urteko billerak (illean beingoak) aal dala Bilbon, Baionan, Donostian, Gazteiz'en eta Iruñen egin bear dirala esanaz, toki bakoitzean, Euskaltzaindiak, bere

izena ta itzala agertzeko eran. Eta, billera nagusi bat, udaran edo udazkenean Oñatiko Unibersidadean. Gero, argitaratzeko bidetan diran zenbait libururen berri eman du ta baita ere Euskaltzaindian bere babesean argitara ditezken beste zenbaitena ere, ta beren artean oraindik argitaratzeko diran Azkue zanaren lanak: *Grankanton arrantzaleak*, *Ortzuri* (nobela) eta *Latsibi*.

Aita Mendizabal bere euskerazko gramatikari buruz mintzatu da, ale bat eman du multikopiatua Euskaltzaindiarentzat, ta nolabait argitaratu bear dala esan da.

Aita Altuna'k dionez «El Mensajero del Corazón de Jesús» gertu dago euskal liburuak argitaratzeko eta nai duenarentzat ateak irikiak izango dira.

Loidi jaunak Aritmetika iztegia bukatua ekarri du ortarako izendatua zen batzordearen lendabiziko lana bezala. Ta, Geometria ta Geografia iztegiak ere aurreratuak direla, ta Labayen jaunak bukatu duela teatru iztegia ere. Urre-eztaiak bide, bukatzen dituzten izte-gion berri eman nai dute lenbait-len «Euskera» aldizkarian edo bes-telako aldizkariren batean.

Oñatin egin ditekian biltzar nagusian iztegi gaia erabili ditek-eala esan da.

Aresti'k dio ordua dela euskeraren batasuna seriozki artzeko eta biltzar nagusi orretarako gairik bearrezkoena euskeraren bata-suna dala.

Gero, euskeraren batasunari buruz erabagi batzuek artzeko eus-kaltzaiñak bakarrik, beren artean autatzen dituzten beste norbaitzuk ekipoan arturik, oiñarri batzuek artu bear lituzkeela esan da. Eus-kalki bakoitza errientzat errespetatuaz, literaturarako euskera batasun bat lortzeko.

Besterik gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

Bildu dira: Manuel Lekuona euskaltzainburu, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal eta Villasante euskaltzaiñak, eta Altuna, Amuritza, Andiazabal, Artola, Atxa, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Idiart, Lizundia, Loidi, Oleaga, Oñatibia, Oregi, Sarasola, Zatarain, Zubikaray, eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Irigaray eta Olaizola jaunak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Ilbeltzeko agiria ontzat artu da. Bertan eman zan «Euskal Alfabetatze taldearen» Bergarako kursilloan izan ziran akats batzuek salatu ditu Oregi jaunak, esanaz, aditz eta atzizkiak zelan erabili bear diran ez dakitenen artean zabaldu dirala irakasle karnetak. Euskaltzaindiaren ortografiatik kanpo dabillen liburu baten aleak zabaldu zirala. Are geiago, z eta s bereizten etzekitela an karneta artu zuten geienak, eta bearrezkoa dela, urrengoan, maiburu baten esamienetatik pasatu bearra. Altuna jaunak eta euskaltzaiburu jaunak adierazi zuten okerrak nundik etorri ziran, taldearen buru dan R. Arregi erbestean zalako egin zirala uts oiek, baiña aurrerantzean zuzenduko zirala esan zan.

Altuna jaunak berriz ere «El Mensajero del Corazón de Jesús» irarkolaren eskeintza egin du euskal liburuak argitaratzeko. Loidi jaunak ikastoletarako gertatzen ari diran lanak aipatu ditu, nunbait argitaratu bearrekoen artean. Orrez gaiñera Aita Fernando Mendizabal'en euskerazko gramatika, Etxenagusia'ren Bizkaiko ta Gipuzkoako euskal idazleen antolojiak eta Azkue'ren *Ortzuri* ta *Latsibi*, ta abar eskeindu dira. Irigoyen eta Oleaga izendatu dira «El Mensajero» irarkolakoeekin mintzatzeko.

Zabala jaunaren karta bat irakurri da «Xenpelar» bertso-papere sariketarako maiburuko izatea ukatuaz, garagarrilleko Txapelketagaitik eta azken Sariketagaitik jendeak erabili dituen esamesak aintzat arturik oraingoz ez duela nai maiburuko izan.

Artola jaunak dio, berak ere, era berean, ez duela nai «Xenpelar» bertso-paper sariketarako maiburuko izan.

Beren ordez Amuritza eta Garmendia (Jon) izendatu dira biak ontzat artu ondorean.

Zabala jaunaren beste karta bat irakurri da Iturriagaren «Ipuiak» izeneko liburuari buruz, liburu ori Euskaltzaindiaren eskariz egin zuela esanaz eta laguntza eskatuaz: Ikastoleri bere berri eman, Hernaniko Erriko Etxeari Euskaltzaindiak eskeñiz eta berak Euskaltzaindiak zenbait ale erosiz. Ontzat artua izan da eta, muestra bezala eskeintzeko, Euskaltzaindiak ikastola bakoitzarentzat ale bana erostea erabaki da. Eta Hernaniko udaletxeari eskeintzea.

Mondragoiko «Caja Laboral Popular»-eko karta bat irakurri da. 20.000 pezetako saria jartzen du Euskaltzaindiak gai oni buruz sariketa bat eratzeko: «El Cooperativismo y la promoción del arran-zale». Eskerrak ematea erabaki da.

Irigoyen'ek eman du Maria Paz Ziganda zanaren ilburukoaren berri.

Idazkariak, ilbeltzeko biltzarrean irakurri ziran txostenak oiñarri arturik, gertatu duen «Urre-eztaieri» buruzko eskema bat irakurri du: batzorde nagusi bat izendatzea, gauzak antolatzeke; propagandaren zabalkundea, giroa gertatzeko; azaroaren 1, 2 eta 3-an «Euskal liburu ta diskoen feria» Durangon, «Gerediaga» alkarteak eratua Euskaltzaindiaren babesean; udaran edo udazkenean biltzar nagusi bat Oñatin, iru edo lau egunekoa, gaitzat Azkue'ren iztegiari geigariak edo literatura euskeraren batasunari buruz (bigarrenkoa izatera, aurrez ponente edo ordezkari batzuek izendatuaz lendik ere batasunari buruz lana egin dutenen artean eta euskalki bat baiño geiago ezagutzen dituztenen artean); probintzietan egingo diran biltzarren ondorean, Aldundegieri Euskaltzaindiaren saria geitzea eskatu; batzorde nagusia probintzia guztietakoekin osatua izango danez, lenbaitlen programa bat egin illeko biltzarrak nun eta noiz; Euskaltzaindiaren ordezkaritza ofizial bat jarri Baionan, Musée Basque'n edo, ango goraberak erabiltzeko.

Eskema au Batzorde nagusiaren eskuetan uztea erabaki da, lehenago jaso ziran txostenekin batean, eta batzorde nagusia orrela izendatu da: Baztarrika beneditarra, Berrueta eta López de Gereñu Araba'tik; Irigoyen eta Lizundia Bizkaitik; Haritschelhar, Lafitte eta Larzabal mugazandik; Satrustegi eta Díez de Ulzurrun Napparroatik; eta, Beobide ta Lete Gipuzkoatik. Eta, probintzi edo alderdi bakoitzek beste batzorde bana izendatu bear dute, ez da nai ta nai-

-ezkoa danak Euskaltzaindikoak izan bearra, ta beren gain geldituko da probintzia bakoitzean egin bearrekoa.

Irigoyen'ek dio Azkue eta Urkijo izenak jartzea, Bilboko bi kaleri, erabagia dagoala, ta Bizkaiko billera kale oiek ofizialki irikiztean izan ditekela.

Oñatiko biltzar nagusirako literatura euskeraren batasuna erabagi da gaitzat, eta oiek izendatu dira erabagi edo asmo bideratzea beren gain artuko dutenak: Lekuona euskaltzainburua, Mitxelena, Villasante, Basterretxea «Oskilaso», Lafitte, Akesolo, Salvador Garmendia eta Larzabal jaunak.

Idazkaria gelditu da batasunari buruzko bibliografia bat gertatzekotan, eta guzieri kopia bana bialdu.

Garmendia «Zeleta» jaunak irakurri du «Yakintza» alkartearen ekintzari buruzko txosten luze bat, euskera eta euskal kulturari buruz egiten ari dan lan ederra adieraziz.

Idazkariak dio Euskaltzaindiko lehen laguntzaille izendapenak 1919-an egin zirala, ta orduan izendatu ziranen artetik auek bizi direla: M. Lekuona (euskaltzainburu dena), I. López-Mendizabal (ohorezko dena), R. Menéndez Pidal, Odón de Apraiz, Juan Gurutz Ibargutxi eta Gabriel Manterola (oraindik laguntzaille jarraitzen dutenen arteko). Auetarik, Menéndez Pidal ohorezko izendatzea erabaki da. Besteak Oñatiko batzar nagusian edo datorren urtean egiteko utziaz.

Artola «Bordari» jaunak dio, gure zenbait sariketatan «Lizardi», «D. Agirre», «T. Alzaga» sarietan lenbiziko gelditutakoak, oraindik argitaratzeko daudenak, «El Mensajero»-ri eskeintzea. Ontzat artu da.

«Bordari»-k dio, Etxaburu euskaltzain laguntzaille jaunak aurretzako euskerazko sariketa bat eratzea nai duela Ondarrabian Euskaltzaindiaren babesean. Ontzat artu da. Eta antzerki talde berri bat sortzen ari direla Ondarrabian bertan.

Oñatin, Unibersidadean egingo dan batzar nagusira «Txistulari batasunari» dei egitea ongi litzakeala esan da.

Haritschelchar jaunak aditzera eman du Etxahun gizon eta poeta ta Etxahun'en lan osoa nola egiña zuen adieraziz tesis bat egin omen du. Eta bietarik bat Euskaltzaindiaren *Euskera*-n argiratztea erabaki da.

Irigoyen eta Berrojalbiz jaun-andereak Bizkaiko ikastolen berri eman dute, bereziki Markiñakoena. Markiñako udaletxearen eskariz 6 urtetik gorakoak eskola kartilla erriko eskoletan esaminiatuaz lortu zala. Baiña ilbeltzaren 24'tik Gobernuaren baimenez ari ziran ikastola oiek, informe txar bat bide, itxi egin dituztela. Euskaltzaindiak ikastola oien alde zerbait egitea eskatzen dute, informe ona bialduaz. Arrue'k dio, berak ezagunak dituela Bizkaiko Prokuradoreen artean eta nai baldin bada bera mintzatuko dela. Orrela, Arrue jauna izendatu da bitarteko egiteko, ta premia bada Euskaltzaindiak ikastola oien alde zerbait egitea eskatzen dute, informe ona bialduaz. Arrue'k dio, berak ezagunak dituela Bizkaiko Prokuradoreen artean eta nai baldin bada bera mintzatuko dela. Orrela Arrue jauna izendatu da bitarteko egiteko, ta premia bada Euskaltzaindiak idatzi.

Larzabal jaunak Pierre Duhour euskaltzain laguntzaillearen ilberria eman du. Bere familiari dolumiñak ematea erabaki da.

Besterik gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1968 - III - 29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1968-ko epaillaren 29-an, goizeko amarterdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru ordezeko, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Lojendio eta Villasante jaun euskaltzaiñak; Altuna, Arkotxa, Atxa, Beobide, Berrondo, Berrojalbiz, Etxaniz, Garmendia (Jon), Goiko-

etxea (Joan), Lete, Lizundia, Oñatibia, Oregi, Santamaria, Sarasola, Valverde, Zatarain eta Zubikaray jaun euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Olaizola jaunak ezin etorria adierazi du.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Otsailleko agiria ontzat artu da. Oregi jaunaren karta baten berri eman da, nun esaten duen, agirian, «salatu» itzaren ordeztatu berri eman» jartzea obe zala, zeren bertan ez zeudenak adierazpenaren muiña oker jasoko luketen beldur dala ta. Eta kursilloa berez onurakor eta egingarri iduritu zitzaioala.

Emendik ikusten da esaminiatzeko maiburu baten bearra. Ta, Irigoyen'ek dio euskeraz irakasten ari diranentzat ere bearrezkoa litzakeala, maiburu baten esamini pasatu ondorean, diploma bat irakasle izendatuaz. Berrojalbiz andereak ere antzerako eskaria egiten du diploma bat eman al izateko irakasletzan diarduten zenbaiti. Lehenago ere ifioiz erabilitako gaia danez, beste gabe, batzorde bat izendatzea erabaki da esaminiaren programa bat eta izango dan agiri ematea zelan egin estudiantzeko. Auek izendatu dira batzordeko: Patxi Altuna, Yon Oñatibia eta Nemesio Etxaniz.

R. Menendez Pidal-en karta bat irakurri da, bera euskaltzain ohorezko izendatu dalako eskerrak emanaz, eta euskera biziki maite duela agertuaz. Kartaren berri egunkarietan ematea merezi duela esan da.

Bilboko Udaletxearen idazki bat irakurri da, «Resurrección María de Azkue» eta «Julio de Urquijo» izenak emateko kaleak auzotatu dituztela adieraziz. Karta baten bidez eskerrak ematea erabaki da.

Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País'en Bizkaiko ordezkartaren idazki bat irakurri da, 24 lagunek izenpetua, Euskaltzaindiaren iritzia eskatzen dute euskerazko persona izeneri buruz. Irigoyen'ek eman ditu Bilbon euskal izeneri buruz gertatzen diran zeaztasun batzuen berriak. Eta Irigaray batzorde buru dala gertatu dan izen zerrenda luzearen berri lenbaitlen ematea erabaki da, Berondo jaunak garbira pasatu ta inprentan argitaratzea erabagiz.

Idazkariak Mitxelena'ren karta baten zatia irakurri du literatura euskerari buruzkoa. Era berean, Villasantek irakurri du beste karta bat, Mitxelena berarena, literatura euskeraren batasunari buruzko erabagia pozik ikusten duela eta laguntzeko gertu dagoala adieraziz. Mitxelena jaunak Aste Santuan Euskalerrira otortzekotan denez, idazkaria gelditu da berari biltzartu al izateko eguna ta ordua eskatzeko ta literatura batasunerako izendatuak dauden batzordekoeri dei egin. Izendatutakoetatik aparte ere, nai duen guztieri dei egin ditzakeala esan da, ta beren artean, batzarrera etorri naiko dutenak: Altuna, Sarasola, Zatarain, Oñatibia, Goikoetxea eta Etxaniz dira.

Villasante'k dio, 1964'an Lekeitio'ko udaletxeak saritu zuen Mitxelena'ren lana argitaratu bearrezkoa dala Azkue'ren iztegia aurrrera eramango bada, ta lan ori udaletxeari eskatu ziola, Mitxelena-k eskari bera egin ziolako, baiña ez duela izan erantzunik eta onen-onena bertara joatea izango dala. Lizundia gelditu da bera joatekotan.

Francesco Cao italiarraren karta bat irakurri da. Izkuntza ikaslea da eta euskera ezagutu nai luke, ta Italian ez euskerazko gramatika eta ez iztegi arkitzen ez denez, ia zerbait bialdu al dugun esanez. Zerbait bialtzekotan gelditu gera. Oñatibia bere metodologia bialtzekotan gelditu da, ta antzera Altuna.

Berrondo jaunak dio goiko maillako katedra eskaria egin bear-ko litzakeala zenbait Universidadetara. Ontzat artu da, eta momenturik onena Oñatiko billera nagusitik egitea izango dala esan da. Orduan giroa gertuago izango dalako.

Arrue jaunak lege berri baten proyektoaren asmoak azaldu ditu, Espaiñiako izkuntza guztien alde Euskalerriko prokuradoreak eskue-tan daramatena euskera, katalana eta gaillegoaren alde. Euskaltzaindiak bere babesa ematen dio Arrue-ri Euskaltzaindiaren izena erabilli al izateko.

Haritschelhar'ek dio Frantzian bertan ere era orretako asmoak dituztela, ta ain zuzen ere bera ari dela lege berri bat gertatzen, diputatuentzat, lehenagoko «Deixionne» legeak baiño geiago emango duena.

Irigaray jaunak dio, inbitazione bat duela Antonio Tovar'ek Real Academia de la Lengua Española'n egingo duen sarrerarako,

ta norbaitek joan al baluke berari emango liokela. Altuna jauna gelditu da joatekotan Euskaltzaindiaren izenean.

Idazkariak aditzera eman du Alvarez Osés Oñatiko Institutoko zuzendaria danaren erantzuna artu duela, esanez, Euskaltzaindiarentzat Oñatiko Unibersidadeko atea irikiak uzten dituala bertan Biltzar Nagusia egiteko edo beste zernaitarako.

Aita Ondarra'ren karta bat Damaso Intza'koarentzat ohorezko izendapena eskatuaz. Aita Intza lehendik numerokoa danez, idazkariak dio, erantzun ziola numerokorik ohorezko ez zala egiten esanaz. Baiña, bi urte barru euskaltzain bezala 50 urte beteko dituanaz, orduan izango dala aukera omenezko zerbait bere izenean egin al izateko.

Aita Yurre'ren karta, Aita Iraizoz'koarentzat ohorezko izendapena eskatuz, eta oraingoz Euskaltzaindiaren sorreran laguntzaille izendatutakoak egiteko asmoa dala, baiña bear bada geroagorako go-goan izango dala erantzun zaio.

Euskaltzain-buruak aditzera eman du aurrentzako enziklopedia egiten ari direla Barcelona'ko etxe batekin. Liburuak erakutsi ditu, abereen mundua eta landareen mundua, oraíndik textu gabe baiña apaingarriekin. Eta, lan au aurrera bizkortzeko iztegi teknikoen batzordeak bere lanak (egiñak dituanak) argitaratzea komeni dala dio. Iztegi oiek liburuxka batean argitaratzea erabaki da.

Beobide'k Hegosa izeneko liburu erakunde baten berri eman du, batez ere aurrentzako ta ikastoletarako euskerazko liburuak argitara ta saldu nai dituztela. Ta, iñork era orretako libururik balu argitaratzeko gertu daudela esanaz.

Euskaltzain-buruak azaldu du Aita Mendizabal'en gramatika ere argitara bearrezkoa dala. Irigoyen'ek dio, «El Mensajero» kin mintzatu zala, baiña nekeza izango dala aiekin zerbait argitaratzea, zeren ez omen daude zabalkunderako gertatuak eta orretarako laguntza eskatzen dutelako. Ta, guk ere ez dugu zabalkunde on bat egiteko biderik, ortarako erakunderik ez dugulako.

Idazkariak aditzera eman du Itxaropena eskoletarako erakusgai didaktikoak egiten ari dala eta ez daukala euskerazkoak egin eziñik

ere nork zabaldu balego. Eta, Beobidek dio HEGOSA dalakoak pozik egingo lukeala zabalkundea.

Idazkariak aditzera eman du Azkue'ren ipui sorta bat, *Euskalerriaren Yakintza*'tik aterea, aurrentzako eran gertaturik eman duela Itxaropena Argitaldarira bere «Kuliska Sorta»n argitaratzeko.

Yon Etxaide'koak bere liburuetarik *Alos-Torrea, Purra! Purra!, Joanak-joan, Amasei seme Euskalerriko, Itxasoa laño dago eta Gorrotoa lege* eman dituala Euskaltzaindiko liburutegirako. Eskerrak ematea erabaki da.

Julia Berrojalbiz andereiñoak dio eskerrak ematea jartzeko agirian Arrue jaun euskaltzainari Markiñako ikastolen alde egin dituan lanagaitik.

Urre-eztaiak antolatzeko izendatu zan batzordeak egin zuan bileraren berri eman da. Artu zituen erabagiak: literatura euskeraren batasunekoeri lagunza eskeiñi; Iñaki Beobide batzordearen idazkari jarri, San Martín'ek literatura euskeraren batasunerako izendatua dan batzordearena egin dedin; Diputazioeri urre-eztaiak antolatzeko diru eskea egitea, ta abar. Ziurki, azaroaren 1, 2 eta 3-an, «Gerediaga» alkarteak antolatua, Euskaltzaindiaren babespean, euskal disko ta liburuen feria Durangon. Eta, mugazandikoen eskariz, Bayona'ko biltzarra urriaren 6-an izango da.

Urre-eztai erakundeko batzordearen esku gelditzen da urrengo biltzarra nun egin.

Lizundia'k irakurri du Diputazioeri diru eskaria egiteko idazki bat, osanez, idazkia eskuz-esku eramanaz probintzi bakoitzeko batzordekoak beren diputazioeri emateko dala. Ontzat artua da.

Beobide'k dio, gauzak azkarrago mugitu al izateko, ia ezin dan batzarreko agiria azkarrago zabaldu, eginkizunak beren gain dituztenari denboraz gogorazi al izateko. Idazkariak eta idazkari-ordezkoak baietz agindu dute, biltzarra baiño amabosten bat egun lehenago zabalduko dituztela esanaz.

«Xenpelar» bertso-paper sariketarako izendatuak zeuden Amurritza, Berrondo eta Garmendia jaunak, lanak aztertu ondorean, eman

dute beren epaia: 1. Manuel Matxain; 2. Jesús Lete; 3. Martin Oreja eta 4. Guillermo Albizu.

Besterik gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1968 - IV - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1968-ko apirillaren 26-an, goizeko amarterdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, López-Mendizabal euskaltzain ohorezkoa, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal eta Villasante euskaltzaiñak; Altuna, Bastarrika, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, Etxeberria (Patxi), Fernandez Setien, Garmendia, Goikoetxea (Iñaki), Lekuona (Juan M.^a), Lizundia, Olaizola, Oñatibia, Oregi, Santamaria, Sarasola, Valverde, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Irigaray eta Satrustegi jaunak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Epailleko biltzarreko agiria ontzat artu da.

Formosa'tik etorri berri dan Patxi Etxeberria Euskaltzaindikoari, espaldiko partez biltzar onetara etorri danez, euskaltzainbu-ruak ongi-etorria eman dio guztion izenean.

Euskaltzainburuak gure illen berri beltza eman du: Juan Miguel Seminario Rojas euskaltzaiña Bera'n il da, eta Toribio Etxebarria euskaltzain laguntzaillea Caracas'en. Baita ere euskaltzale ta euskal idazle zan Manuel Ortuzar apaiz jauna ere. Goian beude.

Xabier Gereño'ren gutun baten berri eman da, bere etorri eziña adieraziz eta Edukazio eta Zientziako ministru berria ipiñi dutenez, lehenagoko bilinguismo eskaria berriztatu bear litzakeala esa-

naz. Era berean, beste ohar bat bialdu du Irigaray jaun euskaltzaiñak. Asmo ura berritzea ontzat artu da.

Irigoyen-ek dio bera eta Berrojalbiz Madrillen izan dirala «Enseñanza Primaria»-ko buruzagiarekin «Colegio Resurrección María de Azkue» dala-ta. Geroztik telegrama bat artu dute esanik legalizazioa zearo egitea erabaki dutela. Ortara *Boletín Oficial del Estado* -an agertuko da, oraiñarte agertu gabe baitzegoen, eta eskolaridade liburu berriak eman al izango dira.

Oñatiko biltzarrerako txosten berezi bat gertatzea komeni dala esan da, euskera eskoletan eta euskal ikastolak, gaurko lekeen pean. Txosten au gertatzeko gizonik prestuena Santamaria litzakeala esan da.

Erkiaga jaun diruzaiñak eman dituan argitasunen berri eman da. 1967 abenduko eta 1968 ilbeltza-epailleko gorabeherak: Bilboko diru-etxeetan egoana: 93.611,15; geitua 23.847,24; urritua 55.202,32; dagoana 62.256,07 peseta. Eta Donostia'ko diru-etxeetan: 276.908, 22; geitua 56.623,48; urritua 49.032,—; dagoana 284.499,70 peseta. Degun diru guztia: 346.755,77 peseta. Eta ondorean jartzen dira diru gora-bereen zeaztasunak.

Lau Diputazioeri egingo zaien diru-eskari orria irakurri da. Diru eskari au urre-eztaietan izango ditugun gastuentzat izango da: biltzarrak, orri bereziak, liburu argitalpenak eta abar.

Naparrak azaroa autatu dute Iruñean biltzartzeko, eta arabarrek uztaila. Mugazandikoak lehendik autatua zuten urrilla.

Aurten urre-eztaiak diralako izendatu diran bezala, idazkariak dio, urtero berriztu bear dirala probintzietako batzordeak, Euskaltzaindiak probintzia guztietan bere itzalaren indarra izan dedin eta lanak obeto eramateko.

Lizundia'k dionez, azaroko illean, lehendik autatua zanez, Durangon izango dala euskal liburu eta diskoen feria, ta ura aintzat arturik an biltzea komeni dala. Besterik ezean il baten bi aldiz biltzartu eziñik ez dala esan da. Ta, bestalde, Lizundia'k, Migel Anjel Astiz'ek esan ziona adierazten du: abenduaren lehen partean biltzeko ere egun onak dirala Naparroan, abenduaren 3-a San Franzisko

Jabier'koaren eguna danez, beraz euskerarena, momentu egokia izan daitekealako. Dana dala, naparrerri adieraztea pentsatu da.

Lizundia beraren eskariz, urre-eztaiak antolatzeko izendatua zan batzordearen urrengo batzarra Oñati bertan egitea pentsatu da, an erriko alkatearekin mintzatzeko.

Garagarrillaren 28, 29 eta 30'ean, «Gerediaga» alkarteak eraturik, euskal idazleen biltzar bat izango da Ermua'n (Bizkaia), euskal idazleeri dagozkion zenbait gauza aztertzeko eta baita ere literatura euskeraren batasunari buruz idazleen iritziak aztertzeko, Euskaltzaindiari bere lanean lagundu al izateko. Oso pozik entzun da. Eta idazle bakoitzaren iritzia librea izan dedin, biltzar oietan Euskaltzaindia ez naastatzea obe dela esan da. Baiña, Euskaltzaindiak naiko luke «Gerediaga» alkartearen txosten bat bertako aburuak jasoaz, edo Euskaltzaindiko literatura-alkartasunerako izendatua dan batzorde teknikokoak zelatari bezala bertara joan al izatea.

Idazkariak irakurri du literatura batasunerako izendatua dan batzordearen txostena: Donostian bildu ziran apirilaren 10-ean. Bileran orretan batasunerako oinarriak mugatu ziran: a) batasuna literario utsa izango zala, erri literatura errespetatuaz; b) ortografia; d) oinarritzko iztegi bat 1.000 edo 1.500 itz bearrezkoonak; e) aditza, idazleak duan edo aal duan gramatika forman, baiña gramatika formak naastu gabe; f) itz teknikoak zelan autatu eta zer grafiatan idatzi; g) lana aurrera eramateko, batzordekoak alkarrengandik sakabanatuak daudenez, enkueta bidez egin, ta ortako, asteko, *Euskal Idazkaritza* ren *Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak* (1964) oinarritzat artu (Mitxelena gelditu zan an aipatu ez ziran zenbait gauza berak gertatzeko); h) erabakiak artuala, batzordeko guztiak bat datozte-nean, aldizkariren baten bidez jendeari eta batez ere euskal idazleeri aditzera eman; i) literaturaren batasuna danez, ta ez gainerako euskerarena, batasunerako iritziak jatorritzko euskal idazleeneri begiratu zaio, gaurko erri izkuntza biziak aintzat arturik; j) Artzen diran erabakiak artzen dirala, gero, euskal aldizkariari dei bat egin erabagien oinarriak bete al izateko bakoitzak lanen zuzentzaille bat izan dezan; k) beti izango da kontuan batasunerako norma oiek estuegiak ez izatea, bein baiño geiagotan bi edo iru era emango dira, denboraren

jardunez zuzenketak egiteko; ta, baita ere denboraren buruan, pre-miak bearturik, punturen batzuek aldatu bearra izango dala. Auek dira laburki artu ziran erabakiak.

Idazkariak eskatu du batzorde teknikoak buru bat bear duela (lehenago ez zala zeatz erabagi ta) eta Mitxelena dala ortarako gizonik prestuena. Ontzat artu da.

Urre-eztaietan Euskaltzaindiaren izenean argitaratzekotan dau-den liburuen berri eman da: *La Gran Enclopedia Vasca*k egun ba-tzuek barru argitaratuko du Azkue'ren *Cancionero popular vasco* len-dabiziko tomoa, eta, bear bada urte onen barnean *Morfología Vasca* ere. Oiez gaiñera, *Latsibi* argitaratzeko asmoa du, erderazko itzul-penarekin. Zarauz'ko Itxaropenak, «Kuliska Sorta»n argitaratuko du, aurtengo udaran, Azkue'ren ipui sorta bat, idazkariak *Euskalerrriaren Yakinza*'tik autatuak.

S. Altube'ren lanak, Fernando Mendizabal'en gramatika euske-razkoa eta Etxenagusia'ren euskal literaturaren lorategiak ere argi-taratzea merezi dutela esan da, nork argitaratu balego.

Lizundia'k eman du bere mandataritzaren berria: Mitxelena'ren *Azkue'en iztegiaren iturriak* lana Lekeitioko udaletxean dago, baiña Diputazioak edo «Junta de Cultura de Vizcaya»k argitaratu dezake. Egin bedi eskabidea lenbailen argitaratu dedin.

Mitxelenak esku artean daraman Azkue'ren iztegi berritzea, oso aurreratua dijoanez, ura argitaratzeko, nun eta zelan, denboraz ger-tatu aal izateko batzorde bat izendatzea pentsatu da. Auek izendatu dira batzordeko: Oñatibia, Oregi eta Valverde jaunak.

Oñatibia'k, irakasleentzako agiriak autatze batzordearen izenean, euskera irakasteko maixuen karnetaren berri eman du; eta euskal alfabetatze maixuena R. Arregi datorrenerako uzten duala. Baldin-tza guziak idazkiz presentatuko dituzte.

Berrondo jaunak Santamaria jauna izendatzen du aurkezlaritza-ko: Ikastolak garurko legeen aurrean.

«Lizardi» poesia sarira iru lan presentatu dira, eta maiburuko ziran Arrue, Goikoetxea (I.) eta San Martin'ek, goimaillako lanik ez zalako, desierto uztea erabaki dute, eta aurtengo dirua datorren ur-tekoaren geigarri jartzea erabaki da.

Saiakera sari bat jartzea komeni dala esan da, gaurko literatura geroago ta geiago ta gorago dijoalako.

Aditzera eman da uztailaren 20-an bukatzen dala *Txomin Agirre* nobela sarirako epea. Aurtendik, presentatuko diran nobelentzat ez da izango luzelabur neurririk. Eta saria, beti bezala, 10.000 peseta izango da.

Zatarain jaunak zabalkunde zientifikuendako saria jartzea eskatzen du. Sari ori jartzeko, berak ematen ditu 5.000 peseta. Gaiñerako eskaria «Caja Laboral Popular»ari edo eskatzea pentsatu da.

La Gran Enciclopedia Vasca agertu duela euskal izendegia, eta lana osatuaz joateko, an daudenez gaiñera iñork beste izenik badu geigarritzat bialdu.

Oñatiko biltzar nagusira Katalan Istudioen alkarteari eta Gallego Akademiakoeri edo dei egitea erabagi da, urrengo urterako Espainiako izkuntzen «Symposium»a gertatzeko bide bat egiteko, ia guztion alkartasunean zerbait lortu al izaten dan gure izkuntzen alde.

Beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1968 - V - 31

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1968-ko maietzaren 31-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, Damaso Intza'koa, Labayen, Lafitte, Larzabal, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzain jaunak. Altuna, Amuriza, Arregi (Pakita), Baztarrika, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, Fernandez Setien, Garmendia (Jon), Goikoetxea'tar Iñaki, Goikoetxea Maiza (Joan), Lete, Lizundia, Olaizola, Oleaga, Oñatibia, Oregi, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaille jaunak, San Martin idazkari dala.

Irigaray, Irigoyen eta Santamaria jaunak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Apirilleko batzarreko agiria ontzat artu da.

Euskaltzainburuak Garmendia (Zeleta) euskaltzain laguntzaillearen gutun bat irakurri du, eskerrak eman bear zaizkiola San Martin idazkariari «Aranzazu» aldizkarian argitaldu duan idazlanagaitik, ain eroso Euskaltzaindiaren 50 urte auetako berri emanez. Beste ainbeste zor zaiola Satrustegi apaizari, bere zuzendaritzapean ateratzen dan «Principe de Viana» euskerazko illeroko ederrean agertu dituan lanegaitik. Ala erabakitzen da batzarkideen partetik eskerrak ematea.

Aita Franzisko Ondarra'ren karta bat irakurri da, Aita Intza Ameriketatik etorria dala eta billera ontan izango dugula adieraziz, Aurrean da Aita Damaso Intza-koa ta guzion izenean ongi etorria eman zaio.

Irigoyen'ek kartaz aditzera eman duanez, 1967-ko EUSKERA-ren zabalkundea egiña da euskaltzain eta arpidedunen artean.

«Euskerazaleak» Ministerioari euskeraren alderako eskaria egiteko, Euskaltzaindiaren eskari ura aintzat arturik, erriz erri firmak batzen ari dala aditzera eman da, ta eskari oietako orri bat, euskeraz eta erderaz idatzia, Euskaltzaindira bialtzen dutela jakinerazteko.

Mondragoiko «Caja Laboral Popular»en karta bat, berek jarritako «Kooperatibismoa eta arrantzaleen eragintza» 20.000 pezetako sariari buruz: Sari bakarra izango dala, zatitu eziñezkoa; desierto ezingo dala utzi; eta beren aldetik jartzen dituzten maiburukoak auk izango dirala: Jose Luis Iñarra, Mondragoiko erretorea; Andoni Esparza, Funcor, S.C.I'eko burua; Feliz Aldabaldetrekua, «Caja Laboral»eko estudio bulegoaren buru dana. Euskaltzaindiak, bere aldetik, maiburua osotzeko, beste auk izendatzen ditu: Fernando Arto-la «Bordari», Eusebio Erkiaga eta Aita Imanol Berriatua.

Real Sociedad Vascongada de Amigos del País'eko Bizkaiko ordezkariak agur bat bialdu du José J. Bta. Merino Urrutia euskaltzain laguntzaille danak izenpeturik, *Libro del Bicentenario de las Conferencias y Actas (1765-1965)* liburua bialduz. Eskerraz ematea erabaki da.

Irigoyen euskaltzainak bialdu duan kartan dio, Lizundia ta biak Bizkaiko Diputazioko ordezkari batekin egon zirala eta egin zitzaion diru eskariari erantzungo diotela. Katedra kontua ere ez dijoala gaiz-

ki eta uda pasatzean, bear bada, egin aal izango dala bein baiño geiagotan aipatu dan batzarrea.

Bilboko Librería Ercilla'ren karta bat irakurri da Azkue'ren *Diccionario Vasco-Español-Francés* en edizio labur bat berak argitaratzeko baimen eske. Idazkariak aditzera eman du leenago *La Gran Enciclopedia Vasca*'ko zuzendari dan Martin de Retana'k eskari berdiña egin ziola eta ezezkoa eman ziola, Euskaltzaindiak aterako duan edizio berriarentzat kaltegarri izan ditekela ta. Batzarkideak ezezkoa ematea erabaki dute errazoi beragaitik.

Txillardegi euskaltzain laguntzaillearen karta baten berri eman da. Literatura euskeraren batasunan alderako gogoia adierazten du, esanaz, leenago eurak *Baionako Biltzarraren erabakiak*, 1964-an *Euskal Idazkaritza-ren* ardurapean artu zituzten erabaki aiek ontzat artzen ez badira ere, artzen dan erabakia artzen dala, bera gertu dagoala jarraitzeko, baiña arren, batasun ori egin dezagula bein betiko.

Donostiako «Ikas-Bide» alkartearen karta bat jaso da, Euskaltzaindiaren 50 urte betetzeagaitik zorionak eta beren laguntza eskeiñiaz.

Urre-eztaieri buruz, Beobidek, Oñatin maietzaren 13-an bertako udaletxeokokin batzordeak egin zuan batzarraren berri eman du. Biltzar nagusirako egunak iraillaren 26, 27, 28 eta 29-a autatu zirala, esanaz. Billerak zelan eraman literatura euskeraren batasunari buruz, ortarako izendatua dan batzorde teknikoaren esku uzten da. Eta ikastoleri buruzkoa Santamaria jaunaren esku.

Ondorean, idazkariak, literatura euskeraren batasunaren alde-rako lanak nola dijoazten agertu du. Oraindik orain, ez dala erabaki zeatzik ezertan artu, baiña artzen diranak, artzen diranean, Euskaltzaindiko batzarrean aditzera emango dirala.

Satrustegi jaunak eman ditu Nafarroako ikastolari buruzko berriak, batez ere Alsasua eta Iruñekoak, «Institución Príncipe de Viana»k eta «Amigos del País»koak eratutakoak.

Berrojaltziz andrea mintzatu da Bizkaiko ikastoleri buruz. Ikastoletako umeak bestelako eskoletan esamiatu aal izan ezker (Estaduko eskola nazionaletan) kartilla lortzeko bidea dagoala ta askok jokatu dutela bide ori. Gaiñera, ikastolarik geienak nai omen dute legalizatu eta poliki-poliki guztiak orretara dijoztela.

Txomin Agirre nobela sarirako, Bizkaiko «Caja de Ahorros»ak aurtengoz 10.000 pezetatik gora ezin duala jaso sari ori, aditzera eman da, eta Euskaltzaindiak, urre-eztaiak aintzat arturik, bere kutxatik beste 10.000 pezeta ematea erabaki du. Beraz, aurtengo nobela saria 20.000 pezetakoa izango da eta uztailaren 20-ean bukatuko da lanak Euskaltzaindiari emateko epea. Sariketa onetarako maiburuko: Gabriel Aresti, Salvador Garmendia eta Ibon Sarasola izendatu dira.

Oñatibia jaunak «Euskeraz dakienaren agiri»rako batzordeak artu dituzten erabakiak irakurri ditu. Eztabaidatxo batzuek sortu dira, euskaldun izateko, batez ere Euskalerrian bertan, agiririk ezdala bear, agiriak irakasleendako bakarrik bear dirala ta abar. Baiña azkenean erabaki da izenburua aldatzea, ta «Euskal ikasle maillako agiria» jarri. Ontzat artua izan da.

Pakita Arregi andereñoak, ikastoletako andereñoak euskera irakaskintzarako obeto jantzi bearra dala eta Euskaltzaindikoak ikas-taroak antolatzea eskatzen du. Interesgarria dala pentsatu da eta estudiatzeko gelditu da.

Idazkariak Eibar'en egin diran Euskal Alfabetatze kursilloen berri eman du, Basauri'ren zuzendaritzapean, illebete osoan egin dirala Zubiaurre eta Aranberritarren laguntzarekin. Tarteaz itzaldiak eman dituztela Euskaltzaindiko Altuna, Beobide, Villasante eta berak. Eskerrak ematea erabaki da.

Irigaray jauna buru dalarik izendegi batzordeak egin zuan izen listari geigarriak erantsitzea erabaki da, bakoitzak bera bizi dan inguruan zabalduzik dauden euskal izenak bialduaz, eta aintziñako agiri zarretatik jasoaz, leen urteen zeaztasunekin. Geigarri oiek jasotzeko ta listak eratzeke Berrondo jauna izendatzen da.

Berrondo mintzo da Dipuaziokoeri agozko diru eskabidea egia dala ta batzorde bat izendatzea komeni dala. Lizundia'k dio Nafarroan Astiz'en bidez egin ditekela.

Satrustegi'k dio Nafarroako billera ongi derizkiola abenduaren lenengoetan egitea.

Beraz, probintzietako billerak era onetan gelditzen dira: Araban uztaillean, Baionan urrillean, Nafarroan abenduan. Bizkaikoa erabakitzeke gelditzen da.

Lafitte jaunak, literatura euskeraren batasunerako iztegi bearrezko bat gertatzeko, C letrara arteko itzen fitxak ekarri ditu. Donos-

tiako bulegoko neskak kopiak ateratzeko. Berrondo jaunaren eskuetan uzten dira.

Beobide'k «Hegosa»ren izenean, ikastoletarako textoak argitaratzeko gertu daudela gogorazten du. Ortarako izendatua dan batzor-dearekin mintzatzeko esan zaio.

Oi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1968 - VI - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1968-ko garagarrillaren 28-an, goizeko amarterdietan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Joan Haritschelhar buru-ordezko, A. Damaso Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Villasante, Zabala euskaltzain jaunak; eta Franziska Arregi, Baztarrrika, Beobide, Berrondo, Fernández Setién, Garmendia (Jon), Goikoetxea (Iñaki), Lizundia, Olaizola, Oñatibia, Oregi, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaille jaunak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Labayen eta Satrustegi euskaltzain jaunak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Maietzeko billerako agiria ontzat artu da.

A. Plazido Mujika'k, A. Goikoetxea'rekin eskuz-esku bialdu du Loiola'ko artxiboetan zuten Azkue zanaren *Latsibi* nobela argitaratzera eramateko. A. Plazido Mujika'ri eskerrak ematea erabagi da lan au utzi digulako.

Tene Mujika euskal idazleari omenaldia egin zaio Deban, eta Euskaltzaindiaren izenean zorionak eman zaizkio.

Jesús González San Pedro'ren karta bat artu da Madrildik, esanaz, ango Unibersidadean estudiatzen dauden Euskalerriko semeak, udarako oporraldiak aprobetxatuaz, illabeteko euskera ikastaroa egin nai dutela Gabiriako Aita Pasiotarren etxean, eta ortarako legearen aldeko baimena ia Euskaltzaindiak bere gain artu lezakean. Ontzat artua izan da eta Información y Turismo'ri eta Gipuzkoako Gobernu Zibillari baimena eskatzea erabaki da.

Bizkaiko Diputazioak, Euskaltzaindiaren urre-eztaietarako 25.000 pezetako sari berezia eman du. Eskerrak eman bekioz.

Idazkariak aditzera eman du Real Academia Gallega'koekin ar-emanen jarri dala. Aurtengo literatura sarien berriak zabaldu dira euskal aldizkarietan.

Arrue jaunak gaztigatu du, Korteetan, Gallegu ta Katalanekin batean aurrera eramateko asmoetan dirala bilinguismoaren kanpaña.

Beobidek, urre-eztai erakunderako izendatu zan batzordearen izenean, Oñatiko aiuntamentukoekin erabagi duten programa aurreratu du. Oraingoz, au da asmoa: Iraillaren 23-an, astelena, Euskaltzaindikoekin lehen billera Biltzar nagusiari buruz; 24-an, asteartea, Villasante'ren itzaldia, Oñatiko euskalkiari buruz A. Kandido Izagirre zanak egin zuen lana aurkeztuz; 25-ea, asteazkena, itzaldia euskal arteari buruz (bear bada Arrazola monjak emana); 26-an, osteguna, aurren eguna (ikastoletako aurrak); 27, ostirala, teatru eguna; 28-an, larunbata, kantu eguna (kanta zaarrak eta «Ezdok amairu»); 29-an, igandea, Euskaltzaindiak literatura euskeraren batasunari buruz artzen dituan erabagien berri ematea, ta dantza eguna (autoktono talde batzuek agertuaz), eta egun bereko arratsaldean bertsolariak: Basarri, Uztapide, Xalbador, Lazkao-txiki, Lopategi eta Arozamena, ta gaiñera erri-meza bat izango da.

Literatura euskeraren batasunerako izendatua dan batzordeak, bere lanak bear bezala aurreratu aal izateko, bear diran egunetan tokiren batean alkartzea pentsatu da.

Beobidek eskatzen du zenbait itzaldi gertatu bear lirakela erria eta euskeltzaleen artean giroa zabaltzeko literatura euskeraren batasunaren premia adieraziz.

Baztarrika'k adierazi du Gasteizko batzarra, oraingoz, atzeratzea komeni dala Diputazioko presidenterik ez dutelako. Bear bada urrillean edo azaroan egin ditekela. Urrillean Gasteizen egitera Baionakoa atzeratuko da urtarrillerako (ilbeltzerako, 1969).

Olaizola jaunak adierazten du *Zigor* euskal opera Madrillen agertzea pozgarria izan dala, eta komeni dala bere egille diran Leikuona euskaltzain-buruari eta Eskudero jaunerri zorionak ematea. Ontzat artzen da eta bijoaz gure zorionak.

Lafitte'k gertatutako iztegi-labur-berezia, Berrondok presentatu du multikopiaz aterea, ta Euskaltzaindikoekin artean zabaltzen da.

Lafitte jaunak, bere aldetik, iztegi labur-berezi orrek duan asmoa adierazi du. Bear-bearrezko itzak indartu ta gaiñerakoak baztertzen alegindu. Ortaz, Frantzian XVII-garren mendean artu ziran erabagien berri eman du. Itz gutxikin gauza asko esateko bidera jo bear dugula, erriaren izkuntza biziari urreratuaz. Oñarri onetatik premiazkoen 5.000 itzeko iztegi bat osatu bear dugula.

Pakita Arregi'k ikastoletarako andereño ta andereño laguntzailleendako agiriak gertatzea komeni dala dio. Euskaltzaindiari derizkion muga batzuek jarriaz euskeraz erakusteko gauza dala adieraziko duena. Era orretan eskari bat gertatzea, bearko diran baldintzak adieraziz, andereño beraien esku uzten da.

Zatarain'ek C. Santamaria euskaltzain laguntzaillearen semearen il-berria eman du. Gure dolumiñak agertzea erabaki da.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1968 - VII - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1968-ko uztailaren 26-an, goizeko amarterdietan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Isaak Lopez-Mendizabal euskaltzain ohorezkoa, A. Intza'-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Mitxelena, Villasante eta Zabala euskaltzainak; Artola «Bordari», Beobide, Berrendo, Kar mele Esnal, Etxaniz, Etxeberria, Etxenagusia, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Goikoetxea-Maiza (Joan), Olaizola, Oregi, Santamaria eta Zatarain euskaltzain laguntzailleak. Xabier Mendiguren Gabirian egiten ari diran udarako euskera ikastaroen mandatarari bezela, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Eppherre, Diharce, Baztarrika, Lizundia eta Oñatibiak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Garagarrilleko billerako agiria ontzat artua izan da.

Aita Baztarrikak gaztigatu du Arabako billera urrillerrako autatzen dutela. Beraz, Baionan urrilllean egiteko zana urtarrillerako (ilbeltzerako) atzeratzen da.

C. Santamaria-k, bialdu zitzaion dolumiñegaitik, eskerrak emanaz erantzun du.

Deba-ko «Tene» Mujika-k, bere erriak egin zion omenaldia zala ta egin zitzaion zorionezko gutunagaitik eskerrak emanaz erantzun du.

Real Academia Gallega-k Euskaltzaindiaren urre-eztaiegaitik zorionak emanez, aurrerantzean alkarren artean ar-emanak eskeinduz eta beren zenbait argitalpen bialtzen dizkigutela agertuaz egin diguten karta irakurri da. Eskerrak emanaz erantzutea erabaki da. Ta emendik aurrera alkarren arteko ar-emanak estutzeko guk argitara ditugun «Euskera»k eta gaiñerako liburuetarik ale bana bialtzea erabaki da. Labayen'ek dio Galaiko izkuntzaren iztegi on bat badala iru tomutan egiña eta Euskaltzaindiak erosi bear lukeala. Idazkariak dio, aiekin ar-emanak izateko idatzi zion Bouza Brey Trillo akademiku jaunari idatzi diola eskari ori egiñaz.

Hernani-ko ayuntamentuaren karta bat, gure lehenagoko eskariari erantzunaz, «Auspoa» liburutegiak argitaratutako Pascual Iturriaga-ren *Ipuiak* liburuaren 50 liburu erosteko gertu dagoala esanaz. Lehenago, eskeintza ori egin zitzaion Agustín Pascual Iturriaga idazle aipatua Hernani-ko semea zalako.

Jose Mariano Barrenetxea-ren karta bat Galdakanotik, erri artan izango duten soñulari, kantari eta danzari jaialdira komitatuaz. Eskerrak eman bekioz.

Euskal-Kulturaren Alde alkargoaren gutun bat Baionatik, Gurutxaga'tar Ildefonso'k izenpetua, Euskaltzaindiaren urre-eztaiegaitik zorionak emanaz eta urte askoan euskeraren alde lan onak opatuz. Eskerrak eman bekiez.

Urre-eztai antolatze batzordearen izenean Iñaki Beobide mintzo da. Oñatiko billeretara nortzuek joango diran jakiteko txartelez deiak egitea komeni dala, ta txartelak aterako diran galdetzen du. Baietza eman da. Eta deiak ia Euskaltzaindikoentzat bakarrik izango diran. Billeretako gai nagusia literatura euskeraren batasuna danez, Euskaltzaindiko ez diran euskal idazleeri ere dei egitea komeni dala eta ortan gelditu gera, euskaltzain eta euskal idazleeri deiak egitekotan.

Literatura euskeraren batzorde teknikoaren izenean, batzorde onen buru dan Mitxelena mintzo da: batzorde onek apirillaren 10-ean jarri zituan oiñarriak aztertu ta erabagitzeko, dagonillaren 9 eta 10-a autatzen dira. Egun oietan erabakitzen danaren berri emango da

Euskaltzaindiaren dagonilleko billeran, eta gauzak mugaturik eraman-go diranez, arako maiburu bat izendatu bearko da, Euskaltzaindiko en artean, batez ere alkarrizketak gaitik kanpora irtetzen diranean itza ebateko. Ponentzia bakoitzak, bere ondoren alkarrizketa libre a izango du, ta alkarrizketan erabiltzen diran ideak aintzat arturik, izendatuak diran batzorde teknikokoak, berriz beren artean bildurik artuko dituzten erabagiak izango dira azken itzak. Kontuan arturik, urteak aurrera, premiazko zuzenketak egin bearra izango dala, egiñak erakutsiko duan neurrira.

Madrid-go estudiantear Gabiriko Aita Pasiotarren etxean antolatu duten udarako euskera ikastaroen berriak ematera etorria dugu Xabier Mendiguren jauna, erakunde orren irakasle-buru dana. Lehendabizi, idazkariak adierazi du ikastaroak aurrera eramateko izan diran eragozpenak eta González San Pedro (Antolatzaile buru au), X. Mendiguren eta berak egin bear izan dituzten dilijentziak, ta Arrue-ri eskerrak lortu zutela Oltra gobernadore jaunarengana joatea baimena lortuko bazuten. Mendiguren-ek, zeatz adierazi du asmoa, Israeldarrak beren izkuntza irakasteko erak estudiantu ondorean, talde txikietan eraturik, irakasle ta irakasle-laguntzailearekin zelan izaten dituzten ikaskaiak eta egun osoko bearkizunak euskera utsarekin baliaturik, zer irakaspen eta zer eragozpen arkitu izan dituzten ta abar. Eragozpenetako bat, ikasle guziak erderaz (gaztelera) jakitea. Batzuek bestelako izkuntzaren bat mintzatuko balira (Israel-en gertatzen dan bezala, adibidez) ikasleak beartuagoak aurkituko lirakeala, ta orregaitik, bear bada, urrengo urterako komeniko litzakeala mugazandiko euskaldun estudianteeekin nahasturik egitea. Baita ere, lehendik euskerazko gramatika zerbait aztertua izateak ere asko laguntzen duela, utsik bat-batean asi gabe. Pozik entzun dira Mendiguren-ek agertu dituan euskera ikasteko esperientzia berriak eta euskaltzain buruaren eskariz datorren urtean obeto eratzeko batzorde bat izendatzea erabagi da. Beraz, udarako euskera ikastaroetarako batzordeko izendatu dira: X. Mendiguren bera, González San Pedro, J. San Martín, Fernández Setien, ta oiekin batean mugazandiko bat.

Garmendia «Zeleta»k, Euskaltzaindiaren dagonilleko billera Elizondan egitea eskatu du, nafar-euskaldunen alderdi ura aintzat artzearren. Ideia ontzat artua izan da, baiña aurtengoz, urre-eztaiak ondo eramatearren, obe dala oitura dan gisara egitea, Donostian eta

probintzietako uri-buruetan, ta datorren urteko illeren batean Elizondon egin.

Zatarain-ek ortografiari buruzko txosten bat irakurri du. Aintzat artua izango da literatura euskeraren batasunerako.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1968 - VIII - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1968-ko dagonillaren 30-ean, goizeko amarterdietan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Arrue, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Mitxelena eta Satrustegi euskaltzaiñak; O. Apraiz, Aresti, R. Arregi, F. Arregi, Baztarrika, Berrojalbiz, Berrondo, Elozegi, K. Esnal, Etxaniz, Fernandez Setien, S. Garmendia, Goikoetxea-Maiza, A. Idiazabal, Olaizola, Oleaga, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Haritschelhar, Villasante, Anai Berriotxo eta Lizundiak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Uztailleko agiria ontzat artua izan da.

Idazkariak deiturik, Reyes Korkostegi Oñatiko alkate jauna agertu da biltzarrera, urre-eztaieri buruzko billera nagusiak eta jaialdieri buruzko zenbait erabagi artzeko, eta laister joan bearra duanez, eguneko gaien ordena aldaturik, biltzar nagusiaren gora-berak tratatzea erabaki da.

Gipuzkoak une onetan duan egoera ikusirik, il onen azkenengo aste osoan egiteko ziran billera nagusiak eta jaialdiak alkarretarik banantzea pentsatu da: lehen partean literatura batasunari buruzko billerak eta bigarren partean urre-ezteiak ospatzeko jaialdiak. Au da: il onen 26, 27 eta 28-an euskera idatziari buruzko biltzarrak Arantzazun; azaroko illean urre-ezteiak ospatzea (onetarako ez da egunik izendatu).

Korkostegi jaunari eskerrak ematea erabaki da, eman dizkigun errezasunegaitik eta egin digun agerreraigaitik.

Literatura euskeraren batasunerako izendatu zan batzordearen buru dan Mitxelena jaunak, «preu»ko esamiñak dituela ta, bear bada, biltzarretarako izendatu diran egunak gaizki etorriko zaizkiola Salamancan egon bearra izango duelako. Ori ola delarik eta bere zuzendaritza bearrezkotzat jotzen delarik, 19, 20 eta 21-era aurreratzea erabaki da, baldin beste egunetan an egon bearra sortzen bazaio. Beraz, berak jarriko gaitu zein eguntsuetan libre izango danaren jakitun.

Idazkariak, billerretarako gertatu dan araudiaren berri eman du. Ondorean, izlari ta gaien izenak: M. Lekuona, sarrerako itzaldia, batasuna zergaitik eta zertarako, batzorde teknikoaren lana adieraziz; Mitxelena, ortografiari buruz; Villasante, itzen formak zelan autatu eta zelan erabili; Zatarain, itz berriak zelan jarri eta erabili; S. Garmendia, deklinazioari buruz. Biltzarren maiburuko: M. Lekuona, Haritschelhar, Irigaray, Erkiaga, Lafitte, Larzabal, Irigoyen, Labayen eta Satrustegi jaunak, eta beretariko norbaitek uts egitera, bertara joaten diran euskaltzaiñak beteko dute.

Gabirian estudianteak udarako euskera ikastaroak egiteko baimena artu zala gobernadore jaunagandik, aditzera eman da. Eta il onen 5-ean berriz debekatu zuela probintziari jarri dioten lege berriagaitik.

Maixu eta andereño azterketarako literaturari buruzko esamiña egiteari buruzko txosten bat irakurri da, Irigaray jaunak bialia. Eta ortarako izendatua dan batzordeari ematea erabaki da.

Pakita Arregi mintzatu da andereñoentzat izan dan esamiñari buruz, zelan eraman diran agerreraiz, eta agiri baten eskaria egiñaz. Ontzat artu da: «Euskaltzaindiak... andereñoa, bere ikas-saioak egin ondorean, aur txikieri euskal ikasketak erakusteko gai dala agertzen du».

Teresa Mozo eta Margarita Eizmendik Tolosatik, maixo-maixtren izenean egiten diguten eskaria irakurri da: *Ministerio de Educación y Ciencia* delakotik iritxi dezagula, probintzi ontako «erriko eskola» guzietan, euskera erakustea bearrezko izan dedilla, datorren urrillean asiko dan ikastarotik, gaiñerako ikaskaiak baztertu gabe.

Idazkariak dio, 1966-ko azaroaren amabostean egin zan eskari ura, izan ere, ori bedori zala, gutxi-gora-bera, eta ministrua aldatu zanez, aurtengo apirilkeko agirian aipatzen dan bezala, lehengo eskariaren kopia bat bialiaz karta bat egin zitziola gogoraziaz. Eta 1967-ko iraillean Donostian ministroarekin alkarrizketa izan zutenak orain berriztea erabagi da. Batzordeko izendatu dira: Arrue, Mitxelena, Santamaria, Juan Zaragueta-ren laguntzarekin, ostera ere ministroarekin mintza ditezen. Arrue jauna arduratuko da ikustaldia gertatzeko.

Idazkariak aditzera eman du, Nafarroako euskaltzaiñen eskariz, Euskaltzaindiaren izenean ongi-etorria emanaz idatzi ziola Arturo Tabera Araoz Iruñeko arzapezpiku berriari.

Real Academia Gallega-ri eman ziola erantzuna. Eta *Institut d'Estudis Catalans*, *Omnium Cultural*, *Lo Rat Penat* eta *Obra Cultural* Balear alkargoeri urre-ezteien adierazpenez idatzi ziela, ar-emanak lotzeko asmoz.

Ondorean, Juan Garmendia «Zeleta»k Barcelona-tik egin duen karta irakurri du, Antonio Verge jaunaren laguntzarekin *Omnium Cultural* eta *Institut d'Estudis Catalans* alkarteen zuzendaritzako diran Frederic Roda eta Ramón Aramon i Serra jaunekin mintzo zela esanaz, eta gure urre-eztei jaietara etorriko dirala esanaz.

Iruña'ko Euskalerriaren Adiskideak elkargoaren karta bat irakurri da, José Estornés Lasa-k izenpetua, urre ezteiegaitik agurtuaz eta M. Lekuona euskaltzain-burua «Euskal Ikasgaien Akademiaren Merezimenduko Bazkidetzat artzea» erebaki dutela esanez, eta Oñatiko urre-eztei jaietarako batzorde bat izendatu dutela erabaki au an betetzeko.

Mendoza (*Argentina*) uriko *Dirección General de Escuelas-Dirección de Bibliotecas* delakotik, Amerika eta Espainiako alkar-teetako aldizkariaren erakustea gertatzen ari direlako, datorren abendurako, gure «Euskera» aldizkariaren aleak eskatzen dizkigute, sor-keratik onerako gora-beren berriak eskatuaz. Bear dutena bialtzea erabaki da.

Idazkariak, *Ministerio de Información y Turismo*-k «Jose Maria Iparragirre» saria jarri duala aditzera eman du. Egunkarietan berria zabaldu danez, euskerazko poesia libururik onenarentzat izango da.

1963-ko ilbeltzetik 1968-ko urrillaren azkenera bitartean argitaratua. Maiburuko, Euskalerriko beste zenbait alkargokoen artean Euskaltzaindiko bat izango da. Ez dakigu beraiek izendatuko duten ala guri eskaria egingo diguten. Oraindik ez bait da guri zuzendurik berririk artu.

Satrustegik eskatu du Iruñeko «Diario de Navarra»ri karta bat egitea komeni dala, aspalditik ari dan amabosteroko euskerazko orri-gaitik ongi ikusten degula esanez.

Elozegi-ren txosten bat irakurri da, toponimiaz egin duen lanari buruz. Toki-izenez 5.000 fitxa egiñak dituala eta Euskaltzaindiaren ardurapean laga nai dituala. Berrondo-ren eskuetan uztea, berakin ar-emanean, pentsatu da.

Lafitte-k, literatura euskeraren batasuna estudiatzeko izendatu zan batzordearen eskariz egin duan «h» letradun iztegia ekarri du. «H», batasunerako ontzat artu edo ez artu, erabili nai dutenentzat zelan erabilli jakingarria dala eta multikopiaz iztegitxo argitaratzea erabaki da, geroago «Euskera»n ere argitara bear dala, esan da.

Firmarik gabeko idazki baten berri eman da, *Institut d'Estudis Catalans*, *Real Academia Gallega*, Euskerazaleak eta Euskaltzaindiari zuzendua, «ABC»-k argitara zuan A. de la Serna-ren *Lengua vernácula* idazlanaren kopia bat ere bialduaz, alkarturik gure izkuntzen alde lana egin dezagun eskatuaz.

Xabier Gereño euskaltzain laguntzaillearen karta bat, batzarrak ostiraletan egiten dirala ezin etorria adieraziz eta batzar egunak igande-goizetan egin bear litzazkeala esanez. Orretarako, Euskaltzaindiko guztien artean enkuesta bat eskatzen da. Batzarkideak, zenbait iritzi eman ondorean, orain arte bezala jarraitzeko erabakia artu dute.

ARASOC (*Association regionale d'action socio-culturelle*) delako elkargoaren karta baten berri eman da. Kultura elkarateentzat etxe bat gertatzen ari dirala Ustaritzen (Lapurdi) eta zer-naitarako konta genezakeala etxe orrekin. Jean Haritschelhar gure euskaltzain buru-ordezkoaren izenean dator.

Eusebio Erkiaga diruzaiñak, apiriletik uztaillerako diru gorabeeren berri eman du: Bilbako diru-etxeetan, zegoena 62.256,07; geitua, 124.514,09; urritua 116.658,93; DAGOANA, 70.111,23. Donostiako diru-etxeen berririk ez duala il oietakorik, eta tartean

leenago bezala jartzen du, 284.499,70. Beraz, orotarik, 354.610,93 pezeta ditugu. Ondorean, geitu-urrituen zerzeladarik aipagarrienen berri eman du.

Beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1968 - IX - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren gelan, 1968-ko irailaren 27-an, goizeko hamarterdietan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Eppherre, Irigaray, Labayen, Lafitte, Larzabal eta Villasante euskaltzainak; Agirretxe, R. Arregi, Baztarrika, Beobide, Berrondo, Esnal, Etxaniz, Garmendia (Jon), Lekuona (Juan M.^a), Lizundia, Oñatibia, Sarasola, Valverde, Zata-rain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Oi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Dagonileko agiria ontzat hartua izan da.

Idazkariak ileko har-emanen berri eman du: Iruña'ko Euskale-rriaren Adiskideak (*Real Sociedad de Amigos del País de Pamplona*) elkargoari eskerrak emanez idatzi zuela, euskaltzain-burua beren baz-kide izendatu zutelako. Arantzazun urrilaren 3, 4 eta 5-ean egingo diran billera nagusietarako deiak eta ponentzia txostenak euskaltza-indikoen eta euskal idazleen artean zabaldu direla, aditzera eman du. *Omnium Cultural*, *Obra Cultural Balear* eta *Valencia*-ko *Lo Rat Pe-nat* elkargoen kartak jaso direla urre-ezteiegaitik zorionak emanez eta azaroan Oñatiko jaialdietara etorriko direla aginduz; baita ere beren zenbait argitalpen bialdu ere.

Ministerio de Información y Turismo-k aurtengo literatura sari-ketetarako deiak bialtzen ditu. Beren artean «Iparragirre saria», 1963-tik 1968-ko urrilaren azkenera arte argitaratu den olerki libu-rurik hoberenantzat. Honetarako mahaiburua hauek osatuko dute: «Julio Urkixo» Mintegiko bat, *Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Alava*-ko bat, *Príncipe de Viana* Mintegiko bat eta Euskal-tzaindiko bat, Euskaltzaindiaren buruzagiak izendatua. Euskaltzain-buruak, Antonio Arrue euskaltzaina izendatzen du mahaiburu hori osatzeko.

Sociedad Internacional de Azafatas, S. A. (SIA, S. A.) delakoa-ren karta baten berri eman da. Nun eskeintzen diren Arantzazuko billeraren antolakizunetan edo beste horrelako erakuntzaren batean behar izan ezker, batez ere jende ezezagunaren har-emanetan. Baina, eginkizun hauek gure artekoekin betetzen dugularik eta gainera gure artean euskeraz izan behar dalako, ezezkoa ematen zaie.

Arantzazuko billeren baimenarekikoa aipatu da. Idazkariak esan du, Reyes Korkostegi Oñatiko alkate jaunari eman zaizkiola billeren egunak eta harek egingo duan usteetan dela. Dana dala, gauza zehatz aztertu eta egin behar dana egitekotan gelditu da idazkaria.

Idazkariak Santamariaren karta baten berri eman du, esanez, Euskaltzaindiko laguntzaile diren estudianteeri ongi latzakeala Euskaltzaindiak ordaintzea Arantzazuko egonaldia, billera egunetakoa. Ontzat hartua izan da. Eta Zatarain junak 1.000 pezeta eman ditu laguntza horretarako.

Arantzazun, biltzarrak egingo diren gelatik aparte, sarreran edo, bulego bat jartzea pentsatu da. Berrondo jaunak eman du hitza bertako lana berak eramatea. Bulego horretan, gastueri laguntzeko, matrikula eran, 50 pezeta kobratuko zaizkie biltzarkideeri eta multikopiaz atera diren txostenak bertan bananduko dire.

Idazkariak, azarorako atzeratu den urre-ezteietako jaialdiak gutxi-gora-bera zelan izan behar luteken aditzera eman du. Jai hauek larunbatez eta igandez izango litezke Oñatiko Unibersidadean. Larunbatean, katalan, gallegu, balear eta balentziarrekin batzarra, elkarturik gure hizkuntzen alde lan egiteko erabakiak har ditzagun; larunbat gabea antzerki edo kantari jaialdi bat emanaz. Eta, igandean, herri-meza, folklore jaia, bertsolariak eta abar.

Rikardo Arregik aditzera eman du Euskal Alfabetatze kampañak azaroan berriz hasiko dituztela.

Garmendia'tar Jon («Zeleta») jaunak Barcelonan *Omnium Cultural, Institut d'Estudis Catalans* eta bertako zenbait idazlekin izan zituen elkar-hizketan berria eman du. Eta hangoak egin zioten eskaria hau omen zan: Euskaltzaindiak bere aldetik egin dezala Bilboko Ingenieru Eskolari eskaria, berek beren aldetik egin dioten bezala, urte askoan Eskola horretako maixu izan zan Pompeu Fabra-ren irudi bat ipini dezaten aurtan bere sortzearen ehun urte betetzen direlarik. Ontzat hartua izan zan.

Juan Maria Lekuonak dionez, Lexoti bertsolaria ospitalean gaixorik dagoala eta irakurgaiak eduki ahal izateko bertso liburuen eskaria egin duela. Ontzat hartu da. Eta, baita diruzko laguntza ematea ere komeni dala esan da, bertsolari batzordeak duen kutxatik.

Zatarainek, berriz ere, «Altube saria» deituko dan teknika edo zientzia saria sortzea komeni dala dio, euskeraz hortariko gaiari bidea eman ahal izateko. Zatarain eta Labayen jaunak izendatu dira era hortako sariketa batentzat araudi bat gertatzeko.

Lizundiak, Bizkaian egiteko diran Euskal-Alfabetatze lanen berri eman du; oraingoz Markiña eta Durango aldean eta Txori-errin egingo direla, baiña gerora Bizkai guztian zabaltzeko asmuz.

Lizundia berak, gogorazten digu Euskal liburu eta diskoen azoka, Gerediaga elkarteak Euskaltzaindiaren babesean antolatzen duela urre-ezteien ohorez, Durangon, azaroaren 1, 2 eta 3-an izango dala. Gainera, Euskaltzaindiari bere izen ona indartzeko, azoka horretan *stand* berezi bat emango diotela, aintzinako eta oraingo «Euskera» aldizkarietatik aparte berak edo bere izenean edo babespean argitara diran liburu guztiak jarriaz (salgai daudenak aditzen da). Orobat ondo ikusi da eta hala egin bedi.

Zenbait kexu izan da «Euskera» aldizkarirako lanak bialdu eta ez argitaratu eta ez ezertariko erantzunik eman. «Euskera» aldizkarirako lanak hautatzeko batzorde bat izendatu da Bilbon bizi diran jaun hoiek sartuaz: Irigoyen, Erkiaga, Etxenagusia eta Oleaga.

Baztarrika jaunak dionez, behar bada oraindik ez dela giro egokia izango Araban billera egiteko, Diputazioa oraintsu berritua delako, eta Arantzazuko billeretarako ekarriko duela erabaki zehatza. Lizundiaren eskariz, Araban ez egitera, ia zergaitik ez Durangon azaroaren 3-an, bertan Euskal liburu eta diskoen azoka delarik. Abenduko billera Iruñean izango dela aintzat harturik, ontzat hartu da Durangon egitea, baldin Arabakorik ez bada. Gero, abendukoa ere 3-an izango baita San Frantzisko Jabier-koaren eguna ospatuaz.

Iñaki Beobidek, Arantzazuko billerako ponentziak, elkarriketak, eta azken erabakiak literatura euskeraren batasunari buruz, HEGOSA-k liburu berezi batean argitaratzea eskatzen du. Idazkariak dio, Euskaltzaindiak liburu salketetarako erakunderik ez duenez, ongi iruditzen zaiola, baina Euskaltzaindiak, bere lanak ofizialki argitaratzeko «Euskera» aldizkaria duela. Hau ikusirik, HEGOSA-k liburu

berezi horretan eta gero Euskaltzaindiak bere «Euskera» argitara eziñik ez dala esan da, erabakiok ahalik eta gehien zabaltzea komeni delako.

Beobidek, ondorean, legearen barruan ikastolentzako laguntza eskatzen du Euskaltzaindiaren aldetik. Bestalde, dagonillean ministro jaunarekin mintzatzeko izendatu zen batzordea lehenbait-lehen mugi dedila zerbait egitera, besterik ezean Madrilera joanez. Ministruarekin mintzatu behar zan batzordekoak Arrue, Mitxelena eta Santamaria ziran, Zaraguetaren laguntzarekin. Eta, orain, aparte, beste batzorde bat izendatzen da ikastoleri legepean laguntzeko, jaun hauek osatuko dutena: Berrondo, Arregi eta Santamaria. Idazkariak gogorazten du badala liburutxo bat legeen berri ematen duena *Ley de Educación Primaria (17 de julio de 1945)* izenekoa *Editorial Escuela Española, S. A.* dalakoak Madrilen 1967-an argitaratua. Bestalde, Euskaltzaindiak ikastolekin zer ikusirik ez duenez, baiña haien euskeraren alderako lana aintzat harturik, ahal dan guzian lagundu behar zaiela esan da, eta Euskaltzaindiak, haiekingo har-emanan izateko Karmele Esnal eta Fernandez Setien izendatzen ditu. Baita ere esan da, legeak ondo aztertu ondorean, komeni dela batzorde bat probintziako agintariengana joatea, ikastolen alde laguntza eskatzeko.

Laguntzaile berrien izendatzea ere aipatu da, baina aurtengoz hobeago dela urre-eztei jaialdietan izendapen bareziak egitea eta datorren urterako uzten da. Aurtengo izendapen bereziak Euskaltzaindiak bere sorkeratik laguntzaile dituanak ohorezko izendatu; hauen artean ditugu: Odon Apraiz arabarra, Juan Cruz Ibargutxi eta Gabriel Manterola bizkaitarrak. Era berean, ohorezko aipamen bat, sorkeran laguntzaile izendatuak, baiña orain euskaltzain edo ohorezko diraneri, diplomaz edo plakaz oroigarri bat eskeiniaz: Manuel Lekuona, Isaak López-Mendizabal eta Ramón Menéndez Pidal jauneri.

Beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1968 - X - 5

LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Arantzazuko billeren ondorean, ban ziran euskaltzainak elkar-turik, argi-bide hauek eman zituzten.

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurrerapena agertu nahi du orain.

- 1) Ortografiatz hortarako hautatu zen batzordeak adierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez.
- 2) H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.

- 3) Morfologiak, izenen erabileraz batzordeak prestatu duen aintzin lana puntu nagusietan oinarri bezala hartuaz jokatu du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.
- 4) Aztertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta berrien-formaz gertatu dituen lanak, gero ere hori bide beretsutik hobeki lantzeko asmoz.

Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, gendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du, gero ere, guztion laguntzarekin, bere eginkuzuna beteko duela. Hortan saiatuko dela.

EUSKALTZAINDIA

1968 - XI - 3

Arantzazu-Oñati, 1968-urtilaren 5-ean

Astola (Abadiño), Gerediaga elkartearen etxean, 1968-ko azaroaren 3-an, goizeko hamaiketan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Erkiaga, Irigoyen, Irigaray, Lafitte, Satrustegi, eta Villasante euskaltzaiñak; Akesolo, N. Alzola (Anai Berriotxo), Andiazabal, Andrinua (Aita Martzel), Aresti, Arkotxa, Arregi (Franziska), Arregi (Ricardo), Azpeitia, Beobide, Berrojalbiz, Esnal, Etxaniz, Etxenagusia, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Gereño, Kerexeta, Lizundia, Oleaga, Onaindia, Oñatibia, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Antonio Arruek ezin etorria adierazi du.

Oi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Iraileko agiria ontzat hartu da.

Lehenago Ministerio de Información y Turismo-ren Gipuzkoako ordezkarietatik bezala, orain Bizkaikotik hartu da «Iparraguirre» sariketaren berria, mahiburuko bat izendatzeko eskatuaz. Baina irailen izendatua zenez, eta Gipuzkoako ordezkari harrera aditzera emana, hor utzi da.

Aditzera eman da urtilaren 19-an Bilboko juzgadutik dei bat hartu zela Bilbaoko Hospitalean zauriturik zeuden biri, erderarik etzekielako, testigantzan euskeratik erderara itzulpena egingo duen bat izendatu genezan, eta A. Irigoyen-ek egin zuen itzultzaile, urriaren 26-an.

Idazkariak aditzera eman du, aurtengo «Txomin Agirre» izeneko nobela saria *Elsa Scheelen* izenburudun nobelari eman zitzaiola, eta bere egilea José Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia» euskaltzainkidea dela. Mehaiburukoak, lehenago izendatu bezala, Gabriel Aresti, Salbador Garmendia eta Ibon Sarasola izan direla. Eta ondorean, «Txillardegia»-ren karta hartu dela eskerrak emanez.

Pentsatu zen bezala, abenduko bilera Iruñen izango da, Nafarroako Diputazionean, baina ilaren 4-an eta ez 3-an, goizeko 11-etan. Diputazionezkoentzat egun hori hobe delako.

Euskaltzain buruak dio, Arantzazuko bileran tratatutakoaz liburu txiki bat argitaltzea komeni dela lehenbait-lehen eta Iñaki Beobideri eskatu dio berak daukan magnetofon-zinta ekarri dezala

eta batzordetxo baten barruan idatziz ipiñi, han hitzez dagoana. Batxordetxo hortakoak Donostia ingurukoak izatea konbeni denez, izen hauek eman dira: Rikardo Arregi, Juan M.^a Lekuona, Ibon Sarasola, Iñaki Beobide eta Jose Luis Lizundia. Lehendik batzorde teknikoko direnak: Manuel Lekuona, Luis Mitxelena (batzorde honen buru), Piarres Lafitte, Piarres Larzabal, Salbador Garmendia, Lino Akesolo, José Bazterretxea eta Luis Villasante.

Oñatin Euskaltzaindiaren urre-ezteien jaialdiak egiteari uzten zaio oraingoz, hortarako girorik ez delako.

Balentin Lasuen, Gerediaga elkartearen buruak, zenbait hitz egin ditu Euskaltzaindiaren gorazarrez eta aurrerantzean ere Gerediaga elkargoaren laguntza eskeiniatz. Euskaltzain-buruak erantzun dio eskerrak emanez eta durangarren jatortasuna goratuaz.

Oleaga mintzatu da Euskerazaleak Ministerioan izan dituzten elkar-hizketeri buruz. Euskaltzaindiak, 1966-ko azaroaren 15-ean, euskeraren ofizialtasuna eskatuaz egin zuen idazki haren alderako Bizkaian firmak bildu zituztela, eta ministroari eskuz-esku eman. Eta, bai irakaskintzako zuzendari jeneralarekin eta bai Ministruarekin mintzo bilinguismoaren alde. Hitz onak eta laguntza erarik onean eskeini zutela, eta zerbait ona egingo den usteak dituztela. Batzarrak, Euskerazaleak elkarteari eskerrak ematea erabaki du.

Etxenagusiak dio, Arantzazun erabagi zen bezala, apezpikoeri Liturgia batuaren eskaria egin behar zaiela, batzorde bakar bat izendatzeko eskatuaz eta hortarako laguntza eskeiniatz. Ontzat hartu da.

Lizundiak, Azkue zanaren Hiztegia berriturik argitaratzeko dena ia zelan dijoan galdetu du. Idazkariak, inprentan probarako inprimatu den orri bat erakutsi du, esanez hortarako batzorde bat dela izendatua, eta datorren urtean uste duala lehen liburua argitaldu ahal izango dela. Dana dela, izendatua den batzordeak Mitxelenari egin beharko diola galdea.

Zatarainek, euskal idazleendako kursilloak antolatzea komeni zaigula esan du. Eta, gauza hau, Mitxelenak ontzat hartuko balu, berak udaran eman dezakeala. Ongi ikusi da.

Irigoyenek, Salamanca-ra estudiatzera joan beharra duelako. bere kargua utzi beharrean arkitzen dela esan du. Baina, «Euskera» aldizkariaren zuzendaritzan jarraitu dezakeala, eta hontarako soldata gabe egingo lukeala bere lana. Idazkariak dio, Irigoyenek uzten due-

larik, beste biren eskeintza izan dela idazkari-ordezkoaren lana eramateko: Aresti eta Lizundia-rena. Eta bi hoiek beren artean edo bestela batzorde bat izendaturik egin beharko dela hautapena. Arratsaldean euskaltzainen artean erabakitzeke utzi da.

Idazkariak gogorazi du izendapenen epea bukatzen dela eta beste batzuen artean berea, eta uztea nahi duela. Bi urtean sekretaritzatik atera duen esperientziakin, Euskaltzaindiaren antolamendurako planifikazio berri bat proposatuko duela berak uztean, gero datorrenarentzat probetxugarri izan dedin.

Beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1968 - XII - 4

Iruñan, Nafarroako Diputazio Foralean, 1968-ko abenduaren 4-an, goizeko hamaiketan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, López-Mendizabal euskaltzain ohorezkoa, Arrue, Barandiaran, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Labayen, Lafitte, Larzabal, Olasagarre (Aita Damaso Intza-koa), Satrustegi eta Villasante euskaltzainak; Altuna, Andrinua (Aita Martzel), Apraiz, Arregi (Franziska), Arregi (Rikardo), Aspiroz, Baztarrika, Bazterretxea, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, Etxenagusia, F. Setien, Garde, Garmendia, Goikoetxea-Maiza, Ibargutxi, Kerexeta, Lekuona (Juan M.^a), Lizundia, Manterola, Oleaga, Onaindia, Oñatibia, Oregi, Peña, Urmeneta, Valverde eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Haritschelhar, Dassance, Irigoyen-ek ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Azaroko agiria ontzat hartu da.

Euskaltzainburuak, Ramón Menéndez Pidal euskaltzain ohorezkoaren hil-berria eman du. Eta familikoeri doluminak ematea erabaki da.

Eskuarteko har-emanen berri eman du idazkariak: Real Academia Española-ren telegrama bat Rafael Lapesa sekretarioaren izenez, zorionak emanez eta Esteban Calle Iturrino laguntzailea izendatu dutela beren ordezkari Iruñera etorri dedin, baina Calle Iturrino

jaunak, Oleagaren bidez, geixorik dagoelako ezin etorria adierazi du; Real Academia Gallega-ren buru den Sebastián Martín Risco-ren gutun bat, akademia hartakoa den Ramón Piñeiro López gaurko egunez gure artean izango dugula esanez; Obra Cultural Balear-eko buru den Miquel Marquès Coll-en karta bat, beren ordezkari Antoni Verge i Albertos etorriko dela esanez. Idazkariak aditzera eman du. Jaun honekin batean gure artean ditugun beste jaun batzuek ere: Institut d'Estudis Catalans-eko sekretaritzaren daraman Ramón Aramon i Serra, Omnium Cultural-eko zuzendari dan Frederic Roda eta Valencia-ko Lo Rat Penat-eko buru den Joan Segura de Lago. Era berean, Euskal Herriko beste zenbait elkarteren zuzendari edo ordezkariak, hauen artean: Institución «Príncipe de Viana»-ko euskeraren alderako sailaren buru den Jorge Cortés Izal; Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-eko Alvaro del Valle Lersundi; Iruña-ko Euskalerriaren Adiskideak-ren José Estornés Lasa; eta bestela ere euskaltzaindiko ditugunetak «Julio Urkixo» Mintegikoak eta Euskerazaleak.

«Gerediaga» elkartearen gutun bat, Durangoko euskal liburu eta diskoen feriara eman genuen laguntzagaitik eskerrak emanez eta bertako sariketaren berri zehatzak.

Eusebio Erkiaga euskaltzainaren karta, arduradunak beren izendapenetan aldatzeko orduan bere diruzaintzarekin gogoratzeko adieraziaz.

Aresti-ren karta bat, batasunari buruz Arantzazun hartu ziren erabagiak ahalik zuzenen eramateko eskatuaz, eta laister argitarako duen Meabe-ren itzulpena bere erako ortografiaren argitaratzen duelako aditzera emanez, inprimatua zegoelako dala, baina aurrerantzean Arantzazuko erabagietan jarraituko duela aginduz.

Gasteiz-ko A. Villacian jaun medikuaren karta bati erantzuna eman diola. Jaun honek jakin nahi zuen ia iñoiz itzulia izan den Testamentu Zaharra euskerara, galdetzen zuelarik Duvoisin (1859-1865), Olabide (1958), eta beste zenbait zatiren berriak eman dizkiola, Lardizabal (1855) eta Uriarte (1859), adibidez.

Euskaltzainburoak, apezpikoeri egin behar zaizkien Liturgia batuen eskaria aintzat harturik, orain arte egin danaren berri eman du zehatz-mehatz. Izan diran jokerak garbi azalduaz. Eta, apezpikoeri egin behar zaion gutunaren berradorea irakurri du.

Ondorean, Urmeneta jaunak egin ditu zenbait hitz, ongi-etorria emanez eta urre-ezteien zorionak eskeiniatz.

Idazkariak, Satrustegi, Lizundia eta bera, goizeko hamar t'erdietan artzapezpikuak hartu dituela eta naharo mintzatu direla euskeraren alde egin dezakeanari buruz eta euskera batuan Liturgia gertatu beharrari buruz. Artzapezpikuak euskerarenganako borondate ona erakutsi duela esan da, eta Eguerriak inguruan gainerako apezpikuekin biltzen denean, gogoan izango dituela gure esanak, baitere gure laguntzaren eskeintza.

Bazterretxeak dio, batasun horretan ia zenbateraino eman behar dan amor aditzetan. Zenbait iritzi eman dira gauza honi buruz, baina, Arantzazun erabagi zen bezala, aditzaren batasuna geroagorako uztea hobe dela, esan da. Baina, Bazterretxeak dio, bizkaiera hitz egiten dutenak gipuzkera egiten dutenak baino gehiago direla. Ala ere, batasunerako, Mitxelenak argi eta garbi esan zuen bezala, erdialdeko euskalkietara jo beharra dago, zeren erdialdekoak beren artean ere kidekoagoak direlako.

Larzabal-ek dio, orain dela garaia beren katiximak frantsesetik oinharriak harturik edo gurekin batean euskal giroari dagokion bat egin, denon artean.

Baztarrikak dio, kontu hau obe dela Liturgia-ren itzulpenetarako izendatuko den batzordearen esku utzi.

Berrondok dio, Zatarain-en aginduz, ia ongi derizkiogun Euskaltzaindiaren izenean Donostiako apezpiku berriari Azkueren *Cancionero Popular Vasco* eskeintzea. Ontzat hartu da.

Euskaltzainburuak, aditzera eman du, datorren igandean hasiko dela Errenderian Xenpelar urtea (Juan Franzisko Petrirena «Xenpelar» bertsolaria 1869-an hil bai zan) eta Euskaltzaindikoak komitatuak gaudela bertara joan nahi badugu.

Lafittek irakurri du txosten bat, alemanez Berlingo Walter de Gruyter et Cie editorialak ager-erazi duen hiztegi handia *Etymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache* liburuari buruz. Euskal-hitzen iturburu-iztegia, bi liburutan aterea, 1400 orrialde (25 × 18 zm.), Martin Löpelmann du bere egilea, eta Lhande zenaren hiztegia oinharri harturik egina omen du. Balio haundiko liburua euskeraren jakintzarako.

Datorren ileko billera, Baionan egitekoa zena, Lafittek aditzera ematen du urtarrilaren 12-an izango dela Baionako Euskal Museoa (Musée Basque) goizeko 11,30 orenetan.

Biltzarra ohorezko izendapenetara heldu da, eta euskaltzainburuak eman dizkie agiriak, diplomez, Euskaltzaindiak bere sorreratik laguntzaile izan dituan Juan Kurutz Ibargutxi, Odon Apraiz eta Gabriel Manterola jauneri. Ondotik, haiek bezala laguntzaile izendaturik gaur ohorezko dugun Ixaka López-Mendizabal-i euskaldun makila bat oritzapenez, eta era berean euskaltzainik zaharrena dugun (1920-an izendatua) Migel Olasagarre (Aita Damaso Intza-koa) jaunari eta bukatzeko, sorkeratik laguntzaile eta gaur euskaltzainburu dugun Manuel Lekuoana jaunari. Orduan egin ditu hitz batzuek, urre-etzaiak aintzat harturik, Euskaltzaindikoa diran zenbait izenen goresmenez, beren lanen eskergarritz, eta bereziki, ohorezko izendapena eta aipamena hartu duten hoiegandik aparte Anizeto Zugasti denbora bateko «Argia»-ren zuzendari bezala eta Fermin Irigaray «Larreko» nafar idazlea.

Satrustegik, «Larreko» nafar idazlea aipatu delarik, jakinerazten du datorren urtarrilaren (ilbeltzaren) 25-ean dala sortze urteburua Pablo Fermín Irigaray «Larreko» Euskaltzaindikoa zanarena, eta igaz Enrike Zubiri «Manezaundi»-ri bezala merezi duen ospea egingo zaiola.

Era berean, gogorazten du, Nafarroarentzat aulki bat hutsik utzi zuela Seminario Rojas-ek, eta aulki hortarako ongi legokeala Agustín Zarranz, bere ordena erlijiozkoan Aita Polikarpo Iraizoz-kotzat ezagutzen duguna eta euskal literaturan «Urtsuya» eta «Irisarri»-rekin, hainbeste euskerazko lanen egilea eta nafar euskera erroitik ezaguturik bertako aditzen azterketa zehatzak eginak dituen. Aho batez ontzat artu da Aita Iraizoz, lehendik laguntzaile zena, euskaltzain egitea.

Aita Damaso Intza-koak zenbait hitz gogoangarri esan ditu Euskaltzaindiaren lehen urte haietako berriez.

Rikardo Arregi mintzo da, zaharrerik gazteen izenean, eskerrak emanez bideak erakutsi dizkigutelako, Xenpelar-en hitzekin bukatuaz: «Jaioko dira berriak, gu gera Euskalerrriak».

Eta azkenik, Ixaka López-Mendizabal mintzo da, herbesteetako euskaltzale eta euskalariekin oroituaz eta beren alderako agurra es-

katuaz, bukatzeko, bere eta gure adiskide eta lankide genduan Menéndez Pidal-en eta bere emazte Goiri-tarraren alde hitz samurrak eskeiniatz.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1969 - I - 12

Baionan, Euskal Museoan, 1969-ko urtarrilaren 12-an, goizeko hamaikaterdietan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, euskaltzaindiko, euskaltzale eta kasualari zenbait.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Abenduko agiria ontzat hartu da.

Euskaltzainburuak agurrezko hitz batzuek egin ditu.

Buru-ordeak, bertako euskeraren egoerari buruzko hitzalditxo bat egin du.

Idazkariak, eskuarteko har-emanen berri eman du: Euskal Herriko apezpikoeri egin zaien karta. Liturgia batuaren beharra eta Euskaltzaindiaren laguntza eskeintza. Iruñean, abenduaren 4-an, arratsaldeko bileran katalan-gailegoekin erabagia elkarturik gure hizkuntzen alde lana egiteko, Frederic Roda Omnium Cultural-ekoa idazkari dala, eta berekin har-emanetarako Carlos Santamaría eta Jorge Cortés Izal («Príncipe de Viana»-koa) izendatzen dira, beren ordeko Jesús Oleaga dala. Agrupación Cultural «O Facho»-tik jaso da *Giza-Eskubidegai Guzien Aitorkizuna* (ONU) lau hizkuntzez argitaratua, gailegoz, gazteleraz, katalanez eta euskeraz. Eskerrak ematea erabagi da. Eizmendi eta Etxeberria andereñoen kartak irakurri dira, hileen eta asteen izenen batasuna eskatuaz. Omnium Cultural-en agurra, Iruñeko biltzarra hain ongi eraman zalako. California-ko Fullerton-go State College-ra Baltasar de Echave-ren berriak zelan bialdu diran bertako irakasle diran L. Boarino eta M. Feldman-ek eskatu zituztelako.

Euskaltzainburuak eman du batasunari buruz egiten ari dan lanaren berri. Berrondo jaunak elkarriketak magnetofonutik fitxe-

tara pasatuak dituela eta orain, talde baten artean hiztegia gertatzen ari dela.

Rikardo Arregik euskal alfabetatzearen berriak eman ditu Orain arte egin danaren esperientziak. Eta batzorde berri bat eskatzen du. Batzordearen buru Irigaray izendatu da, R. Arregi Idazkari. F. Setien-ek ere, egin danari buruz eta dituzten asmoeri buruz zenbait hitz egin ditu.

Villasante-k ekarri du F. Mendizabal-en karta bat bere euskal gramatika laster argitaratzeko dala eta Euskaltzaindiaren babesean atera nahi duela esanaz. Ontzat hartua izan da.

Diharce jaunak Liturgiari buruzko txosten bat irakurri du, orain arte egin duten lanaren berri emanez.

Lafitte jauna mintzo da Atlas linguistiko laneri buruz, oraino egin dena eta dituzten asmoen berri emanez.

Ondorean Dassance jauna mintzo da Euskaltzaindiaren oroitzapenak agerreraiz.

Idazkariak irakurri du Ministerio de Educación y Ciencia-tik hartu dan karta, bilinguismoa jartzea estudiatu nahi dutela eta Euskaltzaindia, euskera eta Euskal Herrian ditugun euskal-kulturaren elkargoen berriak eskatuaz. Enrique Sobejano Esteve Ministerio hortako informazio sailaren zuzendari danak. Ondorean erantzunezko karta bat irakurri du, euskera eskoletan eta behar dugula esanez. Baitare, bialduko diren berriak aipatu dira.

Idazkariak, Gaur, S. C. I.-ek bi urtean egin duen estudio lanaren berri eman du, *Informe «Gaur» sobre Primera Enseñanza en Guipúzcoa*, Diputazioak, diru-etxeak eta zenbait lantegik diruz lagundurik betea. Estudio horrekin jabetzeko mintzatu da «Gaur»-ekoekin eta 10.000 pezetako kuota ordainduaz lanarekin jabetzeko eskubideak ematen dizkigute. Gainera, lan hori argitaratzean Euskaltzaindia agertuko da laguntzaille berezien artean eta bilinguismoari dagokion partea aprobetxatu genezake Ministeriora bialdu behar ditugun informeen artean. Baitare, beren lana argitara ondorean eskubideak izango ditugu bilinguismoari dagokiona gure «Euskera»-n argitaratzea. Ontzat hartua izan da.

Iruñeko billeragaitik Urmeneta jaunari eskerrak ematea erabaki da.

S. C. R. Arrate, Eibarkoak euskal-alfabetatzeak eratu nahi ditu otsailean eta hortarako gure babesak eskatzen du. Onzat hartu da.

Baztarrika jaunaren karta bat. Gasteizko billera otsailaren 23-an, igandea, goizeko 11,30-etan izango dala. Arabako Diputazioko presidenteari idatzi zaio egun hortarako toki eskaria eginaz.

Biltzarra luze dijoalako, zenbait gauza urrengorako utzi dira.

José Luis Alvarez «Txillardegia»-ri, «Txomin Agirre» izeneko nobela saria bazkalondoan ematea erabagi da.

José Luis Lizundia izendatzen da idazkari ordezkari.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1969 - II - 23

Gasteiz-en, Arabako Museoa, 1969-ko otsailaren 23-an, goizeko hamaika t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Arrue, Erkiaga, A. Damaso Intza-koa, Irigaray, Labayen eta Villasante euskaltzainak; Akesolo, Alzola Gerediaga, Aresti, R. Arregi, Baztarrika, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Berrueta, Etxaniz, Etxenagusia, Garmendia (Jon), Gereño, Lizundia, López de Gereño, Oleaga, Oñatibia, Oregi Saizarbitoria, Santamaría, Sarasola, Zatarain, Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Odon Apraiz, Irigoyen, Satrustegi eta Olaizola jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Urtarrileko agiria ontzat hartu da.

Euskaltzainburuak adierazi du, apezpikuen bileran hartu duten erabagia, Liturgia ta kristau ikasbidea euskera batuan egitea. Eta, asmo hau betetzeko lanean ari dala hortarako izendatua dan batzordea. Apezpikuak beren borondate ona erakutsi dutela, batez ere Iruñako artzapezpikoak.

Irigoyenen karta bat irakurri da, bere ezin etorria adieraziaz eta Bizkairako euskaltzain gehiago eskatuaz. Bilera gehiegi luzatu ez dedin, urrengoan euskaltzainen artean erabakitzeak utzi da.

Joakin Olaizola-ren karta eta Bilbon ateratzen duen «Baserria» izeneko aldizkariaren zenbait ale. Aldizkari hau nekazaritzari buruzkoa da eta euskera aldetik Euskaltzaindiaren aburura utzi nahi du. Lehendik ezagutzen duten euskaltzainen iritzian oso ongi ateratzen omen da euskeraren aldetik.

Erkiaga jaunak abuztutik abendura arteko kontuen berria eman du. Bilboko diru-etxeetan: egoana, 70.111,23; gehitua, 136.714,32; hurritua, 131.030,33; dagoana, 75.795,22. Donostiako diru-etxeetan egoana, 284.499,70; gehitua, 50.165,81; hurritua, 132.292,00; dagoana, 202.373,51. Beraz orain dugun guztia, 278.168,73 *pezeta*. Ondorean, har emanen xehetasun guztiak eman ditu.

Ministerio de Educación y Ciencia-ren Gabinete Técnico-rako bildu diran agiri guztien berri eman da. Oraindik zenbait elkargoz ez dituzte bialdu beren berriak, baina haieri itxaroten egon gabe lan guztiak bialtzea erabaki da, geroago jarraipenez gainerakoak bialtzeko asmuz. Bilduak hauek dira: Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais-koaren berriak, Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi, Bilboko Euskerazaleak. Hoiez gainera Euskaltzaindiaren berriak eta lanak, eta Gipuzkoan lehen irakasketaren estudioak egiterakoan Gaur, S. C. I.-koak arkitu dituzten hizkuntzarekiko prolemak, beren estudio hortatik bereziki euskerari eta bilinguismoari buruzkoa hartuaz. Lan hauek izango dira oraingoz Ministeriora dijoaztenak.

Arantzazuko bilera lanak bizkortzeko izendatu zan batzordearen eskariz, lehenbait lehen EUSKERA-n argitaratzea komeni da lan hau. Hiztegia erdi bukatua dago baina gainerako guztia egina da, eta denbora irabazteko, lan hauek inprentan sartu behar dira. Lanok, bizkortzeko, Lizundia-ren esku uztea erabaki da inprenta lana berak eramanez, zenbakia osatzeko beharko diran gainerako lanak Iri-goyen-ek eta hortarako izendatua dan batzordeak hautatuaz.

Azkue Hiztegiaren lanak aurreratzeko orain arte egin danaren berri eman dute idazkariak eta Oregik. Lehendik lan hau aurrera eramateko izendatua dan batzordea osatzen dutenak dira: Josu Oregi, Jon Oñatibia eta Antonio Valverde eta hauetarikoren bat Mitxelena-rekin mintzatzea erabagi da. Mitxelenari bere lana gatik dagokion partea eman behar zaiola, lanik gehiena berak egin beharrezkoa izanik bidezkoa delako behar bezala ordaintzea. Hiztegi hau argitaratzeko argitaldarekin egin dezakegun tratua oinharri batzuen be-

rri eman da idazkari eta idazkari ordezekoak eratua, hortarako izendatua dan batzordeak behar diran zuzenketak eginaz geroago zabal adieraziko dana.

Lizundia idazkari-ordezkoak eman du Euskaltzaindia eraberri-tzearen asmuu. Hasteko, pentsatu da: Bulegoa bera eraberritu, bi-blioteka antolatu, artxiboa antolatu, argitalpenen inbentarioa eta sal-bentarako dauden katalogu bat, azken bi urteetako gastuak kon-tuan harturik aministazio memoria egin eta hura oinharri harturik aurtengo eskariak gertatu presupuestu jakin baten barnean, bitartean plan nagusiago bat estudiatu euskeraren azterketa sakon bat eratzeke (hemen idazkariak eta idazkari-ordezkoak darabiltzen asmuen berria urrengo bileran emango da), eta lan guzi honetan idazkari-ordezkoo-ren bete beharra zer izango dan: batzordeak koordinatzea beren lane-tan lagunduaz, probintzia batzordeen mugitzea, EUSKERA-ren lana eramatea, diru bilketa eratzea, eta abar.

«Xenpelar» izeneko bertso-paper sariketarako mahaiburua izen-datu da, eta hauek dira hautatuak: Pedro Berrondo, Jon Garmendia, eta Xabier Amuriza.

Kooperatibismoa eta arrantzaleen eragintza (El Cooperativismo y la promoción del Arrantzale) saria, 20.000 pezetakoa Mondragoi-ko Caja Laboral Popular dalakoak jarria lehenbait lehen erabakitzea eskatu da. Mahaiburuko ziran euskaltzaindiaren partetik: Fernando Artola «Bordari», Eusebio Erkiaga eta Imanol Berriatua, eta Caja Laboral Popular-en partetik: Jose Luis Iñarra, Andoni Esparza eta Felix Aldabaldetrek.

Beste gabe, bukatutzat uzten da il hontako bilera eta herriari begira egingo dan bilera irikiari eman zaio sarrera.

* * *

Mahiburuan eseri dira, euskaltzainekin batean, Pérez Etxeba-rria, Aranegi, Laskaray eta Botella Altube jaun arabarrak, Arabako Diputazioaren eta *R. S. V. de los Amigos del País*-en izenean etorri direnak. Diputazioko Kultura sailaren buru den Carlos Pérez Etxe-barria jaunak hitz batzuek esan ditu Euskaltzaindiari ongi-etorria ema-nez eta berek mugitu nahi duten Olabide izeneko elkargoaren bidez euskeraren alde zenbait on egin nahi dutela agerreraiz.

Manuel Lekuona euskaltzainburuak Araban euskerak aintzina-tik izan dituan giro eta gora-beherak adierazi ditu, San Millan de la Cogolla-ko agirietatik Olabide Biblia itzultzailea arte. Baita ere adierazi du, Odon de Apraiz jauna Arabako euskera zelakoa zenari buruz hitzalditxo bat egiteko zala, baina geixo dala, ezin etorria agertu duela.

Gabriel Aresti mintzatu da Pedro Barrutia Basagoitia (1682-1759) euskal idazle aramaioarrari buruz *Gabonetako ikuskizuna* antzerkiaren egile bezala, euskeraz ezagutzen diren teatruetarik lehenena dalarik bere eukera eta teatru teknika adierazi ditu.

A. Lino Akesolo-k beste hizaldi labur bat Jose Paulo Ulibarri Galindez (1775-1847) euskal idazle okendoarrari buruz, bere *Gutunliburua* argitaragabearen berriak, gabonkanten egile bezala eta bere egintza politikoak, karlista bezala fueroen alde egin zituen lanak eta izan zituan karguak adieraziz.

Arabaarrentzat jakingarriak izan dira bi arabar euskal idazle ezezagunen berriak. Eta honekin bakatu dira biltzarreko gora-beherak.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1969 - III - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko epailaren 28-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru orde-zko, Arrue, A. Damaso Intza-koa, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, eta Villasante jaun euskaltzainak; R. Arregi, Arto-la «Bordari», Barriola, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Garmendia (Jon), Lizundia, Oñatibia, Saizarbitoria, Santamaria, Sarasola, Zubikaray, Zugasti, Zatarain jaun andere euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Satrustegui, Baztarrika, Etxaniz, P. Mujika, Gereño, Olaizola, Oleaga eta Oregi jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Otsaileko agiria onhartu da.

Liturgiari buruz, euskera batua ahalik zabalena izango omen da, eta kristau ikasbide edo katiximan izango direla diferentziarik txiki-
kienak, ezin bestean euskalkien zenbait bereizkuntza errespetatuaz.
Hontaz, Haritschelhar jaunak irakurri du Baionako Apezpikuaren
gutun bat. Katiximaren gaia, Euskal Herriaren iparraldekoak Paristik
jasoko omen dute gaia eta hegoaldekoak Madriletik. Eta honek zai-
lagoa eginen duela elkarrenganako berdintasuna, eta nekez izango
dela dotriña bakarra.

Barriola jaunak adierazten du urrilerako, Unibersidade berri-
ko Lege-Fakultadearen zuzendariari eskatu zaiola lehen ikastaroetan
euskerazko asignatura jartzea. Eta, kontu hontaz, Euskaltzaindiari
hiru gauza eskatzen dizkio: 1) Asmu hau betetzeko laguntza; 2)
Erretoreai bixita egiteko batzordea hautatzea; 3) Hiru mailetan eus-
keraren irakaskintza nola eraman, irakurten eta hitz egiten.

Irigoyenek gogorazi du Abogadu kolejioak aspaldi egin zigun
irzultzaile eskari harekin ere balia behar ginelako oraingo hontan.

Barriola jaunaren eskaria onhartu da eta gure eskerrak agirian
agertzea erabaki da. Horrez gainera, Euskaltzaindiari, biali dizkion
euskerari buruzko berri eta agiriegatik eskerrak emanaz, eta korreo
apartetik argitara berri duen *Libro Blanco*-ren ale batzuek bialtzen
dituala asanez.

Libro blanco hortaz hitz egin da. Uste da euskeraren alderako
zerbait atera ditekela. Geienen iritzia da gauza honetan gailegoekin
eta katalanekin elkar harturik jokatzeko. Idazkariak aditzera eman du
Barcelona-ko hizkuntza herrikioen Sekretaritzaren 12 eta 13-an
biltzekotan dela eta han planteatzeko komeni dala. Gainera orain dala
aukera Sekretaritzaren hori ofizialki jartzeko.

Hauzi berari buruz Arrue mintzatu da Korteetan lege berria
batzordeetan estudiantuko dala. Galizia, Kataluña eta Euskal Herriko
prokuradoreak gai honi buruz biltzeko direla, eta izango dana egiteko
Euskaltzaindiaren agindupean jartzen dela *Libro blanco* (*Bases para
una política educativa*) liburuaren gaiak oinharritzeko asmoak direla.
Eta, berak aditzera emango dizkigu egiten dituen jestio guztiak.

Barcelona-ko Sekretaritzaren bilerara, lehenengoa danez, orde-
zari biak eta beren ordezkari izendatua den hirugarrena ere joatea era-
baki da. Beraz, lehendik izendatuak zeudenez, Carlos Santamaria, Jor-
ge Cortes Izal eta Jesús Oleaga joango dira. Han, gure aldetik plan-

teatu beharko dituzten gaiak, arestian aipatuak eta Espainiako Hizkuntzen Symposium baterako deiak estudiatzea izanen da.

Araluze, Diputazioko jaun presidente berria sartu da gelan eta bere agurra eskeini dio Euskaltzaindiari eta batzarkide guztiei euskeraren alderako lanetan laguntzeko gertu dagoela esanez.

Xabier Gereño-ren karta bat, ezin etorria agertaraziz eta Ministerioko liburu zuria-ren berri emanaz prokruadoreeri eskaria egiteko herri hizkuntzen alde.

Nestor Bazterretxearen karta bat, «Teodosio» izeneko zinema bat egiteko Erdi-Aroko jantzi, arma, ohitura, kanta, ipui eta abarren berri eskatuaz, bereziki XI eta XII-garren mendeetakoa. Idazkariaren esku utzi da erantzuna, zenbait argitasun gehitzeko M. Lekuona eta E. Goienetxeren berri emanez.

Oficina Internacional de Información y Observación del Español-ek, Madrildik karta bat Euskaltzaindiaren EUSKERA eskatuaz. Azken alea bialtzea erabaki da.

Miloslav Pluhar jaun polakoaren gutun bat Ginebratik, Euskaltzaindiaren berriak eskatuaz, eta metodu bat euskeraz ikasteko, *Euskera radiofónico*, Donostian 1961-ean argitaratua, eta *Egan, Herria* aldizkariaren zuzenbideak beretan harpidetzeko. Euskal literaturaren berriak oraintsu jakin dituela Pragan argitara berri dan Espainia eta Portugal-eko ikasleen hiztegiari esker.

Getxo (Bizkaia)-ko juzgadutik hartu da ofizio bat «Ziortza» izenaren argitasunak eskatuaz, Ziortza eta ez Zenarruza dala herrikoi jatorra izenen eboluzioan, esanaz erantzutea erabagi da.

Plazido Mujikaren karta, kopiatzeko utzi zigun Azkueren *Lat-sibi* nobela manuskritoaren eskaria eginaz. Irigoyen-ek dionez, Mikel Zarate jaunari utzi zion erderarako itzulpena egiteko, baina argitaratzailearen gogozkoa ez zalako edo hor dagoela geldi. Zarate jaunari eskatzea erabaki da.

Satrustegi jaunaren gutun bat, Unanua-ko maixuari euskeraren kontra ari zelako kartaren bat egin zitzaion galdetuaz. Hauzi hontaz Nafarroako Foruen Diputazioarekin bat harturik zerbait egitea pent-satu zanez, oraindik ezer egiteke dago.

Norbert Tauer jaunak, Pragatik, han argitara berri dan *Slovník Episoatelu - Spanelsko - Portugalsko* liburu ale bat bialdu du. Praga-ko «Odeon» argitaldaria agerrera-zia da eta Portugal, Gaztela-

niaz, Gaileguz, Kataluñeraz eta Euskerazko literaturaren kondairak dakarzki sarrera gisa eta guztietariko idazleen hiztegia nahasian. Tauer euskaltzain laguntzaile jaunari lan honegaitik zorionak eta gure eskerrik beroenak ematea erabaki da.

Griera jaunaren karta, Dr. H. Draye *Onoma* aldizkariaren zuzendariak toki-izen eta persona-izen bibliografia biltzeko korresponsala eskatzen diola 1964-1965 urteetatik hasita gerorakoa bialduko diona nahi duela esanez.

Espasa-Calpe, S. A. argitaldariagandik 3.016 pezeta jaso dira 1968-ko azken sei hilabeteetan saldu diran Azkue-ren *Euskalerriaren Yakintza* liburuegatik.

Gaur, S. C. I. dalakoaren karta bat berak egin duten *Informe sobre la Situación de la Enseñanza Primaria en Guipúzcoa* lanaren laguntzarako eman dizkiegun 10.000 pezetak hartu dituztela agerreraiz.

Erkia euskaltzain diruzainak bialdu duen kontuen argitasuna irakurri da, 1968 urtearen azkeneko egoera zehatza: Bilboko diru-etxeetan: zegoana, 69.110,17; gehitua, 136.714,32; hurritua, 131.030,33; dagoana, 74.794,16. Eta Donostiako diru-etxeetan: zegoana, 203.374, 57; gehitua, 73.197,17; hurritua, 104.730,40; dagoana, 171.841,34. Beraz, orain dugun guztia: 246.635,50 *pezeta*. Ondorean, aurretiko kontuan sartzeke gelditu ziran zertzeladarik aipagarrienen berri ematen du eta diru kontu hau zuzentzeko oharrak.

Diru kontuena luze hitz egin da, Lizundiak, Ikazkari ordezkioak, gertatuko duen administrazio memoria oinharri harturik lehendabizi Diputazioeri eskaria egitea, baina ez subentzio bezala, orain arte egin izan denez, baizik presupuestu hau asignazioa bezala izan dedila. Euskaltzaindia Diputazioen elkargoa denez Diputazioaren batek bere parte batetako ez balu hura atera Ahorro-kutxetatik eta bestelako enpresaren batetik. Diru eskariok idatzitako memoria eskuz eramana egin, eta propintziako huri nagusietako euskaltzaindikoak idazkari ordezkioarekin edo idazkariarekin joanaz. Oleaga eta Astiz Bilborako; Arrue, Lojendio, Berrondo Donostiarako; Lizundia eta San Martin oraingo, Gasteiz-erako, eta Satrustegi, Diez de Ulzurrun Iruñerako.

Idazkariak agerreraiz du Azkue-ren hilburukoa (testamentua) Euskaltzaindiaren alde egin ez dagoela garbi, zeren ez dakigula li-

burutegia eta egile eskubideena bakarrik eman zuen eta hor-hemen Azkueren zenbait lan argitaratzen ari direnez, gure baimenik gabe eta egile eskubide gabe, Registro de la Propiedad dalakoan gauzak garbi jarri beharra dagoala, zeren bestela Hiztegi nagusiarekin ere beharrezko hauziren bat edukitzeko arriskuan gaudela. Irigoyen-ek dionez, Maidaganek omen zekien honen berri, baina orain nork argitu ez degunez Registro de Ultimas Voluntades-era jo beharko dugula. Beraz, gestoriaren baten bidez gauzak agiri garbiz jartzea erabaki da.

Santamariak eman ditu Arantzazuko bilerako lanen berriak. Sei ilabete barru dana bukatua izango omen da. Hiztegi beharrezkoaren zehaztasunak adierazi ditu. Berrondok adierazi du azken lanok bukatuala Lizundiari pasatzen ari dala honek inprenta lana aurreratzeko. Eta Lizundiak adierazi du inprimatze lana aurrera dijoala eta azken zatiak hartu eta lasterrera dena bukatua izango dela. Beraz, lan hoiak, bestela jasoak diran zenbaitekin batean, osatuko dute 1968-ko EUSKERA-ren zenbakia.

Idazkariak azaldu du euskeraren estudio-social bat komeni zaiugula, zenbat euskaldun geran jakiteko, eta gainera enkuestak herriz-herri guraso euskaldunak beren semeeri erakutsi ez diotenak zergaitik izan duten jokaera hori eta iraunerazten alegintzen direnak zer errazoi arkitzen duten hortarako. Herri giroa ikusi beharra dagoela eta sakon ezaguturik egin azterkerak sendabideak arkitu ahal izateko, eta era honestako lana egitea, diru-etxeen laguntzarekin sozio-ekonomiku elkarteren bati eskeini, Euskaltzaindiak hortarako erakunderik ez duelako. Lojendiok garrantzi handia eman dio gauza honi eta komeni zaigun gauza danez hortarako bideak estudiatu beharra dagoela. Arruek dionez estudio hori komeni dala eta ez gainera Euskal Herriaren barnean bakarrik baizik mundu zabaleko euskaldunen artean, holako estadistika batek merezi duen bezala. Euskaltzainburuak dio Acción Católica-k egina duen estadistika aprobetxatu eta hari zerbait gehiago erantsi. Baina idazkariak eta Sarasolak lan hori profesionalen eskuetan uztea nahiago dute. Lizundiak agertzen du, gure babesa dala gauza bat eta gero estadistika teknikoa nork eraman beste bat. Holako gauza bat euskerarentzat beharrezkoa izatetik aparte Euskaltzaindiari itzal handia emango liokena dala esan da. Gauza honen antolakizunerako batzorde bat izendatzea pentsatu da eta jaun hauek izen-

datu dira: M. Lekuona, Santamaria, Lizundia, Sarasola, Zatarain eta San Martin.

Idazkariak gogorazi du aurten ere Madrilgo estudianteen udarako euskera ikastaroak eratu nahi dituztela Euskaltzaindiaren babesean eta bertako gauzak zehatz-mehatz azaltzeko estudianteen antolatzaileri dei egin diotela berak beren gisa adierazteko eta gure artean bilduak direla Mendiguren, González San Pedro eta Artamendi. Ondorean Mendiguren-ek eman ditu kursillo hoiek nola izango diranen zehaztasunak, estudianteen artean egin dituzten deien orria irakurri du eta gure aldetik zer laguntza behar duten agerrerazi: irakasle laguntzaileak eta diru laguntza. Diru laguntza hau, batez ere, gure babesean bereziki hortarako dirua biltzeko, ikasleen gastuak zerbait arintzeko. Irakasle laguntzailetarako alfabetatze kanpainetan ari diranen artean deia egingo da (hau R. Arregi-ren esku gelditzen da) eta diru eskarien laguntza Euskaltzaindian hortarako izendatu diren batzordekoen laguntzaz egin.

Loidi jauna eri dala entzuna duela agertu du euskaltzain-buruak eta bere berri gabe gaudela. Fernando Artola «Bordari»-ren esku da Euskaltzaindiaren izenean bisita egitea.

Villasantek *Jesukristo, Kristau federaren sustraiak* liburu berria eskeintzen dio Euskaltzaindiari Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones-en izenean. Eta eskerrak agertu zaizkio han bertan dan Jabier Aranburu argitaldari horren buru danari.

Era berean, Aita Damaso Intza-koari eskerrak berak itzulitako *Humanae Vitae* bialdu digulako.

Lege-Fakultaderako eskaria estudiantzeko batzordeko izendatzen dira Arrue, Lojendio eta Santamaria jaunak. Eta hauek jarriko dira Barriola-rekin har-emanen. Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1969 - IV - 25

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko jorrailaren 25-ean, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Diharce «Iratzeder», Irigaray, Lafitte, Larzabal, Lojendio eta

Villasante euskaltzainak, R. Arregi, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Lizundia, Oleaga, Oñatibia, Saizarbitoria, Santamaría, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute: Dassance, Eppherre, A. Damaso Intza-koa, Labayen, Arkotxa, Etxaburu, Etxaniz, Gereño eta Olaizola jaunak.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Epaileko agiria onhartu da.

Idazkariak Mitxelena egin dion gutun baten berri eman du, Azkue-Hiztegiari buruz lanean hasiko bada lehenbait lehen argitaratzeari buruzko erabagiren bat har dezagun, bera kontu horretan sarterik nahi ez duelako. Izendaturik zen batzordekoetarik bat baka-rrik zan batzarrean eta bere eta idazkaritzaren esku utzi da gauza hau azkartzea. Baita ere, Aste Santuan Mitxelena eta batzordekoekin egin zan batzarraren berri eman da.

Xabier Gereño-ren gutun bat irakurri da, Bilbaon II-gn. Euskal Astea antolatu nahi dutela Deustuko Ekonomikas Fakultadekoekin eta Euskaltzaindiaren babes eskatuaz. Onhartu da, eta babes ematen zaio X. Gereño beraren ardurapean.

«Xenpelar» izeneko bertso-papel sarirako mahai-buruko zirenak, P. Berrondo, J. Garmendia eta J. Amuritza, eman dute beren erabakia eta Kalonje jaunarentzat da lehen saria, bere onarengo Ayerbe, Salaberria eta Lete gelditzen direla.

Arkotxaren karta, ezin etorria adieraziz eta «T. Alzaga» izeneko antzerki sariketako mahai-bururako bere izena eskeiniz.

A. Damaso Intza-koaren karta bat ezin etorria adieraziz eta edozer lanetan laguntzeko gertu dagoala esanez.

Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais-ko Bizkaiko ordezkartzaren karta lehenagoko eskaria berrituaz, euskerazko izen jatorren agiri-ofizialki baten eskariz Euskaltzaindiari. Gai hontaz, Euskaltzaindiak agertu zuen, saiakera gisa, *Nomenclator euskérico de nombres de pila* izenez (hortarako izendatutako batzorde baten lana) Bilboko «La Gran Enciclopedia Vasca»-ren II-gn. tomoan, 743/754 orrialdeetan (1967), eta berriz ere esaten da ura hartu ditekela oinharri bezala.

Arrantzalearen kooperatibismu lanaren sariketari buruz E. Erkiaga eta I. Berriatua jaunen gutunak jaso dira. Biak dute iritzi berdina: Lehen saria «Egaluze»-ren lanari, bigarrena «Atxukale»-renari eta hirugarrena «Belero»-renari. Iritzi hau Mondragoiko Caja Laboral Popular-ekoei emango zaie berak beren aldetik kooperatibaren teknika aldetik juzga dezaten, aurrez erabagia egoan bezala.

Miloslav Pluhar jaunaren karta bat, biali zaizkion berriogaitik eskerrak emanaz.

Viena-tik, han udaran izango dan biltzar-nagusira inbitazioa. Bertako gaia: Toki-izen eta persona izenen estudioa.

Griera jaunaren bidez eskatu zan toki-izen eta persona izenen euskal bibliografia, 1963-tik honerakoa, egina da, Dr. H. Drave *Onoma* aldizkariaren zuzendariari Lobainara bialtzeko, toki-izenena Manuel Ruiz Urrestarazuk egina eta persona izenena idazkariak.

J. M. Etxabururen gutuna, euskal aldizkarietan euskeraren aldetik agertzen diren hutsak kontuak harturik bereziki *Zeruko Argia*-n, zuzenketak egingo dituen batzorde bat izendatzea eskatzen dio Euskaltzaindiari, eta lan horretarako Etxaniz, Garmendia (Jon) eta Zatarain-en izenak ematen ditu. Hori betetzea aldizkari beraien lana dala esan da, batez ere komertzial eran azaltzen diren aldizkarietan, eta gauza gaitza Euskaltzaindiak erabagitzeko.

Barcelonan, Herri-hizkuntzen Idazkaritza, Informazio, Dokumentazio eta Bateratzeko izendatua zena bildu da, Omnium Culturalaren Palau Dalmeses etxean, Institut d'Estudis Catalanas, Real Academia Gallega, Lo Rat Penat, Obra Cultural Balear eta Euskaltzaindiaren ordezkariak, Educación y Cienciako ordezkari bat ere berekin zala, apirilaren 12 eta 13-an. Euskaltzaindiaren izenean joan zirenak: Carlos Santamaria eta Jesús Oleaga, Aingeru Irigaray gure ordezkari eta I. «Príncipe de Viana»-ren izenean. Santamaria jaunak eman ditu bilkura haien berri zehatzak, oso onak. Laster lege berri bat datorrela herri-hizkuntzen alderako aurrerapen handia ekarriko duena. Eta, Ministerio-ko *Liburu-zuriari* enmienda bat egitea erabaki zela, bigarren partearen 20-ari, lehen lerroetan. Bilinguismo lanak aurrera eramateko, bestalde, lanerako komisió bat eratuko du Ministerioak, urtearen bukaerarako guztia gerta dezaten; komisió hortan Ministerioaren aldetik Juan Oñatibia izendatzen da eta Euskaltzaindiaren ordezkari bat sartzen da. Dozenaren bat lagun izango dira guztiz.

Euskaltzaindiaren aldetik, Santamariak proposatzen du Mitxelena bera Santamaria ordezkoko dala pentsatu da. Baina, bestera erabaki da: Santamaria ordezkari, Mitxelena tekniku laguntzaile bezala dela.

Juan Oñatibiak, bere eginkizunak zehaztasunez adierazi ditu. Izenak aukeratzen ari da. Barcelonan Ministerioaren ordezkari egon zan Serra jaunarekin konfianza osoa du. Eta aurrerantzean hilero emango ditu berriak.

Herri-hizkuntzen Symposium-ari buruz, Santamariak esan du, Cortes Izal joan ez zenez, zihurki erabagitzeke gelditu zela. Irigaray mintzatu da, Cortes Izal-ekin egona dela eta Symposium hori gertatzeko lanean ari dela.

Omnium Cultural-ari eskerrak ematea erabaki da, gure ordezkariari Barcelona-n egin dioten ongi-etorriagatik.

EUSKERA aldizkariaren gora-beherak aztertu dira. Arantzazuko bilerako lanak denak inprimerian sartuak dira, baina oraindik hiztegi labur beharrezkoaren azken zatia bukatzea falta da. Zuzendaria etorri ez denez, imprimatze lanaren berririk ez da eta datorren batzarrerako kartaz esplikazioa eskatzea pentsatu da. Euskaltzainburuak agiriak argitaratzea eskatzen du eta ontzat hartu da.

Idazkariak Madril-go estudianteen berri eman du, udarako euskera ikastaroei buruz. Haiek, beren aldetik, gurekiko har-emanetarako Manuel Ruiz Urrestarazu Mendi Ingenieroa izendatzen dute. Ikastaro hoietan euskal kulturaren hitzaldiak antola nahi dituzte eta hortarako dei egiten zaie zenbait Euskaltzaindikori laguntza eske.

Lizundia idazkari-ordezkoak diru eskarien berri eman du, eta, hortarako, Euskaltzaindiaren sorreratiko diru-iturrien berri ere eman du. Adibidez, Diputazioak, 1922-an: Bizkaikoak, 15.000, Gipuzkoakoak, 5.000; Nafarroakoak, 3.000; Eusko Ikaskuntzak, 3.000 peze-ta; Bilboko Udaletxeak, 2.500; Donostiakoak, 1.000; 1928-an: Biz-ta; Bilboko Udaletxeak, 2.500; Donostiakoak, 1.000; Nafarroakoak, 2.000; Bilboko Udaletxeak, 2.500; Donostiakoak, 1.000; Eusko Ikaskuntzak, 3.000; Gipuzkoako Aurrezki kutxak, 1.000; Bilbokoak, 1.000; Bizkaikoak, 1.000. 1935-ean: Bizkaiko Diputazioak, 5.000; Gipuzkoakoak, 10.000; Nafarroakoak, 2.000; Bilbaoko Udaletxeak, 2.500; Donostiakoak, 1.000; Eusko Ikaskuntzak, 3.000; Gipuzkoako Aurrezki kutxak, 1.000; Bilbokoak, 1.000; Bizkaikoak, 1.000. Adibide hauek 1922, 1928 eta 1935-koak izanarren, urtez-urte hasi

1920-tik eta 1936-ra antzerakoak dira. Gerla ondorengo lehen urteetan, batzuek kendu zuten beren emaitza eta bestiak berdintsu jarrai. Igazko urtean, 1968-an, Nafarroako Diputazioak, 10.000; Bizkaikoak, 25.000 (beste 50.000 Azkue-Hiztegia aurrera eramateko); Junta de Cultura de Vizcaya-k, 10.000; Gipuzkoako Diputazioak, 5.000; Bilboko Aurrezki kutxak, 5.000; Bizkaiko Aurrezki kutxak («Txomin Agirre» nobela sarirako), 10.000; Gipuzkoako Aurrezki kutxak («Xenpelar» bertso-paper eta «Lizardi» poesia sarirako), 10.000 pezeta. Beraz, lehenagoko proportzioak eta Euskaltzaindiaren gaurko beharrak kontuan harturik, 500.000 pezetako inguruko presupuestoa urtean, eskariak berrituko zaizkie lau Diputazioei eta hoiek beharra ez betetzera gainerako beste eskari batzuek egin.

«Toribio Alzaga» izeneko antzerki sarirako mahai burua izen-datu da: Arkotxa, Beobide, Labayen eta Larzabal jaunak beteko dute. Sariketa hau bi urterik beinean izaten da, «Txomin Agirre» nobela sariarekin txandaka, eta aurten, Euskaltzaindiaren urre-ezteiak aintzat harturik, ohiko sariketaz gainera beste bat egingo da: Haurrentzako antzerkien sariketa, izen berarekin eta 10.000 pezetakoa hau ere. Antzerki hontarako oinharriak gertatzea bere gain hartzen du Iñaki Beobidek, eta datorren bilerarako ekarriko ditu.

Idazkari eta idazkari-ordezkoak Arabako euskaltzainkideen go-goagertu dute, hau ere. Gipuzkoan bezala, Euskaltzaindiaren ordezkaritza bat antolatzea, elkartearen lanak eta euskeraren alderakoak bizkortzeko. Arabako Diputazioari toki eske idaztea erabaki da.

Arruek adirerazi du, Ministeriora bilinguismoaren anteproyektoa gertatzen ari dala eta laster Korteetara bialia izango dala. Itxuraz, asmo onak direla herri-hizkuntzen alde. Espero du lege on bat izango dala.

Idazkariak, *Liburu zuria*-ri buruz Ministeriora egin dan adierazpena irakurri du. Era berean, «Euskerazaleak»-en izenean egin duena irakurri du Jesús Oleaga jaunak.

Julia Berrojalbiz andereñoak, ikastoletako gurasoen batzarrak Euskaltzaindiaren etxean egiteko baimena eskatzen du. Bere jabetasunaren-pean egitea ontzat hartu da.

«Lizardi» sariaren berri eskatu da. 1967-koa hutsik, desierto, gelditu zan, eta 1968-kora ez da agertu lanik. Bada-epzada zihur aztertzea erabaki da.

Lizundiak, hilen izenen batasuna egitea eskatzen du, eta ahal bada Arantzazuko erabagiekin batean agertu. Bere eta Villasanteren esku uzten da.

Asteko egunen batasuna ere komeni dala esan da, baina ezta erabaki zehatzik hartu.

Haritschelhar-ek gogorazi du Lafon jaunari ebakuntza egin diotela eta ondo arkitzen dela.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1969 - V - 30

Donostia, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko maiatzaren 30-ean, goizeko hamarrek eta erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Irigaray, Labayen eta Larzabal euskaltzainak, Aresti, Beobide, Etxaniz, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Lizundia, Oñatibia, Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute: Barandiaran, Dassance, Eppherre, Erkiaga, Irigoyen, Lafitte, Mitxelena, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzainak.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Euskaltzain buruak Bingen Ametzaga euskaltzain laguntzailearen hilberria eman du.

Jorraileko agiria ontzat hartu da.

Udaran estudiantek egingo dituzten euskera-ikastaroetan hitzaldiak emateko egin zan deiarri erantzunez: M. Lekuona, A. Arrue, J. M. Barandiaran, Satrustegi, Zabala, Arregi, Beobide eta Lizundia-ren erantzunak hartu dira gutunez eta ahoz hitzaldiak eskeiniz.

Ministerio de Educación y Ciencia-ko gutuna, Euskaltzaindiaren ordezkari bat eskatuaz herri hizkuntzeri eskoletara sarrera emateko estudioa egingo duen batzorderako. Jorraileko biltzarrean erabakia zanez, Santamaria izango da Euskaltzaindiaren ordezkari, Mitxelena tekniku laguntzaile duela. Eta izen hauek emanez erantzungo zaio.

Ondorean Oñatibiak eman du egiten ari denaren berri. Batzorderako lankideak, gehienak, hautatuak ditu; 15-en bat guztiz. Bihar, Zumarragan Serra Estruc jaunarekin biltzekoak omen dira. Bilera honetara joango diran lankideak, Bizkaitik «Euskerazaleak»-koak, Nafarroatik «Principe de Viana»-koak, Arabatik Pertika jauna, eta Gipuzkoatik Mitxelena eta P. Altuna.

Euskaltzain buruak galdetzen du, zer eskatu behar zaien.

F. Setienen iritziz, geron formuletara egin bilinguismoa, zeren ezin bai dugu katalanak bezala egin.

Idazkariak dio *Unesco*-k 1954-an gazteleraz argitara zituen normak eta hemen ikastoletatik jaso diren esperientziak izan behar dutela oinharri.

Mondragoiko *Caja Laboral Popular*-etik gutun bat hartu da, esanez, Kooperatibismua eta Arrantzaleen Eragintza sariaren azken erabakia gure esku uzten dutela. Baiña, beren eskuetan agertzen dela lan bat Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkarietatik hartua, sariketa hortatik kanpora gelditu dena. Beraz, gure arteko uste gabeko huts bat izan da. Lanaren egilearen izen ordea «Bits» da. Mahain-buruko diren Erkiaga, A. Berriatua eta Artolaren esku uztea pentsatu da, lehenbait lehen «Egaluze» renakin konparatuaz, bien artean erabakia hartzeko.

Arkotxaren gutuna, esanez, Kooperatibismua eta Arrantzaleen Eragintza mahain-buruko baten iritzia falta direla sariaren erabakia hartzea ez derizkiola ondo. Baiña, esan da, mahain-buruko hirugarrenak zeharo besterako iritzia eman bazuen ere, botuz, «Egaluze» ize-nekoarentzat izango zala. Beraz, horrek gauzak aldatzen ez dituelarik, lehenean gelditzen da. Hobeto esan, «Egaluze» eta «Bits»-en artean erabagitzekotan. Beraz, azken hitza mahain-burukoak dute.

Lobainatik *Onoma* aldizkariaren zuzendari dan H. Draye jaunaren gutun bat, bialdu zaizkion toki-izen eta persona-izen bibliografia zerrendagatik eskerrak emanez eta *Onoma*-ren zenbaki bat bialduaz.

Argentinako Cuyo-ko Universidadetik gutun bat, Linguistika institutoko buru dan Barbón jaunak, *EUSKERA*-ren X-XI eta XII-garren tomoak bialdu dizkiogulako eskerrak emanaz.

X. Gereño euskaltzain laguntzailearen gutun bat, Bilbaon egiteko ziren Bigarren Euskal-Kulturaren Astea oraingoz uztea erabagi dutela une hoietako giro larria kontuan harturik.

Banco de Bilbao-ko zuzendariaren agurra, «Emakumea ta Banco de Bilbao» izenez euskeraz atera duten liburuxka apain bat bialduaz.

Getxo-ko juzgaduko ofizioa «Asier» izenari buruz zenbait zehaztasun eskatuaz. Euskaltzaindiak *La Gran Enciclopedia Vasca*-ren II-gn. tomoan (1967) argitara zuen *Nomenclator euskérico de nombres de pila* dalakoan 745-garren orrialdean agertzen dala izen hau, eta XIX-garren mendean Navarro Villosladak erabili zuela *Amaya* nobelan personaje baten izenez. Gainera, euskal izentzat zer hartzen dugun galdetzen du: jatorriz hizkuntzan sustraituak, Andra-Mariak agertzen diren tokienak, ala J. A. Chao, S. Arana eta beste batzuek asmatuak. Errotu diren guztiak hartzen direla ontzat esanda, Iratxe-ko diplomatiku kolezioetatik eta Iruñeko *Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalem* (aintzinagoko hilobietan agertzen direnak utzi gabe) dokumentuetatik hasi eta gaur arteraino.

Unibersidadeko Lege-ikasgoari euskeraren aldeko zerbait eskatzeko Euskaltzaindiko lege-gizoneri deia egitea erabagi da, beren aldetik proposamendua gertatzeko.

Arruek, izenez, lege-ikasgoa proposatzen du, eta Patronato orde z Buruzagi batzordea.

Irigoyen-en gutuna, *EUSKERA* XIII-gn. tomoaren berriak emanez. Donostiatik eramandako lanez gainera, Berriotxo, Lekuona, Satrustegi, Txillardegi, A. Intza-koa, López Mendizabal, Garate, eta zenbait gai labur, aurreko urte bietako agiriak, hilen berriak eta abar.

Gero, diru eskarieri buruz jardun da. Donostiako Diputazioari egina da, Arrue, Lojendio eta Lizundia mintza ziren presidente jaunarekin, eskari gutuna eskuz emanaz. Arabako Diputazioko presidenteari, era berean, Arrue, Lizundia eta idazkariak, ondorean, hiru jaunarekin, Diputaziotik edo hemendik Euskaltzaindiaren Arabako jaunarekin, Diputaziotik edo hemendik Euskaltzaindiaren arabako ordezkaritzarako bulego-tokiaren eskariz. Bilboko Diputaziora laister joatekotan dira Merino Urrutia, Astiz eta Oleaga. Esperantza onak jaso dira goraka dijoan presupuestoari eutsi ahal izateko.

Iruñeko Herri hizkuntzen *Symposium*-ari buruzko berririk ez dago, lehenago esan zenez gainera. Irigaray gelditu da Cortes Izal-ekin mintzatzekotan.

«Toribio Alzaga» antzerki sarirako araudia ekarri du Beobidek. 7-tik 14 urterakoentzat eta 14-tik 16 rakoentzat. Nagusiagoen maila hartzen da oraingoz.

Azkue Hiztegiari buruz, idazkariak eman du hilburukoaren berri, eta gauzak zuzentzeko eman diran bideena. Ondorean, Barcelona-ko Timun Mas, S. A. Argitaldaria egin duen eskeintzaren berri, hau da: a) Egile eskubidean ehunetik 15 ekoa gutxienez; b) Argitaraldia, 5.000 alekoa gutxienez; d) Argitalpenetik, 3.000 aleren eskubide neurria urte beteren buruan ordaindu beharra; e) Hiztegia bizkortzeko lana egingo duen ekipoari dirua aurreratu. Baldintza hauek ondo ikusi dira, eta beheko neurritzat harturik, Euskal Herriko argitaldarkeri, eta horrelako lanetan ari diren kanpokoei dei egitea erabaki da, erantzuna ilabeteren buruan mugatuaz. Gero, egile eskubidez hitz egin da, eta hirutik bikoia Mitxelenarentzat erabagi da, eta batekoa Euskaltzaindiarentzat, baldin proposamendu hau Mitxelenak ontzat hartzen badu. Bestela, batzorde bat izendatuko da berakin erabakitzeko.

Euskeraren estudio-soziala egiteko oinharriak gertatzeko izendatu zan batzordearen txostena irakurri da. Gure hizkuntzaren egoera ezagutzeko hain beharrezkoa zaigunez, jarri diran erabaki oinharriok «Gaur» eta «Siadeco», era horretako estudioak egitera ohituak dauden elkargoeri eskaintzea erabaki da, ahal baldin badute biek elkartasunean egiteko.

Datorren ileko bilera Bilbon egitea erabaki da, Diputazioaren etxean.

Garmendiak, berriz ere, Elizondon ileko biltzarren bat egitea eskatzen du.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1969 - VII - 10

Bilbao, Bizkaiko Diputazioan, 1969-ko uztailaren 10-ean, goizeko hamarrak eta erdietan.

Biltzar aurretik, Fernando de Ybarra Diputazioko presidente jaunak hartu zituen Euskaltzaindiaren zuzendaritzakoak, bere agurra eta ongi-etorria eskeiniz.

Ohi dan otoitzarekin hasi zan biltzarra.

Maietzeko agiria onhartu zan.

Gasteiz-ko Udaletxeari eta *Caja de Ahorros Municipal*-ari eskerrak ematea erabaki da, Gasteizen Euskaltzaindiaren urre-eztei oroz egin zan bilera bereziari laguntzeko eman zuten diru laguntzagatik.

Euskaltzain buruak aditzera eman du, Donostian, datorren ilean, parbulista tituloak lortzeko kursilloak izango direla *Ministerio de Educación y Ciencia*-k antolaturik, eta ikastoletako andereño laguntzaileak izango dutela bertan parte hartzeko aukera. Gai berari buruz, Oñatibia jaunak eman ditu zenbait zehaztasun. Eta, baitere, Gipuzkoako gobernadoreak agertu duen agiriak zionari buruz ere, izan diren galderen erantzunez. Badirudi, agiri horrek, igazko urtean lehen-mailako ikastaroei bezela, orain parbuluei eragozpenak jarri nahi dizkiola. Idazkariak dio, irakaskintza legeak ondo aztertu, estudiatu eta aurrera bidean laguntza arkitu behar dala. Hortarako ikastolak beren aldetik batzorde berezi bat muntatu behar dutela, eta haiek esan guk zertan lagundu genezakean, gure arazoa baino eurena gehiago danez.

Bizkaiko Diputazioaren presidenteari batzarkideen eskerrak ematea erabagi da.

Diru eskariak: Diputazioez gainera, Aurrezki Kutxeri eskariak egin zaizkie.

Bilboko diru-etxeetan izan dan diru hurritzeagatik, Donostiatik zerbait pasatzea erabaki da.

Azkue-Hiztegia argitaratzeko, Argitaldariei eskeintzak egiteko baldintzak zabalduak dira, hil honetan bukatzen da epea eta datorren biltzarrean nahi litzake azken erabakia hartu, ia nork argitarako duen.

Euskaltzaindiaren literatura sariketak: Aurtengo sariak, «Toribio Alzaga» antzerki saria, bi urterik behin ohi dan bezala; «Toribio Alzaga» antzerki saria, haurrentzako gertatua, nagusiak erre-

presentatuaz; «Lizardi» poesia saria, urtero bezala; eta «Xenpelar» bertso-paper saria (aldizkarietan argitaratuak ere ontzat hartzen dira). Lehenengoaren dirua Bizkaiko Ahorro Kaxak jartzen du eta haurrentzako antzerki bereziarena Euskaltzaindiak berak. Beste biena Gipuzkoako Ahorro Kaxak.

Arantzazuko biltzarretako lanak, guztiak inprentara eramanez daude. Laster argitaratzeko dira.

Unibersitarioentzat udarako euskerazko ikastaroak, Markiñan eta Urretxuan gaur arratsaldean hasiko dira. Nafarroako Leitzan egitekoak zirenak hango gobernadoreak debekatu ditu.

Aristrain patronatoari euskal Katedra bat egiteko laguntza eskaria egin behar litzakeala esan da.

Mundaiz-en, Altuna jaunak, Romanikas-en bi urte euskeraz jartzeko asmoa duela esan da.

Euskaltzainburuak Jose Olaizola laguntzailearen hil-berria eman du. Berari buruzko idazki labur bat *EUSKERA* aldizkarirako egitea N. Etxaniz-en esku gelditu da.

Fulgencio Coll de San Simón Bizkaiko gobernadore jaunaren agurra irakurri da.

I. Satrustegi Aznar, *Instituto Vascongado de Cultura Hispánica*-ren buru danaren agurra. Irakurri da.

Zatarain jaunak «Arantzatzu -ko eskribikerari buruz eskari bat» izeneko txosten bat irakurri zuen. Bertan aztertzen dituen bi puntuen ondorena honela bukatzen zuen: «Euskaltzaindiak euskera batua jakite ta ikasketarako nahi badu ere, oraindik ez zutela erabaki euskera hori nolakoa izango dan, ez ta nola eskribitu beharko dugun ere. Euskaltzaindiak ez zutela euskalkiak eskribitzeko modu berririk sortu, ta ez zutela sortzeko asmorik ere.»

Idazkariak erantzun dio esanez: Arantzazuko bileran amaieran agiri bat aurreratu zuela Euskaltzaindiak, esanez: euskera idatziaz han mintza zana, Euskaltzaindiak inor ezin zuela behartu baina bai errekomendatu, eta errekomendatzeak zer ziren aski argi gelditu zirela agiri hartan, ortografia batasuna eta erdiko euskalkietarutz joaz oraingoz. Han era batera eta bestera esan ziranen gainera, argi eta garbi gelditu zela Euskaltzaindiak oraingoz, batasunerako zer

eskatzen zuen, eta ezeri zuzenketarik edo oharrik egitera, agiri hari buruz finkatua izan behar zuela. Agiri hori, iraileko batzarraren agiriakin batera zabaldu zan Euskaltzaindikoeri.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1969 - VIII - 8

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko dakonilaren 8-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Irigoyen, Lojendio, Mitxelena, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzainak; Artola, Beobide, Berrondo, Etxaniz, Garmendia (Jon), Lizundia, Oleaga eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Uztaileko biltzar-agiria onhartu da. Zatarain jaunak «Arantzazu-ko eskribikerari buruz eskari bat» izeneko txostenari buruz argitasun batzuek eman ahal dituanaren galdea egiten du, baina euskaltzainburu jaunaren iritziz, oraingoz uztea hobe dala zeren hain iritzi desberdinak ditugularik hauziak sortzeko besterik ez litzakealako.

Rikardo Arregi euskaltzain laguntzailearen hil-berria eman da. Elkargo honen zerbitzuan eman zituen bere urterik helduenak eta gainera uztaileko biltzarraren deiari erantzunez zijoala bidean hil zen. Aho batez erabaki zen bere guraso eta senideei idazkiz gure doluminik sentikorrenak eskeintzea.

Idazkariak aditzera eman du estudianteen euskera ikastaroan. Nafarroan eta Bizkaian debekatuak izan dirala eta Gipuzkoakoak jarraitzen dutela Arruek egin dituen jestioeri esker.

P. Mujikak Loiolatik bialdu du oharra. Azkue zanaren *Latsibi* nobela argitaragabearen eskutidazkia ahal dugunean igortzeko gogoraziaz. Derion apaiz dan Zarate-ren eskuetan dala esan da eta Lizundia gelditu da berari eskatzekotan.

«Patronato Aristrain»-en araudietan Cultura eta Literatura aipatzen diranez, bide hortatiko eskarietan sartzera ahalegintzea proposatzen du Berrondok. Eta hortarako ahozko jestio bat egina da Franzisko Mitxelenaren bidez. Ahal izatera, programa bat egin be-

harra izango da, eskaria egiteko. Zatarainek gogorazten du lehenago berak proposatutako «Altube» izeneko Zientzia saria programa horren barnean sartzea.

Santamariaren txartel bat, bere ogibidezko arazoegatik ezin etorria adieraziz.

«Auspoa» Liburutegiaren gutuna urteroko harpidetza gogoaraziz.

Bilboko «Euskerazaleak»-ren gutuna R. Arregi-ren heriotzagatik beren naigabea agertuaz.

«Caja de Ahorros Vizcaina»-ren gutuna, uztailleko bilera gastuetarako egin genion diru eskariaren erantzunez, 5.000 pezeta jartzen ditu hortarako etxe berean guk dugun kontuan.

«Caja Laboral Popular»-ekoei ongi deritzaie «Kooperatibismoa eta arrantzaleen eragintza», 20.000 pezetako saria, agorrean Euskaltzaindiak izango duen biltzar nagusian ematea. Sari bakar hori, mahiburukoak erabaki dutenez, «Egaluze» izenordezkoari emango zaio, Bere izena: Antonio Pérez Bilbao bermeoarra.

Satrustegik aditzera eman du Oñatibiaren etorri ezina, parbulisten kursilloekin ari dalako.

Hiztegi *moderno*a. Santamariaren iritziz 5.000 hitz beharrezkoak dira gaurko jakintzakoak, daudenak aztertuz eta berriak eratuaz hornituko litzake hiztegi bateratu hau. Lana aurrera eraman ahal izateko hauek izendatzen dira batzordeko: L. Mitxelena, Santamaria, Zatarain, F. Setien, I. Sarasola, Akesolo eta Torrealday.

Azkue-Mitxelena Hiztegia. Azkue-rena oinharri harturik Mitxelena egiten ari dan hiztegiuz luze mintzatu da. *Financiera Comercial del Libro* eta *la Gran Enciclopedia Vasca*-ren eskeintzak izan dira. Lehenengoak puntu zehatzak jartzen dituelarik eta bigarrenak ez hain zehatzak baina inork baino gehiago emateko gertu dagoela adieraziz. Batzuek, bien artean konkursoa irikitzearen alde daude, eta besteak gainerako luzapenik gabe bertanbehera erabagitzearen aldekoak. Behin eta berriz irakurri dira bien eskeintzak eta ezkenean botoetara jotea erabaki da. Zortzi euskaltzainen artean horrela erabaki da: 5-ek ez luzatzea, 2-k luzatzea eta batek huts. Beraz, *Financiera Comercial del Libro* (Timun Mas, S. A.) dalakoarekin kontratua lotzea erabaki da. Eta batzordeko izendatzen dira M. Lekuo-

na, Lojendio, Valverde, Oregi eta Oñatibia. Liburuaren izenburua: *Diccionario Vasco, por encargo de la Academia de la Lengua Vasca.*

Uztaileko biltzarragatik, Bizkaiko Diputazioari eta Juan Ramón Urkijo jaunari eskerrak ematea erabaki da.

Euskeraren egoera estudioa egiteko Gaur, S.C.I. eta Siadeco, S.C.I.-eri egin zitzairen eskeintzaren erantzunak hartu dira. Proposamendua egiteko izendatu ziren batzordekoen eskuetan uzten da estudiatzeko. Hauek ziran: M. Lekuona, Lizundia, Santamaria, Sarasola, Zatarain eta San Martín. Gero, beren iritziaren berri Euskaltzaindiko bileraan emateko.

«Alfabetatze kanpaina»-ren zuzendaritzako zen R. Arregi (g. b.) falta dalarik, zuzendaritzaren berritze proposamendua egin da: Zuzendari, lehen bezala, A. Irigaray jauna, eta Rikardo zanaren ordezkoko Lizundia eta Begoña Arregi. Ontzat hartu da.

Diru eskaria egiteko audientzia eskatua da Iruñeko Diputazioan. Era berean, «Symposium»-na egitea tratatu nahi da. Erantzunan zain gelditzen gera. Gainerako Diputazioetan egin diran eskarien erantzunik ere ezta jaso.

Satrustegik aditzera ematen du, «Symposium»-a egitera ezkerro, Iruñetik kanpora, Nafarroako herriren batean egitea erabaki zela «Principe de Viana»-ko biltzar batean.

Iraileko biltzar berezia, Donostian bertan, 21-ean izango da urre-ezteieri bukaera emanez, hain zuzen, egun horretan betetzen bai dira Euskaltzaindiaren lehendabiziko biltzarra egin zanaren berrogetamar urteak. Euskal Herriko beste urietan bezala, hemen ere, hilerokoaren ondorean bigarrenkoa izango da, irikia, herriari begira. Lau hitzaldi labur hautatu dira gipuzkoar lehen euskaltzaineri buruz: L. Eleizalde-ren lanari buruzkoa L. Mitxelena; R. Intzagaray-ri buruz A. Zugastik; S. Altube-ren lanari buruz L. Villasantek eta K. Etxegaray-ri buruz J. Artetxek.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1969 - IX - 21

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko irailaren 21-ean, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, A. Intza buru-ordezko, Arrue, Erkiaga, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Lojendio, Mitxelena eta Villasante euskaltzainak; Altuna, Alzola (A. Berriotxo), Akesolo, Andiazabal, Aresti, Arkotxa, Artetxe, Barriola, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, Etxenagusia, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Izeta, Lizundia, Oleaga, Oñatibia, Rudolf de Rijk, Sazarbitoria, Sarasola, Valverde, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Euskaltzainburuak Juan Kruz Ibargutxi euskaltzain-ohorezkoaren hil-berria eman du.

Dagonileko agiria onhartu da. Bilboko Caja de Ahorros Municipal-ak hiri hartan egin zan bilera berezira eman zuen diru laguntza jartzea ahaztu zala aditzera eman da.

R. Arregi zanaren gurasoen karta irakurri da, guk agertutako dolumineri eskerrak emanez.

Guillermo Larrañagaren karta, *Nekazaritza* izenezko original bat bialduaz. Oraingoz, ikasgo sailean dauden lanetan uzten da, eta Larrañaga jaunari eskerrak ematea erabaki da.

F. Mendizabal laguntzaileak euskerazko gramatika bialdu du A. Villasante-ren bidez. Gure esker ona eta zorionak agertzea erabaki da.

Satrustegi euskaltzainaren karta, bere ezin etorria agertuaz, eta, aditzera emanez, «Institución Príncipe de Viana»-ko azken bileran, Nafarroan herri hizkuntzen Symposium egitea ontzat hartu dala eta nun eta noiz egin ditekean galdetuaz. Pozik entzun da, eta «Príncipe de Viana»-koak bereri derizkien tokia hautatzea eta neguan (abenduko hilean) edo bestela udaberrian egitea esan da. Puntu hau nafar elkargo horrekin batean erabagi beharrezkoa dala.

Getxoko, Juzgaduko ofizioa «Eleder» izenaren argitasunak eskatuaz. Eleder», Orixe-ren *Euskaldunak* poeman agertzen dala eta bere esan nahia, euskeraren euskalkietan, oso desberdina agertzen dela.

Espasa-Calpe, S. A. argitaldariaren karta eta jiroa, aurtengo lehen sei hilabeteko kontuak bialduz Azkue zanaren *Euskalerriaren Yakintza* lana gatik Euskaltzaindiak bere duen egile eskubidea or-

dainduaz, guztira: 2.330,40 pezeta. Ordainketa hau hartu dugula agertuaz eskerrak emanez erantzutea erabagi da.

Siadeco, S. C. I. eta Gaur, S. C. I.-ri, eskatu zaizkien euskeraren estudioa egiteko eskeintzak hartu dira. Lehenengoak, bere lana Gipuzkoan soilki mugatzen du eta bigarrenak Euskal Herri osoan eta gainera beren esku hartzen dute lan hori aurrera eramateko diru biltzeak. Hortarako izendatu zan batzordearen esku uzten da, Euskaltzaindiko lege-gizon eta Gaur, S. C. I.-ekoekin bilera bat egiteko aurrez-aurre estudioaren asmoa gehiago sakontzeko, geroago kontratu baten bidez lotu ahal izateko.

E. Erkiaga diruzainak urtariletik agorrilerako kontuen berri eman du. Zehetasunen ondorean adierazten du, Bilboko diru-etxe-etan: zegoana, 74.794,16; gehitua, 92.323,76; urritua, 146.293,61; dagoana, 20.824,31. Donostiako diru-etxeetan (uztailera arte): zegoana, 171.841,34; gehitua, 75.247,90; urritua, 125.083,00; dagoana, 122.006,24. Beraz, gelditzen zaiguna, guztiz: 142.830,55 pezeta.

Azkue-Mitxelena *Hiztegia*, Financiera Comercial del Libro-rekin kontratu bidez zelan lotua gelditu dan aditzera eman da. Hiztegirako izendatua zen lehengo batzorde beraren esku uzten da egile eskubideak Mitxelena-rekin har emanean erabakitzeko.

Azkuen *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegi zaharra berri argitaratuko dala esanez, propaganda eginaz *Anaitasuna* aldizkariak bere azken zenbakian anunziatzen duela esan da. Idazkariak aditzera eman du, Oleaga jaunak egin dituen gestioeri esker, Azkue zanaren hilburukoa lotu ahal izan dala Euskaltzaindiaren alderako, eta nahasterik sortu ezdedin, Sociedad General de Autores-en erregratu beharra dagoela, eta Oleaga-ren aburuz, gai hortan espezialista den lege-gizon baten eskuetan uztea da hoberena. Ontzat hartu da eta lehenbait-lehen, gauzak bizkortzeko, Oleaga berak eta idazkariak edo idazkari-ordezkoak Madrilera ostera bat egitea dala onena Sociedad General de Autores-ko buruakin mintzatzer a gure jabetasun hori bideratzeko. Eta, *Anaitasuna* aldizkarira Euskaltzaindiaren ohar ofiziala bialtzea erabaki da, Azkue zanaren lan guzien eskubidea berea duela agertuaz.

Diru eskarieri buruz mintzatu da. Lau Diputazioeri eskariak eginak daude eta beretariko batzuei ahoz berriro gogorazia. Gai

berari buruz, Labayen euskaltzainak irakurri du «Diru-biltzea nola ugaritu» izenezko txostena. Biltze hoiek, Barcelona-ko Omnium Cultural oinharri harturik gertatuak dira, batez ere partikularren artean eskari zabalkundea antolatzeko. Idazkariak dio, asmu hori oso ondo dagoela geroagoko baterako, batez ere gure diruzko beharra Diputazioak betetzen ez badute. Kontu izateko Omnium Cultural delakoa, Barcelona-ko udaletxearen babesa izanarren, elkargo partikularra dala, baina Euskaltzaindia Lau Diputazioen Institutuzioa danez aurren-aurren Diputazioetatik behar duena jasotzera ahalegindu behar dala, Diputazioen bete beharra dalako, eta hauek beteko ez badute, Euskaltzaindiak, bere beharra herriari begira agirian jarri-behar duela, lehenagoko denboretan zer diru-laguntza zuen eta gaur zer duen esanez, eta orduan hasi partikularren arteko kanpaina.

Ondorean, idazkariak, aministrazio batzorde bat izendatzea eskatzen du, diruzko prolema guzien estudio osatua egiteko, gauza asko ta-asiko diru faltaz egin ezinik gelditzen direlako. Eta, datorren batzarrerako komeni da zenbait izen hautatzea diru-planifikazioa antolatuko dutenena.

Villasante jaunak hilen izenen enkuesta ondorean datozen iritzien berri eman du, zenbait hile bi edo hiru eratar. Eta batasun osatura heltzeko hautamenak bere esku uzten dira.

Estornés eta Lasa'tar Joseba jaunaren karta eta gramatika hiztegiaren berri eman da. *Hiztegi modernoaren* saiakera gertatzen ari dan batzordeari ematea erabaki da, eta bereziki Altuna, Oñatibia, F. Mendizabal, Lafitte eta Oñatibia-rena, azken honen ardurapean utziaz beren arteko biltzar deiak edo zabalkundeak egitea.

«Zeruko Argia» aldizkariaren zuzendaritzari beren argitalpenari zuzentzailea jartzearen eskaria egitea erabaki da, euskeraren aldetik ekartzen dituan hutsak zuzendu ahal izateko. Eskari bera egina bait dute Alfabetatze taldekoak.

Barriola jaunak gogoratzen du ia zertan den Euskaltzaindiaren egoera Lege-fakultadeari egitekoan zena. Idazkariak dio, epaileko agirian jartzen zan bezala, gauza hori Euskaltzaindiko lege-gizonen eskuetan utzi zala. Arrue jaunak dionez, euskerazko lege-hiztegia behintzat egiteko bideetan egoala. Barriola jaunaren partetik, hori ezta aski, eta eskari nagusiago bat egin behar litzake, euskeraren alderako;

eta hortarako arduradun diranen artean bilera egin eta datorren biltzarrerako proposamendua gertaturik ekarri.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

Biltzar agiria

Diputazio berean, eguerdiko hamabi t'erdietan, egun berean berro-getahamar urte betetzen direlarik Euskaltzaindiaren lehen bilerarenak, urre-etzaiak aintzat harturik egiten da herriari begira bilera irikia.

Diputazioko buru dan Juan María Araluze, Donostiako alkate don Felipe de Ugarte, Información y Turismo-aren Gipuzkoako ordezkaria dan Francisco Javier Ortiz eta Manuel Lekuona Euskaltzain-buru jaunak mahaian direla hasi da biltzarra.

Araluze jaunak ongi-etorria emanaz eta euskera eta Euskaltzaindia-ren lana goratuaz egin ditu zenbait hitz, eta aditzera eman du Gobernadore Zibil jaunaren ezin etorria eta agurra.

Euskaltzainburua mintzatu da, bilduak agurtuaz, Euskaltzaindia-ren sorrera adieraziaz eta ondorean lehen gipuzkoar euskaltzaineri buruz izango diran hitzaldiak adieraziz.

Idazkariak irakurri du Euskaltzaindiaren lehen bileraren agiria. Eusko Ikaskuntza-koen deira egin zan lehen bilera hura eta bertako buru eta idazkari ziren Julián Elorza eta Angel de Apraiz jaunak izenpetua azaltzen zaigu agiri hau (Erderaz egin zan agiri bakar hau, ikusi diteke EUSKERA-ren lehenengo urteko lehen zenbakiaren 47/48 orrialdeetan, 1920).

Ondorean, sariak banatzea:

Caja Laboral Popular-ek jarritako 20.000 pezetako saria, «Koo-peratibismoa eta arrantzalearen eragintza» gaiez, Antonio Pérez Bilbao bermeoarrari. Donostiako Caja de Ahorros-ak jarritako «Xen-pelar» izeneko bertso paper sariak: Kalonje, J. Ayerbe, S. Salaberria eta J. Lete jauneri.

Hitzaldi laburrak:

Luis Mitxelena, Luis Eleizalde eta bere laneri buruz, bereziki harek euskeraren batasunari buruz zituen iritxieri, gaur oraindik gaurkotasuna gordetzen duten iritziak.

Anizeto Zugasti, Erramon Intzagarai jaunaren bizitza, histori-gintza eta euskaltzaletasunari buruz, bereziki hark erabiltzen zuen Donostiako euskera jatorraren bereizkuntzeri.

Luis Villasante, Sebero Altube-ren laneri buruz, eta batez ere hark ahozko euskerari ematen zion garrantziari buruz.

José Artetxe, Karmelo Etxegaray-ri buruz, bere gizontasuna eta historia eta euskeraren jakintza adieraziz.

1969 - X - 31

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko urriaren 31-an. goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, Irigaray, Labayen, Lafitte eta Villasante euskaltzainak, Barriola, Baztarrika, Beobide, Berrondo, Etxaniz, Fernández Setien, Garmendia (Juan), Garmendia (Salbador), Gereño, Lekuona (Juan M.^o), Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Epherre, Larzabal, Erkiaga eta Satrustegik ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Iraileko agiria onhartu da. Villasante jaunak argitzen du, bera-kin batean Mitxelena izendatu zela hilen izenak batasunerako hau-tatzeko eta bere izena bakarrik agertzen dela.

Ondorean, hilen izen bateratuari buruzko txostena irakurri du. Erderaz *junio* eta *setiembre* esan ohi diranetan bere zalantzak ager-tzen ditu, bi hile hoiek zenbait erataria esatetik aparte, zenbait tokitan beste hile batzuen izenekin nahasten dituztelako. Batzar-kideen artean aztertu dira izen hoiek eta azkenez honela erabagia gelditu da urteen hileri buruzkoa: Urtarrila, Otsaila, Martxoa, Api-rila, Maiatza, Ekaina, Uztaila, Abuztua, Iraila, Urria, Azaroa eta Abendua.

Lekuona euskaltzainburu jaunak joan beharra agertu du, baina alde baino lehen *Symposium*-ari buruz mintzatu da. Gauzak nola dauden eta gelditzen zaigun denbora laburra haintzat harturik, hel-du den urteko udaberrirako edo udarako uztea erabaki da, lasaiago

eta hobeto antolatu ahal izateko. Eta erabagia Príncipe de Viana elkargoari aditzera ematea erabaki da. Tokia, Nafarroako Ultzama ber-bera izango litzake.

Barriola jaunak Donostiako Lege Fakultadeari egin behar lezaiokean eskariari buruzko txosten bat irakurri du eta ontzat hartu da. Euskaltzaindiak gutun bat idatziko dio bertako zuzendariari euskeraren irakaskintza eskatuaz.

Haritschelhar jaunak, argitara berri duen *Le Poète souletin Pierre Topet-Etchahun* liburua eskeintzen du Euskaltzaindiko liburutegirako. Eskerrak ematea erabaki da.

M. Lekuona jauna aldentzen delarik, J. Haritschelhar jauna jartzen da buru, bere ordeiz.

Idazkariak Loidi jaunaren karta baten berri eman du. Autoz izan zuen ezbeharrez eri dagoanez azken batzarretara ezin izan dala etorri.

EUSKERA aldizkariaren egoerari buruz mintzatu da, bere argitaratzearen atzerapena ikusirik.

Onoma-ren zuzendari den Draye jaunaren karta, toponimiaren bibliografia gehigarrien eskerrak emanez. Idazkariak aditzera ematen du gai honetan-arduratuko den jaun bat bada Errenderian eta hemen-dik aurrerakoa bere esku-utzi ahal izango dela.

A. Plazido Mujika jaunak berriz ere *Latsibi* nobelaren eskuidaztiaren galdea egiten du.

Euskera egoeraren estudioari buruz, Siadeco, S. C. I.-ekoak Euskaltzaindiak hontaz hartu zuen erabagiaren argitasunak eskatzen ditu. Idazkariaren esku utzi da berari erantzutea.

Financiera Comercial del Libro-koen karta, esanaz, jakitun direla Azkue-ren *Hiztegia* Bilboko editorial batek anunziatzen duela, eta Euskaltzaindiak berekin lotu zuen kontratuak bere hamargarren partean eskatzen zuena bete beharrez erabagi zihur bat hartu behar dugula argitalpen berri hori galerazteko. Luze tratatu da gai hau, eta estudiatu ondorean ahobatez erabagi da hauzietara jotea eta behar diren indar guztiekin jokatzeko «La Gran Enciclopedia Vasca» Bilbokoak Euskaltzaindiaren baimenik gabe argitara dituen bere eta Azkue zanaren lan guztiak argitaratzea galerazteko.

Zeruko Argia-ren zuzendiritzako karta, eskatu zitzaion zuzentzaileari buruz zenbait argitasun eskatuaz. Ahoz eta idazkiz ematekotan gelditu gera.

Gipuzkoako Diputazioari eskerrak ematea erabagi da urre-ezteietako biltzar berezirako eman zigun laguntzagatik.

Diru lortzerako administrazio batzordea antolatzeari buruz mintzatu da. Lehenbizi programa zehatz bat antolatu beharra dago Euskaltzaindiaren erakunde osoarena, eta han barnean sartu diru lorketa antolatuko duena. Hontaz eskema bat gertatzea sekretaritzaren esku utzi da, datorren bilerarako zerbait aurreratua ekartzeko.

Ibon Sarasolak aditzera eman du euskera egoerari buruz Gaur-ek eman duen hasiera. Hilero edo hile bitik behin txosten bat ekartzekotan gelditu da, egiten ari direnari buruz.

1970-rako bertsolari txapelketa antolatzeko, lehendik batzordeko ziraneri jarraitu nahi duten galdeaz karta bana idaztea erabaki da. Eta, batzordea erdi berritzea erabaki da.

Haritschelhar jaunak aditzera ematen du Frantsiako Gobernuak Bordeleko Unibersidadean euskal irakaskintzarako alki bat sortu duela, gipuzkoar batentzat, *Lecteur* deritzen zaion mailan bi urtean euskerazko klaseak emateko. Eta, galdea egiten du nor joan litekean. Mugatik harat bizi diran zenbaiten izenak aipatu dira, bereziki Jabier Elozegi tolosarrarena, Bordelen bertan bizi delako. Urrengo batzarrerako zenbait izen ekartzea pentsatu da.

X. Gereño jaunak, urteko hilen izenen erara, asteko egunen izenen batasuna egitea eskatzen du.

Idazkariak, «Toribio Alzaga» antzerki sariaren berri eman du. Lau lan presentatu ziran, eta joan zen astearen azkenerako erabagi beharrez eta mahaiburuko bat herbestean arkitu, Labayen jauna, bere ordez Berrondok egin zuen eta gainerakoak Beobide eta Larzabal lehendik izendatuak ziren bezala. *Mendu zarrak* irezekoari eman zitzaion lehen saria. Plikatzat «Kemen»; egilea, A. Zubikaray.

Idazkariak, J. L. Lizundiak eta X. Peñak ahoz proposatuaren berri eman du: Billbon, Euskaltzaindiaren etxean, klaseak ematen diran gela konpondu beharra dagoela; presupuestoa 21.233,00 pezetakoa dela baina diru horren bilketa beren esku hartzen dutela.

Ontzat hartua izan da. Eta diru guztia biltzen ez badute ere, Euskaltzaindiak, gainerakoa bere gain hartzea erabaki da.

Haur-antzerki sariketara, lan bat bakarrik presentatu dalako, beste hilabete atzeratzea erabaki da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1969-XI-21

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko azaroaren 28-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Arrue, A. Intza-koa, Irigaray, Labayen Lanzabal eta Satrustegi euskaltzainak; Arenaza, Baztarrika, Beobide, Berrondo, Etxaide, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Lizundia, Onaindia, Zatarain, Zubikarai, Zugasti euskaltzain-laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Urriko agiria onhartu da. Zatarain jaunak aditzera ematen du, agirian zenbait huts daudela, batzuek gramatikazkoak. Behar bada presaka eginarenak izango direla, baina zuzen ateratzen ahalegindu behar dala.

Fernando de Ybarra Arriluze eta Ybarra-ko markesaren gutun bat irakurri da, Administración Local-eko zuzendari izendatu zelako zorionak emanez egin genion gutunagatik eskerrak emanez.

Pedro de Aristegui, Bizkaiko Diputazioko presidente berriarena, era berean eskerrak emanez eta euskaltzainak bere izenez agurtzeaz bat bere laguntza eskeini.

Basauriko juzgaduko ofizio bat «Maitane» izenari buruzko zehaztasunak eskatuaz.

X. Kintana euskaltzain-laguntzailearen karta, hilen izeneri buruzko argitasun batzuek emanez, bereziki Abuztua eta Azaroa-ri. Hauen ordezkari Agorri eta Hazila proposatuaz. Idazkariak aditzera ematen du, Villasantek presentatu zuen hilen lista hura, lehendabizi enquesta bidez egindako oinharritz hornitua zela eta gero Mitxelena

eta Villasante-ren artean orraztua. Eta hori gutxi balitz, Lafitte eta Mitxelena jaunak Euskaltzaindiaren eskariz egin zuten «Batasunerako Hiztegia»-n ere Abuztu eta Azaro agertzen direla eta, orain beste erabaki bat hartzea nahastea dala. Lehen proposatu bezala uztea erabaki da.

J. M. Etxaburuk beste karta bat hilen izeneri buruz, zenbait izen ez dituela ontzat hartzen esanez. Baina bakoitzaren iritzi soileri amor eman beharrez, batasuna egingo bada, hemen ere lehenbezala batasuneko hiztegiakoaren alde egitea esan da.

G. Aresti eta Lur Editorialak berek argitaratu dituzten liburuak ematen dituzte Euskaltzaindiaren liburutegirako: *Euskal Harria*, *Harri eta Herri*, Arestirenak; *Elsa Scheelen* José Luis Alvarez-ena, *Euskal Elerti* 69 idazle askoren bilduma, *Politikaren atarian* Rikardo Arregi-rena. Era berean, José María Satrustegi euskaltzainak, berak eratu eta argitara duen *Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos* (s. XIX) liburua. «Hegosa» argitaldariak bere argitalpenetarik beste hauek, *Egunetik egunera orduen gurpillean*, X. Lete-rena, *Euskal Idazleen Lorategia* K. Etxenagusia-rena eta *Jostatuz Mintzaira* ikas A. Méndez García-rena Euskaltzaindiko A. Irigaray-k euskeratua Berrondo, Garmendia, eta J. A. Irigaray-ren laguntzarekin. Yon Etxaidek *Etxahun gipuzkeraz* bere kontura egina. Euskaltzaindiaren liburutegia aberastera datozen eskeintza hauek oso pozik ikusten dira eta bijoaz guztientzat biltzarkideen eskerrik beroenak.

Espasa-Calpe, S. A.-ren karta jaso da, *Euskalerriaren Yakin-tza*-ren III-gn. tomoa berriro argitaratu duela aditzera emanez.

Kontu eman da, Donostiako Lege-Ikasgoari euskerazko klaseak jartzea eskatuaz eta Siadeco-ri euskeraren estudioa egitea zergatik eta zelan erabaki zen aditzera emanez kartak egin zaizkiela.

Santamariaren txartel bat, esanaz laster biltzekoa dela Omnium Cultural-ekoekin. Eta haiek eskatzen diotela Gaur, S. C. I.-ek argitaratutako *Así está la enseñanza primaria en Guipúzcoa* liburuaren ale bat eta ia Euskaltzaindiak bialdu ahal duen. Baietza erabaki da.

Bizkaiko ikastoletako andereño ta arduradunen alkarteak, hilean behin izaten dituzten bileretarako, Euskaltzaindiaren etxean toki eskaria egin dute. Arenaza jaunak argitasuna eskatzen du gauza honi buruz, ia ikastola guztietakoak ala batzuek bakarrik diran,

zeren Bizkaian badirela bi alkarte edo talde behintzat. Baina gauzak argituaz ikusi da, beste talde batekoeri ere, J. Berrojalbizen eskariz, lehenago tokiaren eskeintza egina dala. Tokia uztea erabaki da, idazkari-ordezkoaren edo naiz bulego lanetan dagoan neskaren ardurapean.

Euskaltzainburuak aditzera ematen du EUSKERA (XIII, 1968) aldizkaria argitaratu dala. Bere atzeratzea hain handia izan delarik, zerbait erabaki beharra egoala eta araudia oinharri hartuaz, Euskaltzaindiaren barne araudiak hirugarren kapituluaren 21-garren artikuluan dion bezala, batzorde baten esku utzi beharra dagoala. Villasante, Akesolo, Irigoyen eta beste laguntzailereren baten artean batzordea osatu eta lan ejekutiboa idazkari-ordezkoaren esku utzi. Ontzat hartu da.

1970-ean Synposiuna, naiz udaberrian edo naiz udaran egitea erabaki da, egunak hautatzea «Omnium Cultural»-ekoekin elkar-tzean erabaki eta tokia, lehen pentsa bezala Ultzama (Nafarroa).

1970.garrenearako bertsolari txapelketa eratzea. Idazkari-ordezkoak idatzi zien lehendik batzordeko izendatuak zireneri, eta orain arteko erantzunetan hau agertzen da: Satrustegi eta Zatarainek utzi nahi dute, Juan María Lekuona eta Juan San Martín antolatzaile bezala laguntzeko gertu daude, baina ez mahaiburuko egiteko, A. Arrue gertu dago naiz antolaketaarako naiz mahaibururako. Erantzun zihurrik eman ez dutenak, F. Artola, Irigoyen, Zavala eta Andrinua. P. Díez de Ulzurrun gertu dago Nafarroan laguntzeko. Arrue jaunak dio, 24.000 pezeta inguru daudela azken txapelketatik gelditu zan dirutik, eta kartillaren firma berak eta Zatarainek dutela, baina behar dan orduan eratzaileen eskuetara pasa ditekela.

Mahaiburua aurrerako utzirik, eratzaileen batzordea lehendabizi izendatzea erabaki da. Hortarako izen hauek eman dira: J. M. Lekuona, Arrue, Zavala, Juan Oñatibia, Jon Garmendia, Artola «Bordari», Basarri, Enbeita, Itzaina, Larre, Díez de Ulzurrun eta San Martín, batzordeko idazkari Lizundia dala.

Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritzarentzat Gasteizen bulegoa iriki dala aditzera eman da, bulego hau, Botella Altube jaunari eskerrak «Institución Sancho el Sabio»-ren etxean jarri da, hain zuzen ere erakunde hau «Caja de Ahorros de la Ciudad de Vitoria»-rena da. Botella Altube jauna eskertzea erabaki da.

Yon Etxaidek aditzera ematen du, *Etxahun gipuzkeraz* bere liburua,, Euskaltzaindiko guziera 225 pesetan eskeintzen diotela, liburu-dendetan 300 izango dana. Hortarako aski da naiz Euskaltzaindiari, naiz berari eskatzea. Bere zuzenbidea: Paseo de Colón, 33, 4.º, Donostia.

«T. Altzaga» izeneko haurrentzako antzerki sariketarako lanak jasotzeko epea urtearen azkenera arte luzatu da.

Laguntzaile berriak izendatzearen eskaria, sekretaritzaren proposamenduz Euskaltzaindiak bere lanak aurrera eramateko, batez ere talde lanetan, esate baterako Alfabetatze taldea, probintzietarako ordezkaritzarako lankideak, periodistak etabar, beharrezkoa duela hortarako jaun batzuek izendatzea. Eta hau kontuan arturik, hamabost izeneko zerrenda presentatzen da. Gehitxo dala erabaki da, eta erdiratu beharra. Erdiratze horretan inork bere izena atzera botatzea txartzat hartu ez dezan, oraingoz, sailik beharrenezkoenetakarako dau-denak hartzea pentsatua, gainerakoak urreragorako utziaz. Hautatutako sail hauek dira: Alfabetatze taldean ari direnk eta Nafarroa eta Arabako ordezkaritzak antolatzen lagunduko dutenak. Azkenik, jaun hauek izendatzen dire euskaltzain-laguntzaile: Alfabetatze taldearen aldetik, Begoña Arregi, Kepa Enbeita eta Serafin Basauri; Nafarroako Ordezkaritza eratzen laguntzeko, José Estornés Lasa eta Jorge Cortes Izal; eta Arabako ordezkaritzarako, Manu Ruiz Urres-tarazu eta Félix Martín Latorre.

Larzabal jaunak aditzera ematen du Baionan Euskaltzaindiaren ordezkaritzat bertako «Musée Basque» hartu genezakeala, Jean Haritschelhar eta Manex Pagolaren ardurapean.

Beobidek, Arantzazuko lanak argitaratzeko baimena, lehenago eman zitzaiona, berrizatzeko bere asmoak, zerek atzeratu zituanaren argitasunak ematen ditu. Orain gertu dagola imprimeriako beruna aprobeitxatuaz Euskaltzaindia beraren izenean argitaratzeko Euskaltzaindia egile danez, %-etik 10-ekoa gordeko diola eskubidetzat eta gainera inprimerian beruna kosta danaren erdia berak ordainduko duela. Batasunaren zabalkunderako eta gastuetan laguntzeko izango dala ikusirik, onhartu da.

Idazkariak, urrileko biltzarrean eskatu zitzaionez, diru ardura-dunen saila antolatzeko oinharrien txostena irakurri du. Sail bakoitzak antzerako eskema bat behar zukeala eta kargudun bakoitzari, eta

aurrerakoan izendatuko diranei, bakoitzari eskemaren orri bat eman bere egitekoaz jakin dezan. Ondo ikusi da eta probintziz antolatzeko izen hauek esan dira: Bizkaia: Oleaga, Merino Urrutia, Astiz, Irigoyen eta Erkiaga. Gipuzkoa: Arrue, Lojendio, Oregi, I. Beobide. Nafarroa: Satrustegi, Cortes Izal eta Diez de Ulzurrun.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1969 - XII - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1969-ko abenduaren 26-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Mitxelena, Satrustegi eta Villasante euskaltzainak; Arenaza, Beobide, Berrondo, Esnal, José Estornés, Etxaniz, F. Setien, Kintana, Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu, Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Azaroko agiria onhartu da. Azaroko agirian, diru arduradunen artean, Pedro Berrondo jauna aipatu gabe gelditu zen eta bere izena gehitu beharra azaltzen da. Irigoyen jaunak, bere gutunaren berririk ez zala eman, dio: ezin etorria adieraziaz eta Azkuen *Hiztegia*-gatik Euskaltzaindiak jarri nahi duen hauziari buruz ematen zuen eritzia.

Bigarrenari buruz, idazkariak agertzen du, lehenago ahobatez hartua zela hauzietara joteko erabakia, eta Irigoyen jaunaren gutunak legearen aldeko zehaztasunik ematen etzenez, aipatu gabe utzi zala.

Irigoyen jaunak, ondoren, aditzera ematen du legearen egoera: Edizio bat agerturik danean eta hamar urteren buruan eskubideak berriz erregistratzen ez badira egileen elkartean, eskubideak herriarengana (dominio público-ra), pasatzen direla, guk inoiz jabetasunik eman ez diogunez, aipatutako elkarte horretan, eta aspaldi agertua denez, eskubideak galduak ditugula noski. Eta, era berean beste zenbait zehaztasun gaineratu ditu.

Idazkariak aditzera ematen du, Azkueren *Hiztegiaren* bigarren tomoa agortu gabe agertzen dela, eta gainerako zenbait berdin, Eus-

kaltzaindiak beti izan dituela salgai. Gogorazten du nola Oleaga eta Lizundia jaunak Madrilera joan ziren, Sociedad General de Autores de España-ra, eta lan hoiien egoera agertu ondorean, abendu honen bukaerara arte lanak errejistratzeko anistia bat dagoenez, bai Azkue-renak edo gainerako euskerazko edozein idazle klasikorenak, euskeraren instituzio nagusia geran aldetik, nahi dugunean lortu genezakela gure jabetasuna Propiedad Intelectual-ean. Eta, bisita haren ondorean Sociedad General de Autores-ekin, era berean hartu zen karta irakurri du. Ondoren, aditzera ematen du, Azkue-ren *Hiztegia* eta gainerako lan nagusienak behar bezala errejistratuak direla. Bestalde, Azkueren hilburukoaren erdia behar bezala beretua duela Euskaltzaindiak notaria baten bidez, eta, gainera, *Morfología Vasca* Euskaltzaindiak beti izan duela berea, egilea Azkue bera izanarren.

Hau ikusi ordorean, berriz errebisatzen da hauzzietara joatearen gora-behera. Hiztegiak Financiera Comercial del Libro-rekin Euskaltzaindiak lotua duen kontratuaren hamargarren puntua irakurri da: «Euskaltzaindiak ez duela Azkue-ren *Hiztegiarik* argitaratuko eta ez inori baimenik emango, argitara dezan», dio. Bertan behera uztea, baimena ematea haina dala esan da; eta Financiera Comercial del Libro berarekin beste hauzi bat sortzea eta kontratua aldatu beharra. Gainera, biharko egunean beste edozein lanekin, argitaratzaileen aurrean gaizki agertuko ginakeala.

Bestalde, adierazi da, Retana jaunak zenbaiti agertu diola Euskaltzaindia-k eztuela «personalidad jurídica»-rik berak demostratuko duela. Hori ondo lotua dela, baina joku zikin horrez Euskaltzaindia desegin nahi duenez, gauzak okerragoak direla.

Eta berriz ere hauzzietara jo beharra dagoela erabaki da. Lan hoiek argitaratzen lagundu duten Euskaltzaindikoeri, Euskaltzaindiaren jabetasuna ez dutela ukatzen nagerreraziko zaie, idazkiz.

Batzuen eskariz, hauzia bitarte dagoen artean, Euskaltzaindiko guztiak «La Gran Enciclopedia Vasca»-ri laguntzak ukatzea esan da. Hontaz eritzi desbardinak agertu dira, gehien gehienak ukamen hori agertuarren. Botoetara jotea erabaki da, eta: 6-ik era guztietako kolaboraizoak ukatzea eskatzen dute, bitarte hauzia dan artean; 2-k ez dute boturik eman, ez alde ez kontra. Beraz, inork ezertan ez kolaboratzea erabakitzen da «La Gran Enciclopedia Vasca»-rekin, hauzia zuritu artean.

Aditzera ematen da, Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartea dalakoak «Andima Ibiñagabeitia Saria» jarri duela eta bere araudia igortzen digula.

Gráficas Ellacuria-tik hartu da 1968-ko EUSKERA tomoaren kontua: 1.000 alerena, 135.510,— peseta. Garesti dala esan da, eta aurrerako estudiatu beharra dagoela, bertan jarraitu edo beste inprimaria batera aldatu. Harpideduneri 100 pesetako salneurrian ematen zaenez gero, ongi litzaigukeala beren diruzko neurrian sartu ahal izatea.

Symposium-aren egoeraren berri eman du idazkariak. Barcelona-ko «Herri Hizkuntzen Idazkaritza, Informazio, Dokumentazio eta Bateratzerako» elkargoaren arduradun den Frederic Roda jaunak Santamaria jaunari aditzera eman dionez, bertan egiteko zen bilera atzeratua izan da, eta udaberrian edo udaran *Symposium* bilerak egitea bertan erabakitzeke da. Tokia, lehenago esan zan bezala, Nafarroako Ultzama izango da.

Ondoren, *Symposium*-erako gaiak aztertu dira, eta, gutxi gora behera hauek proposatzen dira: 1) Hizkuntza bakoitzaren egoera (Hizkuntza bakoitzaren ordezkariaren esku); 2) Gure hizkuntzak gaurko irakaskintza eta zabalkundearen barnean; 3) Gure hizkuntzak egungo lekeen aurrean; 4) Bilinguismoaren alderako kanpainak, Espainia guztian, eritziak sendatze alde; 5) Bilinguismoaren estudioak Europako zenbait erresumatan, eta heurak prolema hontan hartuak dituzten erabagiak; 6) Elkargo nagusiak eta beren babesa hizkuntzen alde (ONU, *Gizonen Eskubide-Agiria*, 1948, eta *Minorieri babesa*, 1967; Unesco, *Irakaskintzan guraso hizkuntza erabiltea*, 1953); eta, 7) *Eleiza eta hizkuntzen alderako babesa* (II-gn. Vatikanoko Bilzarra).

Gure aldetik *Symposium*-era eskeini ahal izango duguna, Gaur, S. C. I. dalakoak egina duen lana aprobetxaturik eta beren esperientzia gauza hauetarako aprobetxaturik asko aurreratu genezakeala esan da. Eta beraiekin bilera bat egitea erabaki da, urtarrilaren 30-ean.

1970-ean Euskaltzaindiak eratu behar dituen sariketen barnean daude: *Txomin Agirre* nobela saria, *Lizardi* olerkiena eta «Xenpe-lar» bertso-paperena. Hoiek diruz gehitu beharra agertu da. Bizkaiko Aurrezki Kutxari idazkiz eskaria egina dala baina berriz gogo-

ratuarazi beharra dagoela; eta bertatik ezer lortu ezik beste tokiren batetik beharko dala, sari hoiek txiki (diruz urri) gelditu direlako.

Beobidek adierazten du, «Hegosa» argitaldariaren izenean, 100.000 peseta saritan jartzeko gertu dagoela euskal aditzari buruz egiten dan lanik hoberenantzat. Epea, abuztuaren 30-era arte. Diru horretatik, 75.000 peseta lanik hoberenantzat izango dira, eta beste 25.000—, Euskaltzaindiak epaileen artean zabaltzeko. Epaileok, lehen sarituarekin eta gainerako lanik hoberenekin lan orokar bat osatu dezaten euskera batuari begira, aditzari dagokionez. Araudia-ren gora-behera guztiak denboraz zabalduko dituzte.

A. Irigoyen-ek ontzat ematen du bere izena bertsolari batzordean jarraitzeko.

Euskaltzain buruak ongi-etorria eman diote bertara agertu diren laguntzaile berrieri: José Estornés Lasa eta Manu Ruiz Urrestarazu jauneri.

Ruiz Urrestarazu jaunak txosten bat irakurri du, izeneri buruz.

Ondorean, euskerazko izen historikoak soilik harturik, hasteko, lista bat egin behar dala, izen bakoitzari urte eta dokumentu agiria emanaz. Idazkaria gelditu da lehen zerrenda berak gertatzekotan. Eibar-en bere adiskide bat egiten ari dana oinharri harturik.

Beobidek eskeintzen dio Euskaltzaindiari, argitara berri dan *Euskera-Batasuna* izeneko liburua, azaroan onhartu zan bezala, Euskaltzaindiaren pean, EUSKERA-ren XIII-gn. tomotik hartua.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

"HARTU DIREN LIBURUAK"

1968-1969 URTEETAN HARTU DITUGUN LIBURU ZERRENDA

AGUIRRE, José Antonio: *Así está la Enseñanza Primaria, hablan los maestros informa Gaur*. 334 orr., 27,5 × 21,5 zm., Gaur S.C.I. Donostia, 1969.

AIRE, Fernando (Xalbador): *Ezin bertzean*. 144 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa-85. Tolosa, 1969.

ALVAREZ, José Luis «Txillardegia»: *Elsa Scheelen* (1968.gn. urteko Domingo Agirre Sariaz Euskaltzaindiak hornitutako nobela). 248 orr. 19 × 12 zm. Kriselu - 6. Bilbao, 1969.

ARESTI, Gabriel: *Euskal Harria* (Agustín Ibarrolaren marrazkiak). 175 orr., 21,5 × 13,5 zm. Kriselu - 1. Bilbao, 1967.

ARESTI, Gabriel: *Harri eta Herri* (Bigarren argitalpena). 176 orr., 19 × 12 zm. Kriselu - 3. Bilbao, 1969.

ARREGI, Ricardo: *Politikaren atarian*, 148 orr., 18 × 12 zm. Hastapenak - 1. Lur Editoriala. Donostia, 1969.

ARRINDA ALBISU, Anastasio (Anes Lazkau'ko): *Juantxo-txiki*. 84 orr., 18,5 × 12,5 zm. Deba-Zarautz, 1969.

ARRINDA ALBISU, Anastasio (Anes Lazkau'ko): *Oto ta Pototo*, 134 orr., 18,5 × 12,5 zm. Deba-Zarautz, 1969.

Euskal Elerti 69 (Bilduma, G. Aresti-ren ardurapean). J. San Martin, X. Quintana, X. Garmendia, Saizarbitoria, Zumalabe, Santamaría, Eizmendi, G. Aresti, M. Intxausti Azurmendi, 551 orr., 18 × 12 zm. Kriselu - 7, 8, 9; Hasapenak - 2. Lur Editoriala. Bilbao-Donostia, 1969.

Euskera Batasuna (Azken araudiak). Euskaltzaindia, M. Lekuona, L. Mitxelena, L. Villasante. 77 orr., 18 × 15,5 zm. Euskaltzaindia - Irakur sail. Bilbao-Donostia, 1969.

ETXAIDE, Yon: *Alos-torrea* (Elezar berritua). S. Etxebarría-ren irudiekin. 106 orr., 18 × 12 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1950.

- ETXAIDE, Yon: *Purra! Purra!* 110 orr., 18 × 12 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1953.
- ETXAIDE, Yon: *Joanak-joan* (Piarres Topet Etxahun Barkoxtar koblakariari buruz egin eleberria). Euskaltzaindiaren eleberri-txapelketan 1955-gn. urtean lenengo saria jasotakoa. 279 orr., 19 × 12 zm. Kuliska Sorta 9, 10. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz 1955.
- ETXAIDE, Yon: *Amasei seme Euskalerriko*. Euskaltzaindiak 1956-gn. urtean saritutako biographi sailla. 172 orr., 19 × 12 zm. Kuliska Sorta - 19, 20. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1958.
- ETXAIDE, Yon: *Itxasoa laño dago...* (Pío Baroja-ren *Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezka*). Etxaidek euskerara emana). 270 orr., 19 × 12 zm. Kuliska Sorta - 29, 30. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1959.
- ETXAIDE ITHARTE, Yon: *Gorrotoa lege* (Oñaz-Ganbotarren gudueta girotutako eleberria). 1962 D. Agirre nobela-saria Euskaltzaindiak eratua. 384 orr. 18,5 × 12,5 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1964.
- ETXAIDE ITHARTE, Yon: *Etxahun'en bertsoak gipuzkeraz* (Jon Miranderen lan-kidetasunez). 358 orr., 24 × 17 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1969.
- ETXENAGUSIA, Karmelo: *Euskal Idazleen Lorategia* (itz lauz). 299 orr., 18 × 13 zm. Hegosa. Donostia, 1969.
- GERENO, Xabier: *Arantza artean*. 112 orr., 19 × 12 zm. Kuliska Sorta - 70. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1969.
- HARITSCHELHAR, Jean: *Le poète souletin Pierre Topet-Etxahun (1786-1862)*. Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle. 580 orr., 24 × 15,5 zm. Société des Amis du Musée Basque. Bayonne, 1969.
- ITURRIAGA, Agustín P. U.: *Ipuiak*. 274 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 71, 72. Tolosa, 1967.
- LETE, Xabier: *Egunetik egunera orduen gurrpilean*. 118 orr., 18 × 1,55 zm. Cinsa-Hegosa. Bilbao - Donostia, 1968.
- MATXAIN, Manuel: *Uste gabea*. 133 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 84 Tolosa 1969.
- MENDEZ GARCIA, Andrés - IRIGARAY, Angel: *Jostatur mintzaira ikas*. 111 orr., 25 × 19 zm. Herri-Gogoa, Anaya. Salamanca, 1969.
- MENDIZABAL, Fernando: *Euskaldunentzat gramatika euskeraz*. 305 orr., 21 × 15,5 zm. Editorial Aránzazu. Oñati, 1969.
- ONU: *Giza-Eskubidegai guzien aitorkizuna*. Edición catrilingüe, galega, castelan, catalá e vasca, dispuesta, preparada e coidada pola Agrupación Cultural O Facho, de Coruña. 60 orr., 18,5 × 12,5 zm. Editorial Moret. A Cruña, 1968.
- PAULO VI, Aita Santua: *Encíclica «Humanae Vitae»*, Giza biziaz. Intzar Damaso A. euskeratua. 15 orr., 20 × 9,5 zm. Grafinas. Iruña, 1968.
- SAN MARTIN, Juan: *Ubin berri* (1964-1969 bilduma). 177 orr., 205 × 15 zm. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia, 1969.
- SATRUSTEGI, José María: *Libro de cuentas de un Herrero de Valcarlos (s. XIX)*. (Separata de la revista Fontes Lingvae Vasconvm Stvdia et Documenta, n.º 2). 154 orr., 27 × 18 zm. Institución Príncipe de Viana. Pamplona, 1969.

- SLOVNIK SPISOVATELU. *Spanelsko portugalsko (Literatura, spanelska, portugalska, katalánská, galicijská baskická)*. (Liburu honen euskal literaturaren parte Norbert Tauer euskaltzain laguntzaile jaunak egina da). 427 orr., 19 × 10 zm. Odeon. Praha, 1968.
- VARIOS: *Bicentenario de la Fundación de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País (1765-1965)*. 271 orr., 21 × 15 zm. Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. Donostia, 1969.
- VILLASANTE, Luis: *Jesukristo. Kristau fedearen sustraiak*. 431 orr., 24 × 17 zm. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia, 1969.
- ZAVALA, Antonio: *Iru anai bertsolari* (Saiburuko Juan Jose, Nikolas eta Anjel Lujanbio). 144 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 73. Tolosa, 1968.
- ZAVALA, Antonio: *Errenteria'ko bertsolari zaarrak*. 287 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 74, 75. Tolosa, 1968.
- ZAVALA, Antonio: *Alza'ko bertsolari zaarrak*. 140 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 76. Tolosa, 1968.
- ZAVALA, Antonio: *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*. 298 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 77,78. Tolosa, 1968.
- ZAVALA, Antonio: *Lexo bertsolaria*. 392 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 79, 80, 81. Tolosa, 1968.
- ZAVALA, Antonio: *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905)*. 171 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 82. Tolosa, 1969.
- ZAVALA, Antonio: *Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak*. 138 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 83. Tolosa, 1969.
- ZAVALA, Antonio: *Franzisko Iturzaeta bertsolaria*. 244 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 86, 87. Tolosa, 1969.
- ZAVALA, Antonio: *Xenpelar bertsolaria*. 412 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 88, 89, 90. Tolosa, 1969.
- ZAVALA, Antonio: *Txapel bertsolaria (Eusebio Eizmendi, 1893-1969)*. 118 orr., 18 × 10,5 zm. Auspoa - 91. Tolosa, 1969.
- ZUBICARAY, Agustín de: *Motrico, apuntes, extractos y divagaciones*. 95 orr., 19,5 × 14 zm. San Sebastián, 1969.

(EGILE ETA ARGITARATZAILEEI OHARRA: *Lerro hauetan 1968 eta 1969-an hartu ziren liburuen agerpena egiten dugu. EUSKERA-ren ondorengo zenbakietan, era berean, hartzen direnen berri emanaz jarraituko dugu. Euskaltzaindiaren liburutegia euskal linguistika eta euskal literaturaren biblioteka berezia izan dadila nahi genuke, naiz eta euskal kulturaren beste sail batzuk ere ontzat hartu. Baina, abalik osatuena izateko, zuen laguntza beharra dugu eta argitara ematen duzuten liburuetatik bidali ale bat bederen. Eskertuko dizuegu guztiona den Euskaltzaindiko biblioteka aberasten laguntzearen, eta sail honen bidez irakurleai ezaqutzera emango diogu, zuen liburuaren zabalakunderako. Aldez aurretik eskerrikasko.—Idazkaritzak.)*

Euskaltzainen izendegia

Euskaltzain nahiz oso, nahiz ohorezko, nahiz laguntzaile izan direnen izendegia osatu nahi izan dugu urrezko eztaien urtemuga dela eta. Bi zatitan berezia doa: 1 Gerra aurreko aldia (1918-1936). 2 Gerra ondoko aldia.

1. GERRA AURREKO ALDIA

(1918-1936)

«Euskera» aldizkariaren hamasei tomoetan (1920-1935) datozen izen zerrenda eta batzar-lagiritatik osatua da izendegi hau.

Adigarri batzuen esanahia:

- I Euskaltzain oso (académico de número).
- II Euskaltzain ohorezko edo deduzko (académico honorario).
- III Euskaltzain laguntzaile edo urgazle (académico correspondiente).

Urtemugak, jaun bakoitzaren izendapena noizko batzar-agiritan edo izen zerrendatan azaltzen den, adierazten du; edo noiz hautatua izan zen jaun hori ere bai.

Hautatuak izan zirenak eta onartu ez zutenak edo beren kargua utzi zutenak ere aipatzen dira, beren ukoaren berri ematen delarik.

- Adéma J. Blaise I (1919). Ez zuen onartu.
Adéma J. Blaise III (1919). Ez zuen onartu.
Agerre José I (1919). Kargua utzi egin zuen (1920).
Agerre José III (1934).
Agirre Domingo I (1919).
Altube Severo III (1919).
Altube Severo I (1920).
Alzaga Toribio III (1920).
Apraiz Odón III (1919).
Arburua Teodoro III (1919).
Arriandiaga Manuel III (1919).
Arrigarai III (1921).
Azkue José III (1930).
Azkue Resurrección M.^a I (1918).
Bähr Gerhard III (1922).
Barandiarán José Miguel III (1928).
Belaustegigoitia Federico III (1919).
Broussain Pierre I (1919).
Bustintza Evaristo III (1919). Ez zuen onartu.
Campión Arturo I (1918).
Caparros Celestino de III (1919).
Castro Américo III (1930).
Cincunegui José III (1919).
Comt. de Marien III (1930).
Constantin Jean Bte. III (1919).
Daranatz Jean Bte. III (1919).
Dassance Louis III (1930).
Dogson Edward-Spencer III (1919).
Donostia José Antonio de III (1932).
Dourisboure Pierre III (1919).
Echalar Eusebio de III (1919).
Echavarri Luis González III (1919).
Eguzkitza Juan Bta. I (1919).
Eleizalde Luis de I (1918).
Elgezabal Cosme III (1922).
Elissalde Jean III (1920).

- Elissalde Jean I (1930).
Errazti José M.^a III (1919).
Etchepare Jean III (1919).
Etxegarai Bonifacio I (1926).
Etxegarai Carmelo III (1919).
Etxegarai Carmelo I (1923).
Eyheramendy III (1931).
Galartza Aureliano III (1928) (?).
Garitaonaindia Víctor III (1925).
Gavel Henri III (1919).
Gavel Henri II (1933).
Guerra Juan Carlos III (1925).
Gorostiaga Juan III (1932).
Héguy Julien III (1919).
Ibarguchi Juan Cruz III (1919).
Intxaurren Migel III (1927).
Intza Dámaso de I (1920).
Intzagarai Ramón I (1919).
Iraizoz Policarpo III (1930).
Irigaray Fermín III (1919).
Irigaray Angel III (1929).
Irigoyen III (1923).
Jud J. III (1930).
Lacombe Georges III (1919). Ez zuen onartu.
Lacombe Georges I (1920).
Lafitte Pierre III (1928).
Lardizabal Pedro III (1919).
Larrasquet J. III (1928).
Larreta Juan Bta. III (1919).
Larrieu Félix III (1919).
Landerretche Martin I (1919).
Lecuona Manuel III (1919).
Léon Albert III (1919).
Lhande Pierre I (1919).
Lieshonain III (1921).
Linschmann Ed III (1919).

Manterola Gabriel III (1919).
Menditte Justin de III (1919).
Mendizábal Isaac López de III (1919).
Menéndez Pidal Ramón III (1919).
Moix III (1923).
Moulier Jules III (1930).
Mújica Gregorio de III (1919).
Olabide Ramón de I (1919).
Oleaga Nazario de III (1919).
Orabe III (1923).
Orcaiztegui Patricio II (1919). Ez zuen onartu.
Ormaechea Nicolás III (1919).
Rollo William III (1925).
St. Jayme Frederic de III (1919).
Saint-Pierre Jean III (1919).
Saroïhandy J. III (1919).
Schuchardt Hugo II (1919).
Soloeta III (1920).
Uhlenbeck C. C. II (1919).
Urquijo Julio de I (1918).
Urtel Hermann III (1919).
Urresti III (1923).
Urriolabeitia Amancio III (1919).
Urruztoy Jean III (1919).
Urruzuno Pedro Miguel III (1919).
Vinson Julien II (1919).
Winkler Heinrich III (1919).
Zamarripa Pablo III (1919).

EUSKALTZAIN OSOAK

<i>Izenak</i>	<i>Izendapena noiz</i>
Antonio Arrue	1954
José Miguel Barandiarán	1953
Louis Dassance	1953
P. Jean Diharce «Iratzeder»	1963
Guillaume Eppherre	1953
Eusebio Erquiaga	1953
Juan Gorostiaga	1963
Jean Haritschelhar	1963
Aingeru Irigaray	1941
Alfonso Irigoyen	1963
Federico Krutwig	1947
Antonio M. ^a Labayen	1964
Pierre Lafitte	1953
Miguel Olasagarre «A. Intza»	1920
René Lafon	1953
Pierre Larzabal	1963
Manuel Lecuona	1950
José María Lojendio	1954
Luis Michelena	1953
Juan San Martín	1964
José María Satrustegui	1963
Luis Villasante	1952
R. P. Policarpo Iraizoz	1968
Antonio Zavala	1964

EUSKALTZAIN OHOREZKOAK

<i>Izenak</i>	<i>Izendapena noiz</i>
Isaac López-Mendizábal	1957
Gabriel Manterola	1968
Odón de Apraiz	1968

EUSKALTZAIN HILAK

<i>Izenak</i>		<i>Izendapena noiz</i>
Ignacio María Echaide	1942	(1884-1962)
Bonifacio Echeagaray	1953	(1878-1956)
J. B. Elissalde	1953	(1883-1961)
Juan Irigoyen	1941	
Pierre Lhande	1953	(1877-1957)
Mr. L'Abbé Julés Moulher	1953	
Nicolás Ormaechea	1957	(1888-1961)
Juan Miguel Seminario Rojas	1953	(19...-1968)
Juan Cruz Ibarguchi	1919	(1883-1969)
Ramón Menéndez Pidal	1919	
José Agerre	1953	
Vicente Amézaga	1957	(1901-1969)
Sanveur Arotçarena	1953	(1892-1966)
Ricardo Arregui	1964	
Miguel Arruza	1953	(1890-1966)
Jean Ithurriague		(1896-1960)
Cirilo Arzubiaga	1960	(1874-1966)
Julián Barandiarán	1956	(1904-1967)
Américo Castro	1953	
María Paz Ciganda		(1...-1967)
José Cincunegui	1953	(1886-1964)
J Baptiste Constantin	1953	(1847-1922)
Dominique Dufain	1953	
Pierre Duhour	1965	(1890-1968)
Toribio Echevarria	1965	(1887-1968)
Eladio Esparza	1941	(1888-1961)
Blas de Goenaga	1953	(1897-1966)
Bernardo M. ^a Garro	1953	(1891-1960)
Andima Ibiñagabeitia	1961	(1907-1967)
Luis Jauregui	1966	
Ignacio Larramendi	1953	
Jean Larrasquet	1953	
Albert Ieón	1953	
Léon Léon	1953	
Gregorio Maidagan	1941	(1891-1961)
Ignacio M. ^a Mancisidor		(1907-1961)
Salvador Michelena	1953	(1918-1965)
R. P. Felipe de Murieta	1961	
José Olaizola	1965	(1883-1969)
Martín Oyarzabal		(1892-1966)
Vicente Saralegui	1953	(18...-1966)
Dominique Soubelet	1953	(1897-1970)
André Tournier		(1890-1965)

Antonio Valverde	1961	(1915-1970)
José Vallejo	1948	(1896-1969)
Pedro Zabala	1953	(1889-1956)
José Gonzalo Zulaica	1953	(1886-1956)

EUSKALTZAIN LAGUNTZAILE EDO URGAZLEAK

*Izenak**Izendapena noiz*

Jesús Atxa	1967
María Dolores Agirre	1957
Eugenio Agirretxe	1957
Francisco Altuna	1965
José L. Alvarez	1957
Nicolás Alzola	1957
Jacques Allières	1962
Javier Amuriza	1967
Agustín Anabitarte	1959
Pierre Andiazabal	1961
Marcelo Andrinua	1961
Lino Aquesolo	1963
José Antonio Arcocha	1965
Jesús M.ª Arenaza	1957
Gabriel Aresti	1957
José Arteche	1962
Fernando Artola	1961
Begoña Arregui	1969
Francisca Arregui	1967
José M.ª Azpíroz	1958
Miguel Angel Astiz	1958
Juliana de Azpeitia	1964
José Azurmendi	1965
Salvador Barandiarán	1961
Ignacio Barriola	1965
Serafín Basauri	1969
Isidoro Bastarrica	1964
José Basterrechea	1964
Alesandro Bausani	1948
Juan José Beloqui	1965
Iñaki Beobide	1965
Imanol Berriatua	1961
Antonio Berroeta	1957
Juliana Berrojalbiz	1967
Pedro Berrondo	1967
M.ª Milagros Bidegain	1967

Antonio Bilbao	1965
Félix Bilbao	1965
Pierre Bordacarre	1967
Karl Bouda	1953
Joseph Camino	1961
Julio Caro Baroja	1948
Jacinto Carrasquedo	1966
Manuel Ciarso	1965
Jorge Cortés Izal	1969
Jean Curutchet	1965
Jean Chabagno	1957
Pierre Charritton	1963
Jean Louis Davant	1965
Pedro Díez de Ulzurrun, apaiza	1957
Pedro Díez de Ulzurrun, medikua	1957
Jean Baptista Dirassar	1958
Pierre Duny Petré	1962
José M.ª Echaburu	1966
Jon Echaide	1957
Nemesio Echaniz	1955
R. P. Aurelio de Echarri-Aranaz	1957
José Echeandía	1961
Carmelo Echenagusia	1965
Juan Angel Echevarria	1966
Francisco Echevarria	1957
Peter Echeverria	1959
Ignacio Eizmendi	1961
Jesús Elósegui	1965
Kepa Enbeita	1969
Karmeale Esnal	1967
Bernardo Estornés	1966
José Estornés	1969
Eñaut Etchamendi	1966
Jacques Etcheverry	1965
Jean Baptista Etcheverry	1966
R. P. Etchehandi	1964
Abbe Eyheramendi	1953
Patrick J. Farrell	1966
Jacinto Fernández	1967
Victoriano Gandiaga	1964
Justo Gárate	1960
Marcelino Garde	1964
Juan Garmendia	1965
Salvador Garmendia	1965
Xabier Gereño	1965
Angel Goenaga	1965
Juan Goicoechea Maiza	1965
Ignacio Goicoechea	1965

Pierre Guilsou	1953
Marcelin Heguiaphal	1957
Jean Hiriart-Urruty	1955
Nils M. Holmer	1957
Mariano Iceta	1961
Rogert Idiart	1966
Arantza Idiazabal	1967
Joseba Inchausti	1961
José M. ^a Iribarren	1955
Michel Itçaina	1967
Madeleine de Jaureguiberry	1957
Michel Labeguerie	1960
Antoinette Lacarra	1967
R. P. Ignacio Larrañaga	1957
Emilio Larre	1967
Mikel Lasá	1969
José Manuel Lasarte	1964
Juan María Lecuona	1962
Gabriel Lerchundi	1962
Xabier Lete	1966
José Luis Lizundia	1966
José Antonio Loidi	1957
Gerardo López de Guereñu	1964
Félix Martín	1969
Fernando Mendizabal	1964
José Juan Bautista	1964
José Juan Bautista Merino Urrutia	1964
Jon Mirande	1957
Justo M. ^a Mocoroa	1957
Telesforo Monzón	1966
Luis M. ^a Mugica	1965
Plácido Múgica	1957
Jean Narbais	1959
Pierre Narbais	1953
Jesús Oleaga	1965
Ignacio Omaechevarria	1957
Santiago Onaindia	1957
Juan Oñatibia	1966
Josu Arregui	1965
Dominique Peillen	1961
Javier Peña	1960
Jaime Querejeta	1964
Francisco Javier Quintana	1966
Rudolf de Rijk	1965
Manu Ruiz Urrestarazu	1969
Claudio Sagarzazu	1966
Ramón Saizarbitoria	1966
Etienne Salaberry	1957

Carlos Santamaría	1964
Ibon Sarasola	1966
Manuel de la Sota	1957
Norbert Tauer	1957
Juan Thalamás	1957
Francisco Tirapu	1961
Antonio Tovar	1948
Miguel Javier Urmeneta	1966
Ignacio Urquijo	1957
Thomas Uthurry	1961
Pedro Irizar	1953
Joaquín Zaitegui	1953
Gabriel Zapirain	1965
Ambrosio Zatarain	1964
Agustín Zubicaray	1961
Aniceto Zugasti	1957

AURKIBIDEA 1971

URRE EZTIAK — BODAS DE ORO

Luis Villasante, euskaltzainbudua.—Urre eztaietako zituak	5
Idazkariak.—Urre eztaien kronika	9
Acta de la primera sesión de la Academia	15
Euskaltzaindiak hiriburuetan egin zituen bileretako hitzaldiak	17
Don Manuel Lekuonaren hitzaldia Iruinean	17
Reunión de las entidades asistentes a las bodas de oro de la Academia	23
Aita Iratzederen hitzaldia Baionan	27
Dassance jaunaren hitzaldia Baionan	31
Resumen de la disertación de D. Gabriel Aresti sobre la figura de Barrutia, en Vitoria	34
Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri, en Vitoria	35
Don Manuel Lekuonaren hitzaldia Bilbon	48
Disertación de Don Juan Ramón de Urquijo, en Bilbao	53
Erkiaga jaunaren hitzaldia Bilbon	64
Don Manuel Lekuonaren hitzaldia Donostian	72
Mixelena jaunaren hitzen laburpena, Eleizalde	73
A. Villasanteren hitzaldia, Altubez	77
José Antonio Arana jaunak, Altuberi buruz egindako bibliografia	83
Artetxe jaunaren hitzaldia Karmelo Etxegaraiz	85
Zugasti jaunaren hitzaldia Intzagaraiz	90
Carta del miembro de honor Don Ramón Menéndez Pidal, con motivo del cin- cuentenario	98

ARANTZAZUKO AGIRIA

Arantzazuko Agiria	99
Traducción al castellano del acuerdo de Aránzazu	100

HILABETEEN IZENENA

Euskaltzaindiko enketen artean enketak (J. L. Lizundia)	103
Euskaltzaindiak eskaturiko txostena, A. Villasantek eginak	104
Euskaltzaindiaren erabakia	107

ESCRITO AL EXCMO. SR. MINISTRO DE EDUCACION Y CIENCIA, SO- BRE EL LIBRO BLANCO	109
--	-----

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

Euskaltzaindiaren agiriak.—Sarrera	113
Maulen, kargua aldatzeak eta egindako hitzaldiak	114
Don Manuel Lekuona, euskaltzainburu zaharren hitzak	114
A. Luis Villasante, euskaltzainburu berriaren hitzak	115
Euskaltzaindiaren egituraz	123
Euskaltzaindiaren Araudia berritzeko batzordea	127
Iruineko Symposium-a eratzeke batzordea	128
Etxegintzako hiztegia prestatzeko batzordea	129
Euskaltzaindiak Donostian duen ordezkartza hornitzeaz	129
Aditz batzordea	130
Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoa	131
«Andima Ibinagabeitia Saria» eman zeneko hitzaldia	132
«Euskera» aldizkaria gaurkotzeaz	135
Hileroko batzar eguna hobekiago aprobetxatzeaz	139
<i>Idatz arauak</i> I Idatz arauak estudiantzeko batzordea	143
II Idatzarauetazko Batzordeak prestatutako lehen txostena Batzarreari aurkeztean	146
III Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri	150
VI Idatzarauetako Batzordeak prestatutako bigarren txostena Ba- tzarreari aurkeztean	153
V Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrezki eta atzizkiak	156
Batzordeen organigrama	160

LITERATURA SARIKETA

Bizkaiko Aurrezki Kutxak emandako laguntzaz jarritako literatura sariketa ... 161

Concurso de Literatura patrocinado por la Caja de Ahorros Vizcaína 162

BATZAR AGIRIAK 1968-1969 163

HARTU DIREN LIBURUAK 243

EUSKALTZAINEN IZENDEGIA 247